

2016-2020 PROGRAMA

   eaj-pnv.eus

ERAIKI EUSKADI MIRA AL FUTURO

 URKULLU LEHENDAKARI

 eaj
pnv

EDUKIA

A. ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA IZANGO DUEN HAZKUNDE IRAUNKOR BATEN ALDE

1. ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETIA	8
2. INDUSTRIA LEHIAKORRAGOIA	14
3. EKINTZAILTZARI LAGUNTZA	26
4. I+G+b ETA "RIS 3 EUSKADI" ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA	32
5. EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA	40
6. TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA	46
7. TURISMOA ETA OSTALARITZA	52
8. LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA	60
9. GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA	72
10. FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA	78
11. ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA	84
12. GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	90
13. LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA	98
14. INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA	102
15. GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK	108

B. GIZARTE OREKA HANDIAGO IZANGO DUEN GIZA GARAPEN BATEN ALDE

16. OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO	112
17. INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA	122
18. EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA	132
19. KULTURA	140
20. GAZTERIA ETA KIROLA	148
21. ETXEBIZITZA	156
22. FAMILIA POLITIKA	162
23. ADINEKOAK	168
24. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPECTUA: AUKERAREN LEIHOA	176
25. BEHARTSUEI LAGUNTZEA	182
26. GARAPENERAKO LANKIDETZA	190
27. GENERO BERDINTASUNA	196
28. SEGURTASUNA	202
29. JUSTIZIA ERAGINKORRA	210
30. BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEA	216

C. AUTOGOBERNU ZABALAGOIA IZANGO DUEN EUSKADI BATEN ALDE

31. LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA	224
--	-----



178
KONPROMISO



538
EKINBIDE



1.830
JARDUERA

31 JARDUERA ARLO / I. HAZKUNDE IRAUNKORRAGOA

ARLO ESTRATEGIKOAK	KONPROMISOAK	EKINBIDEAK	JARDUERAK
1. ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBEKOA	6	11	48
2. INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA	10	38	134
3. EKINTZAILETZARI LAGUNTZA	5	11	31
4. I+G+b ETA "RIS 3 EUSKADI" ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA	5	19	65
5. EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA	3	12	56
6. TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA	5	20	44
7. TURISMOA ETA OSTALARITZA	6	31	49
8. LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA	12	37	118
9. GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA	4	7	34
10. FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSU	6	6	25
11. ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA	5	15	45
12. GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	8	25	61
13. LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA	5	8	34
14. INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA	6	20	68
15. GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK	3	8	27

II. GARAPEN GIZATIARRAGOA

ARLO ESTRATEGIKOAK	KONPROMISOAK	EKINBIDEAK	JARDUERAK
16. OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO	8	36	135
17. INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA	8	29	98
18. EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA	4	11	60
19. KULTURA	7	20	82
20. GAZTERIA ETA KIROLA	7	22	80
21. ETXEBIZITZA	5	6	39
22. FAMILIA POLITIKA	3	12	49
23. ADINEKOAK	3	12	63
24. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPECTUA: AUKERAREN LEIHOA	2	8	30
25. BEHARTSUEI LAGUNTZEA	5	14	80
26. GARAPENERAKO LANKIDETZA	4	11	44
27. GENERO BERDINTASUNA	4	7	38
28. SEGURTASUNA	10	25	65
29. JUSTIZIA ERAGINKORRA	7	15	44
30. BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEA	9	26	41

III. EUSKADI + AUTOGOBERNUA

31. LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA	3	16	43
TOTAL	178	538	1830



1. ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETIA

ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETAKO

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJrentzat enplegua bere jarduera politikoen oinarritzko ardatza denez, enplegu gehiago eta kalitate hobekoa sortu eta mantentzea zuzeneko helburu duten politika ekonomiko eta sozialak lehenestera konprometitzen gara. Gure konpromisoa datorren legegaldian langabezia % 10en azpitik murriztea da.
- Pertsonak gizartean garatzeko eta erlazionatzeko funtsezko tresna da enplegua, eta enplegua lortzea eta enpleguaren kalitatea hezkuntza eta formakuntza politikekin sendo lotuta daude. Funtsezkoa da etengabeko ikaskuntzaren aldeko apustua egitea enplegarritasuna eta garapen pertsonala bultzatzeko bide gisa. Pertsona kualifikatuak eta gaituak izatea eta lan bizi guztian lanbidean garatzea bermerik onena da gero eta gehiago eskatzen duen eta aldakorra den lan merkatuan hobeto egokitzea.
- Benetako enplegu-sortzaileak enpresak dira. Administrazio publikoei dagokie, alde batetik, enpresen jarduera eta, bestetik, lanpostu berriak sortzea bultzatzeko lege esparruak eta kondizio publikoak garatzea, eta, bestetik, enplegua lortzeko aukera berdintasuna bermatzea eta langabezian kronifikatzeko arrisku egoerak saihestea.
- Politika publiko horiek garatzeak Euskadiren garapen ekonomikoan eta lehiakortasunean eragiten duten politika guztiak eta enplegu politikak batera eta modu harmoniatsuan uztartzea eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu politika aktibo eta pasiboen arloko esku-men guztiak edukitzea. EAJk Estatutua betetzea errebindikatzen du Euskadin gure behar eta lehentasunei erantzuneko dien enplegu esparru bat osatzeko, eta Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketarako baliabideak izateko, Gernikako Estatutuan jaso ziren moduan.
- EAJren iritziz enplegu politika aktiboak erabakigarriak dira enpleguari mesede egiten dion esparru honetan, bitartekaritza lana egoki eginaz zuzen kontratatzea bermatu behar da ekitatezko egoeran eta kalitatezko prestakuntza eskaintza eskaini behar da, sektore ekoizleentzako eta pertsonen beharrei erantzuneko diona.
- Enplegu politikek, era berean, langileen eta enpresen arteko oreka ekarriko duen esparru bat lortzera jo behar dute, gizarte-eragileen artean etengabeko elkarrizketa eta negoziazio esparru bat sendotu behar dute, eta Lan Harremanen Euskal Sistema indartu.
- EAJren ustez lan administrazioak bere egitekoa garatu behar du, hau da, lan baldintzak zuzen aplikatzea erraztu behar du, ikuskatzailez eta aholkularitzaz baliatuaz eta lan araudia zuzen bete eta garatzeko behar diren formulak erakutsiaz, bereziki enpresa txiki eta ertainetan.
- Gure gizartearen etorkizunak geure gazteak lan merkatuan sartzea arreta bereziz hartzea eskatzen du, gazteak lan munduan txertatzea bultzatzeko ez ezik, beren garapen pertsonal eta profesionalari bidea irekiko dion bizitza egonkortasunerako aukerak emateko ere bai. Halaber, emakumeen lan munduratzeko osoa bultzatu behar da, hori guztia lana eta familia uztartzea errazteko neurrien sustapen esparru batean.
- EAJren iritziz, gizarte kohesioak, Euskadin, gizarte egoera ahulenean eta enplegutik urrunduta dauden pertsona taldeak euskal lan merkatuan txertatzeari positiboki mesede egingo dioten politika publikoak behar ditu, hain zuzen desgaitasunak dituztenak, 45 urte baino gehiagokoak eta iraupen luzeko langabeak lan merkaturatzeko. Hori guztia, gainera, eduki daukagun gizarte-babes sistema aurreratuan bermatuta.

Gure konpromisoa langabezia % 10en azpitik murriztea da.

ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETZEA

» 1.1 KONPROMISOA

LAN AKTIBAZIOA BULTZATU ETA LANERATZEA ETA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETU

<p>1.1.1 Ekinbidea Gazteak hezkuntzatik enplegura igarotzea eta lana lortzea erraztu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal unibertsitate sistemarekin eta lanbide heziketako eskolekin lankidetzan, gazteek beren prestakuntza aldia amaitzen dutenean esperientzia praktikoen bidez hezkuntza mundutik lan mundura igarotzeari bide emango dion berariazko programa bat abiaraztea. • Lehen Aukera bezalako programen bidez, gure gazteei zuzenduta, lanean hasteko aukerak eta laneko garapen eta garapen pertsonaleko aukerak bultzatzea. • Hezkuntzatik enplegurako igarotzea hobetzea, prestakuntza dualaren esperientziak hezkuntzaren sektore gehiagotara eta etapa gehiagotara hedatuaz, Unibertsitatera ere bai. • Enplegutik erretirorako igarotzea hobetzea, gazteek lana lortzea bideratuko duen belaunaldi aldaketarako prozesu planifikatu eta antolatua erantsen dituzten enpresetan adinaren kudeaketa aldakorreko estrategiak hartzea kontuan hartuta.
<p>1.1.2 Ekinbidea Lan aukerak erraztu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen beharrei (adibidez, eraikin bakunak eta hondatutako eremuak beren onera ekartzeko) eta eskualdea den potentzial endogenoaren garapen aukerei lotutako proiektuak finantzatzen dituzten Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planak bultzatzea. • Gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsonen zuzendutako bereizketa positiboko programak, baina prestakuntza eta kontratazioa konbinatuko dituztenak eta merkatu arruntean sartzeko laguntasun pertsonalizatua kontuan hartuko dutenak. • Krisiak bereziki eragin dien sektore ekonomikoetarako, talde jakin batzuentzat eta langabeziak eta jarduera industrialak bereziki eragin dien eskualdeetarako laneratzeko-birlaneratzeko prozesu egokituak abiaraztea, lankidetzara publiko-pribatuaren posibilitatea kontuan hartuta. • Lan eta familia bizitza uztartzeko neurriak ezarri eta sustatzea. • Iraupen luzeko langabeei eta lan munduan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten beste multzo eta talde batzuei zuzendutako kontratazio-pizgarriak eta enplegu aukerak sustatzea. • Euskal enpresen Enpresaburuaren Gizarte Erantzukizuneko estrategia eta jokabideen barruan "enplegu" dimentsioa garatzea.
<p>1.1.3 Ekinbidea Talentua atxikitzea, itzularaztea eta erakartzera jo</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lana lortzeko eta lanbidea garatzeko aukerak eskainiaz, talentua atxikitzea. • Talentua itzultzeko berariazko laguntza programa bat garatzea. • Talentua erakartzeko programak, bereziki ikerketarako eta ekintzailetzarako talentua. • Kontratazioaren kalitatea sustatzea, nahi ez den partzialtasuna gutxitzeko eta lanaren egonkortasuna hobetzeko.
<p>1.1.4 Ekinbidea Laneko segurtasuna eta osasun etengabe hobetzen jarraitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lan giro osasungarriak sortu eta sustatzea. • Lan baldintzak hobetuz laneko arriskuen kudeaketa sustatzea, laneko arriskuen prebentzioaren eginkizunetan inplikazioaren eta jokaera arduratsuaren balioak enpresetan eta langileengan bultzaturik. • Lanean kateei aurrea hartzeko eta osasunaren hobekuntza sustatzeko behar den ezagutza zabaltzea, bereziki enpresa txikietan, administrazio publikoak arloan duen lidergoa bere antolakundeetan prebentzioa garatzearen bidez erakutsiaz. • Lan araudia eta laneko arriskuen prebentziokoa zuzen betetzeko aholkularitza eta zaintza lana bete-betean gauzatzea. • Prebentzio behar espezifikoak dituzten talde eta sektoreen beharrei zuzendutako ekinbide berriak martxan jartzea.

ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETKOA

» 1.2 KONPROMISOA

EUSKAL ENPLEGU SISTEMA ERAGINKOR ETA EFIZIENTE BAT ETA SUSTAPEN EKONOMIKOKO ETA HEZKUNTZAKO POLITIKEKIN GUZTIZ KOORDINATUTAKO ENPLEGU POLITIKA BAT GARATU

<p>1.2.1 Ekinbidea</p> <p>Lanbideren zerbitzuak modu integralean hobetu, enprekin duen harremanean eta lan munduratzeko laguntasun pertsonalizatua emateko duen funtzioan aurrera eginaz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresei eta pertsoneri balioko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzera orientaturiko enplegu zerbitzu publiko gisa Lanbide osorik hobetzea eta sendotzea. • Enpresei zuzendutako zerbitzuak garatzea, epe laburreko (kontratazio beharrak) eta epe ertaineko (oraingo pertsonalaren prestakuntza eta birkualifikazio beharrak eta etorkizunerako behar diren profil profesionalak) beharrak kontuan hartuta eta, gainera, gure ekoizpen ehunean lehia hobetzeko beste behar batzuk identifikatzeko leihatila modura jokatuaz. • Pertsonen orientazioaren eta laguntasunaren espezializazioan aurreratzea. • Lanbideren sareko lana indartzea.
<p>1.2.2 Ekinbidea</p> <p>Enplegu zerbitzu eta programak ebaluatzen eta beharrak iragartzen hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta prestakuntza joerak, aukerak eta beharrak ahalik eta goizen detektatzeko behatoki bat ezartzea. • Enpleguari lotutako zerbitzu eta programen ebaluazioa hobetzea, zerbitzu eta programa horien eraginaz, gogobetetzeaz eta eraginkortasun eta efizientiaz ezagutza eta informazioa eduki ahal izatearren ebaluazioaren irismena zabalduaz.

» 1.3 KONPROMISOA

GURE EKOIZPEN EHUNAREN BEHARREI ERANTZUNGO DIETEN PERTSONA OSO GAITUAK ETA LANEAN GOGOBE TEAK IZATEKO, KUALIFIKAZIOAREN ALDE NAZIO MAILAKO APUSTUA EGIN

<p>1.3.1 Ekinbidea</p> <p>Enplegurako prestakuntza sistema integral bat garatu, enpresen beharrei erantzungo diena eta langileen enplegarritasun tresna izango dena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide heziketako lerroak formulatzeko eta horiek ekoizpen ehunaren epe ertain eta luzeko beharretara eten gabe egokitzeko, hezkuntza sistemarekin lankidetzan aritu eta etengabe koordinatzea. • Enpresetan epe laburrean prestakuntza beharrak detektatzeko, gizarte-eragileekin etengabeko lankidetzan, batez ere enpresa txikietan. • Kontratatutako konpromisoa duten prestakuntza programak, bai enpresa indibidualetan bai sektoreko talde moduan. • Enpresen etengabeko eskarien arabera enplegurako lanbide-heziketa sistema garatzea, prestakuntza enpresen lehiakortasuna bultzatzeko oinarritzko tresna moduan aktibatuz. • Langile langabeen enplegarritasuna eta landunen birkualifikazioa eta hobekuntza profesionala handitzeko tresna gisa, enplegurako lanbide-heziketa sistema bat ezartzea. • Lan munduan sartzeko zailtasun handia duten pertsonak epe ertainera gizarteratzeko eta lan munduratzeko programa integralak ezartzea, birkualifikaziorako ekintzek pisu handia edukiko duten programak hain zuzen.
<p>1.3.2 Ekinbidea</p> <p>Etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorra garapen pertsonalerako eta gure herrialdearen lehiakortasunerako tresna gisa garatu eta balioa eman</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko prestakuntzaren eta ikaskuntza iraunkorraren garrantzi estrategikoari balioa ematea, bai pertsona banakoari begira bai enpresei eta euskal gizarte osoari begira. • Hobetuz Lanbiden txertatzea, enplegurako lanbide heziketaren kudeaketa guztia Lanbiden bateratuaz, hiru hankako euskal egituren esperientzia eta kudeaketa ona aprobetxatzeko. • Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak ebaluatze eta egiaztatze prozedura eta antolamendua ezartzen duen 211/2015 Dekretuaren aplikazioa sustatzea.

ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HOBETZEA

» 1.4 KONPROMISOA

KALITATEZKO ENPLEGUA SORTU ETA MANTENTZEKO ELKARRIZKETA SOZIALA BULTZATZEA

1.4.1 Ekinbidea

Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzurako lan harremanen euskal sistema bat sendotzeko elkarrizketa eta lankidetzaren tresna eta guneak garatu

- Etengabeko solaskidetzaren gizarte-eragileekin Euskadin, eta elkarrizketa soziala sendotzea, enpresen eta langileen interesen arteko oreka bilatze aldera, kudeaketa eta enpresen egokitzeko beharrezko gaitasuna errazteaz gain kontratazio eta lan baldintzen hobekuntza etengabea bideratuko duten hitzarmen kolektiboak izenpetzera bultzatuaz.
- Eusko Jaurlaritzaren eta gizarte-eragileen arteko etengabe topaguneak ezartzea, politika ekonomikoak eta enplegua sustatzekoak zehazten eta horiei jarraipena egiten haien parte-hartzerik eta lankidetzarik handiena lortze aldera.
- Gizarte-eragileak enpresetako eta sektore ekoizleetako lan arriskuen prebentzioan parte-hartzea eta inplikatzeko sustatzea, laneko segurtasun eta osasunean inplikatzeko eragileen arteko harremanen bideratzaile gisa administrazio publikoak duen egitekoa bultzatuaz.
- Langileen enpresa barruko lankidetzaren eremuak bultzatzea, gardentasun, informazio eta kontsulta bideak erabiliaz.
- Lan Harremanen Kontseilua bultzatzea, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzurako lan harremanen euskal sistema bat sendotzeko balioko duen topagune eraginkorra izan dadin.

» 1.5 KONPROMISOA

2020 ENPLEGUA SUSTATZEKO PLAN INTEGRALA

1.5.1 Ekinbidea

2017-2020 aldirako 1.000 milioi euroko enplegu plan bat onartu

- Ondorengo ardatz eta ekintza eremuak izango dituen mila milioi euroko ohiz kanpoko enplegu plan bat egin eta onartzea:
 - MikroETEei eta ekonomia lokalari laguntzea.
 - Saltoki txikiak, turismoa eta lehen sektorea garatzea.
 - Ekintzailatza, autoenplegua eta enpresa berritzaile berriak.
 - Gazteen Enplegu Plana.
 - Enplegurako prestakuntza programak.
 - Lan munduratzeko tokiko eta eskualdeko planak.
 - Lan kontratazioarako pizgarriak, gizarte egoera ahulenerako taldeei bereizketa positiboa egiteko.
 - Eraikuntza arloari eta etxebizitzak eta eraikin publikoak eta partikularrak zaharbertzeari lotutako RENOVE programak.

» 1.6 KONPROMISOA

ENPLEGU POLITIKA AKTIBO ETA PASIBOEN KUDEAKETA INTEGRALA. GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA BARNE

1.6.1 Ekinbidea

Gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa euskadira eskualdatzea erreibindikatu

- Gernikako Estatutuaren 18. artikulua betetzeko, eta Espainiako Gobernuari behin baino gehiagotan formalki bidali zaizkion proposamenetan oinarrituta, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa Euskadira modu eraginkorrean eskualdatzea erreibindikatzeko, enplegu politika aktibo eta pasiboen kudeaketa integrala modu eraginkorrean garatu ahal izateko.
Halaber, eta eskualdatu ondoren, Euskadin bizinari sistema publikoaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko gizarte itun bat proposatzen dugu, eta Lagunkidetzaren sortzea, Gizarte Segurantza Euskadin kudeatzeko tresna izan dadin. Era berean, oraingo aurrezki sistema osagarriak finkatzearen alde egiten dugu, bereziki enpresen eta langileen arteko negoziazio kolektiboetatik ateratzen diren enplegu BGAEak.



2. INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- *Politika industrial integratua.* Industria herrialdearen ekonomiaren motor nagusia da eta bere zeregina indartu behar du etorkizun hurbilean. EAJK konpromisoa hartzen du industria sektorea euskal ekonomiaren % 25 izan dadin lan egiteko. Jakin badakigu oso garrantzitsua dela industria lehiakorra edukitzea, aberastasuna, enplegu eta ongizatea sortzeko funtsezko euskarria delako. Horregatik, ezinbestekoa da industria politika egokia edukitzea, enpresak estrategia aurreratu-tuetarantz gidatuko dituen, hazteko eta nazioarteratzeko prozesuetan laguntza emango diena, eta beren lehiakortasuna hobetuko duena.
- *Lidergoa iraultza industrial berrian.* Gure konpromisoa Basque Industry 4.0 estrategia bultzatzea da, lehiakortasun industrialaren maila bat gora egiteko, “manufaktura aurreratua”. EAJK ekoizpen jarduera tradizionalak industria berri teknologikoki aurreratuak izatea nahi du, kalitatearen eta balio erantsiaren alde etengabe apustu eginda.
- *Lidergo estrategia bat proposatzen dugu iraultza industrial berrian, jarduera oso produktiboetan oinarrituta, gero eta adimentsuagoak diren fabrikazio sistema aurreratuei esker. Hau da, automatizatuak eta digitalizatuak; iraunkorragoak, efizienteagoak eta adiskidetsuagoak baitira.*
- *Enpresa eredu berria.* Parte hartzea. Talentua, pertsonen parte-hartzea eta lan-harreman eredu berri gardenagoa gure industriaren lehiakortasunerako giltzarriak dira. EAJK pertsonen inguruan hezurmamitutako antolakunde bihurtu nahi ditu enpresak, etorkizuneko enpresa proiektuen iraunkortasuna bermatuko duen giltza baita.
- *Apustu irmoa ETEen alde eta enpresen bideragarritasunaren alde.* EAJtik ETEei laguntza emango diegu finantzaketa eta berregituraketa konponbideak emanaz, beren izaerara eta enpresa ziklora egokituta. Enpresa bideragarrien berregituraketari konponbideak ematea eta enpresa-ehunaren multzoari bizirik iraunarazten laguntzea da gure helburu nagusia.
- *Proiektu eta enpresa estrategikoei laguntza ematea.* Ekonomiaren zuzperraldiak industria proiektu berriak behar ditu, zuzpertzeko horren motor bihurtu daitezkeen. Horregatik, EAJtik erakundeen arteko esfortzu bat egingo dugu foru aldundiekin proiektu industrial berriak bultzatzeko, Euskadin dagoen ehun industrialaren bultzagile efektua egin dezaten.
- *Aukera sektore berriak garatzea.* EAJK ekonomia-ehunaren dibertsifikatzearekin eta aukera sektore berrietarantz espezializatzearekin duen konpromisoa adierazten du.
- *Beharrezkotzat jotzen dugu material berriak prozesatzen gaitasun handiagoa lortzea (aleazio arinak eta konpositeak), gora datozen teknologiak sartzea (adibidez, fabrikazio aditiboak), Industria 4.0 “Fabrikazio Adimentsua” kontzeptuan aurrera egitea, eta merkatura iristeko eskala faktore industrialaren epeak laburtzea.*
- *Euskadin osagaiak diseinatzeko eta industrializatzen oso zentratuta dagoen industria bat egin dugu, azken produktuen diseinuan eta garapenean dugun potentziala ustiatzea eginkizun dugu. Negozio eredu berritzaileen garapenari lotuta dago gure desafiorik handiena, balio erantsi handiko zerbitzu eskaintza bati aurre egin ahal izateko eta “ekoizpen ikuspegitik” “irtentzako ikuspegira” eboluzionatzeko.*
- *Lehiakortasuna eta efizientzia hobetzeko energia estrategia berria.* Europaren helburuekin eta COP21etik datozenekin lerrotatuta, EAJK energia transformazioaren prozesuan aurrera egitea proposatzen du, energia efizientzia, sare adimentsuak, energia berriztagarriak eta energia biltegitzeko irtentzako bultzatuak eta abangoardiako energia industria bat sustatuak.
- *Horretarako, 3E2030 energia estrategia martxan jarriko dugu, energiaren klusterrarekin eta EnergiBasque estrategia berriarekin batera, industria sektorearen hidrokarburoekiko mendekotasuna gutxitzeko eta euskal enpresek gaur egun nozitzen duten energia faktura; gainera, gure enpresak estrategikotzat jotzen ditugun eremuetan (offshore, biltegitratzea, Smart Grids eta abar) teknologia garatzearen alde joko dugu, gure EnergiBasque estrategia Euskadiren politika industrialarekin ezin hobeto koordinatzeko.*
- *Estrategia lehiakorrago bat edukitzeko estrategiak helburu komun batera eraman behar gaitu, hots, enplegu globala areagotzera eta bere kalitate eta kualifikazio maila hobetzera, berez industriaren arloa esandakoan ez ezik, euskal ekonomia osoan ere bai, izan ere sektore industrialak gainerako sektore eta jarduera ekonomikoen bultzagile indartsu bat da eta.*

Industria herrialdearen ekonomiaren motor nagusia da eta bere zeregina indartu behar du etorkizun hurbilean.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.1 KONPROMISOA

ETE-EI ETA ZAILTASUNETAN DAUDEN ENPRESAK BERRIGITURATZEARI LAGUNTZA EMATEA

<p>2.1.1 Ekinbidea ETE-ei laguntzeko politika garatu, bereziki finantzabide berriak bultzatuaz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2.400 milioi abal publikotan, Euskal enpresa txiki eta ertainen ekoizpenaren finantzaketa beharrei laguntzeko. • ETE berritzaile enplegu-sortzaileen inbestimenduak finantzatzeko tresna den neurrian Gauzatu programa bultzatzea. • ETEetarako finantzabide berriak lortu eta ETEen eskura jartzea (EIBak aurreikusitako funts berriak). • Business angels sareekin eta funts pribatuekin hitzarmenak eta protokoloak egitea, eta foru aldundiekin zerga ekinbideak mahairatzea, enpresa proiektu berriak bultzatzeko eta dauden ETEen garapenean laguntzeko. • ETEetarako mesedegarriagoa den araudi bat egin ahal izateko Europaren ekinbideei indarra ematea, bai finantzaketa lortzeko bai ETEen berrikuntza eta nazioarteratzea pizgarritz hornitzeko. • RENOVE Makineria programa sendotzea ETEak "Industria 4.0" iraultza digital berrira egokitzeko.
<p>2.1.2 Ekinbidea Ekipamendu industrialaren inbestimendua eta berrikuntza bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekipamendu industrialaren inbestimendu eta berrikuntzari laguntzeko programak indartzea, RENOVE Makineria programa bezalakoak, ETEak "Industria 4.0" iraultza digital berrira egokitzen laguntzeko, izan ere denboran zehar mantentzen diren inbestimenduak funtsezko elementua baita enpresen produktibitateerako.
<p>2.1.3 Ekinbidea Enpresa bideragarriak berregituratzeko programa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasunean dauden enpresak berregituratzeko tresna gisa, Bideratu programa bultzatzea. • Europar Batzordeak ahulztat jotzen dituen eremuetan inbestimendu enplegu-sortzaileak bultzatzeko, INDARTU programa sendotzea. • Oraingo Luzaro funtsa indartuaz partaidetzazko maileguz bidez enpresak berregituratzeko behar diren inbestimenduei laguntzea. • Irtenbide indibidualak zehaztea, inplikaturatuta dauden eragile guztiekin jarduera koordinatu bat eginaz: herri administrazioak, akziodunak eta estatutupeko langileak, zailtasunean dauden enpresei erantzun bateratua emateko.
<p>2.1.4 Ekinbidea Zailtasunean dauden enpresen berregituraketak eragiten dien pertsonen lanpostua berriro ematea eta birziklatzea bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin koordinatuta ekintza programa bat garatzea, enplegu erregulazioko espedienteek eragindako sektore eta jarduera industrialetatik datorren giza kapitala artatu, gaitu eta birlanertzeko, batez ere burdin eta altzairu sektoreetan. • Birmoldaketa industrialeko prozesuek gogorren eragin dieten eskualdeen ekonomia bizkortzeko ekinbideak eta programak gauzatzea.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.2 KONPROMISOA

PROIEKTU INDUSTRIAL ESTRATEGIKOAK BULTZATU

<p>2.2.1 Ekinbidea Euskal ehun industrialak erakartzeko gai diren proiektu industrial bultzagileei finantzazko laguntza eman</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EKARPEN garatzea, herrialdearentzat estrategikoak diren proiektuen garapenerako finantzaketan laguntzeko eta kapitalean aldi baterako parte hartzeko tresna gisa. • Eragin handiko finantza jarduera sektorialak bultzatu, klusterrekin lankidetzan. • Sektore estrategikoetan sortzen diren aukerei finantzabideetan laguntzea: automobilgintza, aeronautika, energia, makina-erreminta, burdinbideak eta informazioaren teknologiak.
<p>2.2.2 Ekinbidea Gure enpresa-ehunaren lotune eta gobernu ekintzaren biderkagailu gisa kluster politika sendotu eta zentratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Klusterrak industria plan berrian ezarritako lehentasunei hobeto jarraitzeko bultzatzea egitea. • Herrialdearen proiektu bultzagileen inguruan sektore bereko edo sektore osagarrietako enpresen artean lankidetzak areagotzea. • Klusterren helburuak eguneratzea. Euskadiko espezializazio adimentsuaren strategiari (RIS3 Estrategia) jarraitzearen arabera lehentasunak jartzea eta segmentatzea. • Balio kate osoan eragingo duten ekintzak sortzeko kluster ezberdinen lankidetzarako bideak egitea.
<p>2.2.3 Ekinbidea Nazioarteko enpresa inbestimendu enplegu-sortzaileak erakarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herrialdearen irudi erakargarria bultzatzen duten estrategiak indartzea, nazioarteko inbestimenduak etor daitezen. • Gure ekoizpen-ehuna osatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duten proiektu berriak finkatzea pizgarri hobea izan dadin arau esparrua egokitzea. • Ekoizpena finkatzeko proiektu bereziei laguntzea, industria lurrean dugun esperientzia eta finantza errentamenduko formulen diseinua erabiliaz. • Invest in Basque Country marka indartu inbestitzailearentzako abantaila lokalen metagarri gisa, herrialde moduan lehiarako dugun abantaila markatzen duten faktore intrintsekoei balioa emanaz eta inbestitzaile berriekiko lehiatila bakar bideratzaile gisa jokatuaz.
<p>2.2.4 Ekinbidea Enpresa partaidetzen funtsa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herrialdeko enpresa estrategikoetan parte hartzeko eta lurraldean sustraitzen laguntzeko inbestimendu funts bat eratzea bultzatuko da. Ondorio horietarako, foru aldundien lankidetzarekin, aurrezki eta inbestimendu pribatuak bideratu ahal izateko formulak eta pizgarriak antolatuko dira, 2020ra begira 250 milioi eurora heldu dadila nahi den kapital funts bat eratzea helburu hartuta. Funtsaren helburua enpresa talde lehiakorretan inbestitzea eta potentzialtasun teknologikoa eta nazioarteratzeko gaitasuna duten enpresa ertainen garapena sustraitu eta bermatzea izango da. Azken batean, aberastasuna eta enplegua sortzeko potentzial handiena duten euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzea.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.3 KONPROMISOA

INDUSTRIA AURRERATUAN EUSKADIREN LIDERGOA LORTU "BASQUE INDUSTRY 4.0 EREDUA"

<p>2.3.1 Ekinbidea Manufaktura aurreratuko estrategia global bat martxan jarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 500 milioi euro inbestitzea 2017-2020 aldian ikerketa teknologiko industrialeko programetan 4. Iraultza Industrialaren aitzindari izateko. • Gaur egungo "Basque Industry 4.0" programa, euskal enpresetan fabrikazio aurreratuko proiektuak txertatzeko martxan jarri dena, bikoiztea. • Manufaktura aurreratua ekintza arlo zientifiko teknologiko estrategikoa delako indartzea Gobernuaren I+G programetan. • 4.0 industriaren garapen ekinbideen diskriminazio positiboa. • Manufaktura aurreratuaren balio erantsi handiko azpiegitura espezifikoak bultzatzea (balidazioa, eskala faktore industrialak, fabrikazio teknikak eta abar). • Diseinu industrialeko programa bat abiaraztea, herri erakundeekin lankidetzan. • Fabrikazio aurreratuaren eremuan ekinbide garrantzitsuenak identifikatzen klusterrik esanguratsuenekin (automobilgintza, aeronautika, makina-erreminta, energia) lankidetzan aritzea. • Manufaktura aurreratuarekin zerikusia duten kudeaketa teknologia eta sistemetan ikasle, teknologo eta profesionalen prestakuntza praktikorako programak garatzea, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. • Euskal enpresetan fabrikazio aurreratuko estrategia osatuko duten maila teknologiko handiko manufaktura proiektuak atzeritik erakartzeko plan espezifikoak. • Fabrikazio aurreratuko zentro publiko-privatu berri bi irekitzea.
---	---

» 2.4 KONPROMISOA

AUKERA SEKTORE BERRIAK GARATZEA

<p>2.4.1 Ekinbidea Ekonomia-ehunari aukerako sektore berrietarantz espezializatzen lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal estrategia industrialak Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin (RIS 3 Euskadi) bat egitea, euskal industriak energiarekin, osasunarekin eta aukerako gune berriak deritzenetan elikadura, hiri habitat eta erakuntza iraunkor, ekosistema eta industria sortzaileekin lankide izatea sustatzeko. • Balidazioa (proof of concept) eta eskala faktore industrialak laguntzeko programa berri bat abiaraztea, horizontala, baina bio, nano, energia eta manufacturing estrategietan lehentasunezko aplikazioa izango duena. • Dauden azpiegitura zientifiko-teknologikoetan erabilera konpartitua sustatzea, baliabideen erabilera eraginkorra eta lankidetzatza bultzatzea bilatze aldera. • Nanobasque estrategiak gauzatzen jarraitzea; euskal sarrerako eragin handiko mikro-nano aplikazioen identifikazioan eta horiek txertatzeko bide orrien lanketan oinarritzen da estrategia hori. • Biobasque strategiaren bigarren fasea abiaraztea. • Energibasquerekin (Euskal Energia Erakundea aitzindari duena) koordinatzea, bere proiektu eta azpiegitura estrategikoei lagunduaz.
<p>2.4.2 Ekinbidea Gora datozen sektoreetan dibertsifikazioa eta balio erantsi handiko jarduera berriak bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gora datozen sektoreen eta jarduera ekonomiko eta industrialarekiko balio erantsiko bultzagile efektua izan dezaketen beste batzuen garapena bultzatzea. • Hazteko potentzial handiko eta izaera berritzaileko sektoreetarantz dibertsifikatzera bultzatzea.
<p>2.4.3 Ekinbidea Etorkizuneko eremuetan dibertsifikazio industrial eta teknologikoko proiektuak bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia berdearekin, energia berriztagarriekin (off shore) eta energia sare adimentsuekin (smart grids) zerikusia duten proiektuen sustapen programak garatzea. • BIMEP proiektua garatzea. • Biomasa proiektuari bultzada ematea, Euskal Energia Erakundearekin eta HAZIrekin batera.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

<p>2.4.4 Ekinbidea Industriari lotutako enpresa berriak eta zerbitzu aurreratuarik garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2020 Industrializazio Plan Estrategikoaren barruan, arreta berezia jarriko zaio 4.. Iraultza Industrialetik datozten behar berriei lotutako enpresa eta zerbitzu aurreratuarik bultzatzeari: digitalizazioa, ingeniariak, diseinu industriala, proiektuen finantzaketa integrala. • Ildo horretan, zibersegurtasun industrialari eskaintako zentro bat abiaraztea bultzatuko da sektore pribatuarekin batera.
--	--

» 2.5 KONPROMISOA

TEKNOLOGIKOA EZ DEN BERRIKUNTZA ETA ENPRESA KUDEAKETA AURRERATUA GARATU

<p>2.5.1 Ekinbidea Euskal enpresen lehiakortasuna hobetuko duten berrikuntza estrategiak bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 40 milioi euro erabiliko dira produktuarik eta merkatuarik dibertsifikatzeari, kudeaketa berritzeari eta langileek enpresan parte hartzeari buruzko berrikuntza programa ez teknologikoetarako. • Industriarekin konektatutako zerbitzuen garapena indartu, bere berrikuntza maila eta haren lehiakortasuna hobetzeko elementu moduan. • Euskal industrian teknologikoa ez den berrikuntzari laguntzeko uneko programak bultzatzea, emaitzetara orientatuz. • Innobideak-Pertsonak teknologikoa ez den berrikuntza programa berria bultzatzea, pertsonengan oinarritutako antolakuntza ereduak indartzeko. • Teknologikoa ez den berrikuntzaren eragilean (Euskalit, Innobasque, bitarteko berrikuntza-eragileak) rolak koordinatu eta zentratzea 2020ko eperako garatu behar den Industrializazio Planarekin.
<p>2.5.2 Ekinbidea Enpresa kudeaketa aurreratua lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal enpresa industrialei beren kudeaketa ereduak hobetzen laguntzea Innobideak-Kudeabide programa indartuz. • Euskaliten laguntzarekin, euskal enpresek beren antolakuntzen kudeaketa hobetzen egin duten lana aitortzea (Kudeaketa Aurreratuen Euskal Sariak).
<p>2.5.3 Ekinbidea Enpresa dibertsifikaziora orientaturiko berrikuntza ekintzak laguntzea, innobideak-lehiabide programaren bitartez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal enpresa industrialei produktu eta zerbitzu berrietan oinarrituta beren negozioa dibertsifikatzen laguntzea. • Euskal enpresa industrialei merkatu berrietan oinarrituta beren negozioa dibertsifikatzen laguntzea. • Euskal enpresa industrialei ekintzaileen arteko ekinbide berrietan oinarrituta beren negozioa dibertsifikatzen laguntzea.

» 2.6 KONPROMISOA

ENPRESAK NAZIOARTERATZEA BULTZATU

<p>2.6.1 Ekinbidea Esportazioari eta enpresa-ehuna nazioarteratzeari laguntzeko programak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresen nazioarteratzea bultzatzea, Herrialdea nazioarteratzeko estrategia global eta integratu baten barruan, Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusiarekin eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin eta beste erakunde eta enpresa pribatuekin lankidetzan. • Euskal Nazioartekatze Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta hiru merkataritza ganberak osatzen dutena, indartzea, euskal enpresak nazioarteratzen lagunduko duten programa eta ekintza bateratuak abian jartzeko. • Lehiakortasun eta eskualde-garapen politika integraletan Euskadiren gaitasunak sustatzea (zuzeneko misioak eta alderantzizko misioak). • SPRIren ezagutza, ikusgarritasuna eta harremana indartzea nazioarteko esparruan. • Enpresa txikietan esportazioko/nazioarteratzeko profesionalak kontratatzeari laguntzea. • Oraingo prestakuntza programak talentu gazteei egokitzea: nazioarteratzeko bekak eta mugigarritasuneko Global Training. • Basque Country marka sustatzea euskal enpresa atzerrian hobeto kokatuta egoteko.
--	---

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOIA

» 2.7 KONPROMISOA

INGURUGIRO INDUSTRIAL LEHIAKOR BAT SORTU

<p>2.7.1 Ekinbidea Enpresa azpiegiturak ekonomia berrakibatzearen zerbitzurako sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parke teknologikoen sarea eta Sprilur dinamizatzeko eta laguntzeko ekintzak areagotzea. • Zoru eta pabiloi salmenta bultzatzea. • Industrialdeetan kudeaketa optimizatzea, garapen ekonomiko eta industrial integratuko lurralde sare baten moduan jardutea bultzatuaz. • Zoruaren funts estrategikoa zabaltzea, martxan dauden inbestimenduak osatuaz eta proiektu berriak geureganatzea kudeatuaz. • Ekoizpena finkatzeko proiektu bereziei laguntzea, industria lurra kudeatzen metatu dugun esperientzia eta finantza errentamenduko formulen diseinua aprobetxatuaz.
<p>2.7.2 Ekinbidea Ezkerraldean parke teknologikoa zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ezkerraldearen bizkortze ekonomikoaren konpromisoari eustea, krisiak eta birmoldaketa industrialak gehien zigortu duen eremu bat delako, Bizkaiko Parke Teknologikoa sozietate publikoak dagoeneko erosita dituen urbanizatzeke lursailei balioa emanaz eta Ezkerraldeko Parke Teknologikoa eraikitzen hastea, Sozietate publiko horren barruan integratuta.
<p>2.7.3 Ekinbidea Sektore industrialaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeko oraingo arau esparrua garatu eta egokitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gainerako erakundeekin lankidetzan, gure oraingo ekoizpen-ehuna osatzeko, balioa sortzeko eta enplegua sorrazteko gaitasuna duten enpresak erakarri eta inbestimenduak bultzatuko dituen arau esparru bat apurka-apurka eratzeke neurriak abiaraztea.
<p>2.7.4 Ekinbidea Etengabe aldatzen dagoen ingurugiro batera egokitzeko gai den politika industrial integral bizkor eta malgu bat ezarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Behatoki sektorial, teknologiko eta finantzarioak sortzea, aukerak aprobetxatu, zailtasunei aurrea hartu eta eskura ditugun jokabide onenez benchmarking egin ahal izateke. • Nazioarteko foroetan gure presentzia eta solaskide izateke gaitasuna areagotzea, bereziki Europako erremuan. • Erreferentziako sektore, teknologia edo merkatuetan garapen industrialeko aitzindari diren beste eskualdeekin lankidetzak akordioak egitea. • "Adituen Foroa" deritzonaren egitekeoa sendotzea, finantza eta makroekonomia arloko espezialistak erantsiaz. • Lurralde erakundeak, tokikoak, garapen agentziak eta politika industrialeko gainerako eragile aktiboak elkartuko dituen operazio eta koordinazio organo bat eratzea SPRIn.
<p>2.7.5 Ekinbidea Industria eremuetan jarraipena areagotu eta administrazio izapideak bizkortu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun industrialari dagozkion kontuetan industria legearen arautegia garatu (enpresa instalatzaileak, karne-tak, profesionalen prestakuntza eta abar). • Koordinazio protokolo bat egitea eskumenak konkurrentzian dituzten administrazioen artean. • Oraingo berme sistemaren legea aldatzeko, Ministerioaren batzordean parte hartzea. • Meatzaritzaren mahai plurala eta ordezkaritza orekatukoa eratzea bultzatzea. • Teknologia berriak erabiltzea segurtasun industrialeko informazioa hobeto jaso dezaten eragile guztiek: jabetzak, mantentzaileak, langileak eta administrazioak, jarduera guztien erregistro zuzena bermatuaz. • Aldizkako ikuskapenen kalitatea eramateko talde sektorial bakarra bultzatzea, administrazioaren erantzun denborak gutxitzeko. • Nahitaezko aldizkako ikuskapen dekretu berria onartzea.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.8 KONPROMISOA

EFIZIENTZIA ETA LEHAKORTASUN IRAUNKORRA HOBETUKO DITUEN ENERGIA POLITIKA GARATU

<p>2.8.1 Ekinbidea</p> <p>Estatuaren argindar arautze berria euskal industria sektore ia guztian eragiten ari den efektu negatiboa konpentsatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresen laguntza teknikoko eta aholkularitzako sistema bat ezartzea, klusterren bitartekaritzaren bidez, argindarraren fakturretako bakoitzaren ezaugarriak kasurik kasu aztertze eta fakturen kostuak gutxitzera bideratutako konponbide teknikoak bilatzeko. • Eusko Jaurlaritzak eta eraginpeko sektoreek bat egitea Espainiako Gobernuari eraginpeko sektoreetan argindarraren fakturaren kostuak moteltzeko neurriak har ditzala eskatzeko. • Estrategikotzat jotzen diren sektoreetako energia kontsumoan salbuespenak edo hobariak dituzten Europako ereduak aztertzea (Frantzia eta Alemania, adibidez). • Egokitzapen epeak malgutzea, enpresek beren ekoizpen sistemak egoera berriaren eskakizunetara egokitu ahal izateko igaroaldiak ezarriaz. • Sartzeko ordainsarietan dagoen bereizkeria behin betiko ezabatzearen alde egitea (6.1 eta 6.2 tarifen bereizketa ezabatu). • Kogenerazio industrialaren ordainsari segurtasuna bermatzea. • Etengarritasun sistema bat negoziatzea, lehiakorrak eta industria guztiari irekia.
<p>2.8.2 Ekinbidea</p> <p>Energia aurrezki eta efizientzia hobetuaz energia eskaria aldatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Energia-aurrezki eta -efizientzia proiektuak diruz laguntzeko programa, lau urtean honelako 80.000 proiektu finantzatzeko helburuarekin. • Energia-aurrezki eta -efizientzia ekintza segmentatuak gauzatea. Energia berriztagarriei laguntzea. • Eraikin publikoetako energia-aurrezki eta -efizientzia plana, ahal denean erosketa publiko berritzailearen printzipioak aplikatuaz.
<p>2.8.3 Ekinbidea</p> <p>Autonomia handiagoa ekarriko duen eta gure energia industriaren garapena hobetuko duen energia estrategia berri bat bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Balio proposamenak dituen energia igaroaldiko Europako foro nagusietan parte hartzea. • Administrazio publikoen Energia Iraunkortasun Legea garatzea. • Zerga administrazioekiko elkarlana bilatzea, zerga politikak bateratzeari eta energia igaroaldia sustatzeari begira.
<p>2.8.4 Ekinbidea</p> <p>Energiaren clusterraren bitartez enpresen arteko lankidetzak sendotu eta europako energia ikerketako proiektuetan euskal enpresek elkarrekin parte hartzea areagotu eta horren emaitzak ustiatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko zentroekin elkarlanean aritzea energiaren arloan, gure energia sektorea Europaren eta munduaren abangoardiako postuetan kokatuko duten proiektu berrien eta konponbide berri disruptiboen aitzindari izateko. • Energiaren efizientzia (energia efizientzia enpresak), energia biltegitratzea, energiazko zaharberritzea eta itsas energia aztergai dituzten ikerketa proiektuetatik datozen startupak sustatzea.
<p>2.8.5 Ekinbidea</p> <p>Garraioaren "karbonogabetze" progresiboa bideratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal administrazioen ibilgailuak "karbonogabetzea". • Mugigarritasun elektrikoa sustatzeko programak. • Garraiorako energia-horniketa plan bat sortzea, mugigarritasun elektrikoa eta errepedezkoa eta portu inguruneetan gasezkoa ziurtatzeko. • Energia biltegitratzearen arloko enpresa berrien sorrera, ordezko erregaien birkarga eta eskaeraren kudeaketa bultzatzea.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

<p>2.8.6 Ekinbidea Laguntza eta finantzabide berriak bultzatu energia-aurrezki eta -efizientzia proiektuetarako</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Finantzabide berriak martxan jartzea energia efizientiaren arloan inbestimenduak egitea bultzatzeko. • Enpresetan ISO 50001 energia-kudeaketa sistemen ezarpena sustatzea. • Enpresen arteko lankidetzak bultzatzea industrialdeetan energia arloan: hondar beroak aprobetxatzea, beroa elkarrekin sortzea eta abar. • Arau aukeren arabera autokontsumo elektrikoa sustatzea. • Energia taldean erosteko plataformak bultzatu, bai goi bai behe tentsiokoa.
<p>2.8.7 Ekinbidea Energia berriztagarriak sustatu eta argindar sorkuntza dibertsifikatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 3E2030-aren helburuak betetzeko energia berriztagarrien sustapen plan espezifikoak onartzea. <ul style="list-style-type: none"> - Euskadiko Plan Eolikoa. - Euskadiko Biomasa Plana. - Euskadiraiko Plan Fotovoltaikoa. - Euskadiraiko Plan Geotermikoa. - Euskadiko Itsas Energien Plana. • Euskal industriaren eskutik itsas energiaren off-shore sorkuntza proiektu pilotua lantzea. • Energia biltegitratzeko lehen azpiegiturak sortzea sorkuntza berriztagarriari lotuta. Microgrid proiektu pilotua.
<p>2.8.8 Ekinbidea Ekonomia zirkularren eta ekodiseinuaren bidez ekoizpideetan materialen eta energiaren aprobetxamendu efizientea pizgarritz saritu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen estrategiarekin lankidetzan positiboki bereiziko da birziklatze prozesuetatik ateratako materialekin kalitatezko produktuak garatzea eta ekonomia zirkularreko eredu efizienteago batera egokitzea. Era berean, diseinu industrialaren prozesuetan ingurumen aldagaia eta ekodiseinua eranstea bultzatuko da.
<p>2.8.9 Ekinbidea Herri administrazioen energia iraunkortasunaren legea onartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016ko uztaialaren 19an onartu eta Legebiltzarrerara bidalitako lege egitasmoan oinarrituta, Herri Administrazioen Energia Iraunkortasunaren Legea onartzeko plazaratuko da.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.9 KONPROMISOA

EUSKADI EUROPAKO ERREFERENTZIAZKO KOMUNITATEA BILAKARAZI INDUSTRIAREN EREMUKO INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK GARATU ETA APLIKATZEN

<p>2.9.1 Ekinbidea Industria sektore estrategikoetan informazio eta komunikazio teknologia (IKT) berriak erabiltzea erraztu, I+G fasetik industriarako teknologiak eta konponbideak garatzeraino</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadi 2020 Agenda Digitala garatzea, enpresak iraultza digital berrian txertatu behar berrietara egokituaz. • Fabrikazio aurreraturako giltzarri diren EIKTak garatzea, Europar Batzardeak Europako ekonomiaren lehiakortasuna bermatzeko funtsezkotzat jotzen baititu. • Bai teknologiarra, bai sektoreetara/merkatuetara bai bezeroen bilakaera teknologikoa leunduko duten konponbide espezifikoetara orientatutako EIKT eskaintza espezifiko bat bultzatzea industriarako. • Giltzarri diren teknologietan gaitasuna duten zentroak Euskadira hartzea, ezagutza eta inbestimendua erakarri ahal izateko eta euskal ekonomiaren ehunean berrikuntza eta balio handiagoa sortzeko. • Zuzendari eta teknikariak gaitzea beren enpresetan Basque Industry 4.0-ri lotutako teknologiak sartzeko.
<p>2.9.2 Ekinbidea Industria adimentsua bultzatu, EIKT-ak fabrikazioan txertatuaz, balio kateak integratuaz eta balio erantsi handiko produktu eta zerbitzuak garatuaz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EIKT industrian sartzeko fabrika adimentsuaren ikuspegitik, antolakuntzak eta prozesuek behar dituzten aldaketak kontuan hartuaz eraldatzeko duen potentziala ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko. • Balio lokal eta globaleko kateak integratzea, enpresek beren plangintza, hornikuntza, ekoizpen eta igorpen prozesuak munduaren beste alde batzuetan kokatuta dauden beste planta batzuetakoekin koordinatu ahal izateko. • Produktu industrial berriak eta balio erantsi handiko zerbitzuak sortzea digitalizazioari lotuta, erronka berrien eta negozio aukeren sorta zabal bat irekiaz.
<p>2.9.3 Ekinbidea EIKT-en erabilera bultzatu enpresa berriak, negozio ereduak eta merkaturan sartzeko moduak sortzeko, hazteko eta sendotzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EIKTetako (barne)ekintzailatza intentsiboa bultzatzea, etorkizunari arrakasta bermerik onenekin ekiteko. • EIKT aurreratuak ezarriaz ETEen sektore tradizionalak indartzea, merkatu globalizatuaren erronkei erantzun ahal izateko. • EIKTetan oinarritutako zerbitzu aurreratuak ETEen esku jartzea bultzatzea, enpresarik txikienen arrakala digitala txikituz.
<p>2.9.4 Ekinbidea Belaunaldi berriko banda zabaleko estalduran lidergoari eutsi</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Banda zabalaren euskal behatokia sortzea, egoeraren argazkia ezartzeko eta eguneratuta edukitzeko. • Belaunaldi berriko sareen bultzada batzorde bat sortzea, EJRen babespean beste euskal administrazioen (aldundiak eta udalak) partaidetza eta lankidetzat izango duena.
<p>2.9.5 Ekinbidea Belaunaldi berriko banda zabalaren hedapena osatu, bereziki jardura ekonomiko industrialeko eremuetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Banda zabal ultralasterreko zerbitzuak industrialdeetan hedatzea, enpresek balio erantsi handiko zerbitzuak izan ditzaten eta horien potentzialtasunak aprobetxatu ditzaten. • Banda zabal lasterreko zerbitzuak kokaleku periferikoetan hedatzea. • NGA eremu zurizat kalifikatuta dauden Euskadiko herri guztietan gutxienez 30 Mb/s eduki ahal izateko, foru aldundiekin ekintza eredu bat ezartzea.

INDUSTRIA LEHIAKORRAGOA

» 2.10 KONPROMISOA

PERTSONEN PARTE-HARTZEAN OINARRITUTAKO ENPRESA EREDU BERRI BATI BULTZADA EMAN

<p>2.10.1 Ekinbidea Enpresa munduan gizartearekiko erantzukizuna bultzatu eta lan harremanen kulturaren aldaketa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrenganako errespetuan eta konfiantzan oinarritutako lan harremanak izateko era berriak eskaintzea, gatazka hutsean oinarritutako ereduak atzean utziaz. • Kudeaketa aurreraturako prestakuntza laguntzetan gizartearekiko erantzukizun korporatiboa txertatu.
<p>2.10.2 Ekinbidea Ekonomia sozialeko eta/edo langileen partaidetzazko enpresa ereduak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia sozialari bultzada berezia ematea Gobernuaren garapen industrialeko politiken barruan. • LANPAR funtsa bi bider handiagoa egitea, langileek parte hartuta dauden enpresen kopurua handitzeko. • Ekonomia sozialeko proiektuak bultzatu edo bere enpresan akzio partaidetzak hartu nahi dituzten langileentzako prestakuntza tresnak abiaraztea. • Innobideak-Pertsonak programa bultzatzea, langileek enpresan parte hartzea bultzatzeko baita.



3. EKINTZAILETZARI LAGUNTZEA

EKINTZAILETZARI LAGUNTZEA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Euskal gizartearen ekintzailetasunari esker Euskadi gizarte aurreratua eta lehiakorra bihurtu da nazioartean. Kultura ekintzailearekin izan dugun eta denboran zehar mantendu dugun konpromisoak Euskadi enpresa proiektuak erruteko toki bikaina izatea lortu du, aberastasuna eta enplegua sorrarazteko gai diren enpresa berriak sortzerakoan ideiek laguntza aurkitu duten laborategi handi bat.
- EAJk uste du kultura ekintzaile horri eustea eta hori garatzea inprobisatzen ez den abantaila bat dela lehiarako, aktibo handi bat. Euskal gizarteak bere DNAn ekintzaile izateko gaitasuna, berritzekoa, aukera berriak bilatu eta arriskatzeko gaitasuna mantentzen ez badu, munduko eskualderik lehiakorrenen artean eta garapen eta gizarte-ongizate mailarik handienak dituztenen artean ez agertzera kondenatuta egongo da.
- Euskadik gizarte ekintzailea izaten jarraitu behar du, arriskuak bere gain hartzeko gai den gizarte bat, konfiantza, esfortzua, asmatzea, sakrifizioa, hobetu nahia, ekimena eskaintzen dituen gizarte bat. Garena garena sinesten jarraitzen dugu, geugan sinesten dugu. Euskadin sinesten jarraitzen dugu.
- Nahi dugun gizarte honen zutabeetako bat ekintzailea da. Hausnarketa, sormena eta berrikuntza eremu ezberdinetan (pertsonalean, sozialean eta profesionalean) garatu eta ustiatzeko gai diren pertsonak. Ekin egiten duten pertsonak, beren lan etorkizuna pentsatu eta sortu nahi dutenak, eta aldi berean beste pertsona batzuentzat lan aukerak sortzen dituztenak.
- EAJk Euskal Ekintzaile Sistema indartu nahi du, enpresa proiektu berrien sortzaile diren pertsonen eta enpresei eusteko eta horiek erakartzeko baldintza egokiak lortuaz.
- EAJn lankidetzaren publiko-pribatua eta publiko-publikoa indartzeko konpromisoa hartzen dugu, ideia berritzaileak kalitatezko lanpostuak sortuko dituzten eta bizi dugun mundu globalizatutik datozen gizarte erronkei aurre egingo dieten produktu eta zerbitzu berri bihurtuko direla ziurtatzeko.
- Gure enpresa-ehun garrantzitsua ere giltzarri da eta izaten jarraitu behar du enpresa ekinbide berriak sortzerakoan, bai eta gure hazkunde ekonomikoaren ereduaren egiturazko aldaketan aurrera egiterakoan ere, jarduera intentsiboak erantsiaz eza gutzan, teknologia berrietan eta zerbitzu aurreratuetan; globalki lehiakorra den eta, aldi berean, gizarte kohesio handiago batekin konpromisoa hartu duen ehun ekintzaile bat garatuaz.
- Pertsona ekintzaileei laguntzearen aldeko apustuak herri konpromiso bat izaten jarraitzen du. Azken lau urteotako ildotik, EAJk inplikaturako herri erakunde eta eragile guztien elkarrekiko lana bultzatzen jarraituko du pertsona ekintzaileen alde. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean pertsona ekintzaileen aldeko plan berri bat bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, martxan dauden ekintzak sendotzeko eta Euskadi lurralde gero eta lehiakorrago eta berritzaileago izan dadin balioko dutenak zehazteko.

***Denboran zehar
mantendu dugun
konpromisoak Euskadi
enpresa proiektuak
erruteko toki bikaina
izatea lortu du***

EKINTZAILETZARI LAGUNTZEA

» 3.1 KONPROMISOA

GIZARTEA KULTURA EKINTZAILEAREN GARRANTZIAZ KONTZIENTZIATU

<p>3.1.1 Ekinbidea Ekintzailetzaren kultura eta balioak gizartearen maila eta bizitzaren etapa guztietan sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espiritu ekintzailea sustatzen duten balioen zabalkundea egitea, euskal gizartean ekintzailetzaren prozesuarekiko eta pertsona ekintzailearekiko/enpresaburuarekiko kontzientzia positibo bat sortzeko. • Hezkuntza ingurune guztietan ekintzailearen gaitasunak bultzatu eta lantzea: lidergoa, talde lana, arriskuak hartzea eta sormena. • Enpresa sorkuntzaren garrantziaz eta onurez hezkuntza arloan talde guztiak sentsibilizatzea, enplegua eta aberastasuna sortzeko iturri direlako eta garapen ekonomikoari laguntzen diotelako. • Ekintzailearen kulturaren eta balioetan heziko duten eta ekintzailearen ekimena eta gaitasuna garatuko duten programak bultzatzea ikasle segmentu guztien artean (hezkuntzako lehen mailak, lanbide heziketa eta unibertsitate ingurunea). • Gizarteko segmentu espezifikoak (emakumeak, adinekoak eta abar) eskura dituzten ekintzailetza aukerez kontzientziatzea. • Euskal Ekintzailetza Sistema osatzen duten parte-hartzaileetako bakoitzak nola eta zein programarekin lagundu dezakeen gizarteari ezagutaraztea.
<p>3.1.2 Ekinbidea Pertsona ekintzailea ekoizpenaren eta gizartearen eraldatzaile gisa aitortu gizartean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte guztiak ekintzailetzaren jarrerarekiko kontzientzia positiboa duela eta pertsona ekintzaileari gizarte balioespen positiboa ematen diola segurtatzea. Lan pedagogikoa da, eta areagotu egin behar da, argi eta garbi erakustearren enpresa sorkuntzaren eta herritarren ongizatearen artean dagoen kate logikoa.
<p>3.1.3 Ekinbidea Euskadiko kasu nabari eta eredugarriak identifikatu eta horien zabalkundea egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko ekintzaileen kasu arrakastatsuei balioa ematea, eredugarri izan badaitezke, betiere beren arrakastaren atzean dauden balioak nabarmenduz; izan ere, balio horiek barneratuta eduki behar ditugu Herri gisa (ondo egindako lanaren zaletasuna, zintotasuna, jarraitutasuna, etengabeko ikaskuntza, arrisku kontrolatuak hartzea, goranahi orekatua, erresilientzia eta abar).

EKINTZAILTZARI LAGUNTZEA

» 3.2 KONPROMISOA

EUSKADI “LURRALDE EKINTZAILE” IZAERAN SENDOTU

<p>3.2.1 Ekinbidea Euskadi lurralde ekintzaile eta berritzaile jarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Industry 4.0 eremuan startupak erakartzen eta sortzen Euskadi erreferentzia bihurtuko duen programa bat abiarazi eta bultzatzea (BIND 4.0 programa). • Euskadiren presentzia aktiboa eraman ekintzaileen nazioarteko foroetara, arlo honetan dinamikoak eta aurreratuak diren eskualdeekin lankidetzara izan ahal izateko.
<p>3.2.2 Ekinbidea Martxan jarritako enpresa ekinbide berrien bolumena handitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Potentzialki ekintzaileak diren pertsonen identifikazio prozesua hobetzea eta enpresa berriak egiteari lotutako ideiak sortzen laguntzea. • Euskal Ekintzailetza Sistemaren sartzeko erraztasunak ematea, ekintzailea bere motibazioaren arabera bideratuaz. • Ekintzaileari sozietatea eratzeko/autonomoaren alta hartzeko, laguntzen izapideak egiteko, finantzabideak lortzeko prozesuan eta abar laguntzea. • Beren proiektua martxan jartzea zailagoa duten taldeen artean (gazteak, langabeak, adinekoak...) ekintzaileen ekinbide berriak sustatzea, bai eta lurralde bereziki ahuletan ere. • Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistematik enpresa berrien sorkuntzara teknologiaren transmisiorako erraztasunak ematea. • Emakumeen ekintzailetza prozesuetarako laguntza ekintza positiboak sustatzea.
<p>3.2.3 Ekinbidea Barne-ekintzailetzaren aldeko apustua indartu, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzen duen iturria delako</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Barne-ekintzailetzak enpresa iraunkortasunaren eta ibilbide profesionalaren eragile gisa eta lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialaren sortzaile gisa duen garrantziaz enpresak sentsibilizatzea. • Sortzen diren barne-ekintzailetzako enpresa kasu berriak identifikatu eta horien zabalkundea egin, jokaera onen eredugarri. • I+G+i sistemaren eta enpresen arteko harremana indartzea, ezagutza eta teknologia transferitzea bultzatuaz. • Euskal enpresak hazteko, enplegua sortzeko eta nazioarteratzeko potentzial handiko proiektuak abiarazteko laguntza ematea.

EKINTZAILETZARI LAGUNTZEA

» 3.3 KONPROMISOA

EUSKAL EKINTZAILE SISTEMA ETENGABE HOBETU

<p>3.3.1 Ekinbidea</p> <p>Ekintzaitzaren eragile, azpiegitura, gaitasun eta lagungarrien mapa ordenatzen eta arrazionalizatzen amaitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal BICen marka irudi berria sendotzea, beren funtzionamenduaren hobekuntza nabarmenaren kanpo isla gisa. • BICak beren artean eta beste inkubagailuekin eta Euskal Ekintzaitza Sistemako eragileekin harremana izateari eta koordinatzeari indarra ematea, beren artean dauden sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. • Ezagutza sortzearen eta ekintzaitza prozesuaren arteko lotura areagotu, zentro teknologikoetan sortzen diren ideia berritzaileak enpresa berri bideragarri eta lehiakor bihurtzeko.
<p>3.3.2 Ekinbidea</p> <p>Dauden izakinak ekosistemako gainerako eragileekin koordinatzea, ekintzaileen aldeko ekinbide guztiak "leihatila bakar" baten bitartez bideratuko dituen euskal ekintzaitza sistema bizkor eta efiziente bat bultzatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzaitzaren euskal ekosistemaren zabalkundea ekintzailearentzako ekosistema homogeen moduan egitea eta ikusgai bihurtzea, "sarrera puntua" gorabehera eta programak kudeatzeko ardura duen erakundea edozein dela. • Foru aldundiekin, udalekin eta gainerako eragileekin lankidetzak mantentzea, ekintzaitzari laguntzeko tresna guzti-tietako informazioa "leihatila bakar" kontzeptuaren bitartez kanalizatzeko. • Enpresa bat sortzeko behar den sinplifikazio administratiboan sakontzea, administrazio kargak, apurka-apurka gutxitzea eta ezabatzea, epeak laburtzea, prozedurak batzera eta hizkuntza argia erabiltzea joaz.

» 3.4 KONPROMISOA

ENPRESA PROIEKTU BERRIETARAKO FINANTZABIDEAK GARATU

<p>3.4.1 Ekinbidea</p> <p>Enpresa sortu berrien finantzaketari laguntzeko formula berriak garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzaitzari laguntzeko gaur egun indarrean dauden politika publikoen diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa eten-gabe hobetzea: Ekintzaile, Barnekintzaile, Oinordetzak... • Egon badauden finantzabide publiko-privatuak osatuko dituztenak diseinatu eta martxan jartzea. • Enpresa berriei laguntzeko funts guztiaren zuzkidura areagotzea: kapital arriskua, Basque Funtsa...
---	---

» 3.5 KONPROMISOA

EUSKAL ENPRESA BERRIEN HAZKUNTZARI, FINKAPENARI ETA ESKUALDAKETARI (KASUA BADA) ERRAZTASUNAK EMAN

<p>3.5.1 Ekinbidea</p> <p>Oinarri teknologiko edo berritzailea duten enpresa berrien hazkuntzaren eta finkapenaren alde egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzak publiko-privatuko erregimenean start-upen azelerazio programak diseinatu eta garatzea, batez ere Euskadiko RIS3n zehaztutako espezializazio adimentsuaren lehentasunezko eremuetan: fabrikazio aurreratu, energia eta biozientziak / giza osasuna. Programa horietan desiragarria da, euskal ekosistemaren laguntza mailagatik eta aberastasunagatik, Euskadik beste ingurune batzuetako start-upak erakartzea lor dezala.
<p>3.5.2 Ekinbidea</p> <p>Oinordetza edo salmenta prozesuetan enpresak laguntzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Oinordetza programak indartzea, formula berritzaileak erabiliaz, langileek enpresan parte hartzea bezala.



**4. I+G+b ETA
“RIS 3 EUSKADI”
ESPEZIALIZAZIO
ADIMENTSUAREN
ESTRATEGIAREN
ALDEKO APUSTUA**

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Lehiakortasuna eta berrikuntza. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza gure eredu ekonomikoa aldatzeko eta euskal ehun industrial guztiaren lehiakortasuna handitzeko tresnak dira.
- Berrikuntzan oinarritutako enpresa lehiakortasuna aberastasuna handitzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko bermerik onena da. Sortzen den aberastasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izango dugu politika sozialetan banatzeko. Horrela, berrikuntza eta politika soziala errotik elkartuta daude. EAJk I+G+b estrategia sendo indartzearen aldeko apustua egiten du, politika sozial iraunkor bati eusteko funtsezko ardatzetariko bat delako.
- Talentuaren sustapena. Berrikuntza pertsonengan oinarrituta dago. Pertsonen, ikertzaileen talentua sustatu, erakarri eta kudeatzeko gaitasuna giltzarri nagusia da ezagutza sortzeko eta ezagutza hori balio erantsi handiagoko produktu eta zerbitzu bihurtzeko.
- EAJren iritziz, talentuaren geureganatze, sustapen eta mugigarritasun estrategia bat garatzea funtsezko zehar-ardatzetako bat da I+G+b politika eraginkor eta gure Herrian sustraitu bat garatzeko.
- Emaitzetara orientatzea. Azken hogeita hamar urteotan Euskadin denboran mantendu den apustua egin da ikerketaren eta berrikuntzaren alde. Estrategia horren emaitza izan da euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema, eta horrek Europar Batasunean berrikuntza handieneko eskualdeen taldean kokatu du Euskadi. Esfortzu handia egin dugu herrialde txikia eta baliabide mugatukoa izateko. Gure erronka handia emaitzetara orientatzea eta eragina neurtzea da. Joan den legealdian, filosofia honen oinarriak jarri ditugu eta, inbestituri-ko baliabideak, lortutako emaitzen eta sortutako eraginaren arabera etengabe ebaluatzea da gure konpromisoa. Gure lehiakortasuna eta gizarte orok egin behar duen hobekuntza prozesu etengabea eraikitzen jarraitzeko zutabeetako bat da I+G inbestimenduaren emaitzak eta eragina neurtzea EAJrentzat.
- Espezializazio adimentsua. ZTIP 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ildotik, joan den legealdian adostu eta onartu baitzen, eta Europaren estrategiarekin bat etorrita, espezializazio adimentsuaren aldeko apustu irmoa egiten dugu. Euskadik gaitasun zientifiko eta teknologiko handiagoak dituen eta enpresa potentzialtasunak dituen sektore eta jarduera estrategikoetan zentratu behar dira gure ahaleginak. EAJk RIS 3 espezializazio adimentsuan sakonduko du hiru lehentasun estrategiko indartuak: fabrikazio aurreratua, energia eta osasuna. Halaber “lau aukera lurraldeak” deritzenak garatuko ditugu: elikadura, ekosistemak, hiri habitata eta kultura eta sormen industriak. Hauek dira euskal espezializazio adimentsuaren estrategia eraikitzen jarraitzeko erabiliko ditugun oinarriak.
- Lankidetzak publiko-pribatua. EAJn kontziente gara zenbateko garrantzia duen enpresen inbestimenduak euskal ikerketa eta berrikuntza sistemaren garapenean eta bultzadan. Euskal enpresak dira, bereziki sektore bakoitzean aitzindariak direnak, ETE hornitzaileen elementu eragilearen lana egiten dutenak. Enpresak I+G+b katearen garapenari tira egiten dion eskari teknologikoa direnez, EAJn konpromisoa hartzen dugu ehun industrialarekin eta korporazio teknologikoekin lan estu egiteko, lankidetzak publiko-pribatuaren estrategiatik abiatuta. Helburua administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren esfortzuak eranstea da, Euskadi berrikuntzaren eta RIS 3 strategiaren erreferentzia izan dadin European.

- Sistema integratua eta koordinatua. Euskal I+G+b sistemaren arrakasta elkarrekin lan egitea da, denon ahaleginak koordinatzea eta elkarlanean aritzea: zientzialarien eta unibertsitateko azpistema, teknologiarena eta enpresa berrikuntzaren azpistema elkarrekin jardun behar dira. Oinarritzko ikerketak, ikerketa aplikatuak eta garapen teknologikoak osatzen duten kateak gogor lotuta egon behar du, pitzadurarik gabe, euskal I+G+b sistema bakar batean. EAJk uste du ezinbestean sustatu behar dela harreman hori halako dinamika sortzen duten Pilotutza Taldeen eta Lankidetzako Proiektu Bultzagileen bitartez.

Berrikuntzan oinarritutako enpresa lehiakortasuna aberastasuna handitzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko bermerik onena da

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

- Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema nazioarteratu egin behar da. Zientzia, teknologia eta berrikuntza elkarki globalki lotutako sareen bitartez garatzen dira. Ezinezkoa da ezagutzaren sistema bakartu bat eraikitzea eta, batez ere, ez da eraginkorra. EAJren ikuspegitik Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemak Europako sareekin eta eskualdeetako ezagutza poloekin konektatuta egon behar du. Integrazio handiagoa nahi dugu. Horregatik, Europako proiektuetan eta Europako Horizon 2020 estrategian sinesten dugu. Horretarako, talentuaren mugigarritasuna eta erakarpina bultzatuko ditugu, kanpoko finantzaketa areagotuko eta euskal korporazio teknologikoei Europakoekin duten harremana areagotuko dugu. Azken batean, gure I+G+b sistema ireki eta nazioarteratzeko prozesua indartuko dugu.
- Inbestimendu publikoaren konpromisoa. EAJk hitza ematen du ikerketaren eta garapenaren aldeko apustuari eutsiko diola eta bai areagotuko ere. Gure konpromisoa, zehatz esanda, 2017-2020 legealdi guztian zehar I+G+b programetarako inbestimendua urtean % 5 gehitzea da, I+G+b programetarako 1.700 milioi euro eransteko helburuarekin. Igoera horrek, bai eta hiru lehentasun estrategikoetan zentratzeak ere, 2020rako Euskadik % 3 fabrikazio aurreratuaren, energiaren eta bio-osasunaren sektoreetako I+G-an inbesti dezala du helburu.
- Gizartearen Herri konpromisoa. Berrikuntza, sormena eta ezagutza Herri baten heziketari eta kulturari modu intrintsekoan lotuta dauden elementuak dira. Enpresa berritzaileek eta zientzia eta teknologia sistemek, erretzeko eta hazteko, gizarte berritzaileak behar dituzte, gizarte sortzaileak. EAJren iritziz euskal gizarte guztia inplikatu behar dugu berrikuntzaren erronkan. Horregatik guztiagatik, enpresen berrikuntza teknologikoarekin dugun konpromisoarekin batera, behar diren programak garatuko ditugu berrikuntzarekiko sentsibilizazioa eta gizarte konpromisoa areagotzeko. Enpresa berrikuntza, gizarte berrikuntza eta sektore publikoaren berrikuntza indartuko ditugu berrikuntzarekin bat eginda dagoen Herri baten multzo harmoniko baten moduan, orainaren eta geroaren estrategia delako.

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

» 4.1 KONPROMISOA

I+B+g BULTZATU, ENPRESEN LEHIAKORTASUN TRESNA DELAKO

<p>4.1.1 Ekinbidea Euskadiren espezializazio adimentsuaren estrategia garatzen lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espezializazio adimentsuaren “RIS 3 Euskadi” estrategian ezarritako hiru lehentasun estrategikoetan zentratzea I+G+b estrategia: fabrikazio aurreratua, energia eta bio-osasuna. • Halaber, RIS 3 estrategian zehazten diren “lau aukera lurraldean” potentzialtasunak garatuko ditugu: elikadura, ekosistemak, hiri habitata eta kultura eta sormen industriak. • Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko enpresa eta eragileekin, espezializazio adimentsuko estrategia garatzeko parte-hartze publiko-pribatuarekin eraturako pilotutza taldeak bultzatuko ditugu. • Pilotutza taldeekin lankidetzan aritzea herrialderako I+G+b proiektu bultzagile estrategikoak direnak elkarrekin diseinatzen eta abiarazten. • Enpresa berritzaileen proiektuak 200 milioi euroko kopuruan finantzatzeko helburuz abal publikoekin 2016ko uztai-lean abiarazi ziren berrikuntza finantzatzeko tresna berriak garatzea.
<p>4.1.2 Ekinbidea Emaitzetara orientaturiko garapen teknologiko eta esperimentala indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen teknologikoari laguntzeko programak sustatzea “heriotzaren harana” saihesteko, hau da, ikerketaren eta horren emaitzei merkatuan balioa ematearen arteko arrakala. • Merkatuaren eskaria asebeteko duten ekoizkin berriak ateratzera eta oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berriak martxan jartzera bultzatzea. • Proposatzen den berrikuntza euskal ekonomiaren bultzagarri bada eta enpresak nazioarteratzeko balio badu, I+G proiektu horiei laguntzea. • I+G-aren emaitzen eragina neurtzeko oraingo metodoak programa berrietara egokitzea, lortzen diren emaitzak emaitza horiek optimizatzeke balio dezaten.
<p>4.1.3 Ekinbidea Jabetza industriala eta bere balioztapena sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Patenteen euskal bulegoa bultzatzea, EZTISko eragile guztiak eta enpresak koordinatu eta horiei aholkua emateko, patenteen diru sarrerak areagotze aldera. • Helburu hori lortzeko, eragileen eta enpresen arteko lankidetzari bidea egitea. • Enpresei eta EZTISko eragileei laguntzea jabetza intelektualaren defentsan, garatutako berrikuntzak babestea bermatze aldera. • Negozioaren ikuspegi globala duten eta EZTIS eta enpresen gaitasun estrategikoa kontuan hartzen duten kudeatzaileei zuzendutako prestakuntza lan egina.
<p>4.1.4 Ekinbidea Bikaintasunaren funtsezko zientziak enpresen lehiakortasuna hobetzeari ematen dion laguntza handitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Merkatutik hurbilago dagoen jarduera zientifiko eta teknologiko baten garapena bultzatu, herrialderik lehiakorren ildotik. • Gure ehun ekonomikorako garrantzizkoak diren arloetan ikerketa zientifikoari lehentasuna ematea, I+G+b guztia-ren % 15 bikaintasuneko oinarritzko ikerketara orientatzea bermatuz. • Arauek, antolakuntzak eta kulturak ezartzen dituzten barrerak gainditzea, eragile zientifikoek espezializazio adimentsuaren strategiaren garapenean hobeto txertatu dituzten beren ikerketak.
<p>4.1.5 Ekinbidea 100 ikerketa proiektu estrategiko eta “herriaren bultzagile” bideratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Legealdian zehar eta I+G+b-ari laguntzeko programen bitartez, “proiektu bultzagileak” egitea bultzatuko da espezializazio adimentsuko RIS 3 strategiaren arloetan. • Herri “proiektu bultzagileak” ezaugarri hauek izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Bikaintasun zientifiko-teknologikoa. - 4 milioi euro baino dimentsio ekonomiko handiagoa. - Europako I+H proiektuetan parte izatea. - Zenbait eragilek parte hartzea: zientifiko, teknologiko eta enpresakoek. - Lankidetzazkoak, RIS 3 arloetan eragina izanda. - Gizartean eta enpresan eragin esanguratsua.

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

» 4.2 KONPROMISOA

EUSKAL ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMAREN BIKAINASUNA BIKAINAGOA EGIN

<p>4.2.1 Ekinbidea EZTIS-ko eragileen lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresen eta EZTISko eragileen lankidetzaren sustatzea, eta eragileen beren artean ere bai, beraien artean dauden sinergiak aprobetxatzeko. • Eragile bakoitzaren jardueraren mix baterantz orientatzea (funtsezko ikerketa, ikerketa industriala eta garapen esperimentalak), euskal I+G+b-aren balio katean koka dadin. • Eragile bakoitzaren espezializazio maila bultzatzea Euskadin RIS 3-ko arlo lehenetsietan, Euskadi 2020 ZTIP-ean jasota baitaude. • EZTISko eragileetako bakoitzean bikaintasuna bultzatzea. • Zentro teknologikoetan eta ikerketa kooperatiboko zentroetan (IKZ) ikertzaileen ibilbide profesionala bultzatzea.
<p>4.2.2 Ekinbidea EZTIS-ko eragileetan zentratutako i+g+b-ari laguntzeko tresnak ebaluatu eta egokitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • I+G-rako diru laguntzen osagarri izango diren finantza tresna berriak diseinatzea. • EZTISko eragileen eta enpresen artean lankidetzaren kontzeptua eta kultura indartzea, herrialdearentzat estrategikoak diren proiektuetan. Proiektua I+G jardueraren erdigunean. • Azpiegitura zientifiko-teknologikoak berritzeko laguntza programa bat diseinatzea, EZTISko eragileei globalki lehiakorak izaten lagunduko diena.
<p>4.2.3 Ekinbidea Emaitzetara orientatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren bikaintasunerako eboluzioa neurtu eta pizgarritz hornitzea, emaitzen arabera. • 2020rako 7.000 argitalpen zientifiko indexatuta edukitzera heltzea helburu hartuta, ekoizpen zientifikoa handitzea. • Ikerketa proiektuetatik ateratzen diren produktu berriak merkaturatzea bultzatzea, produktu berrien salmenta gutxienez euskal enpresen fakturazio osoaren % 15 izan dadin. • EZTISko eragile guztiei helburuak neurtu eta adierazleak aplikatu eta hobetzea.

» 4.3 KONPROMISOA

TALENTUARI BALIOA EMAN ETA GIZA KAPITALAREN GARAPENA BERMATU

<p>4.3.1 Ekinbidea Gure ETE-er talentu gehiago erantsi</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Industria arloko doktore tesiak egitera bultzatzea, enpresen beharren arabera. • Enpresetan doktoreak sartzera bultzatzea, bereziki ETEetan, berrikuntza politikak/jokaerak ezartzeko horietan. • Talentu gazteak atzerrian prestatzera bultzatzea, gero Euskadiko zientzia, teknologia eta enpresa sisteman txertatuko direla bermatuta.
<p>4.3.2 Ekinbidea Gure EZTIS-ean dagoen talentua aprobetxatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EZTISko eragile guztien artean eta eragileen eta enpresen artean ikertzaileen mugigarritasuna indartzea, beren gaitasunak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. • Zentro teknologikoen zuzendaritza postuetan doktore titulua duten pertsonak egotea bultzatzea.
<p>4.3.3 Ekinbidea Ikertzaileen kualifikazioa hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema guztian ezagutza garatzea, eta bereziki RIS 3 arloetan. • Gazte talentu zientifiko-teknologikoa sortzea, arreta berezia emanaz bokazio zientifikoak sustatzeari.

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

» 4.4 KONPROMISOA

EUSKAL ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMAREN IREKIERA ETA NAZIOARTERATZEA BULTZATU

<p>4.4.1 Ekinbidea H2020 programan Euskadiren parte-hartzea areagotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Esfortzuak 2020 ZTIPea markatutako Euskadiko espezializazio adimentsuaren eremuetan zentratzea. • ERA-NET ekinbideen aldeko apustua areagotzea, ETEen finantzaketarako erraztasunak ematearren beren I+G nazioarteratzeko prozesuaren lehen urratsetan, Euskadiko RIS3 estrategian ezarritako lehentasunekin zerikusia duten proiektuetan bereziki ekinaz. • Enpresei zerbitzuak ematea indartu, batez ere ETEei, H2020n, bereziki Enterprise Europe Network Sareko Euskal Nodoaren bitartez.
<p>4.4.2 Ekinbidea Nazioarteko sareetan parte hartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EZTISko eragileak nazioarteko sareetan parte hartzera bultzatzea, kasu bakoitzean lortu beharreko helburuak argi ezarrita. • Euskal ETEen garapena eta Europako ETEekiko lankidetzaren bideratzea bideratuko dituzten Europako sareetan dugun presentzia areagotzea.
<p>4.4.3 Ekinbidea Euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sarea Euskadi Basque Country markaren erreferentzia bihurtu atzerrian</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gure EZTISaren irudia nazioartean zabaltzea gure herriaren enbaxadore kualifikatu eta aurreratu gisa. • Gure gaitasun zientifiko-teknologikoen eskaintza bateratua egituratzea baliozko proposamen bakarrean, Euskadi I+G+b arloan Europako erreferentzia nodo bezala ezagutarazteko nazioartean.
<p>4.4.4 Ekinbidea Multinazionalen eta atzerriko enpresen ikerketa zentroak erakarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko enpresen eta multinazionalen ikerketa atal eta zentroak erakartzen zentratzea “invest in the Basque Country” estrategia. • Euskadin I+G zentroak kokatzea erakargarri bihurtzeko pizgarri eta lankidetzaren ekonomiko-fiskaleko tresna espezifikoa garatzea. • I+G proiektuak bultzatzeko multinazionalen lankidetzaren estutzeko politika bat garatzea, Euskadin I+G zentro eta atalak elkarrekin garatuaz.

I+G+b ETA “RIS 3 EUSKADI” ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN ALDEKO APUSTUA

» 4.5 KONPROMISOA

ENPRESEN BERRIKUNTZA, BERRIKUNTZA PUBLIKOA ETA GIZARTEAREN BERRIKUNTZA EUSKAL ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA SISTEMA INTEGRATU BAKAR BATEAN SARTU

<p>4.5.1 Ekinbidea Euskal zientzia eta teknologia sistema guztiaren konexioa sendotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitatearen, zentro teknologikoen, ikerketa zentro kooperatiboen eta enpresen arteko lankidetzarako proiektuak sustatu, potentzialtasun guztiak hobeto aprobetxatzeko. • Ikertzaileak EZTISko eragileetatik enpresa, unibertsitate eta zentro teknologikoetara mugitzeko erraztasunak ematea. • Zeharlerro moduan RIS3 estratejiako arloetako batzuei buruzko proiektu bultzagile handiak egitera bultzatzea.
<p>4.5.2 Ekinbidea Berrikuntza teknologikoa osatzeko ete-etan teknologikoa ez den berrikuntza bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • ETEak proiektu berritzaileen kudeaketa aurreratuko sistemetan gaitzea. • Barne ekintzailatza, dibertsifikazioa eta negozio eredu berritzaileen identifikazioa bultzatzea, bereziki sektore helduetako enpresetan. • Berrikuntzan aktibo ukiezinak deritzenak identifikatzea, indartzeko. • Proiektuak finantzatzeko sistema eta prozesu berrietan berrikuntza garatzea. • ETEetako marketin eta merkaturatze sistemetan berrikuntza bultzatzea. • Langileen parte-hartzean oinarritzen diren enpresa ereduak bultzatzea.
<p>4.5.3 Ekinbidea Sektore publikoan berrikuntza bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio elektronikoaren garapena finkatu eta gauzatu. • Gobernantza sistema publikoan plangintza, ebaluazioa eta kontu-ematea txertatzea. • Administrazio prozedurak sinplifikatzea eta herritarrentzat leihatila bakarren ezarpena bultzatzea. • Euskadi 2020 Agenda Digitalaren estratejiaren helburuak garatzea sektore publikoan. • Gardentasuna, gobernu ona, herritarren parte-hartzea, kudeaketa sistemetako berrikuntza eta bezero herritarren zerbitzurako antolakuntza-egokitzapena hobetzeko abiarazita dagoen Berrikuntza Publikoaren Plana bultzatzea.
<p>4.5.4 Ekinbidea Sormenaren eta gizarte berrikuntzaren kultura sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte berrikuntzaren alde sentsibilizatzeko eta gizarte komunikazioko sistemak hobetzea. • Gizarte berrikuntzako Europako proiektu publiko-pribatuak bultzatzea, ekimen pribatuaren parte-hartze handiarekin. • Enpleguaren erronkari, batez ere gazteenari, erantzuna emango dioten gizarte berrikuntzako proiektuak identifikatu eta bultzatzea. • Gizarte berrikuntzarekin eta egoera bereziki ahulean dauden taldeen arretarekin harremana duten enpresa proiektuak garatzea.



5. EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA

EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Mundu globalera irekitzea. Euskadiren geroa jokaleku globalean jokatzeko da. EAJrentzat, beraz, nazioarteratzea Herri erronka bilakatzen da. Euskadik presentzia irabazi behar du nazioarteko jokaleku horretan eta eragile global baten moduan kokatu behar du bertan; horrek nahitaez dakar “sare iraunkorrak” sortzea, Euskadi munduko erabaki eta aukera zentro nagusiekin konektaturik egon dadin.
- Orain dugun nazioarteko jokalekua herrialdeen arteko elkarmendekotasun handiak markatzen du, globalizazioaren ondorioz. Globalizaziotik eratortzen diren elkarloturen areagotze esponenzialak irauli egin du nazioarteko jokalekua, bizitzaren arlo guztietan modu erabakigarrian eraginaz: ekonomikoan, politikoan, kulturean, intelektualean.
- Balioak eta ezagutza konpartitu. Euskal Herria atzerrian egotea gertakari garrantzitsua da eta bere historiaren parte bat, mundura zabaldu nahiari erantzuten diona. Beste kulturekin balioak eta ezagutzak konpartitzeko dugun irrikak, eta gure izaera ekintzaileak, beste kontinente batzuk korritzera eraman gaitu eta bizitzeko modu berrietan integratzera. Horregatik, EAJrentzat, esperientziak eta jokaera onak trukatzeko nazioarteko sareak sortzea eta daudenetan parte hartzea ezinbesteko ezagutza iturri da Euskadiren etorkizuna diseinatzeko.
- Aukera ekonomikoak eta enplegu aukerak sortzeko orientazioa. EAJrentzat, Euskadi nazioarteratzea ere ekonomia berrakibatzearen, balioa eta enpresa berriak sortzearen eta enplegua sortzearen zerbitzura jarri behar da.
- Gure nazioarteratzean sakontzeak esan nahi duena da gure enpresak, unibertsitateak, kultura- eta gizarte-eragileak balio kate eta ezagutza sare transnaziionalen txertatzea. Gu nazioartera gehiago irekitzeak merkatu berrietan sartzeko aukerak handitzea dakar, aliantzak egiteari ateak irekitzen dizkio, Euskadiren espezializazio adimentsurako lehentasunezko eremuetan berrikuntzaren abangoardian dauden eragileekiko/erakundeekiko lankidetzak eskemak ezartzen ditu eta ezagutza berria jasotzeari eta sortzeari leihoak irekitzen dizkio.
- EAJn guztiz sinetsita gaude Euskadi atzerriera irekitzea, inondik ere mehatxua ez izateaz gain, euskal enpresa-ehunaren lehiakortasuna indartzeko eta negozio aukera berriak detektatzeko, eta, horrekin, kalitatezko enplegu aukerak sortzeko, aukera bat dela.
- Zeharlerroa. Ekonomia berrakibatzen eta enplegua sortzen laguntzeak euskal atzerri ekintzaren lehentasunetako bat izaten jarraitu behar badu ere, ez da egia txikiagoa nazioarteratzea, 2020ra begira, gobernu lanaren zeharlerro bat dela. EAJtik, estrategia global eta koordinatu bat garatuko dugu sail guztiek jarrai dezaten nazioarteko dimentsioa bakoitzaren ekintza eremuan eransteko konpromisoan sakontzen.
- Euskadi Europako nazioa. Europa batu eta arimadun bat eraikitzearekin dugun konpromisoari eusten diogu, Europa sozial eta solidarioago bat, pertsonak bere proiektuaren erdigunean jarriko dituen, ongizatearen sinonimo eta giza garapen iraunkorren eredu den Europa bat, demokraziaren, askatasunaren eta giza eskubideen erreferentzia izaten jarraitzen duen eremu bat eta osatzen duten herri eta nazioei ahotza emango diona.
- EAJk European sinesten du. Europak Euskadiren proiektua izaten jarraitzen du. Gure oraina eta geroa Europar Batasunari estu lotuta dago, euskal atzerri ekintzaren lehentasunezko jokaleku izaten jarraituko duen Europar Batasunari. Erkidegoaren erabaki prozesuetan Euskadiren parte-hartze zuzena zabaltzera

emana dago gure kanpo ekintza, eta gero eta euskal eragile publiko eta pribatu gehiago Europa mailako ekinbide eta proiektuetan txertatzera.

- Estrategia konpartitua. Gurea bezalako Herri txiki baten nazioarteko proiektioak estrategia argi eta konpartitua behar du, erakunde, enpresa eta profesional guztiena, eraginkorra eta arrakastatsua izateko. Basque Country markak finkatu egin nahi du atzerriko aurkezpen txartel modura, seriotasun, kalitate eta bakan-tasunaren erakusgarri. EAJn estrategia konpartituetan sinesten dugu, izan ere elementu biek, estrategiak eta markak, eragile publiko eta pribatuen multzo osoaren inplikazioa eta konplizitateak behar dute, gauzatzeko. Lankidetzaren eremuak ere behar ditu, esate baterako Nazioarteratzeko Euskal Partzuergoa.
- Lehentasuna eta ardatza. EAJk ulertzen duenetik, gure ehun ekonomikoa indartzeko giltzarrietako bat epe ertainerako lana da, eta, hobekuntza etengabe eta iraunkorrerako nahitaezko bide gisa, gure konpartituetan nazioarteratzea. Sustapen ekonomikoaren sistemako beste eragile batzuen lankidetzarekin, politika jakin batzuk segmentatzen eta sakontzen lagunduko duten harreman-nodo egonkorak sortzen eta garatzen sakonduko da, bai eta eragile antzientzaren arteko lankidetzaren bitartez atzerriko inbestimendua eta talentua erakartzen ere.

***Euskadiren geroa
jokaleku globalean
jokatzen da***

EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA

» 5.1 KONPROMISOA

LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAN EUSKADI-BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA GARATU

<p>5.1.1 Ekinbidea Nazioarteratzeko estrategia konpartitu bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Euskadi-Basque Country” marka indartzea, markaren finkapen prozesua areagotuaz eta nazioartereko agenda duen eragile kopuru zabal bat erabiltzera atxikiaz. Basque Country sustapen kanpainak eta ospakizunak. • Herri-erakundeen arteko Kanpo Ekintzako Batzordea bilgune gisa indartzea, EAEko herri-erakundeen artean kanpo ekintzaren arloan biltzeko, batera jartzeko eta lankidetzan aritzeko gune bat delako. • Kanpo Ekintzako Aholku Kontseilua sendotzea, gizarte zibilak euskal kanpo ekintza diseinatzen eta martxan jartzen parte hartzeko gune bat delako. • Kanpo Ekintzako Sail arteko Batzordearen funtzionamendua indartzea, bai eta Nazioarteratzeko Euskal Partzuegoarekin duen harremana ere. • Jardueraren zati handi bat atzerrian garatzen duten euskal eragileei, Eusko Jaurlaritzaren sailei eta sektore publikoari nazioarteratze arloan balio erantsiko zerbitzuak eta informazioa eskaintzeko gaitasuna hobetzea. • Nazioartereko ingurugiroan aldaketa geopolitiko guztiak kontuan hartuta, euskal eragile publiko eta pribatu guztiei balio erantsi handiko zerbitzuak eskainiko dituen eta erabaki aztatuak ezagutza maila handiarekin hartzen lagunduko duen nazioartereko adimen sare bat sorrarazteko, dauden gaitasunak konektatzea.
<p>5.1.2 Ekinbidea Atzerri sare integratu batekin operatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiren ordezkartza sarea eta atzerriko bulego sektorialena finkatzea, lehenasuna duten herrialdeetan hedatzen aurrera eginaz. • Ordezkaritzen egitura indartzea, beste herri administrazio batzuekiko lankidetzak optimizatzeko behar diren mekanismoak erabiliaz. • Atzerrian presentzia eta ekintza ahalmena izateko era osagarri berriak bultzatzea, nazioartean dugun eragina hobetzeko eta gainditzeko. • Nazioartereko bazkideekin plataforma fisikoak konpartitzea. • Atzerriko euskal sarearen kudeaketan efizientzia, arrazionaltasun eta koherentzia irizpideak aplikatzea, denboran egonkorra eta sostengatua den ekintza motaren ikuspegitik, gainera. • Aldizkako informazioa, kontu ematea eta ebaluazioa egiteko bideak sistematizatzea, egiten ari diren ekintzen eragina neurtu ahal izateko eta, kasua bada, kanpo ekintzen kudeaketan elementu zuzentzaileak sartzeko.
<p>5.1.3 Ekinbidea Euskadiren bazkide estrategikoekin eta sareekin dagoen lankidetzak zabaltzea, kanpo ekintzarako</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiren bazkide estrategikoak diren eskualdeen sarea zabaltzea eta indartzea: lankidetzak akordio globalak izenpetu, horien jarraipena egin eta martxan jarri, aldian-aldian topaketak egin, bisita ofizialak eta misioak antolatu. • Learning Tour ekinbidea sendotzea, lehenasunezko herrialdeetako pertsona garrantzitsuak Euskadira etortzeko bisitak antolatuaz, lehenagoko Learning Tour edizioetan parte hartu dutenen sarea sortzea, eta lortutako kontaktuen jarraipen pertsonalizatua egitea. • OEA eta SEGI Bekin sinatutako lankidetzak akordioak eta UNESCOrekin sinatutako elkar ulertzeko memoranduma aplikatzea eta nazioartereko beste antolakunde batzuetara zabaltzeko aukerak aztertzea. • Espainian egiaztatutako gorputz diplomatikoarekiko harremanak pribilegiatzea eta harreman horiek estutzen jarraitzea. • Lehenasunezko herrialdeetako eragile publiko eta pribatuekiko harremanak estutzea, akordioak sinatuaz, alde bietarako bisitak antolatuaz, lankidetzak proiektuak sustatuaz, foroetan parte hartuaz. • Eusko Jaurlaritza osoaren eta beste eragile publiko eta pribatuen ekintza koordinatu eta integratua sustatzea, nazioartereko ospakizun eta jarduerak erakartzeko eta elkarrekin antolatuz. • Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal eragile eta aditu batzuen partaidetza bultzatzea nazioartereko sareetan, Euskadi politika publikoetan “eragina dutenen artekoa” izan dadin nazioartean.

EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA

» 5.2 KONPROMISOA

EUROPAKO ERAKUNDEETAN AKTIBOKI ETA ZUZENEAN PARTE HARTU

<p>5.2.1 Ekinbidea Erkidegoaren erabaki foroetan euskal partaidetza maximizatu, bereziki EBaren Kontseiluan eta Batzordearen batzorde teknikoetan (komitologia)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Europar Batasunaren Kontseiluko lantaldeetan parte hartzea, bereziki ECOFINen. • EBaren batzorde teknikoetan aktiboki parte hartzea. • Euskadirentzat garrantzi berezikoak diren eremuetan lan batzordeetan parte hartzea, hau da, altzairua, zergabidea, berrikuntza, arrantza, itsasontzigitza, industria 4.0, klima aldaketa. • Eskualdeen Batzordearen osoko bilkuretan eta batzorde horren lantalde espezifikoen bileretan parte hartzea.
<p>5.2.2 Ekinbidea Europako gaietarako eta kanpo ekintzarako Euskadi-Estatua Alde Biko Batzordea berreskuratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1995eko azaroaren 30ean Madrilen Europako gaietarako eratu zen Euskadi-Estatua Alde Biko Batzordea berraktibatze eskatu. Eratu zenetik, bilerak 1996an (2), 1997an, 1998an eta 1999an egin dira. • Espainiako Gobernuari berriro eskatuko diogu jarduera hori berreskuratzeko eta eratu zenean (1995eko azaroaren 30ean) eraketa aktan aurreikusi ziren bilerak egiteko.
<p>5.2.3 Ekinbidea Euskal eragileek sare, ekinbide eta proiektu transeuroparretan parte hartzea bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Europako Juncker Planeko proiektuetako batzuetan partekide izatea eta Europako Batzordeak 2020ra begira jarri dituen lehentasunetan erantzulekide jokatzeko. • Europako proiektuen sustatzaileei lagundu eta aholkularitza pertsonalizatua ematea, bereziki Europarako Inbestimendu Estrategikoen Funttsaren, smart cities, Horizon 2020 esparruetan. • Euskadin hazkuntza adimentsu, iraunkor eta integratzaileko Europa 2020 estrategia eta sare transeuroparrak zabaltzea. • European Innovation Partnership-etan Euskadirako lehentasunezkoak diren eremuetan euskal eragile publiko eta pribatuen parte-hartzea bultzatzea.
<p>5.2.4 Ekinbidea Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea finkatu eta Pirinioan mugaz gaindiko harremana bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euroeskualdeko 2014-2020 Plan Estrategikoa zabaltzea, mugaz gaindiko proiektuei eta garapenerako lankidetzari laguntza emanaz eta horiek sustatuaz. • Euskadi-Nafarroa-Akitania eskualdea Europako erakundeentzat erreferentzia bihurtzea eta Arku Atlantikoaren barruan bere lidergoa bultzatzea. • Euroeskualdearen lan dinamiketan Nafarroa sartzea, sar dadin lagunduaz eta lankidetzari emanaz. • Akitania-Euskadi-Nafarroa Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen, Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoaren eta Pirinioetako Lan Elkartearen (CTP) bitartez mugaz gaindiko harremana bultzatzea. • Pays Basque edo Iparralde erkidegoarteko baten integrazioari erraztasunak ematea, 2017an eratu bide baita.
<p>5.2.5 Ekinbidea Europako nazio eta eskualdeekiko harremana eta Europaren ezagutza sendotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal egoeraren antzeko baldintza politikokoak eta autogobernua dituzten Europako eskualde gobernuekiko harremana bultzatu eta esperientziak trukatzeko. • Jokabide onen transferentzia bultzatzea, herritarren aldeko politiketan etengabeko hobekuntza bideratu ahal izateko. • Europari buruzko komunikazio eta informazio kanpainak bultzatzea, Europako erakundeekin batera. • Herritarrentzako topagune eta eztabaidaguneak eratzea, Europaren esparruan gizarte aktiboago bat edukitze aldera. • Europaren eraikuntza eta integrazioaren legitimitatea bultzatzea.

EUSKADI-BASQUE COUNTRY NAZIOARTERATZEA

» 5.3 KONPROMISOA

EUSKAL ENPRESARI NAZIOARTERATZEN ETA AUKERA EKONOMIKOAK BILATZEN LAGUNTZEA

<p>5.3.1 Ekinbidea Euskal enpresari nazioarteratzen in situ lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • SPRIren nazioarteko jarduera indartzea Nazioarteratzeko Euskal Estrategia Integral baten esparruan. • Diplomazia korporatiboko jarduera areagotzea. • Finantza erakunde alderdi-aniztunen aurrean euskal enpresen posizioa hobetzea. • Adimen lehiakorreko sistema bat ezartzea, gure sektore estrategikoen eta enpresen behar eta aukeretara zuzenago egokitutako nazioarteratze estrategia bat aplikatzen laguntzeko.
<p>5.3.2 Ekinbidea Euskal industriaren oinarri esportatzailea zabaldu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza plataformen sorrera sustatzea (partzuergoak, elkarreak) merkatu konkretuetara joateko. • ETEak lehiaketa eta norgehiagoka publikoetan parte-hartzera bultzatzea. Basque Country lehiaketa plataforma bat sortzea, enpresei lehiaketa publikoetan parte hartzeko prozesuen fase guztietan laguntza eta laguntasuna emateko (proiektuei buruzko informaziotik hasi eta eskaintzak aurkezteko azken faseraino). • Ezer ez edo gutxi esportatzen duen enpresa atzerrira ateraraztea.
<p>5.3.3 Ekinbidea Euskal enpresa nazioarteratzeko sendotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal enpresari nazioarteratzeko esfortzua jasaten lagunduko dioten finantzabideak ematea. • Euskal enpresen arteko lankidetzak dinamikak bultzatzea, baita bat egite eta xurgatze prozesuak ere, dimentsioa nahikoa hartu arte. • Enpresari nazioartean finkatzeko prozesuetan laguntzea. • Orain dagoen Nazioarteratzeko Euskal Partzuergoa Nazioarteratzeko Euskal Agentzia benetako bat izan dadila lortzea, hau da, nazioarteratzearen arloan euskal agintaritza bakarra izatera heltzea. • Enpresari nazioarteratzen laguntzeko programa eta zerbitzuetarako leihatila bakarra jartzea.
<p>5.3.4 Ekinbidea Nazioarteratzeko euskal talentua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal gaztediaren artean nazioarteko enpresa jarduerari buruzko interesa piztea. • Euskal enpresari nazioarteratzean euskal talentu prestatua eskaintzea. • Nazioarteko euskal talentua aberrira itzularaztea. • “Global Basque Business Network” sortzea.



6. TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Merkataritza oinarritzako sektore bat da Euskadiren egituran, bai bere tamaina ekonomikoengatik bai duen garrantzi sozialagatik eta hiriko bizitza egituratzeko gaitasunagatik. EAJ-PNVn jakitun gara hiriko hurbileko merkataritzaren garrantzia. Oso sektore garrantzitsua da Euskadin, aberastasuna sortzen delako eta funtsezko elementu bat delako familia enpleguaren egonkortasunerako. Halaber, erabakigarria da gure herri eta hirien antolakuntza espazialerako, hiriko diseinuaren eta gizarte harremanen terminoetan. Hala, hiri eredu oparo bat eratzten da, atsegina, segurua eta biziki-detzarako aproposa.
- Merkataritza ikuspegi zabal batetik ulertzen dugu, eta horren barne hartzen ditugu produktuak saltzen dituzten establezimenduak eta tokiko inguruan hurbileko zerbitzuak ematen eta saltzen dituzten establezimendu guztiak ere bai. Horiek gure herri eta hiriak dinamizatzen laguntzen dute.
- Gaur egun, Euskadiren merkataritza bakanetan 42.000 merkataritza enpresa baino gehiago daude; horietatik, 27.000 enpresek txikizkako jarduera garatzen dute. Merkataritzak euskal barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena % 11 ingurukoa da eta Euskal Autonomi Erkidegoko enplegu guztiaren % 15 sortzen du.
- Merkataritza sektoreak eraldaketa sakona izan du eta horren aldaketa-abiadura asko bizkortu egin da azkenengo urteotan. Merkataritza sektorearen portaeraren ezaugarri nagusiak hauek dira: enpresa dinamismo handia, egituren atomizazio handia eta enpresa-integrazio txikia.
- Merkataritza sektorea zenbait tensioen menpe dago, bai koiunturazkoak bai egiturazkoak. Funtsean, horiek arrazoi hauengatik ematen dira: demandaren jaitiera, merkataritza operadore handien kontzentrazioa, aldaketa teknologikoak, merkaturatzeko kanal berriak egotea eta kontsumitzaileen portaerazko jarraibideen aldaketak.
- EAJ-PNVk proposatzen duen merkataritza politikaren funtsezko lerroak merkataritza teknikak eta bitartekoak modernizatzen bideratuta daude, baita saltoki txikien kostuak murriztera ere. Aldi berean, finantziario iturrietarako sarbidea eta prestakuntza hobetzeko lan egingo dugu, bereziki, alfabetatze digitalera eta negozio eta kudeaketa aurreratuko eredu berri-tzaileak hartzea babestera bideratutakoa.
- EAJ-PNVtik merkataritza eredu europar batean oinarritutako hiri merkataritzaren alde egiten dugu, sozialki kohesionatuta dauden hiri eta herri trinko eta bizietan inkardinatzen dena; ingurumenari dagokionez antolakuntza espazial iraunkorragoa ahalbidetzen duten hiri eta merkataritza inguruetan; leku-aldaketak eta bideen saturazioa saihesten dituen. Inguru trinko eta finkatuak lortzea hiriaren merkataritza eta sustapen jardueraren oinarritzako elementu gisa, erronka nagusietako bat izango da.
- Hiri merkataritza espazioak merkataritza erreferentzien abangoardian kokatzeko lan egingo dugu. Zentzu horretan, EAJ-PNVk euskal merkataritza indartzen eta dinamizatzen duen eta horren garapena babesten duen kudeaketa eredu asoziatiboa indartzearen alde egiten du.

***Merkataritza eredu
europar batean
oinarritutako hiri
merkataritzaren
alde egiten dugu***

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA

» 6.1 KONPROMISOA

MERKATARITZAREN LEHIARKOTASUNA SUSTATZEA

<p>6.1.1 Ekinbidea Merkataritza sektorearen profesionalizazioa babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritzaren prestakuntzaren mapa ezartzea, merkataritza enpresaburuaren irudirako bilakaeran. • Etengabe identifikatzea merkataritzan gehien eskatzen diren profilak, merkataritzaren alorreko profesionalak prestatzeko eta berriz gaitzeko. • Prestakuntza biltegi bat sortzea online, Ostalaritzan eta Merkataritzan lehentasunezko eskumenak garatzera bideratutako prestakuntza edukiekin. • 211/2015 Dekretua aplikatu eta sustatuko dugu; horrek eskuratutako eskumen profesionalen ebaluazio eta akreditazio prozedura eta antolakuntza ezartzen du, lan esperientziaren bidez edo prestakuntza bide ez formalekin bidez. • Prestakuntza eta eskumen profesionalen hobekuntza lan merkatu aldakor batera egokitzeak pertsonen bizitza osoko ikasketa kapitalizatzen eta aitortzen duten prozeduren alde egitera eramaten gaitu. Gure helburua da prestakuntza profesionala egiaztatzea behar duten pertsona guztiak lan baldintzak edo laneratzeko baldintzak hobetzea.
<p>6.1.2 Ekinbidea Merkataritza informazioaren eta komunikazioaren teknologietara egokitzeko plan bat sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza sektorea teknologia berriekin bat egitea babestea, Merkataritza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietara egokitzeko Plana garatuz. • Lantegi teknologikoetan oinarritutako alfabetatze teknologikoko prozesu bat garatzea. • "Implantalaris" deritzon irudia sustatzea; profesional horiek merkataritza sektoreko profesionalak informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin bat egiteko prozesua jarraituko dute. • Negozioaren kudeaketa eta garapenera aplikatutako tresnen erabilera eta IKTen erabilera sustatzea eta bultzatzea, bezeroak fidelizatzea, merkaturatzea, komunikatzea eta sustatzea.
<p>6.1.3 Ekinbidea Negozio eredu berriak sustatzera eta kudeaketa aurreratura bideratutako laguntza programak indartzea saltoki txikietan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Negozio eredu berrien garapena babesteko programa indartzea; hori oraingo eredu berrikuspenean eta eredu errentagarri, berritzaile eta iraunkorretarako bilakaeran oinarrituta dago. • Saltoki txikietara zuzendutako banakako tutorizazio programa diseinatzea. • Kudeaketa aurreratu "Saltokitik Enpresara" Programa abiaraztea; horren bidez, sektoreak tutore baten laguntza izango du eta horrek merkataria lagunduko du lehiakortasuna, enpresa eraginkortasuna eta negozioaren emaitzak hobetzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzen.
<p>6.1.4 Ekinbidea Zaintza lehiakorreko sistema bat abiaraztea merkataritzaren sektorean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusmer Merkataritzaren Behatokia indartzea. • Zaintza lehiakorreko sistema berri bat abiaraztea, esperientziak identifikatzera eta hedatzera bideratutakoa. Esperientzia horiek beren izaera berritzaileagatik, emaitza positiboengatik eta transferigarritasun-potentzialagatik hautatzen dira.
<p>6.1.5 Ekinbidea Merkataritza ekintzailtza babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritzarekiko izaera berritzailea eta enpresa-izaera sustatzea, merkataritza ekintzailearen irudia eta gazteengan sektoreko enpresa-izaeraren aldeko jarrera sustatzea.
<p>6.1.6 Ekinbidea Enpresa-jarraitutasuna eta eraberritzea sustatzea merkataritza-ostalaritza sektorean. Berriz-enpresa proiektua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berriz Enpresa sustatzea, merkataritza, ostalaritza eta ostatu sektoreetan enpresa-jarraitutasuna erraztera bideratutako programa. • Euskal merkataritza, ostalaritza eta ostatu sektoreetan enpresa-jarraitutasuna erraztera bideratutako programa mantentzea eta sustatzea. Hurrengo urteotan proiektuak sektoreko gainerako euskal erakunde eta eragileen eransketan jarriko du arreta, horren zabalkunde handian eta urteko eskualdatzeen kopurua handitzean.
<p>6.1.7 Ekinbidea Merkataritza berezia sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiria 3.1 proiektua sustatzea, merkataritza elkartuari laguntzeko bere egoeraren diagnostikoa egitean eta hobekuntzak bilatzeko funtsezko hiru alderdietan: kalitatearen autodiagnostikoa, laneko arriskuen prebentzioa eta datu pertsonalen babesa. • Diagnostiko integrala egitea eta hiriko saltoki berezi eta bereizgarriak zaindu eta sustatzeko beharrezko neurriak ezartzea.

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA

» 6.2 KONPROMISOA

MODU ERAGINKORREAN KUDEATZEA HIRIKO ESPAZIOAK

<p>6.2.1 Ekinbidea Hiriko espazio irekiak dinamizatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hiriko Merkataritza Espazioak dinamizatzeko programa sustatzea, merkataritza negozioren lehiakortasuna handitzea errazteko, enpresa eta erakundeen arteko gune-lankidetzak indartuz. Hori guztia helburu bikoitzarekin, enpresa-lehiakortasuna indartzea eta merkataritza espazio erakargarriak lortzea. Hiriko merkataritza eta ostalaritza plataforma publiko-pribatuak garatzea. Hiriko merkataritza-guneak suspertze-ko aukeren bilaketa sustatzea. Europar eta Amerikan Business Improvements Districts alorrean, BID ereduak, izandako esperientziak aztertzea, hiriko merkataritza-espazioen kudeaketan izandako esperientzia arrakastatsuak identifikatzeko eta euskal BID ereduak diseinatzeko.
<p>6.2.2 Ekinbidea Euskal merkataritzaren kudeaketa estrategikoa hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hitzarmenak sinatzea euskal udalerriekin tokiko merkataritza plan estrategikoa garatzeko. Proposatzen da euskal eskualdeetako herri nagusietara eta udalerrietara hedatzeko erakundeen arteko lankidetzak ereduak, hiru hiriburu-etan hasitako merkataritzari dagokionez. Hitzarmen horien helburua espazio irmo eta finkatuak lortzea izango da, euskal hiri merkataritzako espazioak merkataritza-erreferentzien abangoardian kokatzera zuzendutako estrategiak garatzea, merkataritza espazioen autofinantziatzeara bideratutako plan ekonomiko bat diseinatzea eta hiri merkataritzako espazioak etengabe sustatzea.
<p>6.2.3 Ekinbidea Auzoetan merkataritza suspertzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Auzoetan merkataritza espazioak suspertzea sustatzea, Giscom Euskadiren datuak ustiatuz. Hori hiri plangintzarako tresna bat da eta gure udalerrietako merkataritza eta ostalaritzaren errealitateari buruzko informazio zehatza eskaintzen du. Ekintzak sustatzea udalekin lankidetzan, udalerrien eta bertako auzoen errealitatea ezagutzeko eta merkataritza suspertze-ko baterako estrategia garatzeko.
<p>6.2.4 Ekinbidea Merkataritza asoziazionismoa babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza asoziazionismoa babestea, enpresa-lankidetzak sustatuz lankidetzak-hitzarmenak eta laguntzen bidez. Hitzarmenak sinatzea hiru hiriburu-eta hiri merkataritzako plataformekin, Euskomer eta Euskaldendekin, merkataritza sektorearentzat interesgarriak diren proiektuak garatzeko. Merkatari elkartuen diskriminazio positiboa merkataritza establezimenduetara zuzendutako laguntza programetan.

» 6.3 KONPROMISOA

TURISMOAREN ETA MERKATARITZAREN ARTEKO SINERGIAK SUSTATZEA

<p>6.3.1 Ekinbidea Turismorako merkataritzaren mapak egitea eta zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Erosketa-turismoko produktuak sortzea eta garatzea eta turismo-merkataritza sareak eratzea. Azterlanak garatzea erosketa-turistaren profila ezagutzeko. Merkataritza turistikoaren mapa bat diseinatzea euskal merkataritza bereziaren erakargarritasuna hobetzeko. Turismo-merkataritza sektoreko gidetan presentzia sustatzea eta ohitzeko bidaia bultzatzea merkataritza-turismoko preskriptoreekin.
--	--

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEA

» 6.4 KONPROMISOA

MERKATARITZA KONTSUMOA SUSTATZEA

<p>6.4.1 Ekinbidea Udal merkatuak nabarmentzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzaz sustatzea udalerriekin gune berezietan tokiko merkatuen modernizazioa sustatzeko. Udal merkatuetan kontsumoa sustatzeko kanpaina bat garatzea.
<p>6.4.2 Ekinbidea Erakundeen arteko kanpainak saltoki txikietan kontsumoa sustatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hurbileko merkataritza nabarmentzeko eta horren inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko kanpainak garatzea. Txikizkako merkataritza eta horren garrantzi ekonomiko eta soziala nabarmentzea, urteko kanpainak eginez online eta offline hedabideetan.
<p>6.4.3 Ekinbidea Merkataritza sustatzea hornidurarik gabeko landa eremuetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritzari dagokionez hornidurarik ez duten landa eremuen diagnostikoa sustatzea. Aipatutako gune horietan hornidura ahalbidetzen duten eta jarduera ekonomikoa eragiten duten proposamen pilotuak diseinatzea eta ezartzea.

» 6.5 KONPROMISOA

ERAKUNDEEN ARTEKO GOBERNANTZA EGOKIA SUSTATZEA ETA MERKATARITZAREN ARLOAN DITUGUN ESKUMENEN DEFENTSA BULTZATZEA

<p>6.5.1 Ekinbidea Merkataritzaren erakundeen arteko mahaia sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritzaren lan-mahaia sustatzea eta finkatzea Eudelekin. Erakundeen eremu arautzailean egon daitezkeen oztopoak eta eraginkortasunik ezak identifikatzea, dagozkion jarduketak eta erreformak sustatuz, adibidez, zabalaren arauketaren berrikuspenean; salmenta ibiltariko espazioak eta formak berritzea; hiriko merkataritza espazioen dinamizazioa,...
<p>6.5.2 Ekinbidea Merkataritzaren lurralde plan sektoriala eguneratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza Ekipamenduen Lurralde Plan Sektorialaren berriskupen partziala eta eguneraketa, hori Europar Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016ko irailaren 2006/123/CE zuzentaraura egokitzeko, merkataritza formatu desberdinen oreka zainduz.
<p>6.5.3 Ekinbidea Euskal ganberen lege bat garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Ganberen Lege bat onestea eta garatzea.
<p>6.5.4 Ekinbidea Gure merkataritza eskumen eksklusiboen defentsa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gernikako Estatutuan jasotako merkataritza eskumen eksklusiboen defentsa, Estatuko oinarritzko legeriak ezarritako ordutegien liberalizazio osoari aurka egiten jarraituz. Berezko arauketa sustatzea euskal legerian, turista-oldeko guneei dagokienez.
<p>6.5.5 Ekinbidea Merkataritza Jardueraren Legea onestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza Jardueraren Lege berri baten onespenean sustatzea, 2014ko abenduaren 30ean onartutako eta legebiltzarrari bidalitako lege proiektuan oinarrituz.



7. TURISMOA ETA OSTALARITZA

TURISMOA ETA OSTALARITZA

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

- Turismoa funtsezko sektore bat bihurtu da aurrerapen sozio-ekonomikorako eta Euskadiren egitura ekonomikoaren dibertsifikaziorako. Gaur egun, turismoa barne-produktu gordinaren % 5,9 da eta 100.000 enplegu inguru sortzen ditu. 2015ean, 3 milioi sarrera baino gehiago egon ziren eta 5 milioi ostatu-gau.
- Horregatik guztiagatik, EAJ-PNVren konpromisoetako bat turismoak euskal ekonomian duen eragina handitzea izango da.
- Turismoa herrialde baten markaren sustatzaile handi bat da. Norakoaren profila igotzera laguntzen du, munduari euskal gizartearen irudia erakutsiz. Bisitan datozen pertsonen gure ingurua ezagutzeak aukerak ematen dizkigu beste eremu batzuetan: kulturala, enpresariala, teknologikoa eta erakundearen eremuan.
- EAJ-PNVrentzat turismoaren sektorea gobernuaren estrategia globalaren funtsezko alde bat da, Basque Country marka munduan posizionatzeko.
- Gure garapen turistikoa ondare natural eta kulturalaren zaintzan oinarrituko da, sektorearen bideragarritasun ekonomikoan eta ekitate sozialean. Euskadi Basque Countryk "Biosphere Responsible Tourism Destination" egiaztapenaren aldeko apustua egin du. EAJ-PNVren konpromisoetako bat BIOSPHERE ereduaren ezarpenean lan egitea izango da; horrek ahalbidetzen du estandar bakarrean kalitate, ingurumen, garapen sozioekonomiko eta garapen kulturalako betekizunak biltzea. Horrela balio erantsi garrantzitsu bat bihurtzen da norakoarentzat, establezimenduentzat eta produktu turistikoentzat.
- EAJ-PNVren konpromisoa Euskadi norako turistiko iraunkorren artean erreferente bat izatea lortzea da, sistema turistikoaren plangintza eta kudeaketa ikuspegi integratu bat hartuz.
- Euskadi Basque Country kalitatezko norako bikain bat bezala posizionatu nahi da. EAJ-PNVtik euskal produkzio sektoreetan eragiteko gaitasun handia duten bidaiari guztien bisitaren esperientziaren kalitatea hobetzeko proposatzen dugu (garraioa, ostalua, jatetxeak, aisialdia, kirola, finantzak, merkataritza...). Hori guztia, baliabideen optimizaziotik garatuko da eta eraginkortasunik handienarekin, erakundearen arteko koordinaziotik eta lankidetzaren publiko-pribatutik.
- EAJ-PNVk aliantzak sortzen jarraituko du Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako erakunde eskudunen eta euskal industria turistikoaren artean. Plangintza eta kudeaketa turistikoa eragile guztien parte-hartzearekin egingo dugu. Batera lan egingo dugu gure ondare kulturala eta naturala modu adimendu eta arduratsuan nabarmentzeko, babesteko eta kontserbatzeko. Gure estrategia benetakotasunean eta gure identitatea mantentzean oinarrituko dugu; izan ere, horrek paregabeak bihurtzen gaitu gure lehiakideen aurrean. Halaber, Euskadi Basque Country eta "Basque Style" deritzona norako desberdin gisa proiektatuko ditugu.
- Euskadi norako adimendu gisa eratzerrantz egingo dugu aurrera. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek iragarpen sistemak ekarriko dituzte, lankidetzaren sareak, erabakiak babesteko sistemak, eta segimendu, kudeaketa eta sustapen eta merkaturatze tresnak. Gehiago eta hobeto ezagutzea bilatuko dugu, bidaiariekin komunikazio zuzena izateko.
- EAJ-PNVtik lurralde dibertsifikazioa eta urtarokotasunik eza landuko ditugu, segmentu berrietara zuzendutako produktuen kategorია berrien eskaintza berezia sortuz. Euskal industria turistikoarekin koordinatuz, Euskadi Basque Country norakoa nazioarteko eta estatuko merkatuetan posizionatzea sustatzen eta indartzen jarraituko dugu.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du euskal industria sektorearen garapena babesteko. Euskal turismoa industria aurreratu eta lehiakor gisa posizionatuko dugu.
- Horretarako, erakunde esparru juridiko hobeez baten konfigurazioan lan egingo dugu. Hezkuntza sektorearekin batera, turismoko giza-baliabideen hobekuntza bultzatuko dugu. Prestakuntza eta esku-men profesionalen hobekuntza egokituko ditugu. Enpresa-lankidetzaren sustatuko dugu eta esperientzia praktikoa berritzaileak identifikatu eta zabalduko ditugu. Oraingo eskaintza turistikoaren modernizazioa eta hobekuntza babestuko ditugu, eta kalitatezko, irisgarritasun eta energia eraginkortasuneko kudeaketa sistemak ezarriko ditugu.
- Ostalaritza sektoreari dagokionez, azpimarratu behar da ostalaritzak eta jatetxeek euskal ekonomiari barne-produktu gordinaren % 2,7 ematen diotela. Jatetxeen sektorearen alde bat, turismoaren lege berriak jasotzen duen bezala, interes turistikoko jardueraren gisa hartzen da, turismoa dinamizatzen laguntzen duelako eta bidaiarien mugimendua eta egonaldiak bultzatzen dituelako Euskadin. Hala eta guztiz ere, ostalaritzan heterogeneotasun handia dago. Horregatik, ostalaritza eta jatetxeen jardueraren kudeaketa turismora eta Euskadiren jardueraren ekonomiko orokorrera lotutako sektore dual gisa hartuko da, ez soilik interes turistikoaren enpresa gisa.
- Printzipio horiek inspiratu dute 2016ko uztailan onartutako indarreko Turismo Legea; horren garapena programa honetan jasotako konpromiso, ekinbide eta jarduketaren arabera burutuko da.

***Konpromisoa
Euskadi norako
turistiko
iraunkorren artean
erreferente bat
izatea lortzea da***

TURISMOA ETA OSTALARITZA

» 7.1 KONPROMISOA

EUSKADI "BASQUE COUNTRY" NORAKO TURISTIKO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA BIHURTzea

<p>7.1.1 Ekinbidea Iraunkortasun turistikoko biosphere eredua ezartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Iraunkortasun Institutuak eta Turismoaren Mundu Erakundeak ezarritako irizpideak jasoko ditugu eta IHOBE eta EVE Euskal Erakundeen berezko irizpideak ere bai. Norakoaren karga-ahalmenari buruzko txosten bat egitea. Karga-ahalmenaren txostena. Gure norako turistikoen karga-ahalmena aztertuko dugu, ez soilik gune naturalen kasuan, baizik eta beren-beregi hiriguneetan, bereziki biztanleen bizi-kalitatea arriskuan jarri daitekeenean. Adierazle kualitatibo eta kuantitatiboan panel bat garatzea. Turismoaren iraunkortasuna Europar Batasuneko 2030 agendaren helburuen arabera neurtuko da.
<p>7.1.2 Ekinbidea Euskadiko irisgarritasunaren eredu turistikoa eguneratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Turismo inklusiboa sustatuko dugu, pertsona guztientzat irisgarria dena, inguru fisikoak, garraio sistemak eta informazio bideak eta hedabideak barne hartuz. Turismoak eragiten dituen arlo eta elkarre desberdinek hartuko dute parte horren erredakzioan. Barne hartuko dira interes turistikoko, ostalaritza eta jatetxe jarduerak egiten dituzten enpresak. Bidaieriei modu arduratsuan bidaiatzeko dituzten aukeren berri emango diegu; aukera horiek bisitaria inguruarekin integratzea erraztuko dute eta bisitaren kalitatezko esperientzia hobetuko dute.
<p>7.1.3 Ekinbidea Produktu eta zerbitzu turistikoa iraunkorrak sortzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Produktu eta zerbitzu turistikoa sortu, garatu eta ezartzeko laguntzak indartuko ditugu, ondare kultural eta naturalaren errespetuzko erabilera sustatzen dutenak eta norakoaren eta bertako identitatearen balioak helarazten dituztenak. Turismoak harrera-erlaxazioarekin sortzen dituen etekin ekonomikoak maximizatuko ditugu, ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak barne hartuz.
<p>7.1.4 Ekinbidea Eraginkortasun energetikoa bultzatzea baliabide turistikoen erabileran</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa eredu berritzaileak eta egokiak ezarriko ditugu baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzeko, bereziki uraren eta energiaren erabileran. Ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak hartuko dira barne.

» 7.2 KONPROMISOA

EUSKADI BASQUE COUNTRY NORAKO TURISTIKO BIKAINA BIHURTzea

<p>7.2.1 Ekinbidea Inguru kultural eta naturalaren kalitatea bermatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroak hautematen duen kalitatea handituko dugu, zerbitzua hobetuz eta jardunbide egokiak aplikatuz. Gure helburua bezeroen asebetetze maila altua mantentzea da. Bisitaren esperientziaren kalitatea hobetuko dugu. Horretarako, norakoaren inguru kulturalaren eta naturalaren kalitatea bermatuko dugu, merkatuari balio altua eskainiz eta bisitarien ongizatea, asebetetzea eta segurtasuna bermatuz.
<p>7.2.2 Ekinbidea Jardunbide turistikoa egokien eskuliburua argitaratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kalitatezko eskaintza dibertsifikatua garatuko dugu: gastronomia eta enologia, turismo kulturala eta hiriko turismoa, ongizate turismoa, familia turismoa, Premium turismoa, natura turismoa eta MICE turismoa (Meetings, Incentives, Conferences and Exhibitions). Inguru aldakor batean gaude, non turismo kontsumitzailearen profil berri bat eratzen ari den. Bertan, aldaketetara egokitzea eta produktu turistikoa etengabe birasmatzea, zalantzarik gabe, funtsezkoak dira Euskadi 2020 planerantz arrakastaz aurrera egiteko.
<p>7.2.3 Ekinbidea Bidaia-irak gure sustapen estrategiaren erdigune bihurtzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroa ezagutzeko eta horrekiko harremana norakoaren sustapena eta merkaturatzea definitzeko, garatzeko eta berrikusteko fokua izango dira. Harrera hobea diseinatuko dugu aireportu, portu eta trenbide geltokietan. Gainerako erakundeekin batera "Euskal Turismoa sustatzeko 2016 plan berria" garatuko dugu.

TURISMOA ETA OSTALARITZA

» 7.3 KONPROMISOA

EUSKADI "BASQUE COUNTRY" NORAKO TURISTIKO ADIMENDUA BIHURTzea

7.3.1 Ekinbidea Euskal sistemaren adimen sistema sortzea	<ul style="list-style-type: none"> Euskal sistemaren adimen sistema sustatuko dugu; horrek agente publiko eta pribatuen lankidetzeta eta koordinazioa izango du horren irismena eta finantziak defintzean. Ezagutza funtsezko ardatza izango da, balioa sortzeko eta lehiakortasun ingurura egokitzeko. Turismoaren Euskal Behatokiaren irismena handituko dugu. Behatokia ezagutza unitate bihurtuko dugu, barneko eta kanpoko informazio guztia zentralizatzeko gaitasuna duena, gainerako erakundeen eta sektore turistikoaren esku jartzeko. Behatokia euskal sektore turistikoaren informazio, ezagutza eta adimen sistema izango da. Demandaren iragarpenen azterketa prediktiboa eta eskaintzaren konfigurazioa hobetzeko balioko du.
7.3.2 Ekinbidea Zaintza lehiakorreko sistema bat garatzea sektore turistikoan	<ul style="list-style-type: none"> Gure jardueraren inguruan eta gure lehiakide nagusietan ematen diren aldaketak monitorizatuko dira. Azterketa prediktiboa hobetuko da demanda iragartzeko.
7.3.3 Ekinbidea Turismo digitalaren aldeko apustua egitea	<ul style="list-style-type: none"> Euskadi Basque Country turismo digitalaren buruan posizionatuko dugu. Alfabetatze eta trebakuntza digitaleko programak. Hala, lantegi teknologikoak sustatuko dira. Zerbitzu berritzaileak geolokalizazioaren arloan. Esperientziak eraikitzea on-line partekatuak izan daitezten.
7.3.4 Ekinbidea XXI. Mendeko turismo bulegoa diseinatzea	<ul style="list-style-type: none"> Turismo bulegoen kontzeptu tradizionala inguru berrira egokituko dugu, non teknologia eta sare sozialak funtsezkoak diren. Espazio irekiak diseinatuko dira; bertan, aholkularitza pertsonalarekin batera, bidaiariek bere esku izango dituzte teknologia berriak eta ikus entzunezko edukiak. Bulegoetan IKT profil gaituak izango ditugu. Bulegoetako langileak bisitan datozen bidaiariren aditu eta aholkulari pertsonal bihurtuko dira.

» 7.4 KONPROMISOA

EUSKADIREN LEHIAKORTASUN OROKORRA HANDITzea NORAKO TURISTIKO GISA

7.4.1 Ekinbidea Prestakuntza programa berriak sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza mapa bat eratzea. Behin prestakuntza diagnostikoa eginda (ostatuena, agentzia harberak eta gida turistikoak), hobekuntzen plan bat egingo da, oraingo prestakuntza sistemaren gabeziak zuzentzeko. Hala, sektorearen prestakuntza beharrik handienei aurre egiten jarraituko dugu: hizkuntzen ezagutza, teknologia berrien ezagutza, negozioaren berritzeko gaitasunak, prestakuntza anfitrioi gisa eta turismo iraunkor eta irisgarriaren garapena, kudeaketa turistikoaren eredu gisa. Prestakuntza maparen arabera, prestakuntza programa espezifikoak abiaraziko ditugu, bereziki ostalaritza eta jatetxei zuzendutakoak. Halaber, dagozkion hobekuntzen plana bultzatuko dugu.
7.4.2 Ekinbidea Trebakuntza profesionaleko ziurtagiriak sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> 211/2015 Dekretua aplikatu eta sustatuko dugu; horrek eskuratutako eskumen profesionalen ebaluazio eta akreditazio prozedura eta antolakuntza ezartzen du, lan esperientziaren bidez edo prestakuntza bide ez formalen bidez. Prestakuntza eta eskumen profesionalen hobekuntza lan merkatu aldakor honetara egokituko ditugu. Prozedurak aplikatuko ditugu pertsonen ikasketa aitortzeko eta kapitalizatzeko bidez zehar. Gure helburua da trebakuntza profesionala egiaztatu behar duten pertsona guztiek lan baldintzak edo laneratzeko baldintzak hobetzea. Ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak hartuko dira barne.
7.4.3 Ekinbidea Turismoko batzorde aditua sortzea	<ul style="list-style-type: none"> Turismoaren alorreko adituek osatutako diziplina anitzeko foru bat sortzea; bertan, sektoreko profesionalen gain, hezkuntza, ikerkuntza, berrikuntza, teknologia, marketina eta industriaren mundua sartuko dira.

TURISMOA ETA OSTALARITZA

<p>7.4.4 Ekinbidea Berrikuntzaren urteko gida argitaratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia praktiko berritzaileak identifikatu eta hedatuko ditugu. Jardunbiderik onenak norakoetan eta enpresa lehiakideetan eta garatzeko bidean dauden enpresetan hedatzea sustatuko dugu.
<p>7.4.5 Ekinbidea Eraginkortasun energetikoko neurriak babestea sektore turistikoan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Babes eta finantziazio tresnak garatu eta diagnostikatuko ditugu, eraginkortasun energetikoko neurriak hartzea errazteko. Barne hartuko ditugu turismoaren sektorea, ostalaritza eta jatetxeak.
<p>7.4.6 Ekinbidea MICE euskal merkatua harmonizatzea (meetings, incentives, conferences and exhibitions)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Basquetourrekin batera, MICE sektorearen administrazio arteko egitura artikulatuko dugu, herrialde osoaren eskaintza harmonizatzeke eta horren erakargarritasuna indartzeko.
<p>7.4.7 Ekinbidea Produktu turistiko lehiakor berrien sorkuntza babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garatzeko bidean dauden segmentuen eta aukera segmentuen hautematea bultzatuko dugu, nitxo-produktuen kategoria berriak sortzeko (golf, erlijiosoa, ongizatea eta touring, eta ondare industriala...). Horiek gai izango dira urte osoan jarduteko eta lurralde dibertsifikazioan eta urtarokotasunik eza aurrera egitea ahalbidetuko dute. Gure ondare industriala berreskuratzeko eta nabarmentzeko programa bat garatuko dugu, aplikatzeko eredu bat izan dadin enpresa, industria eta norako turistikoentzat. • Produktu turistikoen eskaintza dibertsifikatzea. Produktuen eta norako turistikoen oraingo eskaintza handitu eta dibertsifikatuko da, baliabideen eta norako tradizionalen gaineko presioa murrizte aldera. Horrela, turismoaren lurralde oreka hobetuko da.
<p>7.4.8 Ekinbidea Turismoaren lurralde dibertsifikazioa eta urtarokotasunik eza bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde dibertsifikazioa eta urtarokotasunik eza gure helburuak izango dira. Gure lehenetsuneko eta bigarren mailako merkatuetako turistak erakarririko ditugu, norakoan gehiago gastatzen dutenak eta denbora gehiago geratzen direnak. • Sustapena eta merkaturatzea eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleekin egiaztatuko dira.
<p>7.4.9 Ekinbidea Pertsona ekintzaileak eta enpresa turistiko berritzaileen sorkuntza babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoa eta ostalaritzarekiko izaera berritzailea eta enpresariala suspertuko dugu: <ul style="list-style-type: none"> - Gazteen izaera enpresarialaren aldeko jarrera sustatuko dugu turismoaren eta ostalaritzaren sektorean. - Ekintzaile berrien aldeko diskriminazio positiboa egingo dugu Eusko Jaurlaritzak turismoa eta ostalaritzaren arloan ematen dituen laguntzetan. - Turismoaren eta ostalaritzaren sektorean interesa duten ekintzaileak biltzen dituzten datu-baseak sortzea. - Berriz Enpresa programarako sarbidea. • Erantzukizun soziala bultzatuko dugu turismoaren eta ostalaritzaren sektorean, giza-baliabideen kudeaketako jardunbide berrien hedapena baliatuz.

TURISMOA ETA OSTALARITZA

» 7.5 KONPROMISOA

“EUSKADI BASQUE COUNTRY” HERRIALDE MARKA GISA PROIEKTATZEA

7.5.1 Ekinbidea Euskadi-Basque country marka turistikoa bultzatzea nazioarteko turismoaren sektorean	<ul style="list-style-type: none"> Gure posizionamendua gure berezko identitatea nabarmentzean oinarrituko da, “Basque Style”.
7.5.2 Ekinbidea Basque country marka nazioarteko erreferente, azoka eta merkatuetan proiektatzea	<ul style="list-style-type: none"> Gure presentzia mantenduko dugu nazioarteko turismo azoketan, betiere sektore turistikoarekin eta gainerako erakundeekin koordinatuz. Ekintzak sustatuko ditugu lehentasunezko eta bigarren mailako merkatuetan.
7.5.3 Ekinbidea Norakoa sustatzea preskriptore erreferenteekin	<ul style="list-style-type: none"> Fam eta Press Trips lehentasunezko merkatu eta segmentuetara heltzea sustatuko dugu. Gure harremanak indartuko ditugu lekurik turistikoaren erredakzioaren buru diren eragileekin. Harreman, informazio eta harreman publikoko estrategia bat ezarriko dugu xede diren lehentasunezko merkatu garrantzitsuenetako preskriptoreekin (touroperazioa eta hedabideak).

» 7.6 KONPROMISOA

“EUSKADI BASQUE COUNTRY” NORAKOA EUSKAL ADMINISTRAZIO TURISTIKOA HARMONIZATZEN DUEN ETA BILTZEN DUEN ELEMENTU GISA SUSTATUKO DUGU

7.6.1 Ekinbidea Euskadi 2030 ibilbide-orria idaztea	<ul style="list-style-type: none"> “Euskadi 2030: Euskal Turismoa” ibilbide-orria idatziko dugu, politika turistikoa eta herrialde marka posizionatzeko tresna gisa. Eragile garrantzitsu guztiek hartuko dute parte informazioarekin. Halaber, buruzagitza politiko irmoa izango dugu, lankidetzaz zabala lortzeko eta adostasuna ezartzeko. Gure estrategia turismo iraunkor batean oinarrituko dugu, irisgarria, bikaina eta bere identitatea, ondarea eta kultura errespetatzen dituena. Bisitan datozen bidaiarien ongizatearen aldeko apustua egingo dugu eta hartzen dituzten tokiko biztanleen ongizatearen aldekoa ere bai.
7.6.2 Ekinbidea Turismoaren lurralde antolaketarako plana idaztea	<ul style="list-style-type: none"> Turismoaren lurralde antolaketarako plana lurraldea ikuspuntu turistikotik antolatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko tresna teknikoa izango da. Lurralde antolaketarako tresna hau norakoko urteko 6 planekin elkarrekin biziko da: 3 hiriburu eta planak, Arabako Errioxa Plana, Barrualdeko Plana eta Kostaldeko Plana. Turismoko erakunde arteko batzordearen sorkuntza sustatuko dugu, euskal erakunde desberdinen ekintza planak koordinatzeko.
7.6.3 Ekinbidea Araudi garapena	<ul style="list-style-type: none"> Araudi garapena eta jarduera hauen aplikazioa onetsiko ditugu: Etxebizitza eta logela turistikoan, hotelen, apartamentuen, agroturismoan, landetxeen, kanpinen eta aterpetxeen dekretua. Interes turistikoko jatetxe, bidaiaria agentzien eta bitartekaritza enpresen bereizgarria. Ikuskarpen arautegia eta arau-hausteen eta zigorren arautegia

TURISMOA ETA OSTALARITZA

<p>7.6.4 Ekinbidea Koordinazio publiko- pribatuaren buruzagitza</p>	<ul style="list-style-type: none"> Turismo mahaia mantentzea eta sustatzea, erakundeen eta sektore pribatuaren arteko eztabaida eta hausnarketa- ren foru gisa. Sektore turistikoaren antolakuntza, sustapen eta prestakuntza batzordeak bultzatzea.
<p>7.6.5 Ekinbidea Sentsibilizazio soziala kontzientziazio turistikoa ezartzeko euskal gizartean</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gure helburua Turismoaren Mundu Erakundearen planteamendua aplikatzea da. Kontzientziazio turistikoa jarduera turistikoa erkidegoarentzat ekartzen dituen aukeren eta arriskuen berri emanez lortzen da eta gizartea prestatuz eta trebatuz jarduera hori bere gain hartzeko, mota guztietako etekinak maximizatuz (ekonomikoak, sozialak, in- gurumenekoak, kulturalak, etab.). Euskal gizarteak garapen turistikoaren prozesuan parte hartzea funtsezkoa da.
<p>7.6.6 Ekinbidea Norakoaren konektibotasun eta irisgarritasun planak babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Aireportuen eta itsas bidaien mugikortasun eta konektibotasun planak diseinatzea, idaztea eta sustatzea.
<p>7.6.7 Ekinbidea Turismorako merkataritza eta ostalaritzaren mapa bat ezartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Turismorako merkataritza eta ostalaritzaren mapa diseinatuko dugu.
<p>7.6.8 Ekinbidea Kooperazioa Nafarroa eta Iparraldeko erkidegoekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> Baterako ekintzak sustatuko ditugu Nafarroa eta Iparralde inguruko erkidego eta norako turistikoekin.



8. LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

EAJ-PNVren konpromisoa lehen sektorearekin lotutako landa-eremuen eta kostaldearen garapenarekin eta sustapenarekin lehentasunezkoa izan da, da eta izango da. Euskadi bera ez litzateke ulertuko lehen sektorearekin eta landa-inguruarekin eta kostaldearekin duen lotura gabe. Ikuspuntu horretatik, EAJ-PNVk lehen sektorea babes-teko estrategia bat proposatzen du, printzizio iradokitzaile hauetan oinarrituz:

- Landa-eremuak eta kostaldeak aktibo mantentzea. Landa-lurralde osoari erantzuteko, EAJ-PNVk Leader guneetan eta LEADER ez diren guneetan jarduteko proposatzen du. Hitzematen dugu berezko funtsak jarriko ditugula landa-eremuetan esku hartzeko; horiek, LEADER guneak ez izan arren, menpekotasun handiko guneak izaten jarraitzen dutelako, biztanle-entitateen edo udalerrien esparruan.
- Kostaldearen garapenari dagokionez, eta Arrantzarako Tokiko Ekintza Taldea antolakuntza-elementu gisa hartuz, ekintzak, azpiegiturak eta zerbitzuak sustatuko dira, helburutzat horien garapen sozioekonomikoa dutenak.
- Berrikuntza iraunkorra. Proposatzen dugu garapen iraunkor integratuko eta kalitatezko estrategia berritzaile bat aplikatzeko. Betiere parte-hartze eta dinamizazioarekin, tokiko ekintza taldeena landa-ingururako eta arrantzarako ekintza taldeena kostalderako, ekimen guztien trazio-eragile gisa.
- Landa-eremuak eta kostaldeak hiri-guneekin parekatzea. Gure helburua landa-eremuetan azpiegiturak eta zerbitzuak garatzea da, landa-inguruko eta kostaldeko biztanleek hiri-guneko antzeko bizi-baldintzak izan dezaten bermatzeko. EAJ-PNVk banda zabal modernoa eta azkarra proposatzen du landa-eremurako; horrela, 2020 Europako Agenda Digitalak ezarritako helburuak beteko dira.
- Produkzio sektore errentagarri eta lehiakorra. Euskal nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearen etorkizuna ziurtatzeko, funtsezkoa da euskal ustategien errentagarritasuna bermatzea. Horretarako, zenbait alderditan hobetu behar dugu, besteak beste, sektorearen prestakuntza, lurzorua bezalako baliabideetarako sarbidea, finantzazioa eta merkaturatzea. Gainera, sektore-egituraketaren estrategiarekin jarraitu behar da, gero eta gehiago aldatzen duen merkatu globalean egonkortasun handiagoa lortzeko.
- Nekazaritza-produkzio ekologikoa eta ingurumena. Merkatuaren joera produktu osasungarrietara zuzenduta egongo da. EAJ-PNVrentzat, erronka produkzio ekologikoaren sektorea indartzea da.
- Sustapen horrekin batera, ingurumenaren iraunkortasuna bultzatu behar da. Lehentasunezkoa da aldaketa klimatikoa arintzen duten nekazaritza-jardunbideak hobetzea eta ustategien egokitzapena bilatzea. Euskadi da GEOz libre dagoen erkidego bakarra. EAJ-PNVk estatuarekin eta batzordearekin negoziatuko du EAEren aitortpena GEOz libre dagoen lurralde gisa.
- Lehen sektorearen belaunaldien erreleboa ziurtatzea. Sentsibilizazio estrategia bat abiaraziko dugu, gizarte osoari zuzendutakoa, lehen sektorearekin lotutako jarduerak ospe handiagoa izateko, batez ere, biztanle gazteen artean. Erronka honetan, EAJ-PNVk uste du Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritzea funtsezkoa dela; horrela, prestakuntzaren bidez, naturaltasunez hartuko da lehen sektorean etorkizun profesionala garatzeko aukera.
- Elikaduraren balio-katea balioztatzea. EAJ-PNVk uste du elikadura-estrategia egoki batek balio-katea kontuan hartu behar duela. Katea lehengaien produkzioan hasten da, transformazioarekin jarraitzen du, merkaturatzea, gastronomia, eta kontsumoan amaitzen da. Elikadura-garraioa edo ardoarekin eta gastronomiarekin lo-

tutako turismoa horrekin harremana duten arloak dira.

- Lehen sektoreak elikadurarekin zer ikusirik ez duten sektoreak ere hartzen ditu barne, besteak beste, egurra eta ongari primarioak. Hori guztia, euskarri finantzario irmo batekin, aberastasuna eta enplegua sortzen dituzten ekimen eta proiektu desberdinak garatu ahal izateko.
- Europako erreferentzia elikaduraren eta basogintzaren berrikuntzan. I+D+i arloko estrategiaren bidez, lehen sektore lehiakorrago eta iraunkorrago bat garatu nahi da, sektore-eragile desberdinen arteko elkarlana indartuz. Era berean, ikerkuntza aplikatua garrantzitsua da, Neikerrek garatutakoa nekazaritza eta ingurumenaren arloan, eta Aztin arrantzaren eta elikaduraren ikerkuntzari dagokionez. Aldi berean, sukaldaritzako tekniken I+D+i zentro baten garapena sustatu nahi da.

***Gure helburua
landa-eremuetan
azpiegiturak eta
zerbitzuak
garatzea da***

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

- Azkenik, estrategia bakar batean ardatzu eta bildu behar dira orain basogintzaren inguruan gure herrialdean egiten ari diren I+D+i esfortzu guztiak.
- EAJ-PNVren proposamena Euskadi nekazaritzaren, arrantzaren, basogintzaren eta elikaduraren berrikuntzarekin lotuta dauden sareetan erreferentzia eredu bat izatea da, AREPO bezala, eta Eskualdeen Sarea bezala gastronomia eta elikadura-aren alorrean.
- Arrantza abagunearen sektore gisa. Baxurako ontzidia eta atunzale izoztaileen ontzidia modernoak dira. Atunzale izoztaileen ontzidia oso garrantzitsua da mundu mailan; izan ere, orain, munduan harrapatzen den atun guztiaren % 20 inguru harrapatzen du.
- Atunzale izoztaileen ontzidiari dagokionez, EAJ-PNVk bi elkarleen elkarlana eta aliantza sustatuko ditu, gure sektoreak egiten duen balia bidearen kudeaketa iraunkorra nabarmendu nahi duten proiektuak garatzeko.
- Arrantza-kuoten berezko kudeaketa. EAJ-PNVren helburua Kantauriko Ipar Mendebaldeko Arrantzategiko berdel eta txitxarroaren kuoten banaketa finkatzea da. Gainera, estatuari premiatuko diogu antxoaren eta hegaluzearen banaketa lortzeko. Arrantza-kuotak erkidegoan kudeatzeko eskaera egiten du eta egingo du EAJ-PNVk estatuaren eta Europako erakundearen aurrean.
- Arrantza ordaintzeko erakundea sortzea proposatzen dugu, FEMPk zuzenean ordaintzeko Eusko Jaurlaritzari, nekazaritzan bezalaxe.
- Arrantza sektorearen kudeaketa zuzena, merkaturatzea eta gaztetzea. Kostaldeko guneak eta arrantzarekiko menpekotasun handia dutenak sustatuko dira, tokiko ekintza taldeen parte-hartze eta dinamizazioarekin. Aldi berean, arrantza sektorearen gazteagotzeko erronkari aurre egingo diogu, arrantza prestakuntzako beka eta eskolen bidez eta arrantzaren alorrean garrantzitsuenak diren portuak kudeatuz. Tresna finantzarioen garapena sustatzen jarraituko dugu, patroi gazteenek ontzien titulartasuna eskuratzea errazteko.
- Akuikulturaren garapena. EAJ-PNVk uste du funtsezkoa dela akuikulturaren garapena. Akuikultura garatzeko polo bat sortzeko proposatzen dugu, laguntza publiko eta pribatuarekin; horren helburua berrikuntza proiektuak sustatzea eta enpresa berriak sortzea izango da. Arreta berezia jarriko dugu atun gorriaren lodi-tzean; erauzketa sektoreak espezie horren kuota dauka baina ez dauka estrategik balio erantsia eskaintzeko.
- Tresna publikoak modernizatzea. Landa Garatzeko 10/98 Legea egokitzea, eta Landa Garapenerako eragilearen gobernantza, harreman eta finantzazio ereduaren berrikuntza definitzea. Landa garapenerako euskal sarea dinamizatzea, landa eragilearen agertoki berri bat sortuz. EAJ-PNVk lehentasun gisa ezartzen du harreman proaktibo bat izatea landa-eremuak mantendu nahi dituzten Europako sare guztiekin.
- Sektorearekiko harremanari dagokionez, administrazio eta kudeaketa prozedurak berrikusiko dira, ahalik eta gehien errazteko.
- Elkarrizketa zuzena Europarekin. Gernikako Estatutuak Euskal Autonomi Erkidegoari nekazaritza eskumenen eskusibotasuna ematen dio. Beharrezkoa da eskumen horiek bermatzea, desadostasunak ugariak izan direlako Espainiako Gobernuarekin. EAJ-PNVk Europako Batzordearekin elkarrizketa zuzena lortzeko lan egingo du. Helburua gure sektoreari eragiten dioten nekazaritza politikak modu integralean diseinatu eta garatzeko aukera izatea da.
- Lankidetzaren foru aldundiekin. Programazio epe hau lehenengoa izango da non NPEren laguntzak modu bateratuan kudeatzen diren, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean. EAJ-PNVk hitzemandu jarduketa koordinatu bat garatzeko duela administrazio kudeaketak errazteko. Horrela, administrazioak diseinatutako eta ezarritako laguntza programak eta neurriak eraginkorragoak izango dira.
- Euskadiko egurraren erabilera sustatzea. Administrazioak neurriak hartzen ari dira maila desberdinetan aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko. Horren ondorioz, egurra, Euskadik duen lehengaietako bat, oso garrantzitsua izango da hurrengo urteetan. Izan ere, bai eraikitzeko bai energia gisa erabiltzeko, oso CO2 gutxi igortzen du. Horregatik, basogintzaren balio-katea garatzeko abagune paregabea daukagu.
- EAJ-PNVk tokiko egurraren erabilera sustatuko du eraikin publiko eta pribatuaren eraikuntzan eta berrikuntzarako ez diren erregaiak pixkanaka baso-biomasa-arekin ordezkatzea ere bai.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.1 KONPROMISOA

LANDA-EREMUEI ETA KOSTALDEEI AZPIEGITURA ETA ZERBITZU EGOKIAK HORNITZEA BIZTANLERIA MANTENTZEN DELA BERMATZEKO

<p>8.1.1 Ekinbidea</p> <p>Landa-eremuetako eta kostaldeetako hornikuntzak eta azpiegiturak hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Landa-eremuan eta kostaldean jarduketa plan hauek garatzea: <ul style="list-style-type: none"> Landa-eremuei eta kostaldeeii banda zabalerrako sarbidea hornitzea, ekonomiaren garapenaren eta bizi-kalitatearen ardatz gisa, 2020 Europako Agenda Digitalaren helburuekin bat eginez. Landa-eremuko eta kostaldeko azpiegituren eta zerbitzuen inbentarioa eguneratzea, ekonomiaren garapen iraunkorreko baliabideak nabarmenduz. Identifikatzea eta ebatzea, administrazio eskudunekin batera, biztanle guztien sarbidea energia, telefonoa edo uraren hornidura bezalako oinarrizko zerbitzuetera.
<p>8.1.2 Ekinbidea</p> <p>Landa-eremuak eta kostaldeak sartzea horiek azpimarratzen dituzten sektore-garapenerako planetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Landa-eremuan eta kostaldean jarduketa plan hauek garatzea: <ul style="list-style-type: none"> Landa-merkataritzea plana. Etxebizitza plana. Hezkuntza plana landa-eremuan. Landa-garraio plana. Gizarte-zerbitzuen plana. Kultura sustatzeko plana.
<p>8.1.3 Ekinbidea</p> <p>Garapenerako eragileen sarea indartzea landa-eremuetan eta kostaldeetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Landa garatzeko elkarrekin gobernantza eredu berrikustea eta egokitzea. Landa Garatzeko 10/98 Legea berrikustea eta aldatzea, landa-eremuen eta kostaldeen beharrei erantzuteko. Sortu berri den landa garatzeko euskal sarea dinamizatzea eta babestea, herrialdearen landa garatzeko politikak koordinatzeko erreferente teknikoak bihurtuz.
<p>8.1.4 Ekinbidea</p> <p>Jarduera ekonomikoak eta enpleguaren sorkuntza sustatzea landa-eremuetan eta kostaldeetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Beken programa indartzea landa-eremuan eta kostaldean enpresak sortzeko. Landa-ekintzaitza plana garatzea, landa-eremuetan ekonomia garatzeko tresna egokiak jasotzen dituen. Ekonomia sustatzeko plana garatzea, jardueren turistikitik sortzen diren sinergiak baliatzeko.
<p>8.1.5 Ekinbidea</p> <p>Aktiboki parte hartzea landa-eremua eta kostaldea garatzeko europako sareetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Mendi-eremuak sustatzeko politikak, Euromontanaren presidentetzan buru izanik; hori erreferentziazko sarea da Europako administrazio eta erakundeentzat Europako mendiari dagokion guztian. Euskal landa-eremua eta familia-nekazaritza munduan proiektatzea, Munduko Landa Foruarekin, garapenerako lankidetzaren GKEekin eta Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean.
<p>8.1.6 Ekinbidea</p> <p>Landa-eremuetako eta kostaldeetako biztanleen prestakuntza hobetzea, garapen dinamika endogenoak sortu eta bermatzen dituzten arlo guztietan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Landa-eremuetako eta kostaldeetako prestakuntza eta giza-garapenerako beharrak aztertzea. Ekonomiaren eta gizaritatearen garapeneraren inguruko prestakuntza espezifikoak erraztea. Tresna egokiak hornitzea landa-eremuetan eta kostaldeetan ekintzaitza errazteko Prestakuntza/informazio ekintzak, ezagutza zientifikoaren eta jardunbide berritzaileen hedapena barne, nekazaritza, kostalde, elikadura eta basogintzaren sektoreetan lan egiten duten pertsonen zuzendutakoak.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.2 KONPROMISOA

ENPRESEN SORKUNTZA SUSTATZEA ELIKADURAREN, BASOGINTZAREN ETA ARRANTZAREN SEKTOREAN, TOKIKO PRODUKTUA LEHENETSIZ

<p>8.2.1 Ekinbidea Enpresen sorkuntza indartzea lehen sektorean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Elikateko maila desberdinen arteko lankidetzaren sustatzea: Produkzio primarioa, transformazioa, banaketa, turismoa, gastronomia. • Nekazaritza eta elikaduraren alorreko ETEak sortzea erraztea, Eusko Jaurlaritzak sustatutako higiene-osasun araudiaren egokitzapena erabiliz. • Ekoizleen kooperatibak merkaturatzaileen kooperatibekin integratzea indartzea.
<p>8.2.2 Ekinbidea Lehen sektoreko enpresen garapenerako tresnak hedatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Sendotu” tresna finantzarioa zabaltzea, inbertsio proiektuak garatzea errazteko, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa-garapenarekin lotutako jardueretan. • Landa Garatzeko Planaren FEADER funtsekin lotutako tresna finantzarioen mapa garatzea (bermeak, maileguak, partaidetza kapitalean) • Zirkulatuzailea finantzatzeko programa bat abiaraztea, espezifikoa elikaduraren balio-katearentzat. • “Invest Euskadi Agroalimentario” proiektua arintzea “Invest Euskadi” programaren barruan, nazioarteko inbertsio-gileak erakartzeko. • “Basque Laboratory Food Bussines Innovation” sortzea, elikaduraren arloko negozioen azeleragailua, munduko jarduketa-eremua duena, proiektu berritzaileak eta nazioarteko adimena eta inbertsioak erakartzeko.
<p>8.2.3 Ekinbidea Eraginkortasuna, gardentasuna eta parte-hartzea sustatzea kontsumitzaileen eta enpresa ekoizleen artean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontsumitzaileen parte-hartzea hobetzea, horien iritzia kontuan hartuz elikagaiak produzitzeko eta merkaturatzeko sistemetan, sistemaren eraginkortasuna eta kontsumitzaileen etekinak hobetzeko. • Produkzio sistemaren gardentasuna eta osotasuna hobetzea, kalitate eta iraunkortasun bermea eskaintzeko, merkaturatzearen ospea eta demanda indartzen duena.
<p>8.2.4 Ekinbidea Elikaduraren klusterra garatzea, nekazaritza-elikaduraren alorreko enpresei babes integrala emateko tresna gisa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lantalde espezifiko bat ezartzea, Elikaduraren Klusterrarekin elkarlanean, inbertsio eta abiarazte fasean laguntze aldera. • Elikaduraren Klusterrarekin Euskadiko enprekin loturaren bat daukaten nekazaritza-elikaduraren industriako adituei prestakuntza emateko programak sustatzea. • Euskal nekazaritza-elikadura industriako enpresak babestea, kudeaketa aurreratuko gaietan, Klusterraren bidez.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.3 KONPROMISOA

LEHEN SEKTOREA GAZTETZEA ETORKIZUNAREN BERME GISA

<p>8.3.1 Ekinbidea Nekazaritza sektorea gatzetza</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sentsibilizazio soziala nekazaritza sektorearekiko, gizarteak nekazaritza-abeltzaintza jarduera gehiago aitortzeko. Sentsibilizazio programa lehen hezkuntzako eskoletan, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza haurren-gana hurbiltzeko. Programa honen helburua elikadura ohitura osasungarriak irakastea izango da. Tresna finantzario espezifikoak sustatzea, lehen sektorean enpresak sortu nahi dituzten gazteentzat. Gazteen lehentasunezko sarbidea nekazaritza lurzoruko funtsetara. Gazteenek 2020 Plana ezartzea; horrek sektorea gatzetzerara bideratutako ekintza guztiak egituratzen ditu. Nekazaritza prestakuntza integraleko politika berria abiaraztea, sektoreko eragileen laguntzarekin, nekazaritza eta elikadura politikaren Legeak aurreikusten duen bezala.
<p>8.3.2 Ekinbidea Gazteak arrantza sektorean eta sektorearen profesionalizazioan sartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bekak sortzea gazteak arrantza sektorean sartzea errazteko, baita gaur egun ontziratuta dauden pertsonen prestakuntza ematea ere (ITSASORATU) Prestakuntza ez-arautuaren eskaintza indartzea, baxurako ontzidiaren beharretara egokituta.

» 8.4 KONPROMISOA

TOKIKO NEKAZARITZA-ELIKADURA PRODUKTUAREN ETA BASO-PRODUKTUAREN MERKATURATZEA SUSTATZEA

<p>8.4.1 Ekinbidea Euskal elikagaien merkaturatze, hedatze eta sentsibilizazio estrategia integrala garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kanal anitzeko merkaturatze estrategia (kanal laburra, denda tradizionala, txikizkako saltokia, banaketa handia), Euskadiko elikagaiaren presentzia handitu nahi duena. Merkaturatzeko Lankidetzaren sare bat sortzea. Foru aldundiekin elkarlanean, enbalaje bakar bat garatuko da formatu desberdinetan eta lurralde bakoitzeko produktu batzuk dituen irudi korporatibo batekin, identifikatzen dituen eta establezimendu espezializatuaren erakutsi eta merkaturatu ahal izateko. Ekoizleek, jatetxeek eta ostalaritza-establezimenduek, azokek eta banaketa handiak zuzenean merkaturatuko dituzte, besteak beste. Akordio egonkorak sinatzea HORECA kanalarekin eta banaketa handiarekin. Sustapen ekintzak garatzea hiri-gune nagusietan. Kontsumitzaileari informazioa emateko eta sentsibilizatzeko ekintzak, Euskadiko elikagaien irudia nabarmenduz.
<p>8.4.2 Ekinbidea Euskal gastronomiaren estrategia garatzea, tokiko produktuarekin eta euskadiko elikadura industriarekin lotutakoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Gastronomiaren Plan Estrategikoa garatzea. Euskal nekazaritza-elikadura produktua goi-sukaldaritzarekin lotzea bultzatzea. Lankidetzak bultzatzea HORECA kanaleko eragile egituratuekin Euskadin.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

<p>8.4.3 Ekinbidea Eusko labeleko markak eta euskal produktuen jatorri-deiturak enpresen demandetara egokitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Label marka eta jatorri-deiturak dituzten (Idiazabal, Txakolico hirurak eta Errioxa) produktuen araudiak ekoizleen eta merkatuaren demandetara egokitzea modu zentzudun eta adimenduan. • Mahastizaintza Antolatzeke Legea oraingo legeriara eta merkatura egokitzea. • Sektorea babestea Sagardo Naturalaren Jatorri-deituraren sorkuntzan. • Produktu berrien kalitate marka berriak sustatzea, lehen sektore dinamiko eta lehiakor bat sortzera laguntzen dutenak. • Kalitatezko label bat sustatzea Araban ekoiztutako irin-gariarentzat eta eraldatutako produktuentzat.
<p>8.4.4 Ekinbidea Arabako Errioxa jatorri-deitura sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren oraingo ereduak sistema orokorregia ezartzen du ardoak sailkatzeko (gaztea, ondua, erreserba eta erreserba handikoa). Eredu horrek ez ditu kontuan hartzen ezta balioztatzen ere Arabako Errioxaren ezaugarriak eta produkzio ereduak. Hortaz, gure helburua da, erakunde lankidetzatik eta sektore eragile guztiekin parte hartuz, beharrezko aldaketak bultzatzea, Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren esparruan berezko jatorri-deitura bat aitortzeko Arabako Errioxako ardo eta mahastientzat.
<p>8.4.5 Ekinbidea Elikaduraren industriako enpresen nazioartekotzea bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresen nazioartekotze eredia bultzatzea "nahieran", HAZI eta Merkataritza Ganberen eskutik. • Lehentasunezko nazioarteko norakoak indartzea, baita nazioartekotzearen alorreko ekinbide pribatuak aztertzea ere • Elikaduraren euskal ekosistema nazioartean sustatzea, euskal gastronomiaren, sukaldaritzaren eta produktuen ospe globalean oinarrituz.

» 8.5 KONPROMISOA

LEHEN SEKTOREAN BERRIKUNTZA ESTRATEGIA INTEGRALA GARATZEA

<p>8.5.1 Ekinbidea Elikaduraren sektoreko I+D estrategiaren alde egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntza eta Lankidetzak Estrategia Bizia finkatzea, eta European erreferente bat izatea berrikuntza BROKER gisa elikaduraren sektorean. • Proiektuak eta produktuak garatzea euskal nekazaritza eta elikadura sektoreko enpresen arteko lankidetzan, baita Europako bazkideekin ere. • Eginkizun proaktiboa lankidetzako berrikuntza proiektu berriak garatu nahi dituzten sareetan, nekazaritza eta elikaduraren alorretan: AREPO, Proyecto europeo H2020 AgriSpin. • Lankidetzak Europako ERIAFF eta ERRIN sareekin, Eusko Jaurlaritzaren Bruselako Bulegoarekin koordinatuz. • REGAL proiektua finkatzea; hori Euskaditik gidatzen da Akitania eta Lonbardiarekin elkarlanean, gastronomian eta elikaduran berrikuntza "focus group" bat sortzeko. • Gastronomian berrikuntza estrategia bat garatzea, elika-kateko eragile guztiak lotzen dituenak: AZTI, BCC, Ostalaritza Eskolak... • Elikadura industriaren produkzioaren iraunkortasuna bermatzea, elikagaien eta lehengaien kudeaketa egokiaren bidez. • Elikagaien eta osagai funtzionalen eta osasungarrien aukerako iturrien produkzioa sustatzea. • I+D programa bat garatzea, industriaren kudeaketa iraunkorra eta azpiproduktuen aprobetxamendua babesteko.
<p>8.5.2 Ekinbidea Berrikuntza sustatzea lehiakortasun eta gardentasun teknologikoaren ardatz gisa nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektoreetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sektorea saretzen programa indartzea, sektorearen beharrak antzemateko eta berrikuntzaren transferentzia azkarra eta eraginkorra egiteko. • Espezie eta labore aldaera berriak identifikatu, egokitu eta garatzea, tradizionalen aukera bat izan daitezkeenak eta sektoreari balio erantsi gehiago ematen dietenak. • Aldundiekin eta Limousin, Charoles, Pirenaico, Blonda eta Terreñako arraza elkarrekin lankidetzan, okelatarako behi-azienda genetikoki hobetzeko plana garatzea. • Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea sektore ekoizleen, horren lehiakortasuna hobetzeko: Landako koaderno digitala, informazio klimatikoko aplikazioak, izurrien tratamendua... • Borroka integratuko lineak ikertzea, ustiatzeetan izurriak kontrolatzeko, bai Arabako Errioxan bai Txakolinean, pestiziden erabilera mugatzeko.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.6 KONPROMISOA

EUSKADIKO EGURRAREN SEKTORE INTEGRALA, LEHIAKORRA ETA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA EGITURATZEA, EUROPA ERREFERENTZIA DENA

<p>8.6.1 Ekinbidea</p> <p>Tokiko egurraren produkzioa sustatzea eta baso-produktuen balio erantsia handitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Egurraren balio-katearen egituraketa babestea, Basquegur Elkartearen, HABIC Klusterraren eta USSEren bidez. Bigarren transformazioko enpresak sustatzea eta horiek tokiko lehengaiak erabiltzea bultzatzea. BASOTEK proiektua garatzea, egurraren balio-katean dauden I+D ekinbideen elementu koordinatzaile gisa. Horretan sartzen da baso espezieen osasuna xede duten ekinbideak garatzea, espezie horiek erabilera industrialerako karakterizatzea eta produktu berriak sortzea. Tokiko egurraren erabilera bultzatzea, Euskal Autonomi Erkidegoko obra publikoko eta pribatuko elementu gisa. Lankidetzaz ezartzea arkitektura eskolekin, beren proiektuetan tokiko egurrarekin erakitzea barne hartzeko Euskadiko baso-espezie desberdinen karakterizazio erakitzailearekin jarraitzea Euskadiko baso-biomasa erabiltzen duten energia-proiektuen garapena sustatzea eta erraztea. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan, Biomasa Garatzeko Plan bat egitea.
<p>8.6.2 Ekinbidea</p> <p>Iraunkortasuna, kalitatea eta segurtasuna bultzatzea basogintzaren sektorean</p>	<ul style="list-style-type: none"> Iraunkortasun-ziurtagiriak bultzatzea (PEFC, FSC, Karbono Azterna, Ingurumen Azterna...), bai baso-kudeaketari dagokionez, bai egurraren sektorearen zaintza-kateari dagokionez ere. Basogintzaren lan arriskuak prebenitzeko plan bat aktibatzea OSALANekin lankidetzan. Euskal gizarteari basogintzak egiten duen balio-ekarpenaren inguruko informazioa ematea eta sentsibilizatzea, biodibertsitatearen, iraunkortasun ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumen-iraunkortasunaren ikuspuntutik.

» 8.7 KONPROMISOA

NEKAZARITZA SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA HOBETZEA

<p>8.7.1 Ekinbidea</p> <p>Nekazaritza ustategien sektore egituraketa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Elkarteak programa berriz diseinatzea, sektorearen egituraketa hobea lortze aldera. Nekazaritza ustategietako kate eta transformazioaren eragile desberdinen arteko lankidetzaz sustatzea.
<p>8.7.2 Ekinbidea</p> <p>Nekazaritza sektoreko enpresak sustatzea lehiakortasuna hobetzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kontratuen ezarpena sustatzea elika-kate osoan. Lehentasuneko babesa ematea ustategi profesionaleri, nekazaritza eta abeltzaintza mistoak nekazaritzaren funtzio aniztasunean egiten duen ekarpena aitortuz. Nekazaritza lurzorua defendatzea eta nekazaritza lurzoruen funtsak sustatzea. Nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa ezartzea. Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren segimendua egitea, bere erantzunaren eraginkortasuna egokitzeko, antolatze tresna gisa. Laborantza, aldaera eta ordeko produkzioak sustatzea, balio erantsi handiagorekin.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

<p>8.7.3 Ekinbidea Nekazaritza plan bat garatzea aldaketa klimatikoaren aurrean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza jardunbide egokiagoak sustatzea, aldaketa klimatikoan duten eragina arintzeko. • Gure produkzio sektorearen laborantzak eta teknologiak egokitzea, ahalik eta gehien mugatzeko aldaketa klimatikoak nekazaritzan izango dituen ondorio kaltegarriak.
<p>8.7.4 Ekinbidea Nekazaritza eta abeltzaintza profesionalizatua eta lehiakorra sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza ekologikoa garatzea, gure ustategien lehiakortasunarekin lotutakoa eta merkatuak etorkizun hurbilean eskainiko dituen aukerak baliatzen dituena. • Produktu ekologikoaren eraldaketa-industria garatzea, produkzioarekin lotuta.
<p>8.7.5 Ekinbidea Erakundeen arteko koordinazioa indartzea NPEren laguntzak sinplifikatzeko eta nekazaritza aseguruak hedatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • NPErekin lotutako laguntzak kudeatzeko izapideak errazteko plana, aldundiekin koordinatuz. • Nekazaritza aseguruaren plana, foru aldundiekin koordinatuz. Aseguratutako ustategien kopurua azpisektore batzuetan oso txikia da; beraz, beharrezkoa da informazio-ekintzak egitea eta nekazaritza aseguruak sinatzea sustatzea.
<p>8.7.6 Ekinbidea Taldekatzeta eta lankidetzaz erraztea nekazaritza sektorean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza kooperatibak sustatzea. Horien tamaina handitzea babestea, aliantzak eta fusioak sustatuz, kudeaketa optimizatua egin ahal izateko eta merkatuan negoziatzeko gaitasun handiagoa izan dezaten. • Kooperatiben arduradunen prestakuntza espezifikoa sustatzea, Euskadiko Kooperatiben Federazioarekin koordinatuz. • Babesa eta koordinazioa handitzea kudeaketa zentroekin, eskaintzen dituzten aholkularitza eta sektore-garapenerako neurriak sustatuz. • Lursailen papera indartzea; Hazik eta hiru lurraldeetako kudeaketa zentroek osatzen dute.

» 8.8 KONPROMISOA

EUSKADIKO NEKAZARITZA SEKTOREA BALIOZTATU ETA SOZIALIZATzea

<p>8.8.1 Ekinbidea Nekazaritza sektorearen irudia hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Plan estrategiko bat egitea sektorearen irudia indartzeko, sektoreari ospea emateko eta gazteentzat erakargarria izan dadin. • Nekazarien bizi-kalitatea hobetzera laguntzen duten produkzio sistema eta metodoak sustatzea. • NIREA Plana indartzea eta bizkortzea, lehen sektorea berriz aktibatzeke eta landa-eremuak berpizteke, agente sozioekonomikoekin erantzukizuna partekatuz.
<p>8.8.2 Ekinbidea Emakume nekazariaren laneratzea erraztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume nekazariaren estatutua garatzea babestea.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.9 KONPROMISOA

ARRANTZA KUOTAK FINKATZEA ETA BANATZEA, BEREZKO KUDEAKETAREN BIDEZ, EUSKAL ONTZIDIAK ARRANTZA IRAUNKORRA ETA LEHIAKORRA GARATU AHAL IZATEKO

8.9.1 Ekinbidea Antxo eta hegaluze kuoten berezko kudeaketa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuko instantzien aurrean kuoten banaketa kudeatzea lortzea, antxo eta hegaluzea espeziertzako. • Kuoten bankuaren ekinbide publiko pribatua sortzea.
8.9.2 Ekinbidea Arrantza iraunkorreko estrategia bat garatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko ontzidiak garatzen duen arrantza iraunkorra, itsasoa errespetatzen duena, sustatzea eta sozializatzea. • Arrantza baliabide naturalen ezagutza zientifikoan oinarritutako kudeaketa sustatzea, euskal ontzidiak ustiatutako espezieetan arreta berezia jarritz, arrantzategien iraunkortasuna bermatuz.

» 8.10 KONPROMISOA

ARRANTZA SEKTOREARI BALIABIDEAK HORNITZEA, ONTZIDIA EGOKITZEKO ETA ONTZIDI LEHIAKORRA MANTENTZEKO, GAITASUNAREN ETA ESKURAGARRI DAUDEN ARRANTZA BALIABIDEEN ARTEKO OREKA LORTUZ

8.10.1 Ekinbidea Arrantza sektoreari ematen zaizkion laguntzen kudeaketa hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> • Arrantzaren Europako eta Itsasoko Funtzen kudeaketa. • Arrantza ordaintzeko erakundea sortzea autonomi erkidegotik.
8.10.2 Ekinbidea Jarduera osagarriak garatzea eta indartzea arrantza eremuetan	<ul style="list-style-type: none"> • Berezko baliabideak hornitzea akuikultura bezalako jarduera osagarriak garatzeko. • Arrantzaren jarduera osagarriak sustatzea, itsasoarekiko menpekotasun handia duten guneetan enplegua eta aberastasuna sortzeko. • Arrantza eremuei azpiegitura egokiak hornitzea, garapen ekonomikoko poloak bihur daitezen.
8.10.3 Ekinbidea Garapeneko eragileen sarea indartzea kostaldeetan	<ul style="list-style-type: none"> • Arrantzaren tokiko ekintza taldea sustatzea eta sozializatzea, arrantza dibertsifikatzeko eta udalerrietako jarduera dibertsifikatzeko proiektuak garatzeko eragile gisa. • GALPren gobernantza eredia garatzea.

LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA

» 8.11 KONPROMISOA

AKUIKULTURAREKIN LOTUTAKO JARDUERA EKONOMIKOAK BULTZATZEA ETA BALIO ERANTSIA EMATEN DUTEN ARRANTZA PRODUKTU BERRIAK GARATZEA

8.11.1 Ekinbidea

Akuikulturarekin lotutako jarduerak garatzeko eta ikertzeko babes irmoa emateko programa bat garatzea

- Arrantza jardueraren eta kostaldearen beharrak eta aukerak aztertzea, proiektu berriak sortzeko, balio-katearen eragileekin elkarlanean.
- Plan bat eguneratzea eta garatzea, balio erantsia ematen duten arrantza produktuak edota produktu akuikolak transformatu eta merkaturatzeko.
- Hegalaburra akuikulturaren loditzeko programa garatzea, euskal kostaldeko akuikultura poloaren proiektuaren barruan.

» 8.12 KONPROMISOA

ARRANTZA SEKTOREAREN KUDEAKETA INDARTZEA, BEREZKO PORTUEI DAGOKIENA ETA EUROPAREKIKO HARREMANETAN ERE BAI

8.12.1 Ekinbidea

Euskadiko arrantza-portuekin lotutako arrantza politika eratzea

- Jarduketa plan bat diseinatzea arrantza-portuen kudeaketa koherentea egiteko, euskal ontzidiaren beharrekin lotutakoa.
- Jarduketa plan bat abiaraztea, portuen jarduerarekin eta dagoen ontzidiarekin lotutako arrain-lonjak kudeatzeko.
- Bermeo, Ondarroa, Getaria eta Hondarribiko portuen kudeaketa integratzea.

8.12.2 Ekinbidea

Arrantza politikaren presentzia bultzatzea Europako instantzietan eta eskualde erakundeetan (ICCAT, IOTC, WCPF), euskal ontzidiaren interesak defendatzeko

- Eusko Jaurlaritzaren erakunde-harremanak erraztea gainerako erakundeekin eta estatuz gairako eta nazioarteko administrazioekin.
- Nazioarteko arrantzategietan arrantzan egiten duen ontzidiari laguntza teknikoa ematea, batez ere, distantzia handiko ontzidi atunzale izoztaileari.



9. GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA

GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Kooperatibak eta lan-sozietateak Gizarte Ekonomiaren protagonista nagusiak dira. Enpresa egiteko eredu desberdin bat dira, parte-hartzailletza gehiagorekin eta demokratikoagoa kudeaketa eta kontrolean. Gainera, gizarte kohesio handiagoa duen gizarte bat eraikitzeko beste eredu bat dira. Enpresa hauetan, pertsona benetan da protagonista. Baliabide materialak, kapitala bezala, tresnak dira eta pertsonen zerbitzura bideratuta daude. Hortaz, EAJ-PNVrentzat gizarte ekonomiako erakunde mota hauen garapen integrala bereziki garrantzitsua da.
- Gizarte ekonomiako enpresak inguruan errotuta dauden erakundeak dira eta enpresa-erabakiak hartzeko gaitasuna mantentzen dute. Enpleguari dagokionez, kalitatearen zenbait alderdi zaintzen dituzte, hau da, bazkideak langileak dira aldi berean eta horrek egonkortasun handiagoa eta lan-baldintza hobek ematen die. Azkenaldian bizi izan dugun krisia bezalako egoeretan ere, enpresa mota hauek erresistentzia berezia erakutsi dute, lan-eta enpresa-egonkortasuna eman diotelako produkzio sistema osoari. Horrela, inguru berriaren erronketara egokitu diren enpresa eraginkor eta malgu gisa finkatu egin dira. Aldi berean, kooperatibek eta lan-sozietateek etorkizuneko belaunaldiak errespetatzen dituzte; izan ere, ondare banaezina sortzen dute eta, horrela, sortutako aberastasuna denboran mantendu eta garatzen da.
- Autolaguntza eta erantzukizun printzipioetan oinarrituta, historikoki, ohiko sektore pribatuak edo sektore publikoak asetzen ez zituzten beharrak ase dituzte. Gizarte ekonomiako enpresak eta erakundeak enplegutik urrunen dauden taldeen inklusio ekonomikorako eta gizarteratzeko tresna eraginkor gisa finkatu dira. Gainera, argi dago pisu handia dutela jarduera ekonomikoaren sorkuntzan; euskal ekonomiaren 10 lanpostutik 1 ematen dute.
- EAJ-PNVn ziur gaude erakunde mota hauek bat datozela gure herrialdeko kultura sozial eta ekonomikoaren balio tradizionalekin; izan ere, bertan nazioartean ezagutzen den eta aitortu den esperientzia bat sortu eta garatu da. Autolaguntzan, demokrazian eta eskuzabaltasunean oinarrituta, ekonomiara eta gizartera aplikatuta, Euskadi gehiago eta Euskadi hobea egitera laguntzen dute, ekonomikoki eta sozialki.

Autolaguntza eta erantzukizun printzipioetan oinarrituta, historikoki, ohiko sektore pribatuak edo sektore publikoak asetzen ez zituzten beharrak ase dituzte

GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA

» 9.1 KONPROMISOA

GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA GEHIAGO SORTZEA SUSTATZEA, BATEZ ERE LAN ELKARTUKOAK, SEKTORE EKONOMIKO GUZTIETAN

<p>9.1.1 Ekinbidea Gizarte ekonomiako enpresak sortzea bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ekonomiako enpresen sorkuntza modu integralean babesteko programa bat garatzea, aholkularitza, finantzazioa, teknologia berrietarako sarbidea eta inkubazio espazioak bezalako alorretako tresna orokor eta espezifikoekin konbinaketa bat barne hartzen duen eskaintza batekin. • Araudia egokitzea, ekimen berrien sorkuntzari oztupoak jartzea saihesteko eta enpresa gisa garatzea ahalbidetzeko. • Gizarte ekonomiaren sustapena toki eta eskualde garapeneko lurralde politikekin lotzea. • Gizarte ekonomiaren lotura, txertatzea eta benetako presentzia ekintzaitzako zeharkako politiketan edo politika horizontaletan, baita enpresen sorkuntzaren berri ematen duten eta hori errazten duten erakundeetan ere. • Ohiko enpresak gizarte ekonomiako enpresak bihurtzea babestea, batez ere, krisi egoerei edo enpresa ordezkape-nei erantzuna emateko. • Gizarte ekonomiaren sustapena gizarte berrikuntza bultzatzeko politika orokorrekin lotzea.
--	---

» 9.2 KONPROMISOA

DAUDEN GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN FINKAPENA ETA GARAPENA BABESTEA

<p>9.2.1 Ekinbidea Euskadiko kooperatiben lege berria onestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016ko maiatzaren 24an onetsitako lege proiektuan oinarrituz, hurrengo legegintzaldian Euskadiko Kooperatiben Lege berri bat onesteko proposatuko da, gehieneko adostasun politiko, ekonomiko eta sozialarekin inplikaturako eragileekin.
<p>9.2.2 Ekinbidea Gizarte ekonomiako enpresen garapena eta finkapena babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sozietatearen oinarria handitzea (bazkide mugagabe gehiagorekin) gizarte ekonomiako enpresetan, enpresa horietan egindako lana sozietate-lan bihurtuz edota hori garatzeko beharrezkoa denaren bidez. • Gizarte ekonomiako enpresa eta erakundeen arteko edozein lankidetzeta mota sustatu eta babestea, fusioak edo lankidetzeta erabaki zehatzak ahalbidetuz. • Enpresa- eta sozietate-kudeaketa tresnak eskuragarri jartzea, lan jarduera garatzeko tresna osagarri eta beharrezko gisa, funtsean, enpresa berrietan eta enpresa txikiagoetan. • Gizarte ekonomiako enpresetan kultura finantzario berri baten finantzazioa eta garapena babestea, batez ere ETEen artean. • Elkarrekin indartzea, bazkide diren enpresei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeak diren aldetik. • Gizarte ekonomiako enpresetan bazkide berriak sartzeko laguntza-programa bat garatzea. • Gizarte ekonomiako enpresetan gizarte-enpresa erantzukizuneko memoria espezifikoak egitea babestea, enpresa horien xehetasunetara egokitutakoak.

GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA

» 9.3 KONPROMISOA

GIZARTE EKONOMIAREN ABANTAILEN ETA AUKEREN PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA EMATEA, HEZKUNTZA MAILA ETA EREMU GUZTIETAN

<p>9.3.1 Ekinbidea Gizarte ekonomiaren inguruko prestakuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte ekonomian espezializatuta dauden unibertsitate zentroyen sare baten sorkuntza babestea, hiru euskal unibertsitateek osatutakoa, gizarte ekonomiaren alorrean ikerkuntza eta prestakuntza bultzatzeko, aldi berean, estatuko eta nazioarteko beste unibertsitateekiko lankidetzak bultzatuz, ezagutza partekatuz. Gizarte Ekonomiaren printzipioak eta balioak hedatzea unibertsitatearen aurreko hezkuntzan (bereziki, lanbide heziketan), ekintzailetzarekiko lotura sustatuz. Gizarte ekonomiaren arlo espezifikoaren inguruko prestakuntza ematea enpresa horien bazkideei (bereziki heldu berri diren bazkideei), jardunaldien edo ikastaroen bidez, besteak beste. Gobernu korporatibo ona sustatzea, administrazio-langileen prestakuntza bultzatuz, kudeaketa eta ordezkari-tza eginkizuna behar bezala burutzeko. Era berean, beste sozietate-arganoetako kideen prestakuntza babestea: zaintza-batzordeak, kontseilu sozialak, balibide batzordeak,... Gizarte ekonomiaren prestakuntza eta hedapen lantegien programa bat garatzea gazteentzat.
<p>9.3.2 Ekinbidea Gizarte ekonomiaren balioak hedatzea euskal gizartean</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte ekonomiaren inguruko aldizkari espezifikoaren edizioan laguntzea eta gizarte ekonomiaren presentzia bultzatzea ohiko hedabideetan. Gizarte ekonomiaren presentzia sustatzea ekonomiari eta gizarteari buruzko eztabaida orokorretan. Aitorpen-ekitaldiak, sari-banaketak, liburuen aurkezpenak edo beste formatu batzuk ospatzea bultzatzea, gizarte ekonomiarekin lotuta dauden esperientzia eta pertsona esanguratsuak ezagutzera emateko, gizarte ekonomiaren izaera eta balio-ekarpena hedatzeko euskal gizartean. Bisitariari arreta ematea, bereziki atzerriko taldeei, gizarte ekonomian dugun esperientzia pribatua eta publikoa interesatzen zaienei. Gizarte ekonomiaren presentzia sustatzea gizarte-enpresa erantzukizuneko foru eta politiketan, historikoki, gizarte ekonomiako enpresek hartu dutelako hori bere gain eta enpresa mota horien esentziaren oinarrian dagoelako.
<p>9.3.3 Ekinbidea Langileen parte-hartzearen printzipioak hedatzea enpresen multzo osoan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Estatutu-arautzeak sustatzea, langileek merkataritza-enpresen kudeaketan, etekinetan eta jabetzan parte hartzea aurreikusten dutenak. Diru-laguntzen linea berriak garatzea, parte hartzeko modu berriak ezartzeko, enpresa zehatzetan bideragarriak diren aztertu eta baloratu ostean. LANPAR finkatzea, arrisku-kapitalaren tresna, krisian dauden merkataritza enpresetako langileek onartzea errazteko. Langileek enpresetan parte hartutako nazioarteko eredu eta esperientzia arrakastatsuak aztertu, ikertu eta egokitzea. Etengabeko harremana partaidetzako enpresak ordezkatzeko dituzten nazioarteko antolakundeekin eta langileek enpresetan parte hartzea sustatzen duten Europar Batasuneko erakundeekin. Gizarte Ekonomiako nazioarteko erakunde publiko eta pribatuekin esperientziak eta lankidetzak etengabe partekatzeko etengabeko harremana sustatzea eta mantentzea. Aldebiko lankidetzak hitzarmenak garatzea gizarte ekonomiaren alorrean erreferenteak diren herrialde edo eskualdeekin.

GIZARTE EKONOMIARI BULTZADA

» 9.4 KONPROMISOA

ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEKIN ITUNAK ETA LANKIDETZA SUSTATZEA GIZARTE EKONOMIA SUSTATU ETA BULTZATZEKO POLITIKEN DISEINUAN ETA EGIKARITZEAN

9.4.1 Ekinbidea

Lankidetza publiko-privatua bultzatzea gizarte ekonomia sustatzeko

- Euskadiko Kooperatiben Goi-kontseilua indartzea, araudi- eta erakunde-mailan, baita horrek kooperatibak itundu eta sustatzeko dituen eginkizunak ere.
- EGES, Gizarte Ekonomiaren Euskal Sarea, finkatzea, lankidetza espazio gisa euskal gizartean eta kide diren anto-lakundeetan gizarte ekonomiaren balioak eta jardunbideak sustatu eta garatzeko.
- Erakundeen arteko itun bat sinatzea Euskadin Gizarte Ekonomia sustatzeko erkidegoko administrazioaren, foru eta toki administrazioaren artean eta ordezkari diren erakundeekin.



10. FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA

FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Autogobernu ekonomikoa indartzea. Euskal Autonomi Erkidegoko Kontzertua. “Kontzertu Ekonomikoa” Euskadiren autobernalaren ganga-giltzarria da. EAJ-PNVrentzat hori indartzea eta defendatzea funtsezko elementua da Euskadiren etorkizunerako. Hori oinarri hartuta, honako hauek dira EAJ-PNVren konpromisoak: Euskal Autonomi Erkidegoaren autogobernu ekonomiko-finantzarioa indartzea; autogobernua finkatzea euskal erakundeen alor fiskalean eta kontzertu ekonomikoaren edukia eta eraginkortasuna hobetzea, ekonomia eta enplegua berreskuratzeko nahitaezko tresna gisa.
- Zorroztasuna eta erantzukizuna. EAJ-PNVrentzat, Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoa zorroztasunez eta erantzukizunez burutu behar da. Beharrezkoa da finantzen saneamendua mantentzea eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoa ere bai, ekonomiaren iraunkortasunaren berme gisa. Erantzukizun printzipio horretatik abiatuz, EAJ-PNVk europar politika berri bat defendatzen du, defizit publikoaren kontrola eta enplegua sortzeko beharrezkoak diren indarberritze neurriak modu orekatuagoan konbinatzen dituena.
- Sentsibilitatea politika eta zerbitzu publikoekin. EAJ-PNVk uste du pertsonen oinarritzko beharrekiko sentsibilitatea eta konpromisoa erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa izan behar direla. Oinarritzko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea Euskadin bizi-kalitatea eta kohesioa finkatzeko ardatzak dira. Zentzu horretan, zorroztasun ekonomikoa eta aurrekontuaren zorroztasuna orekatu behar dira funtsezko zerbitzu publikoak bermatzearekin eta ekonomia produktiboaren eta hazkunde ekonomikoaren sustapenarekin.
- Konfiantza eta egonkortasuna sortzea. Kudeaketa ekonomikoaren bidez jarduera ekonomiko produktiboa garatzeko ingurua, testuingurua eta baldintzak sortu behar dira, euskal ekonomiaren eta bertako enpresen modernizazioa eta dibersifikazioaren alde eginez. Konfiantza, egonkortasun eta segurtasun juridikoko printzipioak bermatzea arlo fiskalean eta ekonomiko-finantzarioan; hori funtsezkoa da enpresa proiektuak garatzea sustatzeko. Finantza publikoen kudeaketa arduratsua, defizitaren eta zorraren kontrolarekin konprometituta dagoena, funtsezkoa da konfiantzazko inguru bat sortzeko, jarduera ekonomikoa, inbertsioa eta berpizte ekonomikoa errazten dituena.
- Justizia eta zuzentasuna. Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko kontuak modu eraginkor, moderno, egonkor eta gardean arautuko ditu, euskal administrazio publikoen nahikotasun finantzarioa bermatzen jarraitzen duen baliabideak bantatzeko eredu bat finkatuz. EAJ-PNVk uste du zerga-sistema zuzen, mailakatu eta nahiko bat mantendu behar dela, diru-sarrera eta gastu publikoen arteko oreka egokia bermatzen duena, baliabide publikoen kudeaketa koordinatu eta eraginkor batekin.
- Koordinazioa eta partekatutako arriskua. Koordinazioaren eta partekatutako arriskuaren printzipioek eraentzen dituzte euskal finantzak; euskal administrazio guztiek hartzen dituzte printzipio horiek bere gain Kontzertu Ekonomikoarekin. Hortaz, Finantzen Euskal Kontseiluan lankidetzeta eta leialtasuna oinarritzko printzipioak dira euskal erakundeen kudeaketa finantzarioan.

***“Kontzertu
Ekonomikoa”
Euskadiren
autobernalaren
ganga-giltzarria da***

FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA

» 10.1 KONPROMISOA

EUSKAL AUTOGOBERNU EKONOMIKO-FINANTZARIOA INDARTZEA ETA GARATZEA

10.1.1 Ekinbidea

Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea eta defendatzea

- Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea Euskal Autonomi Erkidegoaren eta estatuaren artean, itundutako zergetan autonomia kuota handiagoak lortzeko.
- Euskal Erakundeak behin betiko sartzea Europar Batasuneko erakundeen lanetan, Europan zergak bateratzeko prozesuaren esparruan, Euskal Kontzertu Ekonomikoa prozesu horretara egokitzeko.
- 2007-2011 eperako kupoa ezartzeko metodologia onartu zuen Legea aplikatzea, aipatutako bosturtekoko urteetarako likidatzeke dauden kupoaren zenbatekoak likidatuz. Halaber, aipatutako legearen luzatutako aplikazioa jarraituz, 2012tik 2015era bitarteko epeari dagozkion behin behineko kupoaren zenbatekoen likidazioa zehaztuko da.
- Dagozkion erabakiak sustatzea bosturteko kupoa ezartzeko metodologiaren lege berria onesteko.
- Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoa bultzatzea, estatuaren eta Euskadiren arteko harreman ekonomiko-finantzarioak arautu eta hedatzeko instantzia gisa.
- Arlo ekonomiko-finantzarioan Euskadiri dagozkion transferentziak erreklamatzeko (kreditua eta banka, baloreen merkatua, kreditu ofiziala eta aseguruak).

» 10.2 KONPROMISOA

EKONOMIA PRODUKTIBOA GARATZEKO INGURU EGOKIA EZARTZEA

10.2.1 Ekinbidea

Baliabide publikoen kudeaketa bideratzea eta garapen ekonomikoa sustatzea

- Ekonomia produktiboaren aldeko neurri finantzarioak indartzea, erakunde finantzarioekin elkarlanean, euskal enpresen gaitasun finantzarioa handitzeko, kreditu-lineak indartuz eta abal publikoen eta proiektu estrategikoak babesteko programak definituz.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Ekintza-programen kudeaketa eraginkorra garatzea, erkidegoko kohesio politikari buruzkoak, indarreko programazio aldiaren testuinguruan.
- Erosketa publikoko programak sustatzea, euskal enpresetan produktu berritzaileen garapena eta energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduen eskuraketa bultzatzen dituztenak.
- Euskal ekonomia lehiakorra izateko beharrezkoak diren inbertsio estrategikoak mantentzea, batez ere, nazioartekotzea edo ikerkuntza eta garapena bezalako eremuetan.

FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA

» 10.3 KONPROMISOA

GASTUAREN KONTROLA ETA BALIABIDE PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA ETA GARDENA BERMATZEA

10.3.1 Ekinbidea

Baliabide publikoen politika orekatu, garden eta arduratsu bat garatzea, gastu korrontea etengabe kontrolatuz

- Finantza publikoen zorrostatasunean eta iraunkortasunean oinarritutako aurrekontu-politikarekin jarraitzea, defizitaren eta zorraren mugak eta gastu araua betetzea saiatuz, etorkizuneko hazkunde ekonomikoa arriskuan ez jartzeko. Hala, politika hau enpleguaren sorkuntzarekin eta gizarte politiken babesarekin bateratuko da.
- Biziagotzea, gardentasun ekonomiko-finantzarioaren euskal politika publikoaren esparruan, aurrekontuaren eta ekonomiaren inguruan eskuragarri dagoen informazioa, hau da, Euskal Autonomi Erkidegoko sektore publikoko erakunde guztien kontu-emate publikoen ingurukoa.
- Kudeaketa eredu arduratsu baten ezarpenean aurrera egitea, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio publikoaren jardura ekonomikoa aplikagarriak diren ekonomi, finantza, aurrekontu eta ogasunaren inguruko lege-xedapenetara egokitzen dela bermatuz.
- Euskal Autonomi Erkidegoko sektore publikoan aplikagarriak diren konbergentzia teknologikoko proiektuetan sakontzea, lehiakortasuna eta zerbitzu publiko hobea errazten dituzten barne prozesuak hobetuz.
- Gastu korrontea eusteko politikarekin jarraitzea, eszenatoki ekonomikoak aldatzearen aurrean eraginkorrak diren jarduketak-neurriak sustatuz.

» 10.4 KONPROMISOA

EUSKAL ORDENAMENDU EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ETENGABEKO EGUNERAKETA SUSTATZEA

10.4.1 Ekinbideak

Euskal esparru ekonomiko eta finantzarioa sustatzea ahalbidetzen duen araudi fiskala garatzea

- Euskadiko ordenamendu juridikoaren etengabeko eguneraketarekin jarraitzea, Euskal Autonomi Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko arloetan, eta arlo ekonomiko eta finantzarioaren kontuetan.
- Dagozkion erabakiak sustatzea Finantza Publikoaren Euskal Kontseiluaren barruan, Euskadiko Toki Erakundearen Legea indarrean sartzearen ondoriozko xedapenak garatze aldera, baita 2017-2021 eperako Ekarpeneen Lege berri baten testua onartzeko ere.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen esparru juridikoa egokitzen eta arautzen amaitzea.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei aplikatu ahal zaizkien araudia garatzea, gardentasunean eta bazkideei informazioa ematean sakonduz, erakunde hauen garapena bultzatu eta sustatzeko asmoz eta hori euskal herritarrengana zabaltzeko.
- Euskal Autonomi Erkidegoko estatistika jardura antolatzen jarraitzea, Estatistikako 2014-2017 Euskal Plana amaituz eta 2018-2021 eperako plangintza berria onartuz.

FINANTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA

» 10.5 KONPROMISOA

HAZKUNDEAREN ETA ESKUZABALTASUNAREN ZERBITZURA DAGOEN POLITIKA FISKAL ETA FINANTZARIOA SUSTATZEA

10.5.1 Ekinbidea

Sustatzea, zerga koordinazioko organotik, araudi fiskalaren egokitzapena, jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua sustatzeko

- Lantzea, Zerga Koordinazioko Organoaren barruan, Euskal Autonomi Erkidegoko zerga sistemaren azterketa eta garapena, euskal ekonomia produktiboaren beharrak, administrazio publikoen nahikotasun finantzarioa, eta oro har, herrialdearen beharrak asetze aldera.
- Koordinazioa bultzatzea Zerga Koordinazioko Organoaren barruan, eraginkortasun handiagoa lortzeko foru erakundeek eratu behar duten euskal fiskaltasunaren hobekuntzan. Zerga-hezkuntza sustatzea. Zerga-hezkuntza sustatzea.
- Erraztea, dagozkion zerga- eta sustapen-tresnen bidez, inbertsio-harpena, bai jarduera berriak eta sektore ekonomikoak sustatzeko, bai oraingo jarduera mantentzeko.

» 10.6 KONPROMISOA

EKINTZA KOORDINATUA SUSTATZEA IRUZUR FISKALAREN AURKA

10.6.1 Ekinbidea

Iruzur fiskalaren aurkako plan integrala garatzea, foru aldundiekin lankidetzan eta koordinazioan

- Lankidetzan eta koordinazioan foru aldundiekin, iruzur fiskalaren aurka modu eraginkorrean borrokatzeko, Zerga Koordinazioko Organoari dagozkion jardueren bidez
- Erakundeen artean informazioa partekatzeko sistemak jarraitzea eta optimizatzea, iruzur fiskala kontrolatzeko, horren segimendua egiteko eta zigortzeko jardueren eraginkortasuna handitze aldera.



11. ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA

ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Gobernantza ona. EAJ-PNVk uste du ekintza politikoa tresnarik eraginkorrena dela giza garapen bidezko, solidario eta integrala lortzeko. Zentzu horretan, administrazio kultura berri baten oinarriak finkatu nahi ditugu, gardentasunean, eraginkortasunean, parte-hartzean eta emaitzen ebaluazioan oinarritutakoa.
- Irekia eta hurbila. Aldaketa honekin, administrazioa irekiagoa izango da eta herritarrengandik hurbilago egongo da, baina arduratsuagoa eta eraginkorragoa ere izango da, gobernu demokratikoaren, gizarte egonkortasunaren eta garapen ekonomikoaren funtsezko betekizunak. Administrazioa informazioa duten, parte hartzen duten, aktiboak diren eta ardura partekatzen duten herritarren zerbitzura egongo da.
- Plangintza eta parte-hartzea ardatz gisa. Hurrengo legegintzaldira begira, EAJ-PNVk uste du garaia dela aurretik deskribatutako eta oro har onartuta dauden gobernantza onaren printzipioak garatzeko. Plangintza eta herritarren parte-hartzea gobernu eta administrazio onaren eskubidea bermatzen dituzten ardatzak izan behar dira; eskubide hori Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunean aitortuta dago.
- Gardentasuna helburu gisa. Gardentasuna funtsezko eta zeharkako gai bihurtu da prozedurei, jarduketei eta herritarren aurrean kontu-emateari buruzko informazioari dagokionean. Teknologia berriak erabiltzea proposatzen dugu, baita arreta pertsonalizatu eta zuzena, telefonoaren bidez eta zuzenean (Zuzenean), eta kanal ireki berriak ere (bat-bateko mezularitza), herritarrek konfiantza gehiago izan dezaten administrazioarekiko.
- Zerbitzuak ematea modu integralean. Administrazioa herritarren parte-hartzerara irekitzeak kultura eta balioak sakonki aldatzea eskatzen du, administrazioan eta herritarrek erantzukizunak hartu behar dituztelako beren gain “gauza publikoa” deritzonarekiko. Helburu hori lortzeko, EAJ-PNVk uste du euskal administrazio publikoak aktiboagoak izan behar direla lankidetzara bultzatzen duten eta herritarrei zerbitzuak ikuspuntu integral batetik ematea ahalbidetzen duten prozesuak eta tresnak sustatzeko.
- Herritarrak elkarrizketa eta erabaki prozesuetan barneratzea. Sareak sortu eta herritarren eskaerak entzun, kudeatu eta partekatu ahal dituen administrazio publikoko eredu baten alde gaude. EAJ-PNVrentzat, gobernantza eraginkorrak esan nahi du kudeaketa prozesu horizontalagoak ezartzeko prest egongo dela, beste erakundeekin taldean lan egiteko eta herritarrak eta gizarte eragile garrantzitsuak erabaki publikoak hartzeko prozesuetan barneratzeko.
- EAJ-PNVk uste du herritarren parte-hartzea demokrazia ideiarenean bertan dagoela; herritarrekin hitz egitea arazoei aurre egiteko, entzuteko eta konponbideak partekatzeke. Hori izan behar da gure bidea.
- Online esferaren lehentasuna. Herritarren ohiturak harremanei dagokienez behin betiko aldatu dira eta ez dago atzera botatzerik. Gaur egun, online esfera herritarren berehalako erreferentzia da, hain zuzen ere, herritar horiek erakusten digute zein den erakunde publikoek jarraitu behar duten bidea. EAJ-PNVk badaki aldaketa hauek garrantzitsuak direla eta horiek kudeaketa publikoan sartzeko hitza ematen dugu.
- Kalitatea eta berrikuntza. EAJ-PNVrentzat, kalitate, modernizazio eta berrikuntza kontzeptuak ez dira moda bat bihurtu behar, baizik eta eskaera bat euskal zerbitzu publikoen kudeatzailerentzat. Euskal gizartearen bilakaera handia eta berehalakoa da; horrek gure espazio publikoa etengabe definitzera bultzatzen gaitu.
- Gizarte berrikuntzan sinisten dugu, gure lurraldearen indarra aktibatzeke eta kudeaketa publikoa garatzeko estrategia berritzaile, erantzunkide, garden eta eraginkorra diseinatzeke.

Gardentasuna funtsezko eta zeharkako gai bihurtu da prozedurei, jarduketei eta herritarren aurrean kontu-emateari buruzko informazioari dagokionean

ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA

» 11.1 KONPROMISOA

BILAKAERA BERRITZAILEAGOA ETA GIZARTEAREN ZERBITZURA DAGOEN ADMINISTRAZIO BATERANTZ

<p>11.1.1 Ekinbidea Berrikuntza publikoa administrazio berriaren egituraketa ardatz gisa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2017-2020 Berrikuntza Publikoko Plan bat egitea, administrazioa berritzeko estrategiaren arkitektura elementu giltzarriak ezartzen dituena. • Berrikuntza publikoko laborategi bat sortzea, herritarren eta profesionalen parte-hartzearekin, gizarte berrikuntza sustatuz, herritarren beharrei modu eraginkorragoan erantzuteko eremu gisa. • Teknologiaren erabilera sustatzea, administrazio publikoaren arrazionalizazio eta eraginkortasunerako, informazio sistemak finkatuz. Hori guztia, gehieneko eraginkortasun, praktikotasun, erabilgarritasun, estandarizazio eta eska-lagarritasunean oinarrituz.
<p>11.1.2 Ekinbidea Administrazio elektronikoa herritarren zerbitzura jartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datu irekien "open data" plan operatiboa garatzea, datuak irekitzeko eta berriz erabiltzeko politika baten esparruan. • Aurrera egitea teknologien bateratzean, irtenbiderik aurreratuenak aukeratuz, "hodeia" barne. Horiek zuzenean eragiten diete zerbitzuen kalitateari eta kostuen murrizketari. Hala, Euskadiko IKTen enpresa sektorearen lankidetzak bilduko da, software irtenbideak zerbitzu gisa garatzeko. • Euskal estrategia bat sortzea BIG DATA deritzonaren arloan, bertan lankidetzak publiko-pribatuko eremuak ezarriz, besteak beste, merkataritzan, industrian, osasunean eta aisialdian produktu eta zerbitzu berriak garatu eta optimizatzeko. • Paperik gabeko administrazioa behin betiko amaitzea eta administrazioen arteko elkarrengarritasuna (eta barnerako), izapidetzeak egiteko plataforma eta sistema elektronikoak erabiltzera behartuz.

» 11.2 KONPROMISOA

HERRITARREN BEHARREI ETA ESKAEREI ERANTZUTERA BIDERATUTAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKO BAT ERATZEA

<p>11.2.1 Ekinbidea Euskal autonomi erkidegoko sektore publikoaren egitura berrantolatzea eta sinplifikatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gastu publikoa arrazionalizatzea, oinarritzko zerbitzuak kalitate maila egokiarekin emateari utzi gabe. • Hasitako prozesuarekin jarraitzea, enpresa sektore publikoa sinplifikatzeko eta berriz antolatzeko, inplikaturako eragile eta erakundeekin elkarlanean. • Sektore publikoaren antolakuntza eta funtzionamendu eredu berri bat sortzea eta ezartzea, egitura sinpleago eta koordinatuago batekin. • Proposatutako antolakuntza eredu berriaren emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesu bat ezartzea.
<p>11.2.2 Ekinbidea Administrazioaren zerbitzu horizontalak arrazionalizatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa prozesu horizontalak antolatu eta sinplifikatzea. • Zerbitzu horizontal bakoitzaren kudeaketa prozesuak estandarizatzea; hori kudeatzeko, tresna komunak erabiltzea erraztea.
<p>11.2.3 Ekinbidea Herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoak diren profil profesionalak identifikatzea eta eguneratzea, herritarren beharren eta eskaeren arabera. • Gehitutako edo gehitu beharreko baliabide teknologikoak identifikatzea eta eguneratzea. • Errekeritutako ezagutzak identifikatzea eta eguneratzea, administrazioko langileen prestakuntza beharrak antzemanaz. • Antolakuntza egituraren dimentsionamendua kalkulatzeko, kudeaketa prozesu eta bolumenen arabera. • Politika publikoen ebaluazioa sustatzea, eraginkortasuna, eragina eta gastu publikoa hobetzeko. • "Social media" deritzen entzuketa aktiboa sartzeko (sare sozialak, blogak, eta herritarren iritzia adierazteko beste formatu elkarrengarriak) politika publikoak ebaluatzen diren prozesuetan.

ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA

<p>11.2.4 Ekinbidea Euskal enplegu publikoaren legea onestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskal enplegu publikoaren Legea onestea, horren antolakuntza modernizatua lortzeko, baita enplegu publikoko sistema arautzea ere euskal sektore publikoan. Horrela, enplegu publikoaren erakunde-kalitatea hobetuko da, berrikuntzaren oinarriko elementuak gehituko direlako. Horrek enplegu publikoa profesionalizazio maila handiko erakunde bat bihurtuko du, inpartziala eta arduratsua emaitzen kudeaketan. Halaber, araudi-esparru komun bat ezarriko da enplegu publikoaren alorrean.
---	--

» 11.3 KONPROMISOA

KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK BERMATZEN DITUEN ADMINISTRAZIO MODERNO ETA ERAGINKORRA

<p>11.3.1 Ekinbidea Kudeaketa publikoko berezko eredu eraginkorra eta kalitatezkoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa publiko aurreratuko sistemaren berezko eredu bat ezartzea eta nabarmentzea; horretan, Eusko Jaurlaritzaren antolakuntza unitate bakoitzak bere kudeaketa garatuko du, barneko bezeroei eta gizarteari berari modu egokiagoan erantzuteko. Antolakuntza unitate guztiak ebaluatzeko eta hobetzeko planak eratzea, horien jarduera Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredura egokitzen dela egiaztatzeko. Kapital intelektuala eta administrazioan lortutako ezagutza mantentzen direla bermatzen duten jarduketak diseinatzea, administrazioan lan egiten duten pertsonen asebetetzea eta belaunaldien errelebo egokia bermatzen dituzten langileriaren politiken bidez.
<p>11.3.2 Ekinbidea “Paperik gabeko” administrazioarako bilakaera indartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio publikoaren barne funtzionamenduaren digitalizazioan aurrera egitea, intranetaren bilakaera eta hobekuntzaren bidez eta “Tramitagune” izapidetze elektronikoaren bidez. Papera euskarri elektronikoarekin ordeztzea Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomo guztietan, dokumentuen bizitza-zikloaren fase desberdinetan: erregistroa, izapidetzea eta artxiboa.
<p>11.3.3 Ekinbidea Enplegua eta parte-hartzea sustatzea administrazioa hobetzeko barneko sareetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Sare Korporatiboa bultzatzea, jardunbideak partekatzea nagusitzeko. Langile publikoen eta dagozkien arduradunen arteko entzuketa horizontala ezartzea.

ADMINISTRAZIO IREKIA, GARDENA ETA ERAGINKORRA

» 11.4 KONPROMISOA

ADMINISTRAZIO GARDENA, HERRITARREN PARTE-HARTZEAREKIN ETA GOBERNU ONAREKIN KONPROMETITUAKOAK

<p>11.4.1 Ekinbidea Nagusitasuna mantentzea erakunde independenteek egindako gardentasun entzunaldietan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gardentasunerako Sailen Arteko Batzordea osatzea Gobernuaren barruan. • Gardentasun adierazleen etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema bat ezartzea.
<p>11.4.2 Ekinbidea Gardentasunari buruzko legea eta sektore publikoa antolatzeke legea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Legegintzaldi honetan Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko Legea onartzea eta garatzea. • Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Euskal Sektore Publikoa Antolatzeke Legea onartzea eta garatzea.
<p>11.4.3 Ekinbidea Euskadi parte-hartzearen eta gardentasunaren erkidego erreferentea bihurtzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzan herritarren parte-hartzeari buruzko liburu zurian Euskadirentzat bereganatutako konpromisoak benetan betetzea. • Publizitate aktiboa lehenestea gardentasunaren eremuan, eskuragarri dagoen informazio guztia argitaratuz, herritarrek eskatu gabe. • Web semantikoa bultzatzea egituratutako datuak argitaratuz, horiek interkonektatzeko eta eskuragarriagoak izateko.

» 11.5 KONPROMISOA

ADMINISTRAZIO IREKIA, GIZARTE ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HERRITARREI ENTZUTEA BERMATZEN DITUENA

<p>11.5.1 Ekinbidea Herritarren parte-hartzea "horizontalizatzea" gobernuaren jarduketan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernuaren ekinbide guztiei aplikatu ahal zaizen gobernu prozesu parte-hartzaileko (On-line+Off-line) eredu bat kodiseinatzea eta ezartzea. • Gobernu sail guztiak erantzule egitea herritarren eskaerei erantzun arinagoa ematean. Erantzuteko gutxienezko epeak ezarriko dira, babes kopuru zehatza eta egiaztatua duten ekinbideentzat. • Parte-hartzearen kultura bera sustatzea erakundearen artean eta legebiltzarrean, babes kopuru zehatza eta egiaztatua duten herritarren eskaerak publikoki eztabaidatzeko online.
<p>11.5.2 Ekinbidea Gobernu estandar bakarra definitzea eta ezartzea datu irekientzat. Eskatutako aldaera guztiei aplikagarria, gutxienez, estatuko gardentasunari buruzko legean, edo eaderi aplikatu ahal zaizkion gainerako aldaeretan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Open Datoko erreferentziatzeko eredu bat ezartzea, eraginkortasun operatiboa hobetzeko eta agentzien artean informazioa partekatzeke. • Agentzien artean datuak partekatzea sustatzea, herritarrentzat zerbitzu balioudun berriak sortzeko. • Agentzia desberdinen aplikazioak berritzea eta gobernu irekiaren kontzeptura egokitzea (datu eskuragarriak API Webgunearen bidez). • Big Data ezartzea (webgunea, sare sozialak, denbora...) eta analitika aurreratua, modu eraginkorragoan koordinatzeko dauden zerbitzuak eta zerbitzu berriak sortzeko herritarrentzat "Civis Moments". • Nazioartean onartutako datuak partekatzeke arauak hartzea eta datuak berriz erabiltzea ahalbidetzen duten formatuak indartzea, bai banakako eskaerengatik, bai makinetatik automatizatutako eskaerengatik. • "Front-end" erakusleho komun bat garatzea herritarrentzat interesgarriak diren datu guztientzat, eta etengabe elikatzea administrazioaren edozein puntutik.
<p>11.5.3 Ekinbidea Sare sozialetan presentzia homogeneizatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta zerbitzuaren gutxienezko estaldura bermatzea, gutxienez, sail bakoitzean. • Funtzionalitate berrietara egokitutako estilo-liburua eratzeko: (entzuketara aktiboa, herritarren arreta, OpenDatatik eratorritako zerbitzuak, herritarren parte-hartzea eta politika publikoen ebaluazioa eta kontuak ematea).



12. GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Garraio iraunkorraren alde. Garraioa funtsezkoa da sektore ekonomikoak (lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena) garatzeko eta lurraldeek eta gizarteek aurrera egiteko. Planeta honen baliabideak mugatuta daude; horregatik, EAJ-PNVkustedugarraioereduiraunkor etaeraginkor baterantzjoan behar gabela. EAJ-PNVk uste du garraio sistema iraunkorrak bultzatzeko trenbidea indartu behar dela lurreko garraio bide gisa. Energiaren ikuspuntutik, sistema eraginkorra da, eta zama hartzeko gaitasun handia duenez, lurraldean integratzeko sistema egokia da. Trenbide bidezko salgaien garraioa bultzatzeko trenbide terminalak eta terminal logistiko espezifikokoak sustatu eta berreskuratu behar dira fabrika eta poligono industrialetan.
- Sistema integratua. Garraio sistemen multzoak modu integratuan, koordinatuan eta bikoiztasunik gabe funtzionatu behar du. EAJ-PNVn garraio sistemen integrazioaren alde egiten dugu, garraioa bideratutako baliabide ekonomikoak, materialak eta giza-baliabideak eraginkorrak izan daitezela bilatuz. Zentzu horretan, garraioaren elektrifikazioak horren iraunkortasunera laguntzen du eta, horren ondorioz, baliabideak aurrera, bai publikoak bai pribatuak. Horrek guztiak eragin zuzena du gure herrialdearen garapen iraunkorrean. EAJ-PNVk gaitasun handiko garraio sistemak ezartzeko proposatzen du, garraio pribatuaren beharra murrizteko, espazio publikoak libre uztea ahalbidetuz eta hiriak arinduz. Gaitasun handiko garraio publikoa, bereziki metropolialdeetan, produkzio eta igarotze zentro handiak ahaztu gabe. Horrek gune horietako jarduera ekonomikoaren dentsitatea handiagoa izatea eragiten du, eta hori guztiz jasanezina izango zen ibilgailu pribatua erabili behar izatekotan.
- Sektore liderra diseinuan, fabrikazioan eta ustiapenean. Euskadik balio erantsi handiko enpresen eta profesionalen barne egitura bat dauka garraioaren sektorean; horiek garraioarekin eta mugikortasunarekin lotutako industria osoaren buruan jarri dute. Gaur egun, Euskadi nazioarteko erreferente bat da garraio iraunkorreko sistemetan, eta horiek indartzea abantaila lehiakor bat da herrialde gisa eta maila guztietan, bai industriarekin lotutako sektore pribatuarentzat, bai sektore publikoarentzat.
- Garapen ekonomiko iraunkorra sortzen duen sistema. Salgaien garraioa oso garrantzitsua da industria, merkataritza eta, oro har, herrialdearen ekonomia garatzeko. Salgaien garraioa optimoa bada, enpresen lehiakotasuna hobetzen da, produkzio kostuak murrizten direlako eta produktuen esportazioa errazten delako. Gainera, azpimarratu behar da garraio eta logistika sistema eraginkorrak enpresa berriak erakartzeko erabaki-elementu nagusienetarikoa direla, horrek eragiten duen lurraldearen garapen ekonomikoarekin.
- Sistema integratua. Distantzia laburreko irisgarritasun eta mugikortasun beharrei beste elementu batzuetatik ere erantzun ahal zaie, bizikleta edo igogailuak eta arrapala mekanikoak bezalakoak. Horien funtzionalitatea gaitasun handiko gainerako garraio sistemekin integratuta egon behar da; horrela, garraio sistema integratu bat izango da.

Gaitasun handiko garraio sistemak ezartzeko proposatzen du, garraio pribatuaren beharra murrizteko, espazio publikoak libre uztea ahalbidetuz eta hiriak arinduz

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

» 12.1 KONPROMISOA

MUGIKORTASUN IRAUNKOR, ADIMENDU ETA INTEGRATZAILEKO EREDU BATEAN AURRERA EGITEA

<p>12.1.1 Ekinbidea Garapen ekonomiko iraunkorra, azkarra eta arduratsua sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAJ-PNVk garapen ekonomiko iraunkorra bultzatzen jarraituko du, koordinatutako garraioa administrazio, enpresa eta gizartetik planifikatuz eta antolatuz. • Euskadiko ekonomiaren lehiakortasuna bultzatzea, Euskadiren konektibitatea indartzen duten komunikazio azpiegituren sare baten bidez, bere lurralde kokapen estrategikotik. • Garraio berritzaile eta aurreratuko sistema bat sustatzea, kostuak nazioartekotzeko irizpideetan oinarriturik kudeatutakoa. • Garraio zerbitzuak ematean erabilitako jardunbide egokiak sustatzea, segurtasun, kalitate eta eraginkortasun irizpideen arabera. • Helburu horiek jasotzea mugikortasun lege adostu eta integratzaile batean.
<p>12.1.2 Ekinbidea Irisgarritasun unibertsala eta iraunkorra lortzea, lurralde plangintza egokiarekin bat etorritz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio iraunkorra sustatzea, irisgarritasuna bermatuz, lurralde plangintza iraunkorarekin koordinatuz. • Lurzoruaren erabileren eta eragindako mugikortasunaren plangintza integratua bultzatzea, ekonomia, ingurumen eta gizarte iraunkortasunaren irizpideen arabera. Horrela, mugikortasun demanda garraio iraunkorreko alternatibekin kudeatuko da. • Hiri-mugikortasun iraunkorreko eta hiri-plangintzan integratutako planen garapena sustatzea udalekin elkarlanean. • Oinezkoen konexio sareak eta bizikleta-bideen sareak garatzea hiriguneen eta eskualdeguneen artean.
<p>12.1.3 Ekinbidea Garraio bideen oreka berria sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Intermodaltasunaren garapena indartzea, bai pertsonen bai salgaien garraioan. Horrela, bidaiarien garraio publikoko sare koordinatu eta integratu bat garatuko da eta azpiegitura logistikoa multimodalaren sare bat ere bai. • Garraio bide iraunkoragoen erabilera sustatzea, batez ere, trenbidearena, etorkizuneko abiadura handiko geltokiak hiriko eta metropoliko garraio sareetan integratuz eta trenbide-portuko konexioak hobetuz. • Hiri plangintzaren eta mugikortasun planen barruan, hurbiltasuneko zentro logistikokoak garatzea, mugikortasun motorizatua murrizteko. • Trenbidearen lehiakortasuna hobetzea, azpiegiturak modernizatuz eta horren funtzionalitatea optimizatuz.
<p>12.1.4 Ekinbidea Euskadiren posizioa indartzea europar</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAJ-PNVk bere garraio politika garatzen jarraituko du, Euskadik Europar duen kokapen estrategikoa nabarmenduz, ardatz atlantiko europarraren "kate-maila giltzarri" gisa. Izan ere, Europar Batasunak izaera hori aitortu dio Garraiorako Sare Transeuropearren eta Trans-European Transport Network (TEN-T) Sarearen barruan. • Trenbide sare berria (orain eraikitzen ari direna) abiarazteak bost euskal hiriburuen arteko trenbide bidezko konexioa ahalbidetu behar du, bost hirien arteko komunikazioak eta harremana hobetuz. Halaber, Gasteiz eta Dourges arteko tren-autobideak garatzea ahalbidetu behar du, Jundizeko Plataforma Multimodalaren bidez. • Basque Country Logistics ereduaren garapena sustatzea, lankidetzak publiko-pribatutik, gure enpresek gero eta globalizatuagoa den merkatu batean lehiatu ahal izateko. • EAJ-PNVk euskal aireportuen sistemaren kudeaketa transferitzeko proposatzen jarraituko du. Hori, kudeaketa hurbilago eta integratua batetik, pertsonen eta salgaien zirkulazioen garapenari eraginkortasunez erantzuten dion euskal aireportu sistema izango da. Izan ere, garapen horri aurre egin behar zaio. • EAJ-PNVk intercity garraio zerbitzuen kudeaketa sustatuko du euskal trenbide sare berriaren barruan.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

<p>12.1.5 Ekinbidea Garraio sistemen erabilera eraginkor eta arduratsua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio azpiegituren kudeaketa eraginkorra sustatzea, horren erabilera optimizatuz garraio kolektiboaren eskaintzatik. • Garraio publikoko eskaintza erakargarri, eskuragarri, eraginkor eta iraunkor bat garatzea, erabiltzaile talde desberdinak kontuan hartzen dituen tarifakazio sistema baten bidez, txartel bakarra ezartzeko Euskadiko garraio publiko guztientzat. • Garraio publikoko zerbitzua lehenestea hirietarako eta mugikortasun demanda handia duten populazio nukleoetarako sarbidean, ibilgailu pribatuaren erabileraren aurrean. • Bere gaitasunagatik, iraunkortasunagatik, eta ingurumenaren gaineko eragin txikiagoagatik, trenbideko garraioa Euskadiko garraio sistemaren egituraketa ardatza izan behar du. • Garraioaren eskaintza optimizatzea garraioaren koordinazio eraginkorraren bidez; horrela, kalitatezko zerbitzu seguruak bermatuz, operadoreen arteko lehia saihestuko da, eskaintzaren bikoiztasuna ekidituz.
--	--

» 12.2 KONPROMISOA

SISTEMA LOGISTIKOA GARATZEA ETA GARRAIO SISTEMA HOBETZEA

<p>12.2.1 Ekinbidea Plataforma logistiko eta intermodal berriak garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jundizeko (Foronda) Plataforma Logistiko eta Intermodala garatzea. Lankidetzak publiko-pribatua bultzatzea Jundizeko terminalaren eraikuntza eta operazioarako eta hori Forondarekin konektatzeko. • Lezoko Plataforma Logistikoak garatzea. Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea Lezoko terminala eraikitzeko eta operatzeko.
<p>12.2.2 Ekinbidea Baztergune industrial berrien eraikuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Baztergune industrialak eraikitzea Lutzanan eta Amorebietan. • Arasurreko trenbide plataforma eraikitzea eta garatzea. Arabako Foru Aldundiarekin eta Bilboko Portuarekin hitzartuta, plataforma berri honen helburua poligono industrialari berari garapen aukerak hornitzea da eta salgai-harpena hobetzea Bilboko Porturantz eta Bilboko Portutik.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

» 12.3 KONPROMISOA

GARRAIO INTEGRATUKO SISTEMA BAT SUSTATZEA EUSKADIN

<p>12.3.1 Ekinbidea Kudeaketa eta ordainketa bide berriak sustatzea. Txartel bakarra euskadin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Txartel bakarraren” ezarpenean aurreratzen jarraitzea. Ordaintzeko modu bakarra ezartzea (garraio txartela, telefono mugikorra edo beste dispositibo inteligente batzuk) Euskadin garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta kudeaketa kostuak murrizteko modurik eraginkorrenetarikoa bat da. Gainera, helburu hori lortzen bada, Euskadi teknologia mota horien erabilerearen buruan jarriko zen. • Euskotren-SNCF txartel konbinatua. Donostialdeko inguruan eta Frantziako hegoaldean txartel konbinatu bat ezartzea, garraio publikoaren mugaz gaindiko komunikazio mugatua indartzeko. Mugatua da linea-aldaketek irauten duten denboragatik eta garraio txartelak bateragarriak ez direlako.
<p>12.3.2 Ekinbidea Garraio publikoa euskal hiriburuetan integratzean aurrera egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzaile berria. Dokumentu horrek kalitatezko garraio publikoko sistema moderno, eraginkor, integratu eta iraunkor baten esparrua ezarriko du. Hala, administrazio eskudun guztien lankidetzarako gida izango da garraioa sustatzerako orduan, elementu guztiak barne hartzen dituen ikuspuntu batekin.
<p>12.3.3 Ekinbidea Bizkaiko, arabako eta gipuzkoako garraio agintaritzak bakarrak garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Garraio Agintaritzak osorik garatzea. Lurralde agintaritzak hauek Euskadin garraio publikoa kudeatzeko tresna giltzarriak izango dira.
<p>12.3.4 Ekinbidea Euskal trenbide sektorearen legea onestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Trenbide Sektorea arautzen duen arau juridikoa onestea. Berezko araudi esparru bat izate aldera, lurraldearen errealitateari eta kudeaketa sistema modernoetara gehiago egokitzen dena.

» 12.4 KONPROMISOA

TRENBIDE ZERBITZUAREN HOBEKUNTZA ETA ZABALKUNDEA SUSTATZEA

<p>12.4.1 Ekinbidea Donostialdea metroa eraikitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Donostialdeko metroa eraikitzea, Lugaritz- Morlans saihebidia. Trenbideko saihebidia hau eraikitzean trenbideko garraioaren erabilera urtean 15.000.000 bidaiarietan igoko da, gutxi gorabehera.
<p>12.4.2 Ekinbidea Gasteizko tranbia zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gasteizko tranbia unibertsitateara zabaltzea, baita Gasteizko Salburua eta Zabalgana auzoetara ere.
<p>12.4.3 Ekinbidea BRT sistema elektrikoa ezartzea Gasteizen eta Donostian</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autobus elektrikoko sistema bat zerbitzuan jartzea, Gasteizko tranbia garatzearen elementu osagarri gisa. • Donostiako autobusen sistemaren 28 linea ordeztzea garraio elektrikoko sistema berri batekin.
<p>12.4.4 Ekinbidea Loiolako erriberako alda-geltoki berria eraikitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Loiolako Erriberako alda-geltoki berria. Bidaiarien geltoki intermodal berria sortzea, Euskotrenen eta RENFEren trenbide-linearen artean Donostian.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

12.4.5 Ekinbidea Bilboko tranbia luzatzea	<ul style="list-style-type: none"> Bilboko tranbiaren garapenarekin jarraitzea, Zorrotzaurreantz eta Autonomia eta Zabalbururantz.
12.4.6 Ekinbidea 3 linea metro Bilbao. Trenbide bidezko sarbideak Loiuako nazioarteko aireportua. 4 eta 5 lineen diseinua eta plangintza	<ul style="list-style-type: none"> Behin betiko amaiteza Metroaren 3. linea Trenbide konexio bat diseinatzea Loiuako Aireporturako. Euskal lurraldea egituratzera laguntzen duten trenbide azpiegitura berrien garapenean lan egiten jarraitzea.

» 12.5 KONPROMISOA

TRENBIDEAREN INTEGRAZIOA HOBETZEA HIRIETAN

12.5.1 Ekinbidea Oraingo trenbide geltokiak hobetzea, intermodaltasunaren kontzeptuan aurrera egingez	<ul style="list-style-type: none"> Bilbao-Abando geltoki berria. Abiadura handia heltzea aukera paregabea da, geltokiaren eraldaketa integrala egiteko, garraioaren ikuspuntu funtzionaltetik, eta Abiadura Handia heltzeak Bilbo eraldatzeko aukera bat ematen duelako. Donostia-Atotxa geltoki berria. Abiadura handia heltzearekin, Atotxako geltokiak trenbide-eraldaketa bat eskatzen du, trenbideko garraioaren zerbitzu guztiak integratzeko. Halaber, trenbidearen hiriko integrazioa hobetuko da egoitza hirigunean eta Tabakalera eraikinarekin. Geltoki berria eta trenbidea lurperatzea Gasteizen. Trenbidea lurperatzeko eta hiriaren erdiguneko zeharbidean integratzeko proiektua sustatzea, baita abiadura handirako geltoki baten eta gainerako trenbideko zerbitzuen eraikuntza ere. Horrek guztiak Gasteizen hiri-eraldaketa lagunduko du. Debako geltokia birgaitzea. Udara begira zerbitzuak hobetuz pasabide berriekin, eta 400 metroko luzerara arteko salgai-trenak gurutzatzea ahalbidetuz. Ermuako geltokiaren trenbide-txertaketa hobetzea. Trenbideko zerbitzuen maiztasuna aldatzeko puntu bat sortuz eta trenbide-linea 1 km-ko hedaduran zabalduz.
---	---

» 12.6 KONPROMISOA

TRENBIDEKO GARRAIOAREN GAITASUNA INDARTZEA

12.6.1 Ekinbidea Salgai zama handitzea tren bakoitzeko	<ul style="list-style-type: none"> Salgaien zirkulazioak sustatzea eta garatzea EuskoTrenen lineetatik.
12.6.2 Ekinbidea Hobekuntzak egitea trenbide trazaduran	<ul style="list-style-type: none"> Trazadurak hobetzea Aguinaga eta Altzolaren artean. Bidaiaren denbora murriztea Zarautz-Donosti eta Eibar-Deba ibilbideetan. Trazadura hobetzea Amorebietan. Konponbide baten proiektua egitea, oraingo geralekua hobetzeko, trenbide-pasagunea kentzeko eta Amorebietan trenbidea kilometro bateko tartean bikoizteko.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

» 12.7 KONPROMISOA

BERRIKUNTZA BULTZATZEA GARRAIOAN

<p>12.7.1 Ekinbidea Berrikuntza berriak diseinatzea eta aplikatzea, garraio eraginkorragoa eta iraunkorragoa ahalbidetzen dutenak eta eragiketa-kostuak murrizten dituztenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zirkulazioa kudeatzeko oraingo sistema (Euroloop) Europar Batasunak ezarritako estandar berrira migratzea: ERTMS. • Sinergiak baliatzea ahalbidetzen duen teknologia eta kudeaketa sistema bat sustatzea, oraingo mugikortasun elektriko sistemen informazio-bideei, komunikazioei eta energiaren erabilerari dagokienez. • Ordaintzeko eta bidaiariari informazioa emateko bide berriak. Ordaintzeko eta informazioa emateko bide berriak aztertzea eta gehitzea, garraio publikorako sarbidea hobetzeko, baita txartelen sistema kudeatzeko kostuak murrizteko ere.
---	---

» 12.8 KONPROMISOA

BIDE LABURREKO GARRAIOKO SISTEMAK HIRIKO GARRAIOAREKIN KOORDINATZEA ETA INTEGRATZEA

<p>12.8.1 Ekinbidea Bizikleta elektrikoaren euskal sistema baten garapena babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriekin bizikleta elektrikoaren garapen koordinatua babestea.
<p>12.8.2 Ekinbidea Mugikortasun bertikalaren hobekuntza babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriekin mugikortasun bertikalaren garapen koordinatua babestea, igogailuen, eskailera mekanikoen eta funikularraren ezarpenean, trenbideko eta lurreko garraioko sistemekiko koordinazioa indartuz, sistemei irisgarritasun unibertsala hornituz.
<p>12.8.3 Ekinbidea Garraio sistemen koordinazioa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Garraio Agintaritzatik garraio sistema publiko osoaren koordinazioa eta plangintza integratua sustatzea.
<p>12.8.4 Ekinbidea Mugikortasun elektrikoaren plan integrala</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernuko industria, teknologia, garraio eta ingurumen arloekin, foru aldundien eta udalen lankidetzarekin eta sektoreko enpresa pribatuen laguntzarekin, lankidetzaren publiko pribatuko programa bat sustatuko da, ibilgailu elektrikoak garatzeko, sustatzeko eta erabiltzeko. Programa horrek, besteak beste, jarduketa hauek hartuko ditu barne: <ul style="list-style-type: none"> - Hiriko autobusak pixkanaka trakzio elektrikoaren garraio publikoko ibilgailuekin ordeztzea. - Car-sharing elektrikoaren sustatzea merkataritza-guneetara iristeko. - Ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuen sarea garatzea. - Autobus elektrikoarekin eta etorkizuneko bateriekin lotutako Europako garapen eta ikerkuntza proiektuetan parte hartzea. - Ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzea.



13. LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA

LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVk gure lurraldearentzat proposatzen duen ikuspegia hurrengo 20 urteetarako lurralde bikain bate-rantz aurrera egiten jarraitzearena da: iraunkorra, adimenduna, soziala, orekatua, elkarrekin lotutakoa eta parte-hartzailea.
- EAJ-PNV Euskadik bere balio naturalak gorde eta babesten jarraitzearen alde dago, Natura 2000 Sare Europarran osorik integratuz, baita Europako eta nazioarteko estrategian ere, azpiegitura berdeak eta paisaia sustatuz, politika publikoen alderdi berritzaile gisa.
- Azpiegitura berdeek, batetik, espazio naturalak lurralde osoko oinarritzko parte gisa hartzera eramaten dute. Bestetik, ekosistemek gizarteari eman ahal dizkio-ten zerbitzuak baliatzen eta nabarmen-tzen dituzten eraikuntza teknikak erabili-ko dira. Besteak beste, uraren kudeaketa hobez ari gara, horren aprobeixamen-duari dagokionez, begetazioa erabiltzea hirietan bero-uharteak saihesteko eta berotegi-efektuko gasak xurgatzeko.
- Konbentziturik gaude azpiegitura ber-deak eta energia berriztagarrien erabi-lera, energia elektrikoa hiriko garraioan edo eraikinen eraginkortasun energeti-koa bezalaxe, gai giltzarriak direla Euska-di aldaketa klimatikoaren aurrean koka-tzeko eta 2015eko abenduko Pariseko Gailurrean hartutako konpromisoen au-rreran.
- EAJ-PNVtik Euskadi bizitzeko lurralde bikaina izatea nahi dugu, hiri eta herri adimendu eta iraunkorrez osatutakoa. Bertan, berrikuntza funtsezko faktorea izango da enpresa-lehiakortasunerako eta gizartearen bizi-kalitaterako.
- Hortaz, neurri berritzaileen ikerkuntza, garapena eta aplikazioa sustatuko ditu-gu hezkuntzan, enpresetan, elkarrekin eta gizartearen beste eremu batzuetan. Gure helburua mugikortasun iraunko-

rreko sistema bat sustatzea da, garraia-tzeko modu desberdinak eraginkortasun energetikoa optimizatzeko sistemekin eta energia berriztagarrien erabilera-rekin konbinatzen dituena.

- Gainera, kontua da lan egiteko forma ber-ri bat ezartzea. Izan ere, beharrezkoa izango da datuekin kudeatzea denbora errealean, hasierako egoerak eta horien bilakaera, eta hortik, hartu beharreko neurriak ezarriko dira.
- Hitzematen dugu Euskadi lurralde sozial bat bihurtuko dugula; bertan, ahalik eta gehien murriztuko dira narriatutako in-guruak, hiri eraberritzearen eta bizi-kali-tatearen alde egingo da, bai hiriguneetan bai landa-eremuan. Halaber, kontuan hartuko dira uneoro pertsonak, horien adina, irisgarritasuna, jatorria, gene-roa, etxebizitzak, hezkuntza eta lagun-tza-zerbitzuak.
- EAJ-PNVn Euskadi espazio sozial eta lurraldeari dagokionez orekatua izatea nahi dugu, gune batzuk husteko proze-suak (adibidez, Araban) eta biztanle-riaren leku-aldaketa handiak saihesten dituen, barrualdetik kostalderakoak be-zalaxe Gipuzkoan. Horrez gain, Euskadi elkarreragineko lurralde bat izatea nahi dugu, bai ardatz europarretan bai lurral-de historikoen artean ere, eskualdeen artean eta eskualdeen barruan bertan.
- Aldi berean, Euskadi lurralde parte-har-tzailea izatea nahi dugu, lurralde antolaketari dagokionez. Hasieratik pro-posatu zen Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen berrikuspen prozesua par-te-hartzailea izateko eta horrela garatzen ari da. Izan ere, alor honetako proie-ktu "pilotu" bat da edo "intsignia" ere, Gardentasunari eta Parte-hartzailetzari buruzko Liburu Zuriaren esparruan.
- EAJ-PNVn konbentziturik gaude garran-tzitsua dela paisaia kudeatzeko, babes-teko eta antolatzeko 9/2014 Dekretua garatzea eta praktikan jartzea EAEn

lurraldea antolatzean. Horretarako, "Paisaia" arlo funtzionalen Lurralde Plan Partzialetan txertatzea bultzatuko dugu, Paisaiaren inguruko kontzientziazio-kul-tura sustatuz.

- Era berean, Paisaiako badiaren hiri-gintza-eraberritzea sustatzen jarrai-tuko dugu. Hirigintza jarduketa hau inflexio-puntu bat izango da luzaroan interesen gatazka eta desadostasun politikoen menpe egon den prozesu ba-ten ibilbide luzean. EAJ-PNVn badaki-gu, urbanizazio lanez gain, beste neurri sozioekonomiko batzuk behar direla be-netako eraberritzea lortzeko. Hala, hiri-gintza jarduketa hauek argi uzten dute nahi zen aldaketa gertatzen ari dela eta prozesu luzeago eta integral bat hasi dela.

***Euskadi bizitzeko
lurralde bikaina
izatea nahi
dugu, hiri eta
herri adimendu
eta iraunkorrez
osatutakoa***

LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA

» 13.1 KONPROMISOA

LURRALDEA ANTOLATZEKO ESPARRU ERAGINKORRA SUSTATZEA ETA FINKATZEA

<p>13.1.1 Ekinbidea Lurraldea antolatzeke gidalerroen lurralde estrategiaren berrikuspena amaitzea eta lurralde plan partzialak eguneratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lurraldea Antolatzeke Gidalerroen lurralde estrategia berrikusteko prozesua bultzatzea (DOT-2030), arreta berezia jarri aurreikusitako epeak betetzean. Eguneratzea, beharrezko erakunde adostasunean oinarrituz, eguneratu beharrek lurralde plan partzialak.
<p>13.1.2 Ekinbidea "Paisaiaren" politika finkatzea lurralde antolaketaren esparruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Protagonismo espezifiko ematea paisaiari berrikuspen horretatik ateratzen diren Lurraldea Antolatzeke Gidalerro berrietan. Paisaiaren zehaztapenak sartzeko Arabako Errioxako, Enkarterriko (Balmaseda-Zalla), Urola Kostako eta Donostialdeko Lurralde Plan Partzialetan. "Paisaia" hezkuntzan sartzeko, modulu didaktikoen bidez. Udalek alor honetan burututako jarduketak sustatzea Paisaiaren Ekintza Planen bidez. Ekonomia, gizarte eta ingurumenari dagokionez garrantzitsuak diren proiektuetan paisaia txertatzeko azterlanak egitea. Lankidetzak jarraitu Paisai Kulturalen eta Ondarearen inguruko UNESCO Katedrarekin, gobernuaren eta UPV/EHU-aren arteko lankidetzak-hitzarmen baten bidez sortutakoa.

» 13.2 KONPROMISOA

GURE LURRALDEAREN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA, "LURRALDE ADIMENDUAREN" IKUSPUNTUA ETA LURRALDE ANTOLAKETAREN DIMENTSIO SOZIALA

<p>13.2.1 Ekinbidea Gure lurraldearen iraunkortasuna sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Beharrezkoa ez den lurzoruen artifizializazioa prebenitzea, aurretiaz beharrak eta aukerak aztertuz. Narriatutako guneak eraberritzea eta eraikitako lurzorua aprobetxatzea. Teknika eta material iraunkorren erabilera sustatzea obretan eta ekosistemek gizarteari ematen dizkieten zerbitzuak nabarmentzea, horiek gordetzeko eta indartzeko. Paisaiaren ikuspuntua lurraldean bultzatzea. Gure lurraldearen ahultasuna prebenitzea aldaketa klimatikoaren aurrean, eta aldaketa klimatikora egokitzea eta berotegi-efektuko gasak murriztea ahalbidetzen duten hirigintza eta lurralde jarduketak sustatzea.
<p>13.2.2 Ekinbidea Lurralde adimendu bat sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sailen arteko jarduketak Europar Batasunak babestutako esperientziak nabarmentzeko, besteak beste, Gasteizko eta Donostiako Smart Cities proiektuak, eta horien jardunbide egokiak ateratzea eta estrapolatzea EAeko beste hirigune batzuetan aplikatzeko. Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea. Hiriko garraio iraunkor eta multimodaleko sistemak sustatzea. Datuak hartzea, ustiatzea eta aztertzea eta horiek ezagutza bihurtzea ahalbidetzen duten dispositiboek ekosistema bat sustatzea, lurralde antolaketaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuak errazteko. Hiri berrikuntzarekin lotutako jarduerak sustatzea.
<p>13.2.3 Ekinbidea Lurralde sozial eta irigarria sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Narriatutako hiriko espazioak eraberritzea sustatzea. Etxebizitzak birgaitzea sustatzea eta babestea. Eraikuntzen, instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea. Genero ikuspegia sartzeko lurralde antolaketan. Osasunaren ikuspegia sartzeko lurralde antolaketan, lurralde eta hirigintza antolaketak egoki baten eta osasun adierazle positiboek arteko harremana nabarmenduz. Euskararen ikuspegia sartzeko lurralde antolaketan.

LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRA

» 13.3 KONPROMISOA

EUSKADI ETA LURRALDE OREKAREN KANPOKO ETA BARNEKO ELKAR HARREMANA SUSTATZEA

<p>13.3.1 Ekinbidea Lurralde orekatua eta elkarreraginekoa sustatzea barnean eta kanpoan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiren errotula rol europarra indartzea sare transeuropear atlantikoan eta piriniotar ardatzean, batez ere, garraio bide eta botere logistiko estrategikoari dagokienez. • Mugakide diren lurraldeekin partekatutako lurralde ikuspegia sustatzea: Nafarroa, Iparralde, Akitania, Kantabria, Errioxa eta Gaztela-Leon. • Lurralde historikoen eta arlo funtzionalen arteko elkar harremana erraztea, batez ere, mugikortasunari eta ekipamenduei dagokienean. • Biztanleriaren mugimenduak aztertzea eta diseinatutako antolaketa mantentzeko prebentziozko neurriak barne hartzen dituzten lurralde ereduak sustatzea.
---	--

» 13.4 KONPROMISOA

PARTE-HARTZEA ETA EBALUAZIOA FUNTSEZKO ELEMENTUAK IZATEA LURRALDE ANTOLAKETAN

<p>13.4.1 Ekinbidea Parte-hartzea eta ebaluazioa sustatzea lurraldearen arloan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak berrikusteko ezarritako prozesu parte-hartzailea finkatzea. • Kultura parte-hartzailea sustatzea lurralde politikan, berrikuspenetik ateratako mekanismo egokiak ezarriz. • Herritarren parte-hartzea erabiltzea eta sustatzea lurralde eta hiri eztabaida eta proiektuak ebatzian. • Ebaluazio sistema eta adierazle egokiak ezartzea, lurraldearen antolaketa eta horren antolaketa tresnak etengabe hobetzeko funtsezko elementu gisa (Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak).
---	--

» 13.5 KONPROMISOA

AURRERA EGITEA PASAIKO BADIAREN ERABERRITZEAN

<p>13.5.1 Ekinbidea Aurrera egitea Pasaiako badiaren eraberritzean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pasaiako Portu Agintaritzarekin hitzarmena garatzea eta abiaraztea Euskotrenen La Herrerako geltokia Trintxerpekin lotzeko bizikleta-bidearekin eta oinezkoen bidearekin. • Erakundeen arteko esparru-hitzarmenaren garapena sustatzea Gobernuaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Pasaiako Udalaren eta Pasaiako Portu Agintaritzaren artean, Portuko Plan Bereziaren aldaketan jaso diren portua eta hiriaren arteko bizikidetza proiektuak burutzeko.
---	---



14. INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVn uste dugu gizarte oparo, moderno eta aurreratu bat soilik eraiki daitekeela gure baliabide naturalak babestuz eta errespetatuz eta ingurumen arriskuak prebenituz, pertsona guztien osasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko.
- Euskadi konprometitu dago garapen iraunkorreko helburuekin, baita berotegi-efektuko gasak % 20 murrizteko xedearekin ere.
- Horretarako, lurralde iraunkor baterantz joan behar gara; bertan, ingurumen osasuntsua eta oparotasun ekonomikoa eta soziala ezingo dira ekonomia lehiakor, berde eta berritzaile baten emaitzetatik bereizi. Ekonomia horrek ez ditu baliabideak xahutzen, enplegua sortzen du eta maila globalean dauden iraunkortasun erronka handiak lortzera laguntzen du.
- Euskadiko herritarrek lurralde eta ingurumen osasuntsu batez gozatzen dute; herritarrek horiek konprometitu daude eta berreskuratu izanaz harro daude, etorkizuneko belaunaldi ezteko. Hori guztia lurralde eta ekonomia berdea sortzearen emaitza da, oinarri industriala, lehiakorra eta berritzaile duena. Izan ere, hori funtsezkoa da enplegu aukerak sortzeko, aldaketa klimatikoko eta ondare naturala babesteko eta hobetzeko politiken alde egiten duen testuinguru globalean.
- EAJ-PNVn uste dugu funtsezkoa dela ingurumen ikuspuntua eta helburuak politika guztietan sartzea. Gure aburuz, ingurumena giza jarduera eta sektore guztien zeharkako elementu bat da. Hortaz, ingurumenaren inguruko gogoetak behar bezala integratu behar dira politika, plan eta programa guztietan, euskal administrazio publikoaren maila eta arlo guztietan. Era berean, erakunde maila desberdinei dagozkien erantzukizun eremuen ikuspegi argi bat mantentzearen alde gaude, horietako bakoitzarentzat helburu ertain zehatzen lehenespena koordinatuz.
- EAJ-PNVrentzat ingurumen politika gizartearekiko konpromiso bat da, gardentasunean, berdintasunean, parte-hartzean, emaitzarako bideraketan, kontu-ematean, sinplifikazioan eta politika publikoen arteko koherentzian oinarritutakoa. Bikaintasunerantz aurrera egiteak aldaketa sustatzen duen nagusitasun politikoa eskatzen du, baita administrazioaren jarrera eredugarri bat ere.
- Konbentzituta gaude herritarren parte hartzeak eta enpresen eta inplikaturik dauden beste eragile batzuen lankidetzat sistematikoki duten balioaz. Gizarte zibil antolatua ingurumen politika arduratsu bati eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzea ekintza publikoaren gardentasuna bermatzeko eta gure ingurumena gordetzeko modurik onena da. Gizarte zibila eta, bereziki, ekonomia-egituraketa gure ekonomiaren eragile giltzarriak dira eta horien lankidetzat aktiboa bilatu behar dugu.
- EAJ-PNVn konbentzituta gaude zuzentzia irizpidea gailendu behar dela, pertsonen osasunean eta ingurumenean kalteak eragitea saihestuz. Ziurtasunik eza ez da arrazoi nahikoa izango pertsonen edo ingurumenaren osasuna babestera bideratutako edozein ekintza atzeratu edo ekiditeko.
- EAJ-PNVn uste dugu ingurumen iraunkortasunerako trantsizioa burutzeko aldaketa batzuk egin behar direla, politika energetikoan, garraio sisteman, nekazaritza eta abeltzaintzako eremuan, gure lurraldeko hiri egituraketa dinamizketan, gure industrien produzitzeko moduan, familiek hondakinen kudeaketan edo ur eta energia kontsumoan jartzen duten arretan eta pertsonen ondasun eta zerbitzuak erosteko hartzen dituzten eguneroko erabakietan.
- Euskal ingurumen politika guztiz lerrokatuta dago Europar Batasunekoarekin eta Nazio Batuetakoarekin. Horrela, ingurumen politikak oinarri zientifiko irmoa dauka, eta hori sakontzen jarraitu behar du lorpen berriak izate aldera.
- Aldi berean, badakigu gure garaiko ingurumen arazo handiek ez dutela mugarik. Ekonomikoki garatutako herrialdeok hegoaldeko herrialdeak deritzonekin aktiboki elkarlanean aritzeko ardura daukagu, ekonomia eta gizarte iraunkor baterako trantsizioan laguntzeko.
- EAJ-PNVk uste du ingurumena erabakigarria dela osasun publikoarentzat. Euskal ingurumen politikak jotzen du pertsonen osasunaren babesa, sektore ahulenak kontuan hartuz, haurrak eta adinekoak bezalaxe, funtsezko eskubide bat dela. Horregatik, gizartearen beste demanda eta interesengandik gailendu behar da.
- EAJ-PNVren konpromisoa etorkizuneko belaunaldiekiko da. Garapen iraunkorra belaunaldi honek etorkizuneko belaunaldiekiko duen konpromisoa da. Konpromiso hori hartu dugu ulertzen dugulako gaur egungo haurrek ondare naturala, paisaiak, lurraldea eta ingurumena errespetatu, babestu eta gorde dituen Euskadi bat jaso behar dutela eta hori lortzeko erantzukizuna ere badugu.

INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

» 14.1 KONPROMISOA

ONDARE NATURALA ETA BIODIBERTSITATEA BABESTEVA ETA HOBETZEA

<p>14.1.1 Ekinbidea Erabileren konbinaketa eta narriatutako espazioen eraberritzea eta berrerabilera erraztea eta ekosistemen eta horien zerbitzuen galera mugatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lurralde antolaketa adimendua sustatzea, biztanleria dentsitate handiak lehenesten dituen eta erabileren konbinaketa indartzen duena, lurzoru berriz erabiltzea eta eraberritzea sustatuz. Zerbitzu ekosistemikoak ebaluatzea eta ezagutza zientifikoa lurralde politikan sartzea, erakundeen arteko koordinazioa bilatuz eta ezagutza hori foru aldundiei eta udalei helaraziz. Inguru naturala egokitzeko kudeaketa sistemak ezartzea. Mehatxatutako espezieen kontserbazio egoeraren segimendua eta azterketa egiteko mekanismoak indartzea.
<p>14.1.2 Ekinbidea Lurraldean lan egiten duten eragileak konprometitu eta sentsibilizatzea ekosistemen garrantziaren inguruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lurraldea antolatzeko jardunbide egokiak ezartzea, bai lehen sektorean bai lurralde plangintzan. Nekazariei pizgarriak emateko formulak bilatzea, Europak proposatutako ikuspegi integratua jarraituz. Herritarren informazioa, kontzientziaketa eta hezkuntza sustatzea eta biziagotzea inguru naturalari dagokionez, natura gure etxeetara eta gure herritarrengana hurbilduz. Habitata berreskuratzeko jardunbide egokiak eskuliburuak egitea.

» 14.2 KONPROMISOA

KARBONOAN BAXUA DEN ETA BALIABIDEAK MODU ERAGINKORREAN ERABILTZEN DITUEN EKONOMIA LEHIAKOR ETA BERRITZAILE BATERANTZ AURRERA EGITEA

<p>14.2.1 Ekinbidea Karbonoan baxua den ekonomia lehiakorra sustatzea, aldaketa klimatikoa geldiarazten laguntzen duena</p>	<ul style="list-style-type: none"> Energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea, baita energia berriztagarrien sorkuntza ere. Erantzunkidetasuna sustatzea aldaketa klimatikoarekiko: garraio publiko eta partekatua sustatuz, energetikoki eraginkorragoak diren produktuen kontsumoa eta produktuen eta zerbitzuen ekoetiketatua bultzatuz. Materialen kontsumoa optimizatzea lehiakortasuna hobetzeko. Ekoberrikuntza eta ekoeraginkortasuna sustatzea fabrikazio aurreratuaren bidez. Ekodiseinua sustatzea baliabideen kontsumoa murrizteko eta hondakinak sortzea prebenitzeko tresna gisa. Teknologia garbiak eta ingurumenari dagokionez eskuragarri dauden teknologiarik onenak sustatzea. Energia berriztagarrien erabilera sustatzea, horien erabileran % 20ra heltzeko asmoz. Eraikuntza iraunkorra bultzatzea eta ia igorpenik ez duten eraikinak ere bai. Ikerkuntza proiektuak eta teknologia berriak garatzeko proiektuak sustatzea, karbonoa hartu eta biltzeko.
<p>14.2.2 Ekinbidea Ezer xahutzen ez duen ekonomia zirkularra bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hondakinen isurketa zigortzen duten eta berriz erabiltzea, birziklapena eta balorizazioa bultzatzen dituzten tresna ekonomikoak ezartzea. Baliabideak bere bizitza-ziklo osoan zehar modu eraginkorragoan erabiltzen dituzten eraikuntzak sustatzea. Ingurumen ekintzaitza sustatzea, ziklo eta ekosistema industrialen itxitura iraunkorra bultzatzen duten negozio eredu berriak babestuz

INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

14.2.3 Ekinbidea Ekintzailletza eta enplegu berdea indartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa aukeren aprobeitxamenduari lotutako ekintzailletza berdeko ekinbideak babestea, ingurumena zaintzeari eta gordetzeari dagokienez. • Udalerrietan enplegu berdea garatzeko berrikuntza eta jardunbide onenak babestea. • Lankidetzaren sareak indartzea lurraldearen garapen iraunkorrerako.
14.2.4 Ekinbidea Ikerkuntza eta berrikuntza bultzatzea ekosistemen eta ekonomia berdearen eremuan	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerkuntza proiektuak garatzea ingurumenaren alorrean, RIS 3 Euskadi espezializazio adimenduko estrategiaren aukera-lurraldeetako bat bezala. • Lankidetzaren sareak sustatzea RIS 3 estrategiaren beste arlo batzuekin, teknologikoa eta teknologikoa ez den ikerkuntza eta berrikuntzaren arloan, batez ere, fabrikazio aurreratuaren, hiri habitataren eta industria sortzaileen eremuekin.

» 14.3 KONPROMISOA

GURE HERRITARREN OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATzea ETA BABESTEA INGURUA BABESTUZ

14.3.1 Ekinbidea Inguru naturalen kalitatea hobetzeko bidea jarraitzea	<ul style="list-style-type: none"> • Azaleko eta lurpeko ur masen eta babestutako gunen egoera ona mantentzea. • Kalitateko uraren demanda asetzea bideratutako proiektu bat garatzea, iraunkortasun, aurrezpen eta eraginkortasun irizpideek gidatutakoa, uraren demanda kudeatzeko tresnak bultzatuz. • Ura kudeatzeko ereduaren egokitzapena eta eguneraketa aztertzea, URAK (Uraren Euskal Agentzia) sortu zenetik izan duen esperientzian oinarrituz. • Inbertsioa sustatzea plangintza hidraulikoan ezarritako saneamendu eta arazketa beharrei erantzuteko, baita hornikuntza beharrei ere. Besteak beste, saneamendu eta ubideratze azpiegitura hauek egitea sustatuko da: <ul style="list-style-type: none"> - Kadaguaren ubideratzea (Zalla) - Ibaizabal-Nerbioi ibaiaren ubideratzea (Laudio) - Zadorra ibaiaren ubideratzearen 2. Fasea eta Gasteizko hegoaldeko eraztun berdea ixtea. - Oioneko araztegia amaitzea. - Ibaizabalen ubideratzea (Galdakao) - Gobelassen ubideratzea (Fadura) - Urdaibaiko saneamendua - Zadorraren saneamendua. Aguraineko eta Dulantziko hondakin-uren araztegia. - Urumearen ubideratzea (Mutriku) - Mutrikuko saneamendu-sarea • Airearen kalitatea sustatzea, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat etorrituz. • Kutsatutako lurzoruen kudeaketa hobetzera bideratutako ekinbide eta proiektuak garatzea.
14.3.2 Ekinbidea Gero eta kezagarriagoak diren ingurumen arriskuak eta bektoreei aurre egitea (aldaketa klimatikoa, soinu, argi kutsadura, elektromagnetikoa, sustantzia berriak...)	<ul style="list-style-type: none"> • Muturreko klima fenomenoaren ondorioak gelditzera eta arintzera bideratutako ekinbideak garatzea. • Osasunerako ingurumen arriskuaren monitorizazioa, prebentzioa eta kudeaketa indartzea. • Ingurumen kalitatearen kostu/etekin ekonomiko eta soziala ebaluatzea, osasun kostuetan sortutako aurrezpenaren terminoetan.

INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

» 14.4 KONPROMISOA

LURRALDEAREN IRAUNKORTASUNA HANDITZEA

<p>14.4.1 Ekinbidea Kontsumo arduratsua bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontsumitzaileari informazioa emateko sistemak garatzea. • Produktuen ekoetiketatua sustatzea. • Kontsumo jarrera arduratsuak sustatzea, baita tokiko kontsumoa, zirkuitu laburrak eta elikadura zikloa ixtea ere.
<p>14.4.2 Ekinbidea Azpiegitura berdeak garatzea eta ezartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Azpiegitura berdeen plangintza, lurraldea antolatzeko gidaleroen eta lurralde planen eta plan sektorialen arabera. • Udalerrien arteko koordinazioa partekatutako azpiegitura berdeak garatzeko. • Kapital naturalaren eta erabilera eraginkorraren inguruko informazio erabilgarria sortu eta udalerrietara hedatzea. • Konektibitate ekologikoa hobetzea, egindako azpiegitura berriek zatitutakoa. Lurralde desberdinetan isolatuta geratu diren balio ekologiko handiko espazioak konektatzea.
<p>14.4.3 Ekinbidea Pertsonen eta salgaien mugikortasun iraunkorreko hiri ereduak bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasun ez motorizatua sustatzea, oinezko eta bizikletazko leku-aldaketak bultzatuz. • Garraio publiko eta partekatua bultzatzea, garraio sistema multimodal adimenduaren garapena bultzatuz, energia garbien bidezko moduak eta bereziki ibilgailu elektrikoa bultzatzen dituenak. • Garraioen demanda kudeatzeko sistema berriak ezartzea.
<p>14.4.4 Ekinbidea Lurraldean energia, ura, hondakin eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiriguneen eraberritzea sustatzea, enpresa eredu iraunkorrako baterako trantsizioa bultzatuz, eraikitako parke eraginkorrako batera eta kalitatezko espazio publikora, herritarren arteko harremanaren erdigune gisa. • Etxeetan eta enpresetan aurrezpen eta eraginkortasun jarrerak sartzea sustatzea eta bultzatzea. • Hiri-hondakinen kopurua murriztea eta % 80ra heltzea horien birziklapen eta balorizazioan.
<p>14.4.5 Ekinbidea Herritarren parte-hartzea eta sentsibilizazioa bultzatzea lurraldean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio, informazio eta prestakuntza kanpainak egitea, herritarren karbono aztarna murrizte aldera. • Tokiko administrazioetik ingurumen iraunkortasuna bultzatzera bideratutako ekinbideak garatzea, gizartearentzat eredu bat izan daitezen. • Udalerrietan herritarrek parte hartzeko prozesuak indartzea eta bultzatzea, hiri eta landa espazioak zaintzeko.
<p>14.4.6 Ekinbidea Iraunkortasunaren inguruko prestakuntza eta kontzientziakzioa indartzea euskal gizartean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Agenda 21 sustatzea Lanbide Heziketako zentroetan. • Ingurumen prestakuntza sustatzea, ingurumen gaien inguruko prestakuntza gaitasunak garatzea babestuz. • Gure gazteen parte-hartzea sustatzea iraunkortasuna bultzatzeko eta horren inguruko prestakuntza emateko programetan. • Bidegorrien eta bizikleta ibilbideen sarea handitzea, foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean.

INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA

» 14.5 KONPROMISOA

INGURUMENAREN BABESA ZEHARKAKOIA EGITEA POLITIKA PUBLIKO GUZTIETAN, INGURUMEN PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK SINPLIFIKATUZ ETA ARINDUZ

<p>14.5.1 Ekinbidea Kontrola eta erantzunkidetasuna sustatzea ingurumenaren kudeaketan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Beharrezko araudi eta prozedura aldaketak egitea administrazio prozedurak murriztu, arindu eta sinplifikatzeko helburuan aurrera egiteko.
<p>14.5.2 Ekinbidea Inguru naturalaren kontserbazioa integratzea politika sektorialetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Plangintza eta araudi sektorial desberdinak lerrokatzea, ingurumen aldaerak sartuz, bereziki Natura 2000 Sarea nekazaritza eta basogintzaren inguruko politikan, foru aldundiekin etengabe koordinatuz. Administrazioaren esku-hartzeen ingurumen kostuak eta etekinak zenbatzea. Zerbitzu ekosistemikoen balorazioa sartzea.
<p>14.5.3 Ekinbidea Politika publikoen ingurumen integrazioa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sailen arteko 6 Proiektu Giltzarri sustatzea: <ol style="list-style-type: none"> Administrazio eredugarria ingurumenari dagokionez. Lurralde osasuntsua. Ingurumen fiskaltasuna. Fabrikazio berdea. Elikadura zirkularra. Azpiegitura berdeak.
<p>14.5.4 Ekinbidea Aurrera egitea ingurumenari dagokionez eredugarria den administrazio publiko baten sorkuntzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ekintza publikoaren ingurumen azterna zenbatzea eta murriztea. Erosketa publiko berdeko ekinbideak sustatzea eta bultzatzea, batez ere, azpiegituren plangintzan eta garapenean; eraikuntza eta ekipamenduak; ibilgailuak eta mugikortasuna; eta energia eta horniduren erabilera. Ingurumen kudeaketako prozedurak eta izapideak murriztea, sinplifikatzea eta arintzea.
<p>14.5.5 Ekinbidea Gizarte zibilak parte hartzeko eta elkarrizketako espazioak eta erantzunkidetasun publiko-pribatua sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrek parte hartzeko sistema berriak sartzea, ingurumena babesteko eta hobetzeko eta IKT eta sare sozialak baliatzeko. Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareak ingurumenaren eremuan garatutako ikerkuntza esfortzuak eta emaitzak nabarmentzea. Ingurumenaren inguruko informazioa partekatzeko sistema bat sustatzea, datuen kudeaketa sinplifikatzen duena.

» 14.6 KONPROMISOA

EUSKADIREN NAZIOARTEKO PROIEKZIORA ETA ERANTZUKIZUNERA LAGUNTZEA

<p>14.6.1 Ekinbidea Ingurumenaren arlotik Euskadi nazioartekotzeko estrategiara laguntzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen eremua Euskadiren nazioarteko proiektzioaren politikan integratzea. Ingurumenaren eremuan euskal eragile publiko eta pribatu guztiak egindako lana nazioartean babestea eta hedatzea. Ingurumenaren inguruko foru globaletan parte hartzea, ICLEI, Iraunkortasunaren aldeko Toki Gobernuen Sarea, The Climate Group edo Garapen Iraunkorren aldeko Eskualde Gobernuen Sarea bezalako sareen bidez.
--	---



15. GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK

GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Garraio azpiegiturak oinarrizkoak dira hazkunde ekonomikorako, bizi-kalitatea hobetzeko eta lurralde egituraketarako. Hala, enpresen lehiakortasuna hobetzera laguntzen dute eta garapen iraunkorrako batera ere bai.
- Azpiegiturak eragin zuzena dute lurralde eta hiri garapenetan eta alderantziz. Lurzoruaren erabilerei buruzko politika mugikortasun beharren hazkundearen eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitzearen erantzulea da. Beraz, EAJ-PNVrentzat beharrezkoa da hiri eta ekonomia-aren garapeneko lurralde politikak mugikortasun politikekin integratzea.
- Azpiegiturak garapen iraunkorrera laguntzen dute gizarte onurak gizarte kostuak baino handiagoak direnean; mugikortasunaren kostua eta eragina murrizten dutenean; petrolioarekiko menpekotasuna eta berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizten dituztenean eta pertsonen bizi-kalitatea handitzera laguntzen dutenean.
- Horregatik, azpiegituren eragin positiboak produktibitate hobekuntzekin eta kostuen aurrezpenarekin bat etorri behar dira, bai eragile ekonomiko desberdinei bai herritarrei bideratuta. EAJ-PNVn uste dugu kontua ez dela inbertitzea soilik, baizik eta ondo inbertitzea, ingurumen, gizarte eta ekonomia-aren ikuspuntutik garraiobide iraunkorren eta errentagarrien azpiegiturak lehenetsiz.
- EAJ-PNVn pertsonen mugikortasun fisikoko eta profesionaleko beharrei erantzuteko aukerarik hoberenak garatu nahi ditugu, Euskadin lan merkatu zabalagoa garatzea errazten duten erantzunak. Aldi berean, kultura, osasun edo hezkuntza interesguneetarako irisgarritasuna erraztu behar dugu, besteak beste, ingurumen eragin txikienarekin, mugikortasun iraunkorarekin, kostu gutxiagorekin eta modu fidagarri eta seguru batean.
- Euskadiri garraioko azpiegitura guztiak transferitzea lehenetsiko dugu: portuak, aireportuak, trenbideak eta AP-68 autobidea; hau da, garraiobide eta garraio-modu guztiak modu eraginkorrean kudeatu eta garatu ahal izateko. Izan ere, denboran zehar, erakutsi da Euskadin eta Euskaditik hobeto kudeatzen dela.
- EAJ-PNVn konbentziturata gaude azpiegiturak zerbitzua ematen dieten herritarrak kontuan hartuz diseinatu eta kudeatu behar direla. Horretarako, euskal administrazioek, euskal herritarren beharrendik hurbilago daudenak, eskumen guztiak izan behar dituzte horiek diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko.

***Euskadiri garraioko
azpiegitura guztiak
transferitzea
lehenetsiko
dugu: portuak,
aireportuak,
trenbideak eta
AP-68 autobidea***

GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK

» 15.1 KONPROMISOA

LURRALDE OREKA ETA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEN DITUZTEN AZPIEGITUREN PROIEKTUEN GARAPENA ETA PLANGINTZA INDARTZEA, GARRAIOBIDE IRAUNKORREN ERABILERA BULTZATUZ

<p>15.1.1 Ekinbidea Zorroztasuna sustatzea azpiegitura proiektuen plangintzan eta garapenean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio azpiegituren plangintza egitea lurralde plangintzan modu egokitu eta integratuan, ahultasun eta egokitzapen irizpideak gehituz, birdimentsionamendu eta mantentze beharrak antzemateko. • Berotegi-efektuko gas gutxiago igortzen dituzten garraiobideak orokortzen dituzten azpiegituren proiektuak lehenestea: bizikleta, ibilgailu elektrikoa, gas naturaleko ibilgailua, gaitasun handiko autobus elektrikoa eta trenbideak. • Azpiegitura berri baten proiektu orok izan behar du kostu/etekinaren azterketa bat, inbertsioa eta garatu beharreko proiektua justifikatzeko. • Paisaia, ingurumen eta gizartearen alderdiak sartzea garraioko azpiegitura proiektu guztietan.
<p>15.1.2 Ekinbidea Euskadiren lurralde oreka bultzatzen duten azpiegituren eraikuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasun sistema iraunkor, seguru, eraginkor eta irisgarri bat garatzea, kalitatezko trenbideko garraio batean oinarrituz, inguru desberdinen beharretara egokitutakoa eta errepede bidezko garraio zerbitzu on, seguru eta eraginkor batekin osatutakoa. • EAJ-PNVk aldiriko trenbide zerbitzuen transferentzia proposatzen du, garraio sistemaren multzoan integratzeko eta garraio eskaintza handiagoa emateko.
<p>15.1.3 Ekinbidea Enpresen lehiakortasuna sustatzen duten azpiegituren eraikuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresen beharrak asetzen dituzten inbertsio berrien plangintza eta programazioa, lehiakortasunaren gakoa ingurumen neurri zuzentzaileak guztiz errespetatzearekin konbinatuz, eta kontuan hartuz erabilerarik egokiena eta lurzoruaren eta lurraldearen egituraketa orokorra. • Enpresen nazioartekotzea bultzatzen duten azpiegitura eta zerbitzuen sare bat eraikitzea eta garatzea.
<p>15.1.4 Ekinbidea Garraiobide iraunkorren erabilera bultzatzen duten azpiegituren garapena sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Populazio nukleoaren artean oinezkoentzako konexioak eta bidegorriak zabaltzea babestea. • Hiriko garraio publikoa ibilgailu elektrikoekin garatzeko azpiegiturak sustatzea. • Tranbien sarea eta metropoliko eta hiri arteko trenbide sistema hobetzea. • Leioako tranbia garatzea unibertsitatetara. • Euskadiko trenbide sare berria eta Gasteizko, Ezkioko, Donostiako eta Bilboko abiadura handiko geltoki berriak garatzea. • 2018an Bergara eta Astigarragaren arteko trenbide sare berriaren obrak amaituko dira eta, jarraian, Astigarraga - Oiartzun - Lezoren arteko obrak garatuko dira. • Salgaien barnebidetza atlantikoa indartzea (Trans-European Transport Networks Sarea, TEN-T).
<p>15.1.5 Ekinbidea Abiadura handiko euskal "Y" sarea amaitzea geltoki berriekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAJ-PNVk Eusko Jaurlaritzak Gasteizko, Donostiako eta Bilboko abiadura handiko geltoki berrien obren garapenean zuzenean parte hartzeko proposatzen du.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO GARRAIO AZPIEGITURAK

» 15.2 KONPROMISOA

EUSKADIK ETA EUSKADIRENTZAT DISEINATUTAKO AIREPORTU EREDU INTEGRATU BAT SUSTATZEA

<p>15.2.1 Ekinbidea Aireportu sistema integratu bat izatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aireportuen eskumenaren transferentzia eskatzea eta Loiu, Foronda eta Hondarribiko aireportuen kudeaketa koordinatua sustatzea. • Aireportuen arteko lankidetzak sustatzea, aireko garraio sistemen osagarritasunerako. • Aireportu azpiegituren eta Euskadiko garraio sistema osoaren konexioa sustatzea, intermodaltasuna garatuz aireportu bakoitzean.
---	---

» 15.3 KONPROMISOA

PORTUKO EUSKAL SISTEMA LOGISTIKO BIKAINAREN GARAPENA BULTZATZEA

<p>15.3.1 Ekinbidea Portuko garapena eta garapen logistikoa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilboko eta Pasaiaiko portuen kudeaketaren transferentzia eskatzea, horien kudeaketa deszentralizatua garatzeko. • Trenbide-portuko konexioak hobetzea eta optimizatzea, baita horiek zentro logistiko multimodalekin dituzten konexioak ere, batez ere, Arasur, Jundiz eta Pasaia-Irunekin. • Portuko azpiegiturak hobetzea. • Garatzea, erakundeen arteko erabakien bidez, Pasaiaiko badiaren eraberritze mailakatua.
<p>15.3.2 Ekinbidea Erkidegoaz gaindiko garraioko politikak garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Trenbide sare berria Nafarroarekin eta Akitaniarekin konektatzea sustatzea, sare transeuropeo atlantikoaren garapen osoa amaitzeko. • Trenbideko garraio bateratuko zerbitzuak garatzea Donostia eta Baionaren artean. • Zerbitzuen garapen eta eskaintza bateratuko programa indartzea Akitania eta Euskadiko kirol-portuetan. • Lankidetzak Akitaniarekin eta Nafarroarekin garraioaren plangintza koordinatu eta bateratuan.



16. OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Pertsonak politika publiko guztien ardatz nagusi gisa hartuta, pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean aurrera egin behar dugu modu eraginkor, jarraitu eta iraunkor batean, osasun sistema sistema publiko, unibertsal eta kalitatezko sistema gisa mantenduz.
- Gure lehentasuna ospe oneko eta kalitatezko osasun sistema bat finkatzea da, prebentzioa gailentzen dena eta “osasunaren kultura” sustatzen duena, unibertsaltasun, eskuzabaltasun, ekitate, kalitate, iraunkortasun, gardentasun eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan oinarrituz.
- Gure konpromisoa osasun sistema publikoa finkatzea da eta Euskadin biztanle bakoitzeko osasun gastua Espainiako erkidego guztien buruan mantentzea eta Europako batez bestekoaren gainetik egotea.
- EAJ-PNVn uste dugu osasuna banakako ondasuna dela, baina zaindu eta babestu beharreko ondare komun bat ere bada. Osasunaren hobekuntza erakunde guztiek partekatutako helburu bat izan behar du, itundutako ekintza politikoak herritarren osasuna hobetzera eta ongizatea handitzera laguntzeko, 2013-2020 Osasun Planarekin bat etorritik. Hala, osasunaren helburua politika guztietan jasoko da, euskal biztanleen bizitza osasuntsuaren batez besteko itxaropena urtebete handitzeko.
- Hitzematen dugu eremu guztietatik landuko dugula osasunaren kultura, bereziki nabarmenduz sustapena eta prebentzioa. Izan ere, konbentzituta gaude osasuna pertsona guztion eta Euskadiko botere publiko guztien konpromisoa dela. Bizitza-estilo, balio eta ohitura osasuntsuak sustatzen jarraitu behar dugu, dieta, ariketa fisikoa, elikadura eta alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa bezalako gaiak kontuan hartuz.
- EAJ-PNVrentzat lehentasunezkoa da tokiko osasun sareen sorkuntza bultzatzea. Konbentzituta gaude beharrezkoa dela osasun sistemak eraldatzea, osasunaren sustapenera bideratuz, erkidegoaren bidez.
- Gure biztanleen bizi-itxaropen handiagoak eta zahartze aukerak osasun zerbitzuen behar berriak eragiten dituzte, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa eskatzen dutenak. Hor-taz, EAJ-PNVk uste du Euskadin hedatuta dagoen arreta integratuko ereduan sakondu behar dela, gizarte-osasun koordinazioa finkatu eta sistemaren produktibitatea eta eraginkortasuna bultzatzen dituzten kudeaketa ereduetan berritzen jarraitu. Hori guztia, Euskadiko osasun sistemaren iraunkortasuna bermatzeko.
- EAJ-PNVn uste dugu euskal osasun sistema publikoaren indar nagusietako bat bertako profesionalak direla. Duten konpromisoa, parte-hartzea eta erabakiak hartzean buruzagitza partekatzea elementu giltzarriak dira gure osasun sistema publikoa mantentzeko.
- EAJ-PNVn kalitatezko osasun enplegua finkatzeko eta sustatzeko lan egingo dugu, gure gazteengan arreta berezia jarritz, prestakuntza jarraitua eta hizkuntza eskubideen babesa sustatuko ditugu eta adostasunak bilatuko ditugu alde sozialarekin.
- EAJ-PNVn konbentzituta gaude ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntzan inbertitzea pertsonekin dugun konpromisoari erantzuteko beste modu bat dela. Horregatik guztiagatik, osasunean ikerkuntza eta berrikuntza bultzatzen jarraituko dugu, unibertsitateekin eta bioosasuneko enpresekin lotutakoa, pertsonen osasunaren hobekuntzari erantzuteko, gure osasun sistemaren funtzionamendua hobetzeko eta Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzeko.
- Kontsumitzaileek kontsumoari eta beren interesen babes juridikoari buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzeko eskubidea dute; eskubide horiek lehentasunezkoak izango dira gobernuaren jardueran. Beraz, Kontsumobideren inplikazioa indartuko dugu kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko politiken definizioan, plangintzan, sustapenean eta egikaritzean.

EAJ-PNVn uste dugu osasuna banakako ondasuna dela, baina zaindu eta babestu beharreko ondare komun bat ere bada

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

» 16.1 KONPROMISOA

PERTSONAK ARDATZ NAGUSI DIREN OSASUN SISTEMA BAT SUSTATZEA

<p>16.1.1 Ekinbidea Estandura unibertsala eta pertsona guztiek osasun sistemarako sarbidea izan dezaten bermatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun estaldura mantentzea euskal herritar guztientzat, Euskadiko Osasun Arloa Antolatzeke Legean xedatutakoan oinarrituz. • Kalitatezko arreta eskuragarria sustatzea. • Presentzialak ez diren harreman-kanalak finkatzea, pertsona bakoitzak euskal osasun sistemarekiko duen hurbiltasuna eta irisgarritasuna hobetzeko. • Beharrezko jarduketak garatzea ezgaitasun fisikoa edo zentzu-ezgaitasuna duten pertsona guztiak euskal osasun sistema publiko eta pribatuko zentro, instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietara sartu ahal direla bermatzeko. • Herritarrek zuzenago parte hartzeko forma berriak sartzea osasun sistemaren erabaki-eremuetan.
<p>16.1.2 Ekinbidea Pertsonen erantzunkidetasuna sustatzea beren osasunaren zaintzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Osasun-eskola” ekinbidea indartzea, pertsonen beren gaixotasunaren ezagutzan, prebentzioan eta kudeaketan gero eta inplikazio gehiago izan dezatela erraztuz. • Bizitza-estilo osasuntsuagoak sustatzea haurtzarotik, baita osasun zerbitzuen erabilera egokia ere. • Osasunaren zaintza sustatzea eskola eremuan, hezkuntza sistemarekin lankidetzan.
<p>16.1.3 Ekinbidea Ekitatea mantentzea osasun arretan, genero ikuspuntua eta talderik ahulenak nabarmenduz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduteko programak garatzea, osasun arretan desberdintasunak murriztea ahalbidetzen dutenak. • Osasun sistematik, beste erakunde batzuekin batera, osasun arloko langileen trebakuntza sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez. • Genero ikuspegia sustatzea osasunaren arloan egiten diren jarduketak guztietan, bereziki emakumeen berezko gaixotasunen behar espezifikoerantz erantzun espezifiko bat ematera bideratutakoetan. • Osasun maila baxuagoak dituzten pertsonetara bideratutako jarduketak garatzea, arreta berezia jarritz adineko pertsonengan, ezgaitasunen bat daukaten pertsonengan, immigranteengan, gaixotasun mentala duten pertsonengan, askatasunik ez duten pertsonengan, etab. • Emakumeen eta gizonen ordezkartza bat sustatzea euskal osasun sistema publikoaren egitura guztietan.
<p>16.1.4 Ekinbidea Pazienteari informazioa eta arreta pertsonalizatua, osoa eta kalitatezkoa eskaintzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrei ematen zaien informazioa hobetzea, osasun sistemaren baliabideen eta horren funtzionamenduaren inguruko ezagutza handiagoa izan dezaten. • Banakako arreta pertsonalizatua bultzatzea. • Sistemara iristeko beste aukera batzuk sustatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak sartuz, herritarrek harreman arinagoa izateko Osasun Sistemarekin egiten dituzten kudeaketetan. • Informazio sistemetarako sarbide pertsonala sustatzea, gehieneko segurtasun eta konfidentzialtasuna bermatuz.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

» 16.2 KONPROMISOA

OSASUNAREN SUSTAPEN ETA PREBENTZIO KULTURA GARATZEAN JARRAITZEA

<p>16.2.1 Ekinbidea Osasuna sustatzea kultura eta erkidego inguruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erkidegoko osasun sareak indartzea, jarrera eta jokabide osasuntsuak sustatzeko tresna gisa. • Elikadura osasuntsua eta ohiko ariketa fisikoa sustatzeko programak bultzatzea, sedentarisinoa saihestuz. • Obesitatea kontrolatzeko neurriak garatzea. • Jokabide arriskutsuak prebenitzea. • Laguntza goiztiarra sustatzea.
<p>16.2.2 Ekinbidea Osasun publikoa sustatzea eta zaintzako sistema integrala abiaraztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zaintzako Sistema Integrala abiaraztea, Osasun Publikoan agerraldi, suspertzen ari diren gaixotasun eta alerten aurrean erantzun hobea eman ahal izateko. • Erakunde koordinazio eta lankidetzako formula berriak ezartzea eragile eta maila desberdinen artean. • Ingurumen arrisku nagusien segimendua egitea. • Elikagaiak etiketatzeko prozesuaren segimendua egitea eta kontrolatzea.
<p>16.2.3 Ekinbidea Koordinazioa indartzea osasuna hobetzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2013-2020 Osasun Planetik eratorritako ekintzak ezartzea eta tokiko osasun sareen sorkuntza sustatzea. • Sareko lana garatzea osasun sistemaren profesionalen eta osasun publikoko profesionalen artean. • Elkarleen proiektuak babestea, gaixoen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko jardueretarako. • Osasun ikuspuntua aplikatzea politika guztietan, osasunaren zeharkako izaera kontuan hartuz. • Politika eta plan sektorialeak osasunean duten eragina ebaluatzea.
<p>16.2.4 Ekinbidea Arreta berezia adikzio arazoak dituzten pertsonen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adikzioak prebenitzeko programak eta ekintzak sustatzea, besteak beste, familia, hezkuntza, erkidego eta lan eremura espezifikoki bideratutakoak. • Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Lege berria abiaraztea, hedatzea eta garatzea. • EAEko Adikzioen VII Plana eratzea eta garatzea. • Adikzioen eremuan lan egiten duten erakunde, entitate eta sektoreen koordinazioa sustatzea. • Gizartean onespren handiagoa duten toxikoen kontsumoa prebenitzeko jarduketak sustatzea.
<p>16.2.5 Ekinbidea Hiesa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk prebenitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu-transmisiozko infekzioen prebentzioari buruzko kontzientziazioa, bereziki biztanle ahulenetan. • IHESAren kutsapena prebenitzeko programak sustatzea arrisku-populazioaren artean. • Neurri berriak ezartzea gaixotasun hauen diagnostiko goiztiarra errazteko.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

» 16.3 KONPROMISOA

ERANTZUN INTEGRATUA ESKAINTZEA ERRONKA DEMOGRAFIKO ETA SOZIAL BERRIEI: ZAHARTZEA, KRONIKOTASUNA ETA MENPEKOTASUNA

<p>16.3.1 Ekinbidea Arreta integratua indartzea, erakunde sanitario integratuen eredia finkatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta integratuaren emaitzak optimizatzen dituzten jardunbiderik onenak hedatzea. • Diziplina anitzeko taldeak sortzea pazienteari arreta integrala emateko. • Ebaluazioaren kultura sakontzea, erakunde sanitario integratuak kudeaketaren eta laguntza emaitzen etengabeko hobekuntzara bideratuz. • Erakunde Sanitario Integratuetan osasuna sustatzeko eginkizunak eta epidemiologia eginkizunak dituzten osasun publikoko eskualde edota lurralde egituren koordinazioa hobetzea.
<p>16.3.2 Ekinbidea Informazio klinikoko sistema bateratua FINKATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio klinikoko sistema bateratua hedatzea Osakidetza baliabide guztietan. • Informazio klinikoko sistemaren erabilera sustatzea itundutako egoitza gailu guztietan, bai gizarte sektorearenak bai osasunekoak. • Osasunaren eta laguntza zerbitzuen behatoki bat sortzea, zerbitzuen erabilerearen eta horien emaitzen ezagutzan sakontzea ahalbidetzen duena.
<p>16.3.3 Ekinbidea Gardentasuna sustatzea prozedura kirurgikoetarako irisgarritasunean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sarbide pertsonalizatua itzarote kirurgikoko zerrendara, osasunaren karpeta bidez. • Aldizkako informazioa osasun sistemaren prestazioen atzerapenei buruz.
<p>16.3.4 Ekinbidea Pertsonak ahalduz beren osasunaren zainketan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Eskolaren estrategia sustatzea, paziente aktiboaren programa bultzatuz. Gaixotasun kronikoak dituzten biztanleek beren osasuna kontrolatuko dute. • Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteak babestea, kontrol handiagoa izan dezaten beren osasun arazoan gainean.
<p>16.3.5 Ekinbidea Koordinazio soziosanitarioa bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde sanitario integratu bakoitzaren komisiok indartzea. • Jarduketa protokoloak sinatzea tokiko erakundeekin, gizarte eta osasun koordinazioa sustatzeko. • Lehen mailako arreta soziosanitarioko ekipoak ezartzea eta hedatzea, pertsonen ebaluazio integrala egiten dutenak. • Historia soziosanitarioa definitzea eta hedatzea erakunde egitura osoarentzat.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

» 16.4 KONPROMISOA

OSASUN SISTEMAREN HOBEKUNTZA ETA MODERNIZAZIOA SUSTATZEA

<p>16.4.1 Ekinbidea Bikaintasun kliniko eta espezializazio altua erraztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espezializazio handiko baliabideen kontzentrazioa erreferentziazko zenbait ospitaletan, horien jarduera bikaintasun klinikoaren terminoetan garatu ahal izateko. • Erreferentziazko unitateak finkatzea, kasuak kontzentratzea eta profesional adituen ezagutza baliatzea ahalbidetzen dutenak.
<p>16.4.2 Ekinbidea Morbimortalitatean eragin gehiago duten arazoentzako laguntza prozesuak berriz antolatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Infartu kodearen” sareko lana sustatzea, jarduketa denborak hobetzeko eta horrela miokardioko infartu akutuen ondoriozko morbiditateak hobetzeko. • “Iktus kodea” garatzea modu homogeneo eta orekatuan EAE osorako. • Irigarritasun arineko bideen garapena sustatzea prozesu onkologikoetarako eta morbiditate handiko beste gaixotasun batzuetarako.
<p>16.4.3 Ekinbidea Laguntza onkologikoa berriz antolatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Plan Estrategiko Onkologiko bat garatzea; horren barruan Euskadiko onkologia baliabide guztiak sartuko dira eta horien antolakuntza hobea aztertuko da, arreta onkologikoari aurre egiteko. • Jarduketa plan bat definitzea eta hedatzea bizirik dirauten pertsonentzat. • Minbiziaren Aholkularitza Kontseiluaren bidez, minbizia bahetzeko oraingo programak ebaluatzea eta beste batzuen ebidentzia zientifikoa aztertzea. • Sareko ikerkuntza sustatzea.
<p>16.4.4 Ekinbidea Zainketa aringarrien arreta sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zainketa Aringarrien 2016-2020 Plana hedatzea. • Zainketa aringarrien arreta orokortzea, paziente kronikoen bizi-kalitatea hobetzeko. • Banakako arreta planak eratzea, pazienteak adierazitako lehenetsun eta beharren arabera. • Zainketa aringarrien eredu bat hedatzea pediatrian.
<p>16.4.5 Ekinbidea Osasun mentaleko programa espezifikoaren garapena sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinazioa hobetzea laguntza baliabide desberdinen artean, baita laguntza psikiatrikoko baliabide desberdinen artean ere. • Buru-nahasmendu kroniko eta konplexuaren eta garatzeko bidean dauden patologien arreta hobetzea. • Osasun mentalean prebentzioa sustatzea, autozainketa eta paziente eta senideen ahalduntzea. • Laguntza psikiatrikoko osasun profesionalen gaikuntza eta trebakuntza bultzatzea eta osasun mentalaren lehenetsunezko ikerkuntza bideak sustatzea. • Laguntza psikiatrikoa hedatzen amaitzea akutuen ospitaletan. • Osasun mentalaren inguruko ikerkuntza sustatzea.
<p>16.4.6 Ekinbidea Gaixotasun arraroak dituzten pertsonen eta horien familien osasuna hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategia integral eta kolaboratibo bat definitzea, “gaixotasun arraroak” dituzten pertsonen eta horien familiei arreta emateko. • Arreta goiztiarreko ereduak hedatzea gaixotasun arraroren bat eta behar bereziak dituzten haurrengana. • Asoziazionismoa eta etengabeko harremana sustatzea ukitutako pertsonen eta horien familiekin.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

<p>16.4.7 Ekinbidea Arreta farmazeutikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Farmazia bulegoen integrazioa finkatzea osasun eragile gisa, euskal osasun sistema publikoan. • Herritarrek medikamendu berritzaileak eskuratu ahal izatea erraztea, aldi berean osasun sistemaren iraunkortasuna bermatuz. • Medikamenduen arrazoizko erabilera sustatzeko eta printzipio aktiboagatik agintzeko estrategiak garatzea, generikoen kontsumoa maila europarretan mantenduz eta bioantzeko medikamenduen erabilera bultzatuz. Horrela, euskal herritar guztien tratamendu farmazeutikoak bermatuko dira. • Errezeta elektronikoa Euskadiko zentro soziosanitario guztietan ezartzen amaitzea. • Arreta farmazeutiko egokia bultzatzea Euskadiko zentro soziosanitarioetan eta adinekoen egoitzetan arreta jasotzen duten pertsona guztiei.
---	--

» 16.5 KONPROMISOA SISTEMAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEA

<p>16.5.1 Ekinbidea Pazienteen beharretara egokitutako osasun azpiegiturak bermatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde historiko bakoitzean pazienteen beharretara egokitutako osasun azpiegiturak sustatzea, hurbiltasun eta kalitate irizpideak kontuan hartuz. • Baliabide guztiak lerrokatzea eta integratzea ikuspuntu funtzionaletik, zainketen jarraitutasuna bermatzeko. • Eibarreko Ospitalearen eraikuntza amaitzea eta zabaltzea. • Ekipamendu eta zerbitzu mediko guztiak hedatzea Urdulizeko Ospitale berrian. • Biocruces eraikin berria. • Txagorritxuko Ospitalea handitzea. • Zainketa intentsiboen unitate berrian Basurton.
<p>16.5.2 Ekinbidea Lehen mailako arreta eta osasun sisteman duen eginkizun nagusia indartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailako arretako sei zentro berri irekitzea. • Diagnostiko, terapia eta segimendu baliabide tekniko guztiak hornitzea, osasun arazo gehienak ebazteko gaitasun handiagoa ematen dutenak. • Paziente kronikoen atxikidura farmakoterapeutikoaren segimendua egitea. • Profesionalen sail arteko orri ez presentzialerako sarbidea, lehen mailako arretako teknikarien ahalduntzea errazteko. • Osasun-arloko profesionalen hornikuntza egokia bermatzea (familia-medikuntza, pediatria eta erizaintza).
<p>16.5.3 Ekinbidea Osasun sistema mantentzea ahalbidetzea, metodoak eta baliabideak optimizatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ospitalizazio tradizionalaren aukera berriak indartzea (etxex-etxeko ospitalizazioa, eguneko ospitalea, egonaldi laburreko unitateak...). • Telemedikuntza sustatzea, bereziki paziente kronikoentzat. • Presentzialak ez diren zerbitzuen zorro bat hedatzea, pazienteen, herritarren eta osasun profesionalen beharretan oinarritutakoa. • Teknologia berrien ebaluazio sistematikoa, Osakidetzaren ekipamendu teknologikoa etengabe eguneratuta mantentzeko.
<p>16.5.4 Ekinbidea Pazientearen segurtasun estrategia garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pazientearen segurtasun kulturaren garapena sustatzea. • Pazientearen segurtasunean egindako esku-hartzeen eta sistemen eraginkortasuna aztertzea, bereziki, gizarteari eta pertsonen bizi-kalitateari balioa ematen dietenak.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

<p>16.5.5 Ekinbidea Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea osasun sistema publikoan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrek Parte Hartzeko Programa sustatzea eta hedatzea Euskal Osasun Sistema publikoan. Herritarrek parte hartzeko Jardunbide Egokien Behatokia sortzea euskal osasun sistema publikoan, nazioarteko kasu arrakastatsuak identifikatu eta aplikatuz. Gardentasuna handitzea tratamendu aplikagarri desberdinen inguruko informazioari dagokionez, baita kalitate adierazleei eta osasuneko emaitzei dagokienez ere.
<p>16.5.6 Ekinbidea Euskal osasun sistemaren iraunkortasuna bermatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Medikamenduen arrazoizko erabilera sustatzeko eta printzipio aktiboagatik agintzeko estrategiak garatzea, generikoen kontsumoa sustatuz maila europarretara heldu arte. Sartu berri diren medikamenduen arrakasta terapeutikoarekin lotutako arrisku partekatuko kontratuak sartzea. Prestazio, teknika eta prozeduren eta horiek biztanleen osasun egoeraren gainean duten eragin erreala azterketa zorroztza eta sakona, lehenetsunak ezarri ahal izateko eta erabilera desegokiak saihesteko. Finantziarioa sustatzea osasun-arloko emaitzengatik, bai sektore publikoko bai sektore pribatuko antolakundeekin sinatutako kontratuetan.

» 16.6 KONPROMISOA

OSASUN-ARLOKO PROFESIOALEN PROTAGONISMOA ETA INPLIKAZIOA SUSTATZEA

<p>16.6.1 Ekinbidea Osasun-arloko profesionalen parte-hartzea eta buruzagitza areagotzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Buruzagitza partekatua sustatzea eta osasun-arloko profesionalen zentro eta zerbitzuen kudeaketan benetan parte hartzeko bideak ezartzea. Profesionalen gehieneko inplikazioa bultzatzea erabakiak hartzean eta Euskal Osasun Sistemaren eraldaketan, horren bikaintasunera, kalitatera eta iraunkortasunera lagunduz.
<p>16.6.2 Ekinbidea Osasun langileen etengabeko gaikuntza eta prestakuntza erraztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzarako eta etengabeko prestakuntza jarraturako sarbidea erraztea, trebakuntza hobeezina bermatzeko. Gaikuntza eredu berria sustatzea, osasun-arloko profesionalentzako prestakuntza ibilbideetan oinarritutakoa.
<p>16.6.3 Ekinbidea Erizaintzako profesionalen eskumenak eta funtzioak sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Erizainen eginkizuna eta autonomia profesionala sustatzea. Erizaintzako profesionalen birorientazioa babestea, bereziki, ospitale loturako eta lehen mailako arretako jardunbide aurreratuko profiletan. Pertsona bakoitzari lehen mailako arretako erreferentziazko erizain bat esleitzea. Erreferentziazko erizainaren irudia zabaltzea patologia anitzeko pazienteentzat. Erizaintza unitateetan ohi erabiltzen diren medikamenduen eta osasun produktuen erabilera eta argibideak errazten dituen lege esparru egokia sustatzea.
<p>16.6.4 Ekinbidea Osasun arloko langileen lan baldintzak hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lan eta familia adiskidetzeko neurriak sustatzea euskal osasun sistema publikoan. Ahal diren neurri guztiak ezartzea osasun-arloko langileenganako erasoak saihesteko, horretarako sortutako behatokia finkatuz. Osasun-arloko langileen osasunaren prebentzioarekin eta segimenduari lotutako alderdi guztiak garatzea.
<p>16.6.5 Ekinbidea Aurrera egitea euskararen normalizazioan euskal osasun sisteman</p>	<ul style="list-style-type: none"> “Euskararen Erabilera Normalizatze 2013-2019 II Plana” Osakidetzaren zerbitzu antolakunde guztietan hedatzea, baita itundutako zentro guztietan ere. Gure osasun sistemako profesionalen euskalduntze prozesua bultzatzea. Laguntza prozesu osoan euskararen erabilera egiaztatzen duten ibilbide elebidunak gaitzea eta ezartzea.

OSASUNA PERTSONEN ZERBITZURAKO

» 16.7 KONPROMISOA

OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZA BULTZATZEA

<p>16.7.1 Ekinbidea Koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea gizarte eragileekin, zientifiko-teknologikoekin, enpresariarekin eta erakunde-eragileekin osasunaren inguruko ikerkuntzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Osasunaren ikerkuntza eta garapena handitzea eta ikerkuntzarekin eta berrikuntzarekin lotutako estrategiak hedatzea. Autonomi erkidegoko osasun-arloko berrikuntza eta ikerkuntza zentro eta erakundearen sarearen jardueraren indartzea. Lankidetzaren ikerkuntza sustatzea biozientzien eta osasunaren alorrean. Emaitzak osasun sistemara, horren antolakuntzara eta pazienteekiko praktika klinikora aplikatzea eta transferitzea sustatzea eta bultzatzea. Gure profesionalen bikaintasun zentroekin harremanak izatea bultzatzea eta diziplina anitzeko eta zentro anitzeko ikerkuntza sareetan parte hartzea.
<p>Iniciativa 16.7.2 Osasunaren inguruko ezagutzaren kudeaketa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Osasunaren Zientziekin lotutako lanbideak garatzea, bai hezkuntza sare publikoan bai pribatuan. Gradu aurreko eta graduondoko prestakuntza sustatzea, osasun lanbideen beharrak ebaluatuz.

» 16.8 KONPROMISOA

KONTSUMITZAILEEN BABESA INDARTZEA

<p>16.8.1 Ekinbidea Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta horien defentsa aktiboa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Informaziorako sarbidea eta kontsumoaren inguruko prestakuntza hobetzea, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dituzten kontsumitzaileak lortzeko, erantzukizuna sustatuz merkatuan egiten dituzten ekintzen aurrean.
<p>16.8.2 Ekinbidea Kontsumobideren eginkizuna sustatzea, kontsumitzaileen bermatzaile gisa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kontsumoko jardunbide egokiak sustatzea merkatuan. Kontsumitzaileak babesteko arauketa berriak garatzea. Enpresen erantzukizuna sustatzea, horien eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen arteko harremanetan oreka, gardentasuna eta harmonia hobetzeko. Aliantza egonkor eta lerrotatuaren sare bat sustatzea Kontsumobideren helburu estrategikoekin eta kontsumo politikekin. Sinergiak sustatzea EAEko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzen eta babesten dituzten entitate eta elkarteekin, jarduketa koordinatu eta koherente baten bidez. Gatazken ebazpenaren aurretiazko mekanismoak ezartzea, "erantzukizun" kontzeptua sustatuz, bai kontsumitzaileena, bai enpresena.



17. INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAIN TASUNEZKO HEZIKETA

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Hezkuntzaren ikuspuntu humanista batetik, EAJ-PNVn euskal hezkuntza sistemaren kalitatea bikaina izatea lortu nahi dugu, ekitatea, gizarte kohesioa eta herritartasun aktiboa, balioetan oinarritutako hezkuntza, funtsezko eskubideen errespetua eta aniztasunaren defentsa sustatuz, Estatuko eskola-porrot tasarik baxuenak izaten jarraitzeko xedearekin, eta horiek % 7aren azpitik egotea lortzeko, hau da, Europako batez bestekoaren azpitik.
- Hezkuntza sistema publikoa etengabe hobetzearen aldeko apustua egiten dugu; hala, guretzat hezkuntza sistema global bat da, non bi sareak, publikoa eta itundutako pribatua, osatzen diren, euskal familiek hezkuntza zentroa askatasunez aukeratzeko duten eskubideari erantzuteko.
- Hezkuntza ondasun publiko komun bat da; horrek hezkuntza erkidego osoak hezkuntza politiken plangintzan eta aplikazioan parte hartzeko eskatzen du, batez ere, kanpoko baldintzek edo eskolaz kanpoko inguruak gehiago eragiten duten eremu eta arloetan.
- EAJ-PNVn bizitzarako beharrezkoak diren oinarritzko eskumenak eskuratzean oinarritutako hezkuntza eredu bat proposatzen dugu, Heziberri 2020 Planaren jasotako planteamenduaren arabera, arazoak konponduz egoera edo testuinguru errealean, matematikak, zientzia eta teknologia erakargarriago egiten dituzten metodologia aktiboen bidez, aldi berean, hizkuntza eskumenak bultzatuz eta ikasten eta pentsatzen ikasiz, ekiten, izaten, bizikidetzen eta komunikatzen ikasiz.
- Helburua prozesu osoa eta Heziberri Planaren garapenean lortutako esperientzia hezkuntza itun baten esku jartzeta da, Hezkuntza Lege berri batera eramaten duena. Lege hori adostua eta integratzailea izango da eta etengabe aldatzen den eta bilakatzen den gizarte baten hezkuntza demanda eta behar berriei erantzun die.
- Hitzematen dugu kalitate handiko irakaskuntza bermatuko dugula, irakasleei hasierako prestakuntza egokia eskainiz, baita garapen profesional jarraitua ere; gobernantzaren hobekuntza eta zentroen zuzendaritza nabarmenduko ditugu eta kalitatea bermatzeko sistema eraginkorrak bultzatuko ditugu.
- Pertsonekin dugun konpromisoaren esparruan, ikasleak gure hezkuntza sistemaren ardatza dira, gure helburu nagusia. Bere egonkortasunagatik, akordioagatik eta adostasunagatik bereizten den hezkuntza sistema bat finkatu behar dugu. EAJ-PNVtik gure hezkuntza sistema osoa bikaina izatea lortu nahi dugu; beraz, akordio egonkor bat lortzeko lan egiten dugu, gure eskubideak garatuz eta gehiengoaren borondatea kontuan hartuz.
- Era berean, orain aldaketa global azkarra ematen ari da; horrek eraldaketa handien garapenean aurreratzea eskatzen digu, pertsonen enplegarritasunaren eremuan eta gure enpresen lehiakortasunari dagokionez ere bai. Testuinguru honetan, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, epe laburrera eta epe luzera, estrategia berriak sustatu beharko dira eta gaitasun eta eskumen profesional berriak eskuratu beharko dira hezkuntza sisteman. Horretarako, lanbide heziketa bikainean buru izaten jarraitzea gure hezkuntza sistemaren funtsezko oinarri bat izaten jarraituko du.
- Inguru lehiakor desberdinen aldaketek gure produkzio eredu aldatzera eraman gaituzte eta lanbide heziketa osoari balio handiagoa ematera. EAJ-PNVn uste dugu beharrezkoa dela lanbide heziketak bilakaera bat izatea esparru berri baterantz, lortutako emaitzak finkatzen dituen eta aurkezten zaizkigun gero eta

erronka konplexuagoei bermeekin aurreratu egitea ahalbidetzen diguna.

- Gero eta aurreratuagoa den lanbide heziketa baten ezarpen eta garapenean lan egiten jarraituko dugu, aukera, erantzukizun eta helburu berriak ezarriz. Horiekin behar desberdinak aseko ditugu eta azkar onartuko ditugu aldaketa egoerak. Horretarako, aurrerapen, malgutasun eta eraginkortasunez lan egingo dugu, etengabeko berrikuntzaren bidez eta bikaintasunaren bidea jarraituz.
- Aldi berean, prestakuntza garatzea eta epe laburrera eta ertainera demanda berrietara egokitzea goi-mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren aldeko

***Bizitzarako
beharrezkoak
diren oinarritzko
eskumenak
eskuratzean
oinarritutako
hezkuntza eredu
bat proposatzen
dugu eta ikasten eta
pentsatzen ikasiz,
ekiten, izaten,
bizikidetzen eta
komunikatzen
ikasiz***

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

estrategia batekin indartu behar da. Izan ere, horren emaitzek ibilbide luzeagoa dute. EAJ-PNVn bikaintasuna, espezializazioa eta nazioartekotzearen aldeko apustu erabakigarria egiten jarraituko dugu, gure unibertsitate hezkuntza ereduaren eta politika zientifikoaren arrakastaren giltzarri gisa.

- Euskal politika zientifikoaren apustua oinarrizko ikerkuntza unibertsitateen, ikerkuntza taldeen eta bikaintasun zentron bidez finantzatzea izan da. Hori guztia adimen ikertzailea hartzean, mantentzean eta prestatzean oinarritu da. Ikerbasquen bidez, Euskadirentzat eta Euskadin, Zientzia, Teknologia eta Ikerkuntzaren Euskal Sareko eragile desberdinekin lankidetzan. Politika horrekin oztupoak gainditu dira eta Euskadi munduko agertokian posizionatu da oinarrizko ikerkuntzaren eremuan, hazkunde eutsiarekin azkenaldiko krisi ekonomiko-finantzarioaren testuinguruan ere, babes publiko maila handia goei esker.
- Une honetan araudi tresnen eta erakunde arkitekturen egokitzapenari aurre egin behar zaio, etengabe bilakatzen ari den gizarte baten erronkei erantzuteko eta erronka globaletara egokitzeko. Zalantzarik gabe, horrek goi-mailako hezkuntza bikaina eskatzen du, oso lehiakorra eta zorrotza den nazioarteko testuinguru batean. Beraz, EAJ-PNVn gure indarretan oinarritutako espezializazioaren alde gaude eta kalitatezko prestakuntza eta ikerkuntza eskaintzearen alde. Bertan, Europako eta munduko testuinguruan erakargarria izan daitekeen eskaintza bikaina sortuko da.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

» 17.1 KONPROMISOA

BIKAINASUNERANTZ AURRERA EGITEN DUEN ESKOLA INKLUSIBO ETA BERRITZAILE BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

<p>17.1.1 Oreka, kohesio sozial, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoak lortzea gure hezkuntza zentroetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolatzeko irizpide bateratu berriak aplikatzea, bizikidetzaren eta kohesio soziala sustatzen dituztenak, ikasleen aniztasuna kontuan hartzen duen eskolatzeko inklusibo baten bidez (jatorria, etnia, hezkuntza behar bereziak...). • Ikasle immigranteen integrazio orekatuan aurrera egitea, bai sare publikoan bai sare pribatuan. • Balioetan oinarritutako hezkuntza indartzea, Bake eta Bizikidetzaren Plana sustatuz, pertsonen garapen integralera laguntzeko.
<p>17.1.2 Ekinbidea Hezkuntza inklusibo sustatzea, aniztasuna errespetatzen duena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei kalitatezko arreta ematen zaiela bermatzeko beharrezko politika eta neurriak hobetzea. • Aniztasunari, Ikasle Immigranteei, Ikasle Ijitoei eta Gaitasun Altuak dituzten Ikasleei arreta emateko planak ebaluatzea eta berrikustea, baita Koedukazioko eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Gida-plana ere. • Hamaika Esku Programako zentroak babestea, bertako ikasleen itzaropenak nabarmen hobetzeko. • Hezkuntzaren eremuan eman daitezkeen haurren babesgabetasun egoerak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokolo bat abiaraztea. • Garapen Zailtasunei Arreta Goiztiarra emateko Programa hedatzea Haur eta Lehen Hezkuntza osora.
<p>17.1.3 Ekinbidea Elebitasuna sustatzea hezkuntza eleaniztunaren esparruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza proiektu eleaniztunak EAEko zentro guztietara hedatzea, gune bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz eta euskara lehenetsiz. • Atzerriko bigarren hizkuntza ikastea sustatzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloan. Helburua da 2020. urterako 500 zentro publiko eta itunduek irakaskuntza eleaniztuna ematea. • Irakasleen hizkuntza-eguneraketa eta hizkuntzen didaktikaren inguruko prestakuntza sustatzea, batez ere hizkuntzen tratamendu integratu eta integralari dagokionez. • Euskararen erabilera sozialerako eremuak sustatzea gelan eta gelatik kanpo, horren erabilera lehenetsiz gazteen aisialdian eta harreman eta komunikazio eremuetan.
<p>17.1.4 Ekinbidea Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Material didaktiko eta hezkuntza eduki inprimatu eta digital irekien sorkuntza eta hedapena babestea (REA), nagusiki euskaraz, koherenteak Heziberri 2020 Planaren planteamendu didaktiko eta metodologikoarekin. • Zentro guztien eraldaketa teknologiko-pedagogikoa sustatzea, hezkuntza proiektuak hobetze aldera. • Sareko ikasketaren erkidego birtuala, Sare_Hezkuntza, eraikitzea.
<p>17.1.5 Ekinbidea Bokazio zientifikoak eta artistikoak sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • "Dantzerti" Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantza Goi Mailako Eskola nabarmentzea. • Vitoria-Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskola nabarmentzea. • "Jose Uruñuela" Udako Dantza Kontserbatorioaren hezkuntza proiektua garatzea eta hezkuntza sisteman sartzea. • Euskadiko musika eskolen araudia eguneratzea. • Berrikuntza zientifikoko ekinbide eta proiektuak garatzea, unibertsitateekin eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko beste eragile batzuekin lankidetzan. • Kanpamentu zientifikoen antolakuntza sustatzea.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

<p>17.1.6 Ekinbidea Euskal hezkuntza eredu pedagogikoa garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Beharrezko tresnak eratzeta, hedatzea eta horien inguruko prestakuntza ematea, gelan euskal eredu pedagogikoa garatzeko (unitate didaktikoak, programazioak, esperientzien artxiboak, prozedura eta jarrerren vademecuma...). Ikasle guztien eskola arrakasta indartzea, oraingo esku-hartze, Bidelaguna, hezkuntza errefortzu eta curriculum-dibertsifikazioko programa espezifikoak bikoiztuz. Zentroak babestea hezkuntza hobetzeko esku-hartze planak eratzean eta garatzean. Erasmus+ proiektu europarra ezartzea, irakaskuntza eta zuzendaritza-eginkizuna ebaluatzeko. Ezagutza berriak sortzen dituzten ikerkuntza prozesu berriak sustatzea. Erakundeen arteko koordinazioa eta hezkuntza eragileen koordinazioa sustatzea plan eta programen garapenean (eskola-absentismoa, lagunduta ez dauden atzerriko adingabeak...) Lankidetzaren mekanismoak indartzea udalekin eta beste erakunde batzuekin, beharrak hautemateko eta baliabideak optimizatzen.
<p>17.1.7 Ekinbidea Oztopo sozioekonomikoak gainditzera laguntzen duen hezkuntza sistema bat sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Laguntzen eta beken sistema garatzea. Urtean 55 milioi euro bideratuko dira beken programa indartzera (irakaskuntza, bidaiak, egoitza, jantokia eta eskola materiala). Urtean, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako 130.000 ikaslek jasoko dituzte beka horiek. Zerbitzu osagarriak kudeatzeko eredu berritzaileak garatuko ditugu, inplikaturako eragileekiko lankidetzan oinarrituz. Sustapena pixkanaka tokiko produktua jantokietan sartzea errazteko. Familia eta lan biziaren adiskidetzera laguntzen duten neurriak indartzea, Haurreskolen matrikulan hobariak emateko ezarritako sistemaren bidez, familien errenten arabera modulaturatuta.
<p>17.1.8 Ekinbidea Lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza azpiegiturak zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza zentro berriak Bizkaian: Bizkotxalde HLHI (Basauri), Ugao BHI, Güeñes BHI, Pagasarribide BHI (Bilbao). Hezkuntza zentro berriak Araban: Zabalgana BHI (Gasteiz) Errekabarri HLHI (Gasteiz). Hezkuntza zentro berriak Gipuzkoan: Miguel Altuna LH (Bergara), Hernani BHI: Arroa Behera HLHI (Zestoa), Oikia HLHI (Zumaia).

» 17.2 KONPROMISOA

IRAKASLEAK HEZKUNTZAREN ALDAKETAREN ETA HOBEKUNTZAREN ERAGILE NAGUSI GISA BULTZATZEA

<p>17.2.1 Ekinbidea Erkidego hezitzailearen prestakuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Irakasleen eskumenen mapa definitzea, irakaskuntzaren hobekuntzan aurrera egiteko ibilbide gisa. Parekoen arteko ikaskuntza sustatzea, Partekatuz Ikasi, esperientzia arrakastatsua erreplikatzeko. Irakasleen hasierako prestakuntzaren eredu berri bat ezartzea, testuinguru europarrean kokatuta, Erasmus+ proiektutik abiatuz, "A new way for new talents in teaching". Unibertsitateko ikasleen jardunbideak sustatzea hezkuntza zentroetan. Parte-hartze, lankidetzaren eta prestakuntzarako aukera berriak sustatzea, familiei eta gainerako erkidego hezitzaileari zuzendutakoak. Buruzagitzaren sustatzea zuzendaritza taldeetan, egonkortasuna bultzatzea eta prestakuntza handitzea zentroen eta pertsona taldeen kudeaketa eta antolakuntzaren inguruko alderdietan.
<p>17.2.2 Ekinbidea Irakasleen egonkortasunaren aldeko apustua egitea eta irakasle lanbidearen aitortpena bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Enplegu eskaintza publikoaren deialdi berriak garatzea. Hizkuntza betekizunak ezartzea eskolak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleentzako plaza hutsetan. Irakasleen ospe soziala nabarmentzea eta handitzea, horien lana ezagutzera emanez. Sentsibilizazio sozialeko kanpainak garatzea, irakasleen lanak pertsonen etorkizunean duen garrantzia azpimarratzen dutenak.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

» 17.3 KONPROMISOA

HEZKUNTZA ADMINISTRAZIO BERRITZAILE BATERANTZ AURRERA EGITEA, BALIABIDEAK MODU ERAGINKORREAN KUDEATZEN DITUENA

<p>17.3.1 Ekinbidea Egitura arinagoak eta hurbilagoak sustatzea, hezkuntza administrazio berritzailea optimizatzea ahalbidetzen dutenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Egituraketa organikoko proiektu egoki eta arrazoidun bat garatzea, hezkuntza zerbitzu publikoa eusteko. • Zentro publikoen autonomian sakontzea, hezkuntza zentroi beren proiektuak modu eraginkorrean eratzeko eta garatzeko aukera eskainiz. • Zuzendaritza taldeen profesionalizazioa sustatzea baliabideen kudeaketari dagokionez. • Hezkuntza zentroetako zuzendaritza taldeen buruzagitza sustatzea, modu partekatu eta eraginkorrean, zentroko hezkuntza proiektua garatu eta hobetzeko. • Sinergiak, lankidetzak eta koordinazioa bilatzea eskola erkidegoa osatzen duten eragileen eta babes zerbitzuen artean (Berritzegune, Ingurugela, IRALE...).
--	---

» 17.4 KONPROMISOA

EUSKADIREN BURUZAGITZA MANTENTZEA BIKAINASUNEKO LANBIDE HEZIKETA

<p>17.4.1 Ekinbidea Trebakuntza eta espezializazio profesionalen euskal esparrua garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espezializazio programa berriak diseinatu eta garatzea, enpresa gehiagoren eta sektore desberdinen beharren arabera. • Prestakuntza ibilbide integratu gehiago ezartzea, beteta ez dauden lanpostu zehatzak betetzera zuzendutakoak, edo etorkizunean sortuko diren lanpostuetara zuzendutakoak, bereziki nabarmenduz Euskadiko Espezializazio adimenduneko estrategian (RIS3) definitutako aukera-eremuak.
<p>17.4.2 Ekinbidea Alor, ikuspuntu eta metodologia berriak sartzea ikaskuntzaren eremuetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza metodologia berriak ezartzea lanbide heziketako prestakuntza zikloetan, lehenetsuz landuz erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboko eredua. • Ikaskuntza metodologia berrietara egokitutako gela berriak diseinatzea eta egokitzea.
<p>17.4.3 Ekinbidea Lanbide heziketa duala sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadin abiarazitako txandakako lanbide heziketa dualeko eredua indartzea, lanbide heziketako ikasketak prestakuntza mota horren bidez burutzen dituzten ikasleen kopurua handituz. Helburua da 2020. urterako 5.000 enpresa eta 7.000 ikasle egotea lanbide heziketa dualean.
<p>17.4.4 Ekinbidea Lanbide heziketako lege bat onestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2015eko abenduaren 29an onetsitako eta Eusko Legebiltzarrari helarazitako lege proiektuan oinarrituz, Euskadiko lanbide heziketa arautzen duen lege bat onesteko proposatuko da, enpresen eta euskal gizartearen prestakuntza eta enplegu behar berrietara egokitzeko.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

» 17.5 KONPROMISOA

BERRIKUNTZA APLIKATUA ETA EKINTZAILTZA BABESTEAREN LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROETAN

<p>17.5.1 Ekinbidea Berrikuntzaren kultura sustatzea lanbide heziketako zentroetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Orain arte abiarazitako Lankidetzaren Inguru Estrategikoen kopurua handitzea lanbide heziketako zentroen eta ETEen artean (Tkgunes), 2020an lehentasunezkoak izango diren 12 produkzio sektore desberdinei estaldura emanez. • Espezializazio arloen kopurua handitzea garatzeko bidean dauden sektoreetan, 2020an 20 arloetara helduz. • Berrikuntzaren kultura hedatzea zentroen eguneroko jardueran, barneko garapenerako eta ETEak eta inguruko beste erakunde batzuk babesteko. • Sareko lana indartzea lanbide heziketako zentroen artean eta zentroen eta enpresen artean, sektore desberdinei erantzuten dieten zenbait sareko nodo indartuz eta hedatuz.
<p>17.5.2 Ekinbidea Irakasleen prestakuntza indartzea berrikuntza aplikatuaren eremuan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak ikasketa metodologia berrietan prestatzea, bereziki erronketan oinarritutako lankidetzaren ikasketetan. • Prestakuntza programak abiaraztea, zenbait eremu eta teknologietan eskumen konplexuak eskuratzera bideratutakoak, besteak beste, fabrikazio aurreratua eta 4.0 Industriaren kontzeptua.
<p>17.5.3 Ekinbidea Ekintzaitzaren kultura sustatzea lanbide heziketako zentroetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasapena programa sustatzea, ekintzaitzaren kultura eskuratzera bideratutakoa. • Dinamizazio eta babes programak indartzea, lanbide heziketa ikasten duten pertsonen enpresak sortzeko.

» 17.6 KONPROMISOA

LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL EREDUAREN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEN JARRAITZEA

<p>17.6.1 Ekinbidea Euskal autonomi erkidegoko lanbide heziketako nazioarteko kanpua sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Europako beste herrialde batzuetako eta beste kontinenteetako gazteak Euskal Autonomi Erkidegoko lanbide heziketako zentroetara erakartzea sustatzea. • Beste herrialde batzuetako lanbide heziketako zentroetako zuzendaritza taldeak prestatzea kudeaketa eta antolakuntza eredu berrietan. • Elkartzuna sustatzea lanbide heziketaren eremuan garapenerako behar bereziak dituzten herrialdeekiko.
<p>17.6.2 Ekinbidea Atzerrian ezarrita dauden euskal enpresak babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerrian ezarrita dauden euskal enpresak babestea, giza-baliabideen prestakuntza eta trebakuntza hobetzeko kokatuta dauden herrialdean.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

» 17.7 KONPROMISOA

EUSKAL POLITIKA ZIENTIFIKOA NAZIOARTEKO BIKAINASUNERA BIDERATZEA

<p>17.7.1 Ekinbidea Politika zientifiko eraginkorrak garatzea, bikaintasunaren bilaketan inspiratutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde tresnak eta baliabideak egokitzea, baita finantziario lehiakorreko irizpideak ere, ikerkuntzaren eremuan. • Koordinazioa bultzatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileekin. • Ikerkuntza aplikatua sustatzea euskal unibertsitate sistemako unibertsitateetan. • Ikerbasquekin elkarlanean, politika zientifiko eraginkorrak garatzea, bikaintasunezko ikerkuntza sustatzeko giza eta gizarte-zientzietan eta zientzia juridikoetan. • Politika zientifiko eraginkorrak garatzea epe ertain eta luzera, genero ikuspegia barne hartzen dutenak eta gizonen eta emakumeen arteko desoreka egoerak kontuan hartzen dituztenak ikerkuntzaren arloan. • Politika zientifiko espezifikoak txertatzea, garapen lankidetzaren eremura bideratutakoak.
<p>17.7.2 Ekinbidea Bikaintasunezko unibertsitate-ikerkuntza eta ikerkuntza zientifikoko taldeak aitortzea eta sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • A+ mailako oinarrizko ikerkuntzan bikaintasuna ebaluatzeko eremuan sartzea, erreferentziazko nazioarteko bikaintasuna aitortzeko oinarrizko ikerkuntzan, Euskadi mundu mailan erreferentzia den alor batean. • Zenbait urtetarako finantziario esparru egonkor bat sustatzea erreferentziazko bikaintasunezko zentrorra, nazioarteko ebaluazio batean eta nazioarteko helburuak eta adierazleak barne hartzen dituen plan estrategiko batean oinarrituz.
<p>17.7.3 Ekinbidea Adimen ikertzailea sortzeko, mantentzeko eta erakartzeko politika eraginkorrak garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerbasquen lana sustatzea, Euskadin bikaintasunezko adimen ikertzailea hartu, prestatu eta mantentzen duen erakunde sustatzaile gisa. • Beharrezko baliabideak hornitzea modu eraginkorrean garatzeko karrera profesional ikertzailearen euskal eredu. • Beharrezko araudi esparrua garatzea ikertzaileak unibertsitate sisteman eta bikaintasunezko euskal zentroetan integratzea babesteko.
<p>17.7.4 Ekinbidea Programak eta ekintzak sustatzea unibertsitate eta enpresen arteko harremanak errazteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzailetza sustatzea, euskal garapen sozial, ekonomiko eta kulturalaren gako gisa. • Goi-mailako prestakuntza duten langile ikertzaileak enpresetan integratzea babestea, lankidetzeta programa espezifikoaren bidez. • Oinarrizko ikerkuntzaren emaitzak enpresei, zentro teknologikoei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste eragile batzuei helaraztea sustatzea eta babestea, programa espezifikoaren bidez.

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZIKETA

» 17.8 KONPROMISOA

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMA NAZIOARTEKO BIKAINASUNERA BIDERATZEA, EUSKAL GIZARTEAREN ETORKIZUNEN BURU IZATEKO ETA HORIEI ERANTZUTEKO

<p>17.8.1 Ekinbidea Gizartearekin harremanetan dagoen eta gizarte erronkentzako konponbideak proposatzen dituen euskal unibertsitate sistema bat sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate autonomia sustatzea, baita horren gardentasuna, kontuak ematea eta euskal gizartearekiko erantzukizuna ere. • Elkarrizketa irekia eta iraunkorra sustatzea eragile sozioekonomikoekin, Euskadiko erronka sozial, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartzen dituen eta horiei erantzun egoki bat ematen dien unibertsitate hezkuntza eskaintza eratzeko. • Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren lana indartzea, unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura gisa, inguruko erronkentzako konponbideak bilatzeko. • Beharrezkoa den araudi esparrua garatzea euskal unibertsitate sistemaren eta horren unibertsitateen, eta bereziki, euskal unibertsitate publikoaren gobernantza, funtzionamendu eta posizionamenduaren hobekuntza babesteko. • Euskal unibertsitate sistemaren finantziario tresnak egokitzea, horien iraunkortasuna eta hobekuntza bermatzeko epe ertain eta luzera. • Hurrengo Unibertsitate Plana definitzea 2019-2020 denboraldirako.
<p>17.8.2 Ekinbidea Prestakuntza online irekia sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateetako tresnak eta erakunde arkitektura aztertzea, baita zerbitzu horren demanda eta beharrak ere. • Tresnak eta erakunde arkitekturako eredu bat garatzea euskal unibertsitate sistemarentzat, prestakuntza online irekiko demandari erantzun egoki bat emateko.
<p>17.8.3 Ekinbidea Gradudunak lan merkatuan integratzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate maila desberdinetako ikasleak unibertsitate prestakuntzan zehar enpresa eta lan inguruetan integratzeko estrategiak bultzatzea. • Beken eta diru-laguntzen berezko eredu bat garatzea, karrera ikertzailean ikasketa eta integrazioa babesteko. Horrek euskal ikasleak unibertsitate prestakuntzan eta karrera ikertzailean benetan integratzea ahalbidetuko du.
<p>17.8.4 Ekinbidea Euskal unibertsitate sistemaren nazioarteko lankidetzak bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal unibertsitate sistemara elkartutako Nazioarteko Bikaintasunezko Campusak garatzea, sistemak nazioarteko testuinguruan duen posizionamendua hobetzea ahalbidetuz. • Ikasleen eta euskal unibertsitateetan eta bikaintasunezko ikerkuntza zentroetan zerbitzuak ematen dituzten langileen nazioarteko mugikortasuna bultzatzea. • Irakaskuntza eta ebaluazio ereduak eta prestakuntza eta ikerkuntzaren kalitatea egiaztatze ereduak sustatzea, euskal unibertsitate sistemaren eta nazioarteko beste unibertsitate eta eragileen arteko lankidetzak handiagotzeko. • Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzak babestea, horien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileen artean.
<p>17.8.5 Ekinbidea Bikaintasunezko ikerkuntza zientifikoa eta unibertsitate ikerkuntza babestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Programa-kontratuak garatzea, bikaintasunezko ikerkuntza babesteko euskal unibertsitate sektorean. • Ikerbasque sustatzea eta beste lurralde ekinbide batzuekin koordinatzea, adimen ikertzailea hartu, mantendu eta sustatzeko, bereziki Ikerketarako Europako Kontseiluko gazte ikertzaileetan.



18. EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Euskara hizkuntza bat da, hortaz, identitatearen eragilea izateaz gain, komunikaziorako tresna dugu. Hizkuntzak ez dira baztertzailak; ezta euskara ere ez. Berez, identitatearen eragile gisa ez du eskusibitate izaerarik. Dibertsitatea, aniztasuna, osagarritasuna, integrazioa gehikuntza eta antzeko terminoek agertzen dituzte hoberen hizkuntzen ezaugarriak, euskara ez da salbuespen.
- Euskadiko berezko hizkuntza da euskara, eta ez euskaldunok dugun bakarria izateagatik, euskaldunok bakarrik dugulako baino. Euskadiko beste hizkuntza batekin bizi da: gaztelera.
- Bizikidetzari hori erabat desorekatuta dago egun egoera gehienetan. EAJ-PNVren iritziz, bizikidetzari hori hobetu beharra dago, berdintasun, integrazio eta armonia gehiago lortze xedez, bizikidetzari hobeagoa eta gizarte kohesio gehiago izango duen etorkizun bati begira. Horrela bada, "euskara eta gaztelaren arteko bizikidetzari hobeagoa eta handiago gertatu ahala, gizarte kohesio hobeagoa eta gehiago" biziko dugu, uste osoa dugu; beste edozein hizkuntza bestela, ez gehiago ez gutxiago, milaka euskaldunen identitatearen ardatza baita euskara, beste milaka herritarrentzako gaztelera den gisara.
- Gure iritziz, benetako hizkuntza berdintasuna ezinbesteko baldintza da, hizkuntza aukeraketan herritar guztiek hizkuntza askatasuna izan dezaten, bai euskararen zein gaztelera, neurri berean, aukeratzeko.
- Hitz egiten dituztenen ezaugarriak eta adimenaren ezaugarriak bizi dira hizkuntzak. Hitz egiten dituzten lagunek egiten dituzte nabari hizkuntzak. Hortaz, euskararen irauteko ahalmena eta bizitasuna hiztunek ematen dioten erabileren ondorio dira, finean. Euskara gizartearen bizitzan ohi-

ko erabilera hizkuntza gisa indartu nahi dugu, eta behar dugu, geroz eta lagun gehiagok erabiltzen duten hizkuntza izan dadin, komunikatzeko, ikasteko eta gauza gehiago partekatzeko.

- Euskararen suspertze prozesua eredu-garria da eta erreferentziakoa nazioarte mailan, bai unibertsitatearen eta ikerkuntzaren foroetan zein era guztietako foro politiko eta sozialetan. Zalantzarik gabe, ezagutzen den berreskuratzeko eta indartze prozesurik aurreratuen artean dago.
- Euskarak urtero %0,5 hazkunde eten-gabe eta sostengatua izan du ezagutzen hiru hamarkadetan zehar Euskadin. Orobat, erabileran ere hazkunde bat izan du, desberdina izan arren adin talde eta arlo funtzionalen arabera. Eta, azkenik, hobekuntza nabaritu du hiru hamarkadetan garatutako berdintasun politiken gaineko jarrerei dagokienez, hezkuntza, nagusien euskalduntze, komunikabide, administrazio alorretan bereziki, eta gizartearen aldetiko erabileran oro har, IKTak eta esparru sozio-ekonomikoa barne.
- Hizkuntza politiken multzoa 80. hamarkadaren hasieran –gaur egun arte iraun du– aukeratzeko bidearen ondorioz legitimatu du herritar elebidunez osatu gizarte elebidunaren gehiengo handi batek, bi hizkuntza ofizialen artean berdintasun baldintzetan euskararen erabilera normalizatuaz. Asko aurreratu da eginkizun horretan, halere, amaitu barik dago, hortaz, jarraitasuna eskatzen du, progresibitatea, aniztasun soziolinguistikokoaren arreta eta lankidetzari publiko-pribatua oinarri.
- Etorkizuna idazteko dago; hemendik aurrera egiten denaren emaitza izango da; eragile sozial, ekonomiko, mediatiko eta kultural guztien inplikazio mailaren esku; botere publikoek hizkuntza politika aktiboa, beharrezko baliabideekin hornitua, mantentzeko konpromisoaren esku,

lankidetzari publiko-pribatua sakontzearen esku eta esparru instituzional eta Euskalgintzaren gizarte arloaren arteko lankidetzaren ondorio; halaber, euskararen inguruan garatu eta egonkortuko den adostasun sozial eta politikoaren esku, EAJ-PNVk konpromisoa hartu du hizkuntza politika aktiboen garapenean aurrera irmo jarraitzeko, euskararen ezagutze eta erabileran hazkunde lortze xedez, konpromiso horretan egitura instituzional eta sozial osoarekin egiten dugu bat.

***Euskara
gizartearen bizitzan
ohiko erabilera
hizkuntza gisa
indartu nahi dugu,
eta behar dugu,
geroz eta lagun
gehiagok erabiltzen
duten hizkuntza
izan dadin***

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

- Euskararen Aholku Batzordearen baitan, “Eta hemendik aurrera zer? izenburuko agirian onartu 2016-2036 epealdirako oinarriak eta zehaztu lehentasunen testuingurua, beste agiri batzuekin batera, hala nola, Euskara 21 eta ESEP, izango dira Euskadi 2020ko etorkizunari begira hizkuntza politikarako garatu beharreko erreferentziazko elementu nagusiak.
- 2017-2020 eperako euskararen agenda berri baten planteamendua abiapuntutzat hartuta, 25 urtetik beherako herritarren %75 euskal hitzuna edo elebiduna izatea nahi dugu.
- EAJ-PNVren ustez, Euskadiko gizartea eraikitzeke ardatza dugu hizkuntza. Mundura eta beste hizkuntza batzuetara irekitako Euskadi, gurea indartzea abiapuntu. Euskadi anitz eta plural bat, baita hizkuntzari dagokionez ere, eta horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu berdintasunezko politika publikoen garapenarekin jarraitzea, horri esker, aukera eta esparruak hedatu ahal izatea euskararentzat, herritar guztien hizkuntza eskubideen berdintasun eraginkorra mailaka bermatuko dituzten politikak, bi hizkuntza ofizialen arteko desberdintasun soziala egonkortzea ekidingo duten politikak hain zuzen. Labur esanda, euskara aukeratu ahal izateko benetako hizkuntza askatasuna eta eraginkorra ahalbidetuko duten politikak, armonian eta berdintasunean gauzatuko den hizkuntzen arteko berdintasunezko etorkizun batean.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

» 18.1 KONPROMISOA

EUSKARAREN GIZARTE HAZKUNDE SENDOTU, HERRITARREN ARTEAN EUSKALDUNEN KOPURUA HANDITUZ ETA EUSKALDUNEN HIZKUNTZA GAITASUNA HOBETUZ

<p>18.1.1 Ekinbidea</p> <p>Euskara ardatz duen hizkuntza anizdun hezkuntza sistema sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza sisteman ikasleek lortutako euskara hizkuntza gaitasuna hobetzea. • Irakasleen hizkuntzen gaineko heziketa etengabeko gaurkotzearen sustapena. • Diseinu kurrikularrak eta metodologia didaktikoak hobetzea, ahozko trebeziak hobetze aldera bereziki, eskolako ingurunean euskararen erabilera ziurtatuz. • LH eta Batxilergoan B eredia hedatzea, eta D eredia indartzea aipatu mailetan. • Euskararen transmisioa indartzea familiaren ingurunean, umeen sozializazio prozesuaren esparru nagusia baita.
<p>18.1.2 Ekinbidea</p> <p>Nagusien euskalduntzea sustatu eta babestu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzionamendu eta finantzazio sistema egonkor eta jasangarri bat ezartzea pertsona helduak euskalduntzeko, euskaltegien sarea oinarri, euskaltegien gaitasun akademikoak bete bete garatuz, ziurtagiriak ematekoak barne HABEren zuzendaritza pean, eta ikasteko eskaintza malgua bermatuz. • Helduen euskalduntzearen kudeaketa sistema bakarra ezarri non euskara ikasteko alderdi guztiak bateratuko diren. Aipatu sistema hori hizkuntza politikan eskuduna den organoaren menpe izango da, HABE bertan izango da. • Ziurtagiriak emateko sistema bat ezartzea, herritar guztiak zuzendutako deialdi irekiak egiteko gaitasunaz, Hizkuntzetarako Europako Esparruaren ziurtagiri maila guztietan, sistema hori hizkuntza politikan eskumeneko organoaren esku izango da; aipatu sistema horrez gain, administrazio publikoaren hizkuntza-eskakizunen ziurtagiriak emateko sistema berezi ezberdinekin osatuko da, azken hauek etorkizunean HAEE-IVAPen batuko dituzte. • 40tik gorako herritar helduek oinarrizko euskara ulertu ahal dezaten, gaitasun pasiboa hedatzeko neurriak jarriko dira indarrean. • Euskararen ikasketan, pertsona helduentzako B2 mailaraino doakotasuna lortzeko prozesua burutzea, aurreikusitako maila akademikoak gainditzeari lotutako doakotasuna hain zuzen ere. • Familiaren ingurunean eta haurren sozializazioan euskararen transmisioa indartzeko neurriak hartuko dituen instituzioen arteko plan bat sustatzea, familian oso txikitatik erabilera sustatuz edota euskararekin familiarizazioa bultzatuz, eta aisialdiko edo eskolaz kanpoko jardueretan indartzuz.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

» 18.2 KONPROMISOA

AISIARI ETA HEZKUNTZARI EZ DAGOZKIEN ESPARRU FUNTZIONALETAN EUSKARAREN ERABILERA PLANIFIKATUA HEDATU

<p>18.2.1 Ekinbidea Euskararen erabilera sustatu aisialdian</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen artean, eta erakunde publiko eta pribatuen artean, lankidetzaren plangintza bat lantzea eta martxan jartzea, izaera iraunkorrarekin udalerrira ezberdinetan euskaraz haurrentzako aisialdi jarduerak bermatzeko xedez; halaber, ludoteka, gaztetxoko, udaleku, eskolako kirol, eskolaz kanpoko jarduerak eta plaza zein parkeetako jarduerak irekietan euskarazko eskaintza bermatuz. • Eskumeneko erakunde publiko eta pribatuen arteko ekintza koordinatu bat sustatzea gazteen jardueretan euskaraz eskaini ahal izatea bermatzeko, hala nola, kirol federatua, eta heziketa jardun osagarrietan, musika eskolak, dantza, etab. • Erakunde publiko eta pribatuen arteko ekintza koordinatu bat sustatu aisialdi, kirol eta kultura jardueretan euskararen eskaintza bermatzeko.
<p>18.2.2 Ekinbidea Teknologia berrien esparruan euskararen erabilera eta garapena sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Interneten euskarazko edukiak sormena eta integrazioa sustatzea, unibertsitate, erakunde, eta hezkuntza, kultur eta aisialdi edukiak sortzen dituzten lagunekin elkarlanean. • Sarean (Youtube...) kontsumo masiboa duten edukien sorkuntza eta hedapena sustatzea eta euskaraz bideo-jokoak sortzeko eskaintzari arreta jartzea. • Euskarri berrietan eta Interneteko Telebistaren garapen teknologikoetan euskara gehitzea. • Itzultzaile automatiko publikoa bultzatzea. • Erabilera masiboko mota guztietako aplikazio mugikorretan euskararen egokitzapena sustatzea. • Sarean euskarazko testuak idaztea, laguntza tresnen (zuzentzaileak, hiztegiak, kontsultarako materialak...) erabilera sustatzea eta hedatzea. • Hizkuntzaren teknologiak, hala nola, ahotsezko eta testu sintetizadoreak, euskaraz garatzeari bultzada ematea. • ".eus" domeinuaren erabilera hedatzeko neurriak sustatzea
<p>18.2.3 Ekinbidea Komunikabideetan eta kultur ekintzan euskararen erabilera sustatu, aldi berean, haren erakargarritasuna eta ospe soziala indartuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara erabiltzeko sentsibilizazio soziala era jarraituan sustatzea eta bai ikasketa zein bere erabilera balioztatuz, euskararen ohiko erabileraren legitimazioa indartzeko xedez, gainerako erakunde publiko eta gizarte eragile ezberdinekin hitzartutako ekintzen bidez. • Euskarazko komunikabideak kontsumitzea sustatzea, eta, oro har, komunikabide guztietan euskararen presentzia eta erabilera, bereziki on line argitaratutakoak, euskarazko benetako kontsumitzaileen balizkoen eskaera eta gura-riari erantzuten dieten haiek. • Euskarazko produktu kulturalen kontsumoaren sustapena. • Gazteen euskarazko aisialdi programen lehenespena, aisialdiaren arloa eta gazteengana zuzendutako euskarazko produktu, ekitaldi eta zerbitzuen eskaintza indartuz. • Euskararen erabilerari dagokionez, beren hizkuntza ohiturek seme-alaben euskararekiko jarreraren duten eraginaren gainean jabetu daitezen, gurasoen kontzientziazioa sustatzea, eta halaber, guraso euskaldun berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskararen belaunaldien arteko transmisioan akuilatu xedez, bikote euskaldunen kasuan zein hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten artean. • Modu planifikatuan eta mailaka, eta errealitate soziolinguistiko ezberdin eta aktibitate sektoreen arabera, euskararen erabilera sustatzea arlo sozioekonomikoan, zerbitzuen hizkuntza zein lan hizkuntza gisa, euskararen erabilera planen sustapenaren bidez, eta enpresaren munduko eragile protagonistekin adostu jardueraren bitartez, bestek beste, 2016-2020 epealdian gutxienez 300 Bikain ziurtagiri egiaztatutako dituen plangintza bat garatzea xede. • Instituzioen sarearen eta eragile sozioekonomikoen kontzertatutako ekimen baten sustapena euskararen presentzia mailaka gehitu dadin hizkuntzaren paisaian, hiriburuak, populazio dentsitate handiko guneak eta ingurune euskaldunak lehenetsiz. • Herritar etorkinak euskarara hurbildu daitezkeen bultzatzea, hezkuntza sisteman integratzen lagunduz, eta kulturen artekoa, ezagutza, eta elkarren arteko errespetua sustatuz, gure gizartean integratzeko bitartekari gisa.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

» 18.3 KONPROMISOA

ERAGINKORTASUNEZ AURRERA EGIN, HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ERABILPENA BERMATZEKO ESPARRU PUBLIKOAN ETA PRIVATUAN

<p>18.3.1 Ekinbidea Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, eta haren erakunde eta elkarteetan, herritarren hizkuntza eskubideen erabilera eraginkorra ahalbidetuko duten baldintzak sustatzea. • Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko arreta zuzenezko zerbitzuetan, herritarrei arreta elebiduna bermatzea. • Langile publikoak euskaraz gaitzeari bultzada ematea, Osakidetza, Ertzaintza eta Justizian bereziki sakonduz. • Elebideren ekimena indartzea, Arartekoarekin burutu kolaborazioa nabarmenduz, eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko zerbitzua instituzioen artean bultzatuz. • Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak eraginkortasunez babesteko neurriak hartzea eta lankidetzaz hitzarmenak adostea.
<p>18.3.2 Ekinbidea Lehen hizkuntza gisa euskara erabiltzen den geografia eremuak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaldunen dentsitate handiagoa duten udalerrietan zerbitzu publikoak normaltasun osoz euskaraz erabili ahal izateari eragitea, herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz betiere. • Euskaldunen dentsitate gehiago duten udalerrietan, merkataritza, lan eta aisiaren alorretan euskara erabilera planak sustatzea. • Hitzunen borondateari jarraiki, eta euren arteko akordioa sustatuz, gune sozio funtzionalak indartzea eta hedatzea, non euskara izango baita hizkuntza nagusia euskaldunen dentsitate ezberdineko eremuetan.
<p>18.3.3 Ekinbidea Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna bermatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza eskakizunak berriro diseinatzea eta gaurkotzea, haien izaeraren benetako arrazoiari hobeto eta zehatzago egokituz: lanpostuen komunikazio zehaztasunei erantzun ahal izatea. Komunikaziorako gaitasuna zehazte aldera, hizkuntza trebeziari araberako Esparruak ezarri maila ezberdinak uztartuz ezarri ahal izango dira eskakizunok. • Hizkuntza eskakizunak egiaztatze modalitate berriak ikertzea, esaterako, lan eginkizunei edo euskarazko lanpostuei lotutakoak. • Administrazioan euskararen erabilera lan hizkuntza gisa finkatzea eta nabarmen gehitzea. • Izaera orokorreko xedapenen tramitazioan, dagokion hizkuntza txostena indartzea eta legeria sektorialean hizkuntzaren gaia arautzeko bermeak eskaintzea. • Gutxienezko hizkuntza eskakizunen irizpideak ezartzea goi karguak eta EAEko Administrazio Orokorreko eta bere mendeko organoetako izendapenezko karguak betetzeko. • Hizkuntza kudeaketan BIKAIN kalitatearen gaineko ziurtagiriaren ezaugarriak gaurkotzea, administrazio publikoetara hedatzeko.
<p>18.3.4 Ekinbidea Euskararen corpusaren garapenean sakondu eta haren adierazgarritasunaren aberastasunean, gazteriaren eta hiztun berrien beharriari erantzunez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen corpusa garatzea eta berritzea, arlo ezberdinetako hitzunen egungo euskararen erabilerak biltzea eta egiaztatzea. • Euskarazko komunikazio estandarrik malgutzea eta aberastea, euskaraz bigarren hizkuntza gisa erdietsitako gaitasunak gehiago balioztatuz eta zuzen jardutea komunikazioaren kalitatearen irizpide bakartzat gaindituz. • Kontsulta eta erreferentzia tresna berriak garatzea (eskuliburuak, hiztegiak, terminologia glosarioak etab.). • Gazteen hizkuntzak inspirazio iturri dituzten edukiak sortzea, gazteen adierazteko beharriari erantzunez. • Erregistro arruntetan eta ez formaletan erabilietako hizkuntza baliabide berriak biltzea, lantzea eta hedatzea, euskararen bizitasuna, adierazgarritasuna eta zehaztasuna aberaste aldera.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA

» 18.4 KONPROMISOA

EUSKARAREN HIRU LURRALDEETAKO INSTITUZIOEN ARTEKO LANKIDETZA ARTIKULATU ETA INDARTU, ETA EUSKARA NAZIOARTEAN AINTZAT HARTZEA SUSTATU

<p>18.4.1 Ekinbidea</p> <p>Euskararen hiru lurraldeetako instituzioen arteko lankidetzaz sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Gobernuarekin eta EEPekin (Euskararen Erakunde Publikoa) garatu lankidetzaz indartzea, euskararen sustapenaren arloan. Berezko hizkuntza aintzat hartuta duten beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzaz hitzarmenak garatzea. Estatuko instituzioen aldetik babestu beharreko balio gisa, eraginkortasunez eleaniztasunaren alde egin dezaten sustatzea, Eusko Jaurlaritza, Kataluniako Generalitat, Galiziako Xunta eta Balear Uharteetako Gobernuaren artean indarrean dagoen Akordioak ezarritakoaren arabera, eta "España plurilingüe: manifiesto por el reconocimiento y el desarrollo de la pluralidad lingüística de España" Manifestuaren ildoan. Batasuneko erakundeek, eraginkortasunez, Europako eleaniztasuna bere egin dezaten sustatzea, hizkuntza aniztasuna garatzeko, bere-berea duen hizkuntza politika eraginkorra izan dezan Europak, hizkuntza aniztasunaren sustapenarekin konpromisoa hartutako beste entitate eta erakunde publiko batzuekin lankidetzaz sareetan era aktiboan parte hartuz. Euskararen errealitate eta hizkuntzaren berreskurapen prozesuaren berri ematea nazioarte mailan, kongresu, mintegi eta sinposioetan parte hartuz. Nazioarteko kooperazioaren arloan, hizkuntzen arteko kooperazioa sustatzea, Gobernuaren kooperaziorako parte-hartze programetan eta diru-laguntzetan irizpide hori gehituz. Euskara eta Euskal Kultura irakurle eta katedra kopuruak sendotzea eta hedatzea mundu osoko unibertsitate ezberdinetan, Euskal Etxeetan euskararen ikasketa bultzatzea eta euskararen gaitasun probak antolatzea Euskadiko lurraldeaz kanpo. Europako eta munduko hizkuntza aniztasunean, euskararen berpizte prozesuari balioa ematea eta lankidetzaz hitzarmenak sinatzea beste herrialde batzuekin hizkuntza aniztasuna nazioarte mailan eragiteko.
<p>18.4.2 Ekinbidea</p> <p>Euskara eta hizkuntza bizikidetzaren gainean ahalik eta adostasun sozial eta politiko zabalena indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte eta instituzioetako eragile ezberdinen artean (erakunde publiko, alderdi politiko, gizarte organismo, enpresa elkarte, sindikatu, komunikabide, kultur eta hezkuntza eragile..) euskararen eta hizkuntza bizikidetzaren aldeko akordioari bultzada ematea, euskal gizartearen sentsibilitate ezberdinek bere egin dezaketen mezu adostua etengabe gaurkotuz, mailaka elebiduntasun orekatuago baterantz aurrera egiteko, non euskara eta gazteleraren arteko harremana parekatuagoa izango baita. Euskararen Aholku Batzordearen ekintza sendotzea, esparru instituzional eta sozialaren arteko gizarte partehartze, topagune eta lankidetzaz organo goren gisa, hizkuntza politikaren kontuetan jarduteko ildoak eztabaidatu, adostu eta partekatze xedez. Gizarte eragile ezberdinen inplikazio aktiboa eragitea, euskararen erabilera hedatzearen aldeko gizarte pedagogia bat garatzeko, hizkuntza aniztasun aberasgarria gordetzeko beharrezko baldintza legez.



19. KULTURA

KULTURA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Gure kultur sarearen iraupena eta indarra babestea EAJ-PNVren lehentasunetarikoa bat da. Euskal komunitatearen gisako batek, bere hizkuntza propioarekin, gutxitua izan arren berpizteko gaitasun egiazta eta eredugarri baten jabe, kultura berezi bat, bere sustraietatik mundura irekita, eta identitate politikoaren borondatearekin, gai estrategikotzat zaindu beharra ditu bere kontakizunak sortzeko gaitasuna eta modu iraunkorrean izaera kulturala lantzekoa, mundura irekita betiere.
- EAJ-PNVtik lau lan ildo nagusi planteatzen ditugu kultur jardunari dagokionez: 1) Euskadi Sortzailea, sare sortzailea laguntzeko politikak hartzen ditu bere baitan, kultur industriak eta industria sortzaileetara zabalduz; 2) Euskadi Erreferentziala, azpiegiturak eta erakartzeko ekitaldiak eta erakunde estrukturalak; 3) Euskadiren Memoria Bizia, kultur ondareari, museoei eta liburutegiei lotutako politikei dagokie; eta 4) Euskadi Digitala zeharkako izaera duen esparru horretan gure sare sortzaileak eta instituzionalak aro digitalerantz abiatzea azpimarratuko du, herritarrek eskuragarri izanik ("pertsonak helburu").
- Parte hartzen duen instituzioetan garatutako EAJ-PNVren kultur politika printzipio argi batek markatu du: antolatu eta partekatu. Antolatzeak baliabide publikoen eraginkortasunean aurrera egitea ondorioztatzen du. Partekatzeak instituzioen arteko harmoniazko lankidetzaren aldeko apustua da eta kultur sektorean gobernantza partekatuan sakontzea.
- EAJ-PNVn berrikuntza eta sorkuntza sinesten du. Europar Batasuneko 2020 etorkizunari begira "Creative Europe" proiektu estrategikoa azpimarratuko dute, gobernuen kultur ekimenaren esparrua Industria Sortzaileetara zabal-

duz. Horren ondorioz, esparru zabalago baten alde jokatu dute, berrikuntza teknologikoan eta enpresak indartzean eragin gehiagorekin, eta gobernantza publikoetan berrikuntza garrantzitsu bat, kultur politika eta ekonomia garpenerako politiken artean lankidetzaren maila eta elkar erantzukizun handiagoarekin. EAJ-PNVk Europako eskualde sortzaileen artean kokatu nahi du, non gure herrialdeak kultur politiketan aurreratu duen artikulazio hirukoitza (Gobernua-Aldundiak-Hiriburuak) osagarri diferentziala da eta arrakastaren eragile.

- Euskadik kultur industriak eta industria sortzaileak gehitu ditu bere espezializazio adimenduaren estrategian eta aukera estrategikoa burutu duten Europako eskualdeen artean kokatu da Akitania, Ille de France, Lombardia, Gales, South England, Flandes edota Helsinkiko eskualdeekin batera. Esperientzia horretatik abiatuta, gako estrategikoa bat ondorioztatu da datozen urteotarako: kultur eta sormen sortzaileak ezin dira ulertu adiera bakarreko ikuspegi sektorial batetik, industriaren dimentsio ekonomikoa, teknologikoa, kulturala eta soziala integratzen dituen ikuspegi batetik baino.
- Testuinguru horretan, eta 2020ko etorkizunari begira, EAJ-PNVtik Euskadiko kultur industriak eta industria sortzaileak bultzatzeko xedea agertuko dugu, euskal gizarteak sortzeko duen ahalmen guztia piztu xedez, geure gazteentzako aukera berriak sortuz eta mundura proiektatu sorkuntza eta kulturaren baloreetara lotutako izaera propio batekin.
- EAJ-PNVn uste dugu EITB euskal autogobernuaren funtsezko oinarria dugula. EITB ezinbesteko eragilea dugu euskal gune komunikatiboa sortzeko, kultur unibertso propio bat artikulatzeko, gurea den kontakizun informatiboa sustatzeko eta gure gizartearekin lotutako entretenimenduzko edukiak eskaintzeko. Gure aburuz, EITB ezinbesteko tresna

da oraindik orain euskararen normalizazio eta autogobernu ikuspegietatik izaera propioa duen gizarte batentzat, eta horrez gain, nahitaezko eragilea ikus-entzunezko sektore dinamiko eta euskaldun batentzat.

- Orobat, gure ustez, aurrera egin beharra dago EITBn bikaintasuneko kudeaketa eta antolaketa eraginkorra lortzeko, aldatetarako akuilu izango diren lau ardatz abiaraziz:
 - Beharrezko finantza gaitasuna garatzea edukiaren programazio lehiakor baterako, kontuan hartuta sektore pribatuak urteak daramatzala hazkunde fasean.
 - Egiturako plantillaren egokitzapena, mailaka eta naturala. Ingurune digital berriaren eta beste telebista eskaintza batzuekin emango den konkurrentzia eszenatokiaren ondorioz, kudeaketa ereduaren egokitzapena gauzatu beharko da.
 - EITBren integrazio sozietarioa, eredu multimedia baten arabera, eraginkortasun gehiago lortuko baimilzateke.
 - Garai berrietara egokitutako eredu eraginkorrago bat, hitzarmen kolektibo berri batean behar bezala moldatua.

***Berrikuntza
eta sorkuntza
sinesten dugu***

KULTURA

» 19.1 KONPROMISOA

2020KO ETORKIZUNARI BEGIRA KULTURA DINAMIZATZEKO ETA SUSTATZEKO ESTRATEGIA BAT ERAGIN, IZAERA INTEGRALAZ

<p>19.1.1 Ekinbidea “Kultura 2020” kulturaren plan integrala landu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Kultura 2020” Kulturaren Euskal Plan bat lantzea instituzioen arteko izaerarekin, abiarazi beharreko Sektore Plan ezberdinak integratuko dituena eta ondorengo 10 ardatz estrategikoen inguruan egituratua: <ul style="list-style-type: none"> - Kulturaren Euskal Sistema era koordinatuan eraikitzea, bertan instituzioak, baliabideak eta eragileak bat egin dezaten bideratuz eta lurraldeen arteko kultur sare bat eratuz. - EAEko kulturaren egoeraren eta garapenaren gaineko informazio eta jarraipen sistema bat ezartzea, sektore ekintza Plan ezberdinak integratuz. - Kulturaren sustapen, zaintza, ikerkuntza, sorkuntza, ekoizpen, merkaturatze eta hedapen politika publikoen eskema koordinatu bat ezartzea. - Kultur ondarea eta bere proiektzio ekonomikoa dinamizatzea. - Industria kulturalak eta sortzaileak dinamizatzea, eta halaber, garapen ekonomikoan eskumenak dituen Sailarekin elkarlanean, haien balio kateari garrantzia ematea. - Kulturaren euskararen presentzia sendotzea. - Jakintzaren gizartearen esparruan, kulturaren garapena sustatzea kohesio ardatz gisa. - Teknologia eta adierazpen modu berrien erabilera egokitua ahalbidetzea sorkuntza eta ekoizpena berritzeko. - “Etxepare Institutua”ren bidez, euskal kultura nazioarte mailan agerraraztea.
<p>19.1.2 Ekinbidea Gobernantza partekatuan sakondu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kulturaren Euskal Sistema era integralean eraikitzea, bertan instituzioak, baliabideak eta eragileak bat egin dezaten bideratuz eta lurraldeen arteko kultur sare bat eratuz. • Kultur sektorearen egituraketa sustatzen jarraitzea, elkarte profesional eta klusterren bidez, sektorea laguntzeko eta garatzeko ekintzak hitzartuz. • Sortzaile/enpresa/eta unibertsitateen arteko harremana eragitea, baita hauen eta instituzioen arteko interlokuzioa ere. • Kultura Auzolanean proiektuarekin jarraitzea, 2017-2020 epealdia jorratu eta adostu beharreko gaiak zehaztuz, sektorearekin, Foru Aldundiekin eta Udalekin batera. • EAEko kulturaren egoeraren eta garapenaren gaineko informazio eta jarraipen sistema indartzea, kulturaren euskal behatokiaren bidez nagusiki. • Gobernuaren baitan, eta Euskadiko instituzioetan sailen artean, elkarlanean sakontzea.

KULTURA

» 19.2 KONPROMISOA

EUSKADIN SARE SORTZAILEAREN ALDE EGIN, INDUSTRIA KULTURALETAKO SORTZAILEAK BABESTUZ

<p>19.2.1 Ekinbidea Kultur industriren alderdi estrategikoa sendotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal zinemaren ekoizpena irmo laguntzea, eta bereziki, euskaraz egindakoa. • Eszena arteei, konpainia, eszenatoki eta publikoen arteko harremanean sakonduz. • Literatur ekoizpena babestea, euskaraz egiten dena batez ere; haren ikusgarritasunean, sozializazioan eta nazioarteratzean sakonduz. • Euskal musika babestea, Musika Bulegoaren bitartez.
<p>19.2.2 Ekinbidea Sare sortzailearen profesionalizazioa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kulturaren profesionalak, sortzaileak, industria kulturalak ea sortzaileak babestu eta laguntzeko programak sendotzea. • Heziketa zentro espezifikoaren rola sendotzea, Musikene, Dantzerti, EASD (Gasteizko Arte eta Diseinu Eskola Gorena). Eta produkzio zentroena (Tabakalera, Bilboarte, Sorkuntza Fabrikak, etab.) Kultura eta industria sortzaileen berrikuntza eta profesionalizazio gune gisa.
<p>19.2.3 Industria kultural eta sortzaileentzako kreditua bideratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura ekoizteko proiektuetarako parte hartze askeko deialdi berriak sustatzea. • Elkargirekin lankidetzat bultzatzea eta hitzarmen berriak sinatzea finantza entitateekin, enpresa kulturalak errazago ahal izan dezaten finantzazioa. • Inbertsio pribatua erakartzeko neurri fiskal egokiak ikertuko dira Foru Aldundiekin elkarlanean. • Laguntza eta heziketa politikak, merkatuetan, koprodukzio foroetan etab. parte hartzeko.
<p>Iniciativa 19.2.4 Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta gizarte proiektzioa eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EiTBrekin lankidetzari bulkada ematea euskal sorkuntza agerira ekartzeko eta proiektzio soziala emateko, eta bereziki euskarazko sorkuntza. • Ikusgai egiteko planak zehaztea, Gobernu, EiTb eta elkarte profesionalen artean, Kultura Flash moduko proiektuei jarraipena emanez, EiTbn kultur publizitaterako akordioa, etab. • Programatzaile publikoak, sortzaileak eta euskararekin edota gizarte dinamizazioarekin diharduten herri elkarteak batzea, euskal kulturaren esparruan publiko berriak eta harreman mota berriak sendotzeko. • Esker on politikei (sariak, sortzaileei eskainitakoak, etab.) baita ikusarazteko ekitaldiei (Durangoko Azoka, etab.) jarraipena ematea.
<p>Iniciativa 19.2.5 Sortzaileen eta kultur industriren nazioarteratzea babestu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Industria kulturalen eta sortzaileen nazioarteratze plan bat zehaztea, Kultura Sailarekin, Kanpo Ekintza eta Etxepare Institutuarekin lankidetzan. • Etxepare Institutuarekin koordinatzea eragileak eta kultur industriak azoka eta nazioarteko merkatuetan agertu daitezen. • EKErekin (Euskal Kultur Erakundea) koordinazioa lantzea, Iparraldean euskal kultura eta mugaz haragoko kultur harremana babesteko. • "Glocal Sarea" indartzea, Europako hizkuntza ez globalen zinematografiak biltzen dira bertan.
<p>Iniciativa 19.2.6 Kultur garapen sortzailea sustatu, hezkuntzan oinarrituta</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Heziketa modulu espezifikoaren arteko lotura sendotzea sormenaren alorrean eta sektore profesionalean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Planarekin bat eginez. • Hezkuntza Sailarekin batera, eta ikastetxe eta kultur profesionalen arteko lankidetzan, koordinatutako plan bat garatzea kulturaren aurkikuntza programak jorratzeko, sormena babestuz eta publiko berriak eta irakurketari bultzada emanez, haurtzaroen izaten baita lehen harremana kulturarekin. • Sorkuntza sarearen eta heziketa zentroyen arteko lankidetzat artikulatzea, eskolatik bertatik sormenaren garapena eta adierazteko zein arte gaitasunak sustatzeko. • "kulturaondarea.eus" programa sendotzea, ikasle gazteek kultur ondarearen gaineko sentibilizazioan parte hartzera zuzendutakoa.

KULTURA

» 19.3 KONPROMISOA

INDUSTRIA SORTZAILEEN SEKTORERA ZABALTZEAREN ALDEKO APUSTUA

<p>19.3.1 Ekinbidea Instituzioen arteko estrategia bat onartu, kultur industriak eta sortzaileak euskadin garatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzaren buru izango duen estrategia horretan, Euskadiko hiru maila instituzionalek hartuko dute parte (Gobernua, Foru Aldundiak eta Udalak), harez gain, bakoitzaren kultura eta sustapen ekonomiko sailak ere izango dira partaide. • Bi xede dituen estrategia bat: a) teknologia eta berrikuntzaren bidez sormena eta kultura eragingo dituen ekosistema bat garatzea, hazkunde eta enplegu aukera berriak sortuko dituzten ideia berriak sustatzeko eta b) Foru Aldundi eta Udalen partehartzea artikulatzea. Lehenek sustapen ekonomikoan eta kulturalean duten eragin handiaren kariatz. Bigarrenen kasuan, hiri inguruneak baitira sektoreek garatzeko habitat naturala. • Industria sortzaile eta kulturalak koordinatu eta bultzatzeko tresna bat abian jartzea, bi funtzio nabarmen izango ditu: <ul style="list-style-type: none"> a) Erronka bat aurkeztu, erakartzeko ahalmen handia, sektoreek merkatu globalean duten presentzia sendotu, inbertsio pribatua mobilizatu eta sektoreotako enpresentzat hazkunde aukera berriak sortzen dituzten proiektuetan arreta jartzea. b) Industria tradizionalaren eta industria sortzaileen arteko loturek Euskadin duten ahalmena garatzeko duten ekimenak martxan jartzea.
<p>19.3.2 Ekinbidea Euskadi sortzailea (“creative basque country”) programa abiarazi</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Creative Europe” programa ari da garatzen Europar Batasuna. Erresuma Batuak, bere aldetik, “Creative Britain” programa jarri du martxan. Europako herrialdeak, nazioak eta puntako eskualdeak tresna baliokideez hornitu dira (Creative Finland, Creative Scotland, Creative Wallonia, etab.). Euskadin ezaugarri horretako tresna batez baliatu dezagun uena heldu da, kultur industriek (zinema, arte bisualak, arte eszenikoak, musika, edizioa, etab.) eta industria sortzaileek (diseinua, moda, bideo-jokoak, arkitektura, eduki digitalak, publizitatea, hizkuntzaren industriak, artisautza, etab.) Euskadin osatzen duten sektoreen multzoan eragingo du programa horrek estreinakoz. • Hiru arlotan izango du eragina programa horrek, eta egun Euskadiko Administrazio publikoak garatzen ari direnen osagarri izango da: <ul style="list-style-type: none"> -Kulturaren arlokoa, gure herriko talentu, sortzaile eta kultur aktiboei egonkortasun, anbizio, eta nazioarte mailako hedapen gehiago eskainiko dizkieten proiektuak babestuz. - Ekonomikoa, inbertsioa, industrializazioa, berrikuntza eta IKSen (Industria Kulturalak eta Sortzaileak) nazioarteratzea sustatuko duten proiektuak lagunduz, gure ekonomian duten eragina eta Euskadiren kanpoko proiektzioan dutena indartuz. -Teknologikoa, sektore hauetara teknologia transferitzen duten proiektuak babestuz eta sektoreon garapena sustatuko duten bideragarritasun faseak eta I+G+b proiektuen prototipoak jorratzen dituzten proiektuak lagunduz. • Horrez gain, Euskadi Sortzailea Programak zeharkako sail bat izango du, eragin ekonomiko handiko proiektuak identifikatzea, laguntzea eta inplementatzea jomuga, partehartze publiko-pribatuarekin eta nazioarteko dimentsio nabariarekin. • Euskadi Sortzailea Programaren kudeaketan Eusko Jaurlaritzaren kultura, garapen ekonomiko, teknologia eta kanpo ekintza sailek hartuko dute parte.
<p>19.3.3 Ekinbidea Euskadiren irudia lurralde sortzaile gisa nazioarteratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde Sortzaileen Europako Sarean Euskadik era aktiboan parte hartzea. • Europako beste eskualde batzuekin bi aldeetako akordioak sustatzea, kultur eta sormen industriak sortzeko. • Mugaz haraindiko Euskadi-Akitania herrialdeen arteko aukeretan sakontzea.

KULTURA

» 19.4 KONPROMISOA

ERREFERENTZIAZKO EKITALDI ETA AZPIEGITUREN NAZIOARTEKO IZAERA SENDOTU, LURRALDEEN ARTEKO OREKA AZPIMARRATUZ

<p>19.4.1 Ekinbidea Nazioartera heltzen diren kultur azpiegiturak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Guggenheim Bilbao Museoko inbertsioa finkatzea eta indartzea. • Bilboko Arte Ederretako Museolari bultzada ematea eta berrindartzea Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. • Euskal arte garaikideko Artium museoa finantzatzearen alde ekin. • Tabakalera gunearen finantzaketa finkatzea. • Valenciaga Museoaren finantzaketa finkatzea. • Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak euskal zinema, eta euskarazkoa, agerrarazteko duen ahalmena indartzea. • Musika jaialdiek (Hamabostaldi musikala eta ABAO) sortzaile, interprete eta euskal elkarte koralak erakartzeko izaera indartzea. • Kultur azpiegiturak eta kultur ekitaldiak sustatzea, bisitariak erakartzeko eta kultur turismoa sustatzeko tresna gisa.
<p>19.4.2 Ekinbidea Erreferentziazko proiektu estrategiko berriei ekin kultur arloan, lurraldeen arteko oreka zainduz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategia global bat zehaztea, kultura eta lurraldea batzen dituen ekimenen garapena laguntzeko eta kultur, industria eta ondare inmaterialaren zaintza, aktibazioa eta sozializazioa sustatzeko. • Bizkaiko Aldundiarekin kolaboratzea Bizkaiko Meatzalderako plan errektore bat lantzeko eta ezartzeko, lehen mailako industria, paisaia eta ondare inmaterialaren gune gisa. • Arabako Aldundiarekin lankidetzan, ondare eta lurralde plan global bat lantzea eta ezartzea, Santa Mariako Katedrala eta Añana ardatz hartuta. • Plan Operatibo bat garatzea, Gasteizko Zientzia Naturalen Museoa sustatzeari begira.
<p>19.4.3 Ekinbidea Kultur erakunde egituratzaileen nazio izaera indartu, eta beren aurrekontuen egonkortasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eresbil, euskal musikaren artxiboaren izaera egituratzailea finkatzea, bere aurrekontu egonkortasuna bermatuz eta bere garapenean hiru Foru Aldundien parte hartzea bultzatuz. • Euskadiko Filmotekaren izaera egituratzailea finkatzea, euskal zinema eta ikus-entzunezkoaren artxibo gisa, bere artxiboak eta gordailuak Tabakalerako egoitza berrira eramanez, hiru lurraldeetan duen eragina indartuz eta bere finantza egonkortasuna bermatuz. • EOS-ri (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa) laguntza mantentzea, haren etengabeko berritze eta nazioarteratzeari.

KULTURA

» 19.5 KONPROMISOA

KULTUR ONDAREA BABESTU, GAURKOTU ETA INDARTZEKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE EGIN

<p>19.5.1 Ekinbidea Euskadiko kultur ondarearen babesa eta balioztapena sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kultur Ondarearen Euskal Legea onartzea. • Instituzioen arteko koordinaketa eta Aholku Batzordearen funtzionamendua indartzea, legeak ezarritako irizpideen arabera. • Altzari Ondarea, Itsas Ondarea (Foru Aldundiekin batera garatua) eta Industria Ondarea (kultura eta Lurraldearen ikuspegi bateratu batetik) Babesteko Planak implementatzea. • Ondare Inmateriala Babesteko aurrera egitea berrikuntzan, Foru Aldundiekin lankidetzan eta kolaborazioan kultur eta gizarte eragileekin. • Kultur Ondarearen Zentroa indartzea, jauzi digitalerako, Ondare Inmateriala zaintzeko eta gizarte eragileen parte hartzera zabaltzeko baliabideekin hornituz. • Bigarren mailako museoak, eskualdeetako hiri nagusiak eta erreferentziazko museo tematikoak laguntzea, haien aurrekontuen egonkortasuna ziurtatuz urteaz gaindiko epealdietan. • Kultur ondare unibertsalaren izendapen prozesuak sustatzen jarraitzea eremu ezberdinetan (Errioxa, Añana, bertsolaritza, euskal sukaldaritza etab.)
<p>19.5.2 Ekinbidea Euskadiko liburutegi sarearen berrikuntza eta dinamizazioa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehentasunezko inguruneetan liburutegi berriak martxan jartzeko eta hornitzeko laguntzak. • Irakurketa Publikodun Liburutegien Sarean zerbitzu presentzial eta digital berrien zerbitzu berriak berritzeari eta garatzeari bultzada ematea. • Euskadiko (e-Liburutegia) irakurketa publikodun liburutegi digitala indartzea eta zabaltzea. • Liburutegien Zerbitzuaren talde teknikoa sendotzea, Sarearen, zerbitzu digitalen eta Nazio Liburutegia indartzeari ekiteko xedez.

» 19.6 KONPROMISOA

KULTUR ONDAREAREN GAINEKO POLITIKA PUBLIKOEN ALDERDI DIGITALA BERRITU, IRISGARRITASUNEAN ETA HERRITARREN PARTEHARTZE AKTIBOAN ARRETA JARRITA

<p>19.6.1 Ekinbidea Euskadin kultura digitala sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irisgarritasun Digitalaren Plan Orokor bat ezartzea kultur ondarea zaindu eta kudeatzen duten instituzio guztietarako, gobernuaren barnekoak eta kanpokoak. • Euskadiko Nazio Liburutegi Digitala zehaztea, egituratzea eta martxan jartzea, erakunde egituratzailerik gisa, izaera berriak eta dinamikoak, Euskadiko edozein motatako ondare bizi (testuak, irudiak, soinuak...) herritarrek eskura izatea lagunduko duena. • Biltegi digital komun bat abiaraztea kultur instituzio ezberdinetarako, haren zaintza ziurtatu eta esparru ezberdinetako eragile ezberdinen arteko lankidetzara bideratuko du. • Liburu, museo, ondare, musika edo ikus-entzunezkoaren esparruan dauden atari digital ezberdinak bateratzea, kolaboraziora edo elkar sorkuntzara irekitako webgune semantikoak garatuz.
--	---

KULTURA

» 19.7 KONPROMISOA

EiTBren ZERBITZU PUBLIKOAREN IZAERA MANTENDU ETA BERMATU, BIKAINASUNEZKO KUDEAKETA SUSTATU EREDU JASANGARRIA XEDE, ERAGINKORTASUNEAN ETA EFIZIENTZIAN HOBETUZ

<p>19.7.1 Ekinbidea EiTBren zerbitzu publikoaren izaera sustatu eta balioztatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitatezko zerbitzu publikoaren eskaintza ziurtatzea, euskaraz eta gazteleraz, Euskal Herriko herritar guztiei zuzenduta, diasporako euskaldunak barne, audientziako segmentu, adin eta gizarte talde guztientzako intereseko edukiekin. • Askatasun publikoak, balore zibikoak eta demokratikoak defendatzea eta pluraltasuna erabiltzea, aukera politiko edo kulturalak baztertzea ekidinez. Gizarte taldeei, talde gutxituak barne, arreta, partehartzea eta agertzeko aukerak eskaintzea. • Munduan gertatzen denaz ikuspegi global bat ematea, gure gizarteko berezko gaien gaineko erreferentzia nabarmen batekin. • Euskal gizartearen kohesioa sustatzea, bere edukien bidez, halaber, aniztasun soziolinguistiko, politiko eta kulturala aintzat hartzea, gizarte demokratiko aurreratu baten esparruan. • Gizartearen hauskarneta bultzatzea, bizitzaren ordena guztietan aldaketa sakonak, soziologikoak, teknologikoak, politikoak, erlijiosoak, ekonomikoak bizi diren garaiotara egokitzeko beharraz.
<p>19.7.2 Ekinbidea Bikaintasun kudeaketa eredu sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu publikoaren izaera multimedia sustatzea, zerbitzu publikoaren xedea ezartzen duen kontratu-programa batekin eta finantzaketa egokia eta neurrikoa bermatuz. • EiTBren egitura antolamendu berri batera egokitzea, komunikabideak moldatu beharko diren testuinguru berria kontuan hartuz, herritarren beharrezanetara egokitutako eskaintza multimedia eskainiko duena, eskaintza eta kontsumo eredu aurreratuen arabera. • Gizarte errentagarritasunari bultzada ematea, kudeaketa eredu eraginkor eta aurreratu batekin, finantzaketa mistoaren bidez sostengatua, audientzia asetzea, komunikabidearen ospe soziala eta balore soziala sortzea xede. • Antolaketa eredu eraginkorra garatzea, erabilgarri diren baliabideak hobetuz eta euskal ikus-entzunezko sektorearekin lankidetzat publiko-pribatu eredu berrietan sakonduz.
<p>19.7.3 Ekinbidea Euskal ikus-entzunezkoaren sektorea, kultura eta kirola erakartzeko EITBk duen izaeran sakondu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EiTBren edukien eskaintzan profesionaltasunaren, sorkuntzaren, lidergoaren eta talentuaren garapenean sakontzea. • Formatu berritzaileak eragitea eta ikus-entzunezko edukiak sortzen dituzten ekoiztetxeak laguntzea, beren berrikuntza eta internazionalizazioan. • Ikus-entzunezko fikziozko euskarazko edukien alde egitea, gazte eta haur publikoari zuzendutakoak bereziki. • Euskal zinema irmo babestea, eta bereziki, euskarazko zinema. Euskal zinemari, eta euskarazkoari, laguntza politikan kolaboratzea.



20. GAZTERIA ETA KIROLA

GAZTERIA ETA KIROLA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Gazteak dira Euskadiren oraina, bere garapen sozial eta ekonomikoaren protagonistak dira, hortaz, herri gisa dugun balore nagusienetako bat. Herri gisa aurrera egin eta garatu nahi badugu, irmo eta ausart jokatu behar dugu gazteen alde, eurak entzun, lagundu eta elkarrekin egin bidea. Euskadiren etorkizuna eurekin batera eraiki.
- Pertsona gazteek aldaketarako bereziki irekiak diren kolektibo bat osatzen dute, eta gizarte eraldaketek eragina izaten dute beren bizitza baldintza, balore eta jarreretan. Hain zuzen ere, egungo testuinguruan, krisi ekonomikoaren eraginak nabarmenago jasaten dituen kolektiboak osatzen dute. Era berean, aldatzeko gaitasun handiena duen kolektiboak da gazteria, ideia eta ezagutza berriak eskainiz.
- EAJ-PNVren ustean, gazteria dugu gure gizarte kapitalik onena. Euskadik premiazkoa du belaunaldien ordezkapena azkartzea. Gazteria “ez gehitzearen” kostu sozial, ekonomiko eta kulturala oso handia da. Gazteria esparru sozio-laboralean benetan murgiltzea ahalik eta azkarren bideratzen badugu, lehenago erantsiko dugu bizigarria Euskadiren lidergoa berreskuratzeko.
- Gazteak beren bizitzaren eta etorkizunaren benetako protagonistak direla sinetsita proposatzen dugu gazteriaren politika EAJ-PNVtik. Xede paternalistarik gabeko, ezta gazteak biktima bihurtzeko ere ez, eredu bat planteatzen dugu. Proposatzen ditugun konpromiso eta ekimenak gazteriaren esku dauden tresnak dira, beren etorkizunaren erakuntzan protagonistak izan daitezen.
- Enplegua eta etxebizitza dira EAJ-PNVk gazteriaren politikan planteatzen dituen lehentasuneko bi ardatzak, ikerketa fidagarrienen arabera, horiek baitira gazteek bizitza proiektu independente bat garatu ahal izateko oztopo nagusiak.
- Ikuspegi horri jarraiki, 2017-2020rako Enplegu Planaren xede nagusia gazteen kolektiboak izango da, 20.000 gaztek lehen lan aukera izan dezaten jomuga.
- Euskadik irizpide propioa jabe den gazteria du, autonomoa, ekintzailea, partehartzailea, solidarioa; Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoarekin konprometitua den gazteria izaten jarraitu behar du. Horixe baita gure balore eta etorkizuneko berme nagusienetako bat erkidego diferentziatu gisa.
- Euskal gaztearekin dituen konpromisoak betetze xedez jardungo du EAJ-PNVk. Beren heldutasunari zor diogun errespetua eta aintzat hartzea izango dugu abiapuntu. Gehitu egingo dugu, ikuspuntuak partekatu, ahaleginak koordinatu eta koherentzia eskaini gazteriaren politikari, maila sozialean eta administratiboan, gazteak eta ordezkatzeko dituzten erakunde eta kolektiboak, eta gazteriaren eragile guztiak, entzuteko jarrera batekin.
- Bestalde, kirola dugu gizarte aurreratuen adierazpenik esanguratsuenetakoa. Estrategikoa da gizartearen garapen armonikorako, hezkuntzaren alorrean, ekonomian, aisian, turismoan funtzio garrantzitsua betetzen du, herrien identitatean duen eragina ahaztu gabe eta baita osasunean eta bizitza kalitatean ere.
- Euskadik kirol errealtate aurreratu bat du. Jarduera maila altuak, emaitza bikainak, inplikazio eta kirol eragileen partehartze altua dituen herrialde batean bizi gara. Halere, oraindik orain badago zer hobetzerik. Ildo horri jarraiki, EAJ-PNVn jabetzen gara kirolean eta jarduera fisikoan egin inbertsio oro era espontziaz eragiten dituela onurak bai maila pertsonalean zein gizarte osoaren baitan.
- Egungo legeria moldatzea beharrezkotzat jotzen dugu, sortzen ari diren errealtate berrien aurrean egiturak egokitzea eta indarreko kirol sarea indartzea eta sendotzea. Horri esker, kalitate, bikaintasun eta aukera gehiago eskaintzeko parada izango dugu, kirolaren bidez faboratu ditugun euskal sustrai, balore eta identitate zeinuak galdu gabe. EAJ-PNVren iritziz, lurraldeen arteko eta instituzioen arteko koordinazioak eta kooperazioak kirol politikak hobetzeko eta optimizatzeko aukera eskaintzen dute.
- Kirolaren gaineko gizartearen eskaera etengabe ari da garatzen, eskakizun maila igo egin da, modalitateak zein praktikatzen diren moduak. EAJ-PNVren aburuz, horrek kirol eskaintzaren planifikazio dinamikoago eta irekiago bat eskatuko du, kirol jarduera enplegatzen eta ezberdinetara egokituz eta herritarren beharrezkoen eskaini zerbitzuarekin errespetu gehiago erakutsiz.
- Euskal kirolak, bere emaitza garrantzitsuekin, Euskadiren irudia eta kultura proiektatzen du nazioartean eta horri esker geure identitatea erakutsi dezakegu munduaren aurrean. Hobetze, ilusio, eta batzuetan, arrakastaren baloreak proiektatzen dituzten kirolarien kopuru altu batek kultura hedatzen du, bere zentzurik errealean. Kanpoko xedeen gaiterik, ahaleginaren eta hobetze pertsonalaren garrantziaz ohartarazten diguten pertsonak baitira.

GAZTERIA ETA KIROLA

- EAJ-PNVk bere horretan jarraituko du Espainiako estatuaren aurrean euskal kirol selekzio nazionalak ofizialki aintzat hartzea defendatzen eta eskatzen, errespetuaren isla eta Euskadiren nazioarteko proiektzioaren tresna legez, konstituzioak aldarrikatzen duen estatu plurinazional batekin bateragarri, Europako beste estatu batzuetan gertatzen denaren gisara, non nazio selekzio ezberdinak direla onartzen baitute, erabateko normaltasun demokratikoz.
- EAJ-PNVren helburua kirol jarduerari berez dagozkion baloreak zabaltzea eta sozializatzea da, eta dauzkagun baliabideak arrazionalizatuz egitea, eta, aldi berean, kirol azpiegitura eta ekipamendu jasangarriak eta kalitatekoak bermatuz.

***Hobetze, ilusio,
eta batzuetan,
arrakastaren
baloreak
proiektatzen
dituzten kirolarien
kopuru altu batek
kultura hedatzen
du, bere zentzurik
errealean***

GAZTERIA ETA KIROLA

» 20.1 KONPROMISOA

GAZTEEN LAN-MUNDURATZEA SUSTATU ZEHARKAKO ETA KOORDINATUTAKO POLITIKA BAT BULTZATUZ

<p>20.1.1 Ekinbidea Gazteriaren lan-munduratzeko lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 20.000 gazteek lehen lan esperientzia izan ahal dezaten laguntzea. Helburu horretarako, Enplegu Planaren barruan, besteak beste, ondorengo ekimenak sustatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Gazteak kontratatzeke pizgarriak, Lehen Aukera Plana indartzuz. - Hezkuntzaren mundutik lan mundura igarotzeko programa espezifiko bat, lanbide heziketa zentroekin eta unibertsitateekin elkarlanean. - Nazioarteko praktika hartzeko beka programak, ondoren kontratatzeke konpromisoarekin. - Lotura, enplegu eta gazte itzulera programa bat. Atzerrian gazteriarekin lotzeko atari bat abiaraztea, lan eskaintza eta itzultzeko pizgarriak barneratuz.
<p>20.1.2 Ekinbidea Gazte langileek gaitasun profesionalak lortu ditzaten bideratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Heziketako programa espezifikoak ezartzea kualifikazio gutxiko gazteentzat, euskal enpresa sarearen beharrezanetara bideratuta. • Enplegurako egokitzapen eta birziklapen profesionala xede izango duen programa bat abiaraztea, euskal enpresek eskatzen dituzten kualifikazioak eskuragarri jartzeko gazte langabetuentzat. • Heziketa eta lan-munduratzeko ibilbide pertsonalizatuak lantzea, langabezia 18 hilabete baino gehiago eman duten gazteentzat. • Heziketa espezifikoak lantzea gazteriaren lan-munduratzeko estrategia gisara, lan ibilbideak garatzeko tresna gisa. • Programa berezi bat abiaraztea, gazteriaren nazioarteko esperientzia hobetze aldera, hizkuntzen ezagutzarako, kanpoan ikasteko eta atzerrian esperientzia praktikoa lortzeko laguntza planekin.
<p>20.1.3 Ekinbidea Heziketaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoa babestu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteek heziketa ibilbideak aukeratzen eta enpleguaren bilaketan laguntzeko aholkularitza ikastetxeetan, lan merkatuaren gaineko informazioa gehituz (enplegagarritasun maila eta soldatak). • Heziketa sistema derrigorrezkoaren ondoren, enpresen arteko komunikazio, koordinazio eta lan bateratuaren mekanismoak sortzea edota hobetzea. • Hezkuntza eskaintza malgutzea eta hobetzea heziketa esferaren eta gizarte ingurunearen arteko harreman handiagoaren bidez, lan merkatura zuzendutako heziketari dagokionez bereziki. • Unibertsitate eta Administrazioen artean ikerketak eta lanak burutzeko hitzarmenak sinatzea, gazterientzat lan esperientziarako sorburu gisa.
<p>20.1.4 Ekinbidea Instituzioen arteko koordinazioa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteek enplegu politiken gainean informazioa, orientazioa eta laguntza izan dezaten sustatzea. • Tokiko erakundeek partaidetza gehiago izatea enplegua sortzeko programetan. • Gizarte itunari bultzada ematea, gazteen artean enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna hobetzeko, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna gutxituz.

GAZTERIA ETA KIROLA

<p>20.1.5 Ekinbidea Gazteen talentua babestu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bikaintasun eta graduondoko beken programa berezi bat martxan jartzea, batxiler gorenaren eta unibertsitatean gazte gailenei zuzenduta. • Goi graduako Lanbide Heziketako zikloetan ikasle gailenentzako Laguntza Plana, ospedun ikastetxeetan beren heziketan sakontzeko eta atzerriko praktikak laguntzeko. • Talentua sustatzeko ekintzei bultzada ematea, Euskadiko sektore estrategikoen testuinguru berrian.
<p>20.1.6 Ekinbidea Gazteriaren artean gaitasun ekintzaileak bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Izaera berritzaileaz eta ekintzaileaz sentsibilizatzea eta gazteen artean sustatzea. • Enpresa heziketarako ikastaroak doan eskaintzeko programa, eta 35 urte baino gutxiago duten gazteen enpresa berrien gastu eta bideragarritasun ikerketak subentzionatzeko programa. • Bermeak eta mikro-kredituak eskaintzeko programa, enpresa edo negozio berriak martxan jartzea xede duten inbertsioak burutzean. • Kooperatibak, lehen sektoreko enpresak edo gizartearen ekonomia enpresak martxan jartzen dituzten gazteak laguntzeko plan berezia. • Aldundi eta Udalekin lankidetzan, gazte ekintzaileek sustatu enpresak enpresa-hazitegietara sartzeko aukera.

» 20.2 KONPROMISOA

EUSKADIKO GAZTEEK ETXEBIZITZA ESKURATU DEZATEN LAGUNDU

<p>20.2.1 Ekinbidea Gazteentzako alokairu kontratuak laguntzeko neurriak eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza bat eskuragarri izateko neurri publikoen eskaintzari buruzko gazteei zuzendutako informazio, orientazio eta laguntza zerbitzu bat abian jartzea. • Gazteak emantzipatzeko ibilbideak martxan jartzea: hala nola, erabilera partekatuko alokairua, alokairu soziala, erosteko aukera ematen duen alokairua, eta etxebizitzaren erosketak. • Etxebizitza hutsak mobilizatzeko bultzada, babestutako alokairuaren merkatuan sartzeko ahalbidetuz Etxebide Zerbitzuan izena emandako eskatzaileei zuzenduta, gazteei arreta berezia eskainiz. • Hutsik diren pisu eta etxebizitzak birgaitzea, babestutako alokairuaren merkatuan eskaini ahal izateko.
<p>20.2.2 Ekinbidea Bizitegi eredu berrien garapena bultzatu, gazte tipologia ezberdinei eta beren beharrazanei erantzuteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emantzipatu nahi duten gazteentzako etxebizitzaren ezaugarriak egokiturik, babestu babesturako erabiliko diren etxebizitzaren eraikuntza sustatzea. • Etxebizitza Saileko webgunearen bidez, babes ofizialeko etxebizitzaren trukearen mekanismoaren ezagutza eta erabilpena gazteen artean sustatzea • Beste herrialde batzuen gertatu arrakasta esperientziak sustatzea: partekatutako alokairu soziala, eta etxebizitza sozialen alokairua erosketak eskubidearekin. • Alokabideren bidez pisu partekatuen programa indartzea, 2017-2020 epealdian zehar alokairu partekatuan erabiltzeko 1.000 pisu gazteen esku jartzeko xedez.

GAZTERIA ETA KIROLA

» 20.3 KONPROMISOA

OSASUNA SUSTATU ETA BIZITZA OHITURA OSASUNGARRIAK

<p>20.3.1 Ekinbidea</p> <p>Gazteen osasuna zaintzeko ekintza plan integral bat sustatu eta bizitza ohitura osasungarriak hedatu euskadiko gazteen artean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen kolektiboarengan eragiten duten azaroen prebentzioa, informazioa, sentsibilizazioa eta jorraketa: elikadura-nahasmenduak; nahasmendu mentalak (depresioa); sexu-kutsatzearen ondorengo arazoak; nahigabeko haurdunaldiak; trafikoaren eraginezko istripuak; adikzioak (drogak eta alkohola). • Kontsumo arduratsua sustatzeko programa. • Gazte Kirol Plana, Aldundi eta Udalekin lankidetzan. • Kirol aktiboa berreskuratzea, gizarte harremanerako tresna gisa, gazteriaren artean bizitzeko modu osasungarria baita.
<p>20.3.2 Ekinbidea</p> <p>Gazteentzako ekintza plan soziosanitario bat sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun zerbitzuak gazteentzat egokitzea. • Gazte ekintza plan soziosanitario integrala eragitea. • Jarduketa eta informazio Planak garatzea, ikastetxe eta gurasoen elkarrekin lankidetzan.

» 20.4 KONPROMISOA

EUSKAL GAZTERIAREN PARTAIDETZA ETA SOLIDARITATEA SUSTATU

<p>20.4.1 Ekinbidea</p> <p>Gazteen partaidetza kanalak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen erakundeek ordezkapen egungo egiturak indartzea. • Partaidetza eta informazio bideak indartzea, sare sozialen bidez. • “Gazte ez asoziatuak” aintzat hartzea eta partaidetza bideak eskaintzea. • Egitura, gune eta partaidetza aukeren garapena eta elkar erantzukizuna ume, nerabe eta gazteentzat tokiko mailan. • Esperientzia berritzaile ezberdinak sustatzea, haur, nerabe eta gazteen hiri partaidetza bideratzeko.
<p>20.4.2 Ekinbidea</p> <p>Gazteen solidaritate programak eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen boluntarioritza Programei bultzada ematea. • Belaunaldi eta lurraldeen arteko elkartasunaren sustapena, pertsona behartsuak laguntzeko.

GAZTERIA ETA KIROLA

» 20.5 KONPROMISOA

KALITATEKO EUSKAL KIROL SISTEMA BAT FINKATU, BALIABIDEAK KOORDINATU ETA HOBETZEARI ESKER, EREDU OREKATU ETA MODERNO BAT GARATUZ

<p>20.5.1 Ekinbidea Eragile ezberdinen artean koordinazioa eta lankidetzaren eragin, euskal kirol sisteman kalitatea handitzeko xedez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adostasunetik abiatuta, eragile publiko eta pribatuekin koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea, bikoiztasunak ekidin xedez eta kirol planifikazio hobetzeko helburuz. • Erantzukizunak berriro egokitzea eta lankidetzaren publiko-pribatuari bultzada ematea. • Kalitatea sustatzea balio gisa, kirol kudeaketaren esparru guztietan. • Baliabide publiko-pribatuak arrazionalizatzea eta eraginkortasunez erabiltzea kirol ekipamenduen planifikazioan. • Kirol eragileen Gaitasun Plan baten sustapena. • Kirol titulu berrien garapena, euskal unibertsitateekin elkarlanean.
<p>20.5.2 Ekinbidea Kirolaren esparru juridikoa eta araudia gaurkotzen jarraitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal kirolaren errealitate berrira eta eskaeretara egokitzeko araudia. • 14/1998 Euskal Kirolaren Legea gaurkotzea, egokitzeko. • Legediaren artikulua garatzea, estatutu eta araudiari dagokienez.

» 20.6 KONPROMISOA

KIROLA BABESTU BERE MAILA GUZTIAN

<p>20.6.1 Ekinbidea Dopinaren aurkako legea onartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016ko urtarrilaren 26an onartu eta Legebiltzarrerara bialdutako Lege Proiektuan oinarrituta, dopinaren aurkako Lege berri bat onartzea proposatuko da.
<p>20.6.2 Ekinbidea Hezkuntza maila guztietan kalitatezko kirol ereduak garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko Eskola-kirola indartzea Foru Aldundiekin elkarlanean. • Goi Errendimenduzko Euskadiko Eskola Txapelketak eratzea. • Eskolako kirol programak diseinatu, planifikatu eta garatzen dituzten begirale eragileen heziketa eta gaitasuna sustatzea. • Unibertsitate kirola eragitea, euskal unibertsitateekin lankidetzan.
<p>20.6.3 Ekinbidea Kirol egokitua euskal kirolaren sisteman integratzen babestu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ezgaitasuna duten pertsonak kirol eta jarduera fisikoa esparru guztietan eskuragarri izatea sustatzea. • Kirol egokituaren plan bat garatzea eta martxan jartzea, nahi duen pertsona ezgaitu orok jarduera fisikoa praktikatu xedez, eta aldi berean, kirol egokituaren antolakuntza eta kudeaketan klub eta federazioen jarduna errazteko.
<p>20.6.4 Ekinbidea Kirol federazioei eta goi errendimenduzko kirolari ematen zaion babesa hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal federazioak beren programetan babestea eta kirol federazioen barne eta kanpo kontzertazioa lortzea. • Euskal Ligen antolakuntza sustatzea kirol modalitate guztietan, euskal federazioen bidez. • Euskal Federazioen Batasuna indartzea, administrazioaren aurrean ordezkari gisa egiten duen rolean. • Goi mailako euskal kirola bultzatzea eta Euskadi Kirola Fundazioa indartzea. • Nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol klubak laguntzeko programa espezifiko bat. • Goi mailako entrenatzaile eta kirolariei bekak ematea, entrenamendu eta lehiaketarako beharrezko dedikazioa bermatzeko

GAZTERIA ETA KIROLA

» 20.7 KONPROMISOA

KOHESIO SOZIALAREN ETA PARTAIDETZAREN ELEMENTU GISA KIROLA SUSTATU ETA KIROLAREN BIDEZ GURE KULTURA ETA BALOREEN KANPO PROIEKZIOA BULTZATU

<p>20.7.1 Ekinbidea Bere balore tradizionalak defendatuz kirola sustatu: berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna, eta indarkeriarik eza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kirolaren bidez ikasketa eta baloreen gizarte praktika sustatzea. • Jarduera fisikoa eragitea, Osasun eta Hezkuntza Sailekin batera. • Beren estamentu ezberdinetatik kirol eragileen heziketa bultzatzea, kalitatezko kirola, etikoa, bere printzipio eta baloreak bermatuz. • Bazterketa soziala jasateko arriskua duten adin txikikoak kirolaren bidez integratzeko, programa espezifikoak martxan jartzea. • Bazterketa sozialaren arriskua duten kolektiboen gizarteratzea handitzea, kirol eta kultur jardueren bidez.
<p>20.7.2 Ekinbidea Euskadiko kirolarekin lotutako lanbideak izateari eta jarduteari buruzko legea onartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016ko otsailaren 23an onartu eta Legebiltzarrerara bialdutako Lege Proiektuan oinarrituta, Kirolarekin lotutako Lanbideak izateari eta Jarduteari buruzko Legea onartzea proposatuko da.
<p>20.7.3 Ekinbidea Euskal kirolariei emandako babesaren hedatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol modalitate guztietan euskal selekzioak babestea. • Nazioarteko izaera duten kirol ekitaldietan parte hartzen duten talde eta kirolariak laguntzea.
<p>20.7.4 Ekinbidea Bertoko euskal kirola sustatu, haren alde ludikoa, lehiakorra eta kulturala sustatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bertoko kirola promozionatzea, kanpo proiektzioaren eta euskal kultur izaera finkatzeko elementu gisa. • Bertoko kirolak eskola mailan sustatzea, ikastetxeen arteko topaketan antolaketa sustatuz, Foru Aldundiekin elkarlanean. • Goi mailako kirol ekitaldi kopuru nabarmen bat antolatzeari babes ematea eta bertoko kirolekin lotutako jarduera ekonomiko guztiak sustatzea.



21. ETXEBIZITZA

ETXEBIZITZA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVk sustatu etxebizitzaren politikak erraztu egin gura die merkatu askean ezinezkoa zaien lagunei etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri bat irispidean eskuratu ahal izatea, bereziki, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren onuradunei, eta krisialdi ekonomikoaren ondorioz beharrian sozialaren egoeretan daudenei. Xede horri jarraiki, EAJtik bost konpromiso planteatzen dizkiogu euskal gizarteari etxebizitzaren kontuetan.
- EAJ-PNVk etxebizitza kontuetan hartzen duen lehen konpromisoa etxebizitzaren beharrian duten lagunei alokairuan emandako etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea izango da. Horretarako, alokairuan dauden etxebizitza sozialen kopurua handitzea proposatzen dugu, eskura dauzkagun tresna ezberdinen bidez. Lehendabizi, etxebizitzaren eskumeneko Sailak sustatu etxebizitzaren promozio zuzenaren eta zuzkidura-ostatuen bidez, eta baita atxikitako bere sozietate publiko Alokabide eta Visasaren bitartez.
- Bigarrenez, hutsik diren etxebizitzak erakartzeko Bizigune eta ASAP programak indartuz, eta promotore pribatu eta banku entitateek stock-ean dituzten etxebizitzak mobilizatuz, lankidetzaz hitzarmen bidez.
- Hirugarrenez, alokairurako erabiliko diren etxebizitzak promozionatuz, erosi eta birgaitzeko egungo lankidetzaz esparru publiko-pribatuaren gainean hausnarketa sakon bat egitearen alde gaude, ezinbestekoa baita finantzaketa eredu berriak aurkitzea etxebizitza sozialaren parkea handitu ahal izateko.
- Neurri hauen guztien ardatzean gazteak izango dira lehentasunez, konponbideak eskaini behar baitzaizkie emantzipazioa gauzatu ahal izan dezaten, etxebizitza baita hura lortu ahal izateko hirugarren funtsezko oinarria, hezkuntza eta enpleguarekin batera.

- EAJ-PNVren bigarren konpromisoa, eraikitako parkearen gainean lehentasunez aritzea izango da, hiri birgaitzea eta eraberritzea, eta eraikuntza jasangarria sustatuz. Hiri birgaitzeari dagokionez, Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Plana handitu eta indartu beharra dago, birgaitze politika jasangarri eta integratzaile baten bidez eraikin eta etxebizitzak zaintzea, irisgarritasun unibertsala eta eraginkortasun energetiko sustatuko enplegua sortzeko estrategia indartzea eta gizarte kohesioa lortzea du xede nagusizat.
- Hiri-eraberritzeari dagokionez, funtsezkotzat jotzen dugu degradatutako hiriko eremuak eta bizitegi zona ahulak berreskuratzeko ekimenak laguntzea, ez ikuspegi urbanistiko eta energetiko bategitik bakarrik, baita gizartearen ikuspegiari jarraituz ere.
- EAJ-PNVn erabat sinetsita gaude hiri-birgaitze jardun berriei ekin ahal izateko, funtsezkoa dela Udalen eta Birgaitze Urbanistikoko Sozietateen arteko kolaborazioa, hirigune ahulenak aztertu ahal izateko eta birgaitze plan espezifikoak heltzen babesteko xedez.
- Bestalde, jada abiarazitako kudeaketa urbanistiko eta sozialari dagokion eraberritze prozesu garrantzitsuekin jarraituko dugu, hala nola, Zorrotaurre Bilbon, Txomin Enea Donostian, eta Koroatze auzoa Gasteizen.
- Orobat, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren bidez, lurraldearen gaineko mapa integral bat egingo dugu eta zehaztasun handiagoz ezagutu ahal izango dugu finkatutako parkearen zaintze egoera, beharrezko hobetze zein mantentze lanak ezarri ahal izateko, bizitegi parke jasangarri bat edukitzeko xedez. Birgaitze jardunak babesteko, finantzaketa modu berriak erabiltzen aurrera egitea proposatzen dugu, baliabide ekonomiko gutxien duten lagunei zuzendutakoak bereziki.
- EAJ-PNVren hirugarren konpromisoa etxebizitza kontuetan, babestutako etxebizitzaren parkea handitzea izango da, lurzorua kudeaketa eta sustapenaren gaineko politikaren lehentasuna alokairura eta hiri-eraberritzera zuzenduz, etxebizitzaren sustapena eta zuzkidura-ostatuak dagoen benetako eskaerara eta lurraldeen arteko orekara egokituz.
- EAJ-PNVren laugarren konpromisoa etxebizitzaren politikan tresnak eta baliabideak optimizatzea izango da, dauzkagun baliabide eta tresnak gehiago hobetzea jomuga nagusi, etxebizitzaren alorrean eskumenak dituen Sailaren menpeko Zuzendaritza, Sozietate eta Lurralde Ordezkaritza ezberdinen jardura prozedurak eta eremuak aztertuz.

Gizartearen beharrianei erantzunez etxebizitza politikaren ikuspegiak babestutako etxebizitzaren parkea osatzea izango du xede, erabilera eta gozatzeko baldintza ezberdinekin, bere formatu bakoitzean neurri egoki batekin

ETXE BizITZA

- Gure bosgarren konpromisoa etxebizitzaren politikan gobernantza egokia indartzea izango da, hau da, Etxebizitzaren Plan Zuzendaria gaurkotzeari esker planifikatu ahal izatea eta lehen Etxebizitzaren Lurralde Plan Sektoriala lantzea; gardentasun handiagoa lortzea; burutu-tako jardueren etengabeko ebaluazioa eta herritarren partaidetzarako mekanismo berritzaile berriak ezartzea.
- Arestian aipatu bost konpromisoen bidez, gizartearen beharrezko erantzunez etxebizitza politikaren ikuspegiak babestutako etxebizitzaren parkea osatzea izango du xede, erabilera eta gozatzeko baldintza ezberdinekin, bere formatu bakoitzean neurri egoki batekin.
- Azaldutakoaren laburpen gisa, honako hauek dira gure etxebizitza politikaren printzipio inspiratzaileak:
 - Pertsonen duintasunaren balioa.
 - Beharra duen lagun orori etxebizitza bat eskaintzea.
 - Baliabideen kudeaketan eraginkortasuna, efikazia eta sinplifikazio administratiboa.
 - Berrikuntza jardueretan.
 - Administrazio publiko ezberdinen arteko koordinazioaren hobekuntza.
 - Lankidetzaren sektore pribatuarekin.
 - Izaera soziala duten entitateekin kolaborazioa.
 - Lurraldeen arteko orekaren bilaketa.
 - Etxebizitza politikaren ebaluazioa.
 - Gardentasuna kudeaketa publikoan.
 - Herritarren partaidetzari bultzada.

ETXEBIZITZA

» 21.1 KONPROMISOA

ALOKAIRU ERREGIMENEAN ETXEBIZITZAK ESKURAGARRI JARRI BEHARRIZAN HORI DUTEN LAGUNEI, GAZTEEI BEREZIKI

21.1.1 Ekinbidea

Alokairu erregimenean etxebizitzak eskuragarri jarri eta gazteen emantzipazioa lagundu

- Etxebizitza duin eta egoki bat legeak babestuta okupatzeko eskubide subjektiboa martxan jartzea.
- Alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzea formula ezberdinen bidez, esaterako, hutsik dagoen etxebizitza mobilizatzeari esker.
- Zuzkidura-ostatuaren bidez gazteek etxebizitza lortu ahal izan dezaten sustapena garatzea.
- Etxebizitzak alokairuan emateko eraikitzea edota birgaitzea ahalbidetzen duten finantzazio formula berriak ikeritzea, eragile pribatuei bermeak eskainiz, lankidetzaren eredu berriak barne, lurzorua eskainiz.
- Gizarte erakundeekin lankidetzaren loturak indartzea, zailtasun bereziak dituzten pertsonen arreta eskaini ahal izatea lagunduz.
- Kolaborazio bide berriak bultzatzea Udalekin, alokairuan ematen diren etxebizitzaren parkea handitzeko.
- Foru Ogasunekin batera, bultzada ematea alokairua sustatzen duten zerga-pizgarriei.
- Etxebizitza duin, egoki eta arrazoizko bat eskuragarri jartzea eskubide subjektiboaren onuradunei, lehentasunez etxebizitza bat esleituz edo zuzkidura-ostatuaren bidezko alokairuan, eta modu subsidiarioan, Etxebizitza Prestazio Ekonomiko berriaren bidez.
- 4.500 etxebizitza berri eskainiz, alokairu publikoaren erregimenean eskuragarri diren etxebizitzaren kopurua handitzea, egun Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen 11.700 etxebizitzari gehituz. Xede hori betetzeak ondorengoa eskatuko du:
 - Bizigune eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programak handitzea, alokairu erregimenean 1.300 etxebizitza gehiago, 6.000 lortu arte, egungo gaitasunaren (4.700) %25 gehiago hain zuzen ere.
 - Era zuzenean sustatzea eta subentzionatzea eragile publikoek eta pribatuek 3.200 etxebizitza sozial berri eta alokairuzko zuzkidura-ostatu eraiki ditzatela. Etxebizitzaren parte bat partekatutako alokairuan etxebizitza bat izan nahi duten gazteentzako programa espezifiko bat martxan jartzeko erabiliko da.

ETXEBIZITZA

» 21.2 KONPROMISOA

ERAIKITAKO PARKEAREN GAINEAN JARDUN, HIRI-BIRGAITZEA ETA ERAIKUNTZA JASANGARRIA SUSTATUZ, ENPLEGUA SORTZEKO ESTRATEGIA INDARTUZ

21.2.1 Ekinbidea

Hiri-birgaitzea eta eraikuntza jasangarria sustatu eta babestu

- Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Plana bultzatzea, enplegua sortu eta zaintzaren kulturaren estrategia indartzeko.
- Auzo eta zonalde berezien hiri birgaitze eta eraberritze plan integralak burutzea, hala nola, Gasteizko Koroatze auzoa, Txomin-enea Donostian edo Zorrotzaurre Bilbon.
- Irigarritasun unibertsalaren sustapena, Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren bidez. Gizartea kontzientziaztea aurrezte energetikoaren garrantziaz, bai finkatutako parkean zein eraikin berrietan.
- Lidergoa eta eraikitako parkea birgaitzeko laguntza eta beren beharrian baldintzen eraginez jardun berezia eskatzen duten andeatutako zonalde zein auzoen eraberritzea, arreta berezia eskainiz honako auzoei: Txabarri - Eguzkia Sestaon, Zazpilanda Bilbon, Zaramaga Gasteizen, Txonta Eibarren, Osintxu Bergaran, eta Santa Juliana Abanto-Zierbanan, besteak beste.
- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren alde irmo jokatzeko, Udalekin lankidetzan, eraikitako parkearen zaintza sustatzeko tresna gisa.
- Finantzaketa produktu berritzaileak bultzatzea, birgaitze eta hiri-eraberritze jarduerak ahalbidetzeko, eta Europako finantzaketarako sarbidea.
- Erakartzeko gaitasuna duten ikerkuntza, berrikuntza eta garapen proiektuak bultzatzea Hiri Habitataren esparruan, eraikuntza jasangarriaren kontuekin lotutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan.
- Gestioak sinplifikatzea laguntzak lortzeko, leihatila bakarra sortuz birgaitzea babesteko.

» 21.3 KONPROMISOA

ETXEBIZITZA BABESTUEN PARKEA HEDATU

21.3.1 Ekinbidea

Lurzoruaren kudeaketa eta sustapen politika berriro bideratu, babestutako etxebizitzaren parkea handitu xedez, alokairua lehenetsita eta hiri-birgaitzea

- Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-ostatuak sustatzeko, eredu berriak garatzea lurzorua lortu xedez, esaterako, espezetan egindako ordainketen bidez lurzorua erostea.
- Babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura-ostatuen sustapenen araudia eta tipologia egungo beharrianetara egokitzea.
- Etorkizunean sustapenak egingo dituzten herriak zehaztea, dagoen eskaerari erantzunez.
- Babes ofizialeko etxebizitzak erosi ahal izateko, neurri malguak bultzatzea, hala nola, erosteko aukera ematen duen akura eta ordainketa atzeratutako salmenta.
- Babes sozialeko etxebizitzaren kooperatiben sustapena.
- Beharrian gehien duten auzoetan kohesio soziala bultzatzea, Udalekin lankidetzan estuan.

ETXEBIZITZA

» 21.4 KONPROMISOA

BALIABIDEAK OPTIMIZATU ETA ETXEBIZITZAREN POLITIKAN MEKANISMO BERRITZAILEAK ERAGIN

<p>21.4.1 Ekinbidea Baliabideen optimizazioa bultzatu eta etxebizitza politikaren berrikuntza eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza politikaren garapena lagunduko duten mekanismo berriak jartzea martxan. • Lurzoruaren Ondare Publikoaren sorkuntza. • Parke publikoaren etxebizitzak eta zuzkidura-ostatuak esleitzeko sarbide eskakizunen eta prozeduren sinplifikazioa eta egokitzapena. • Etxebizitzaren Legean arautu erregistro administratiboak gaurkotzea eta sortzea. • Babestutako etxebizitzaren parkearen ikuskaritza indartzea, erabilera egokia ziurtatzeko. • Etxebizitza politikaren eta gizarteratze sistemaren politiken arteko koordinazioa indartzea.
<p>21.4.2 Ekinbidea Hiri habitataren berrikuntza eta eraikuntza jasangarria sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntza eta hiri habitatarekin lotutako Europako programetara aurkezten diren proiektuak ekonomikoki laguntzea. • Ikerkuntza proposamen bateratuak aztertzea espezializazio adimentsuaren estrategiaren beste arlo batzuekin, bereziki fabrikazio aurreratuarekin, eta industria kultural eta sortzaileekin. • Hiri leheneratze eta Smart cities-etako hiri inguruneetan garapen esperimentaleko eta aplikazio praktikoa duten proiektuak sustatzea.

» 21.5 KONPROMISOA

ETXEBIZITZA KONTUETAN GARDENTASUNA, GOBERNU EGOKIA, EBALUAZIOA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA INDARTU

<p>21.5.1 Ekinbidea Etxebizitza kontuetan gardentasuna, gobernu egokia, ebaluazioa eta herritarren partaidetza lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzaren politikarekin zerikusia duten administrazio ezberdinen arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatzea, bakoitzaren eskumenen esparrua errespetatuz. • Etxebizitzaren Plan Zuzendari berri bat lantzea eta Etxebizitzaren Lurralde Plan Sektoriala etxebizitzaren politikaren ardatz estrategikoak zehaztu eta garatzeko. • Etxebizitzaren politikaren gaineko ebaluaketa, egokitasuna, eraginkortasuna, efikazia, eragina eta jasangarritasuna aztertuz. • Etxebizitzaren kontuetan politika publikoak formulatzean, herritarren partaidetza praktika berritzaileetan sakontzea. • Etxebizitzaren arlo guztietan gardentasuna indartzea, herritarrei modu bateratuan eta argian aurkeztuz informazioa. • Etxebizitzaren alorreko sozietate publikoentzat, gobernu korporatiboan oinarritu sistema bat garatzea.
---	--



22. FAMILIA POLITIKA

FAMILIA POLITIKA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Familia eta haurtzaro kontuetan EAJ-PNVren estrategia zuzentzen duten printzipioak Nazio Batuen Umearen Eskubideen Konbentzioak aldarrikatutako berak dira, zeinek politika publikoen oinarritzko gidatzen ezartzen baitu adin txikikoaren interes gorena eta haiek eskubide osoko herritartzat egiaztatzen baititu. Erantzukizuna eta aldi berean erronka ondorioztatzen du horrek: nola eman lehentasunezko arreta haurtzarori haren garapen egokirako ingurune lagungarriak sortuz, haren babesbermatuz eta haurtzaroan egin inbertsioa lehenetsiz.
- Gure ahaleginek belaunaldien arteko desabantailak ez errepikatzea izango dute helburu, Europa eta Euskadiren etorkizunerako funtsezko inbertsioa dela erabat sinetsita, eta halaber, zuzeneko ekarpena Estrategia Europa 2020rako, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile bat eman dadin, eta onurak ekarriko dizkio epe luzera begira haurtzaro, ekonomia eta gizarte osoari.
- Termino ekonomikoetan, lehen haurtzaroaren ongizatea lehen urratsa da giza kapitalaren garapenaren prozesuan, itzulera ekonomiko tasa altuekin eta onura sozialekin. Baina, horrez gain, haurtzaroan inbertitzea funtsezkoa da egungo eta etorkizuneko garapen jasangarriari begira. Bidezkoa da, errentagarria eta denon onuran: garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen du, produktibitatea handitzen eta hazkunde jasangarri bat bermatzen baitu.
- EAJ-PNVren ustean, interbentzio goiztiarra eta prebentzioa ezinbestekoak dira familia politika eraginkor eta efizienteagoak lantzeko. Bizitzaren lehen urteetan desabantailak zuzentzearen alde egingo dugu, garrantzitsua baita pobrezia eta oro har gizarte bazter-

ketaren aurkako borrokan ahaleginak bikoizteko.

- Uste osoa dugu prebentziorik eraginkorrena estrategia integratuen bidez lortzen dela, gurasoei eskainitako laguntza (errentari laguntza egokia emanez eta umeen etorkizunerako ezinbestekoak diren gizarte zerbitzuak eskuragarri jarritz) kalitatezko haur hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta gizarte zerbitzuekin lotutakoekin uztartuz, eta modu horretan umeek beren ahalmen osoa erabili eta ahulezia gutxiago izan dezatela.
- Aldi berean, EAJ-PNVren iritziz, familiaren testuinguruak geroz eta rol garrantzitsuagoa jokatu du gazteen etorkizuneko bizitza maila zehazterakoan. Gurasoek beren seme-alabei uzten dieten ekonomiak, harremanak, kulturka eta hezkuntza kapitalak geroz eta garrantzi gehiago dute, kualifikazio gutxiko eskulana geroz eta urriagoa eta eskasago ordaindua izango baita.
- Gizarte ko-erantzule bat sustatzeko beharrezkoak dira, horrela bada, guraso biek neurri berean parte hartzen dute eginkizun produktiboetan edota lanean eta baita ugaltze edo zaintzari dagozkien ere, hartzaile eta zaintzaile bikoitzaren eredu oinarrituta. EAJ-PNVren iritziz, inguru eta zaintza bikoitza familia eredu laguntza publiko ematea jaiotze-tasarako politikarik lagungarrienetako bat dugu, eta erremediorik eraginkorrenetako bat haur pobrezia aurka, horrez gain, emakumeak eta haurrak bikote hausturen familia arazoan aurrean hobekien babesten dituenak.
- Egitura familiarra, familia bizitzaren ibilbideak eta familia barneko harremanak nozitzen ari diren aldaketa prozesu sakonaz jabetu gara. Hartara, EAJ-PNVn familia eta haurtzaroa babesteko estrategia integral bat garatzearen alde gau-

de, horren bidez familia egitura guztiak aintzat hartze eta babes sozialaren maila berean izango baitira, familian eta haurtzaroan inbertitzea egitura familiarrari lotutako desberdintasun soziala gutxitzea ondorioztatzen baitu, eta ume guttien aukerak eta ongizatea bermatzen, bizi diren familia mota gora behera.

- Familia eta haurtzaroa laguntzeko prestazioetan gastu altu baten eta konparatiboki ugalkortasun tasa altuen arteko korrelazioa egiaztatuta izan arren, ezin da ezarri harreman zuzen bat umeak dituzte familiei prestazio ekonomikoak eskaintzearen ondorioz jaiotze-tasa igotzen dela. Izan ere, pentsa liteke, dirua baino, umeak izateko ametsa egia bihurtzeko, eta haien ongizatea bermatzeko, pertsonak behar dutena, funtsean, laguntza zerbitzuak direla, beren beharrezkoekin bat datozen gizarte denborak egituratzea ahalbidetzen dutenak, hain zuzen ere. Egiaztapen horri jarraiki, EAJ-PNVn lehentasunezko zat jotzen

Haurtzaro eta familiarekiko babes integralerako estrategia bat garatzearen alde egin nahi dugu, besteak beste, familia egitura guztiak babes sozial eta aitortza bera izan dezaten

FAMILIA POLITIKA

dugu haurtzaroaren arreta zerbitzuen eta umeak zaintzeko prestazioen hobekuntza, kontziliazio elkar erantzule baten esparruan.

- Aldi berean, haurren pobrezia gutxitzeko prestazio ekonomikoek duten garrantziaz jabetzen gara, eta oro har, seme-alaben hazierak ondorioztatzen dituen kostuak konpentsatzearen garrantziaz, prestazio hauek hedatzea xede duten neurriak garatzearen aldeko proposamena luzatuko dugu. Horrela bada, ikuspuntu progresibo bati jarraiki, kopuru altuagoak eta laguntza espezifikoak emango zaizkie errenta gutxiagoko familiei edo zailtasun gehiago jasaten dituztenei.
- Kapital sozialaren eta ko-hezkuntzaren garrantziaz ohartzen gara. Horregatik, gizarte sarea indartzeko beharrezana nabarmenduko dugu, familiak sendo integratuz egitura komunitarioetan. Testuinguru horretan, EAJ-PNVn arazo sozialei erantzun komunitarioak ematearen alde gaude eta haur guztiei zuzendutako zerbitzuak eta gizarte-hezkuntzazko izaera duten ekipamenduak garatzearen alde. Era berean, ko-hezkuntzan oinarritutako heziketa formulak garatzean alde egiten dugu irmo.
- EAJ-PNVtik planteatzen ditugun neurriek izaera multidimentsionala dute eta politika publikoen arlo ezberdinengan dute eraginik: hezkuntza, berdintasuna, etxebizitza, ingresuen bermea, kultura eta osasun politikak, nagusiki. EAEn eskumeneren artikulazioaren kariaz, instituzioen arteko izaera duen estrategia bat izan behar da halaberrez, Gobernu, Aldundi eta Udalen arteko akordio global batean oinarrituta bakarrik izango baita arrakastatsu.
- Konpromiso hauek garatzeko sail eta erakundeen arteko inplikazioaz harago, EAJ-PNVn funtsezkotzat jotzen dugu gainerako eragile sozialen partehartzea, eta bereziki, lan harremanak zehazteko partehartze zuzena duten haiek. Sindikatu eta enpresa eragileen inplikazioa saihestezina da, eta oso bereziki gizarte ko-erantzule bat sortzeari dagokionean, umeak dituzten familiei gehiago eta hobeto egokitutako lan harreman eta egiturak babestuz.

FAMILIA POLITIKA

» 22.1 KONPROMISOA

INSTITUZIOEN ARTEKO ESTRATEGIA EGONKORRA ETA GARRANTZI HANDIKOA ABIARAZI, HAURTZARO ETA FAMILIEN ALDEKO HERRIALDE GISA ADOSTU HITZARMEN BATEN BIDEZ

<p>22.1.1 Ekinbidea Jaiotzengatik edo seme-alaben adopzioengatik laguntzak hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuan jaiotza-tasa laguntzeko programarik aurreratuen du Euskadik. Programa hori finkatzea eta hobetzea izango da. Horretarako, hiru urterokoetara zabalduko dugu bigarren seme-alaba izateagatik eman diru-laguntzak (egun, bi dira), horrela bada, honako hau izango litzateke jaiotza-tasa handitzeko laguntzen esparrua: <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza ekonomikoa lehen seme-alabaga izateagatik: urteroko bat, 400 eta 900 euro artean. - Laguntza ekonomikoa bigarren seme-alabagatik: hiru urteroko ematea (egun, bi bira), 400 eta 900 euro artean. - Laguntza ekonomikoa hirugarren edo hurrengo seme-alabagatik: zazpi urteroko, 400 eta 900 euroen artean. - Laguntza ekonomikoak erditze edo adopzio anitzengatik: gutxienez 2.000 euro. - Laguntza ekonomikoak nazioarteko adopzioagatik: gutxienez 2.000 euro.
<p>22.1.2 Ekinbidea Seme-alaben jaiotzagatik diru-laguntzak Euskal Aldundien Ogasunek oinordekoei eman zerga dedukzioekin bateragarri egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoak Foru Aldundien dedukzioekin bateragarri egitea proposatzen dugu. Urtero, Aldundien Ogasunek ezarriko dute PFZEari aplikatu beharreko kuota, hogeita hamar urtetik beherako oinordeko ezkongabeentzat edo ezgaituentzat (edozein adinekoak), araudiak ezarritako baino urteroko errenta altuagoa jaso ezean betiere.
<p>22.1.3 Ekinbidea Gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatu seme-alabak dituzten familiei eta haur pobrezari aurrea hartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • DSBEren esparruan, enplegua sustatzeko araudiaren aldakuntza, adin-txikikoak beren kargu dituzten familien kasuan.
<p>22.1.4 Ekinbidea Gazteen emantzipazioa lagundu eta bizitza autonomorako proiektuak faboratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteriari zuzendutako enplegu politika aktiboak indartzea. • Seme-alabak dituzten pertsonen eta gazteen alokairuko etxebizitza bat eskuragarri jartzea, "alokairu partekatu" aren aukera kontuan hartuz, halaber.
<p>22.1.5 Ekinbidea Hezkuntza politikak zuzendu, hezkuntza sistema inklusibo bat eraikitzeke, berdintasuna bermatzeko eta desabantaila sozial eta ekonomikoa jasaten duten ikasleen zailtasunak gutxietsiz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Interkulturalitatea sustatzeko programak bultzatzea, hezkuntza laguntze espezifikoak, eskolaratze osagarria, ikasteko laguntza eta dibertsifikazio kurrikularra, zailtasun sozioekonomikoak dituzten ikasleei eskaini arreta lagundu xedez. • Eskolako kurrikulumean genero berdintasunarekin eta eskola ko-hezitzailearen garapenarekin lotutako gaiak. • Errenta gutxiagoko familiei hezkuntzaren zerbitzu osagarriak eragozten edo zailtzen dizkieten oztopo ekonomikoak ezabatzea. • Hezkuntza praktikak eta edukiak berriro zuzentzea, Heziberri 2020 eskolako kurrikulum berriaren testuinguruan, euskaldunen kualifikazioa Jakintzaren Gizartera egokitzeko.

FAMILIA POLITIKA

<p>22.1.6 Ekinbidea Gurasotasun positiboa, familia bitartekaritza eta haurren osasun programak indartu, haurtzaroan eta nerabezeroan ohitura osasungarriak sustatzeko, familien baitan eman daitezkeen gatazkak konpontzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasotasun positiboaren programak bultzatzea, beren antolakuntza eta kudeaketarako Udalak, ikastetxeak eta Hirugarren Sektoreko entitateak inplikatur. • Familia bitartekaritza programei bultzada ematea, hedapen kanpainen bidez eta zerbitzuak gehiago deszentralizatuz. • Familien topaguneak indartzea, bere kasuan zerbitzua eskaintzeko egoitzak, giza baliabideak eta materialak handituz. • Haur osasuna sustatzea interbentzio integralen bidez, arreta goiztiarraren eredia garatuz eta osasun zerbitzuetan ezarriz, haur eta nerabeen obesitatea gutxiagotuz, gazteriaren ohitura osasungarriak hobetuz eta jarrera arrisku-tsua gutxituz. • Osakidetzako Giza Ugalketa Unitatearen jardura protokoloen berrikusketa eta tratamenduan diren familiei laguntza. • EAEn Arreta Goiztiarraren Interbentzio Integralaren gaineko Dekretua garatzea.
<p>22.1.7 Ekinbidea Umeei eta gazteei baliabide komunitarioak, sozio-hezkuntzakoak, kirol arlokoak, kulturalak eta aisialdikoak eskuragarri jartzen lagundu, berdintasunezko baldintzetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako gizarte-hezkuntza interbentzio programak bultzatzea, bereziki kontuan hartuta gune irekietako programak, adin-txikikoentzako eguneko arreta programak eta familia interbentzio programak. • Ekipamendu eta jardura soziokulturalak, kirol aktibitateak eta aisialdikoak garatzea, haur eta gazte guztiei irekita, baina zailtasun sozioekonomiko gehien dituzten herritarrei zuzenduak bereziki. • Adin-txikikoentzat garraio publikorako deskontuak eta hobariak, egun indarrean direnen gehigarri.

» 22.2 KONPROMISOA

LAN BIZITZA, PERTSONALA, FAMILIARRA ETA ZAINTZA EGINKIZUNETAN KO-ERANTZUKIZUNA BATERATZEN LAGUNDUKO DITUZTEN EKIMENAK GARATU

<p>22.2.1 Ekinbidea Familia eta lan erantzukizunen eta zaintza eginkizunen artean kontziliazioa lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernu espainiarrak kontziliazioari eman laguntzak Eusko Jaurlaritzaren osagarriekin bateragarri egin, amatasun eta aitasun baimenei dagokienez. • Lan bizitza eta familiarra bateratzeko egungo laguntzen bideragarritasuna eta mailakako egokitzapena aztertzea, umearen lehen 12 hilabeteen eszedentziak, guraso bien ko-erantzukizuna eta beharrian bereziak dituzten familientzat jardunaldi murrizketak lehenetsiz. • Eusko Jaurlaritzak heldutako biderei bultzada ematea lan ordutegiak arrazionalizatzeko, eragile sozialekin elkarlanean. • Haurtzaindegien 50 proiektu pilotu sustatzea lan zentroetan eta 0-3 urte bitarteko haurren eskolarizazioa indartzea, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean 400 postu berri eskainiz.
<p>22.2.2 Ekinbidea Seme-alabak dituzten familia guztiek haur arreta zerbitzu eskuragarriak, arazoizkoak eta kalitatekoak jaso ditzaten lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Haurreskolak partzuergoko zentroen kopurua handitzea (eta, bere kasuan, 400 plaza berri hornitzea), zentroen irekiera egutegi eta ordutegi zabaltzea, seme-alabak dituzten familia guztiek erabili ahal ditzaten. • Haurreskolak partzuergoan familien partaidetza ekonomikoaren irizpideen egungo araudiaren aldakuntza eta plazak emateko irizpideen berrikuspena. • Haur arreta zerbitzuetan eskaintako zerbitzuaren kaitatea hobetzea. • Haur hezkuntza zentroetan sartzeko beken estaldura eta zenbatekoa handitzea. • Lan zentroetan haur zaintzarako ekipamendu sare bat sustatzea, 50 proiektu pilotuz osatu sare bat garatuz, eta lantokietan haurtzaindegiak euskal enprekin, Udalekin eta Foru Aldundiekin lankidetzan. • Sozio-hezkuntzako eta eskola laguntza programa osagarriak martxan jartzea.

FAMILIA POLITIKA

» 22.3 KONPROMISOA

FAMILIA ETA HAURTZARO KONTUETAN GOBERNANTZA ESPARRU ARGI ETA ERAGINKOR BAT EZARRI

<p>22.3.1 Ekinbidea Haurtzaroaren aldeko itun bat lortu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadin haurtzaro eta nerabezaroaren egoeraren gaineko diagnostiko oso eta zehatz bat lantzea, horri esker politika eta neurri egokiak artikulatu ahal izateko. • Jarraipen estatistikoaren adierazleak zehaztea eta gehitzea, kolektibo ikusezinenak ikusarazi ahal izateko, eta bultzada gehiago eskainiz Haur eta Nerabezaroaren Behatokiari. • Urteroko barometro bat lantzea 18 urtetik beherakoei zuzendua, iritziak, ardurak era sistematikoan jasotzeko, eta ume eta nerabeen ongizatearen gaineko balorazioa alor ezberdinetan, eta horri esker, gizarte osoak identifikatu ahal dezan haurtzaroak aurre egin beharreko arazo eta itxaropenei. • Sarearen bidez egindako lana eta haurtzaroarekin lotura duten gizarte eragileekin kanpo koordinazioa sustatzea. • Haurtzaro eta Nerabezaro Batzordea sortzea Eusko Legebiltzarrean. • Hezkuntza sistemaren ikuspegi inklusiboa indartzea. 0-3 urte bitartekoan kalitatezko hezkuntzaren unibertsalizazioz egitea, baliabide gutxien dituen familientzat doan eta arazoizko prezioan gainerakoentzat. Eskola laguntza behar duten ikasleei bekak bermatzea eta, oro har, ume eta nerabeek baldintza berdintasunean zerbitzu eta baliabideok eskuratzeko izan dezaketen edozein oztopo ezabatzea. • Haurtzaro eta nerabezaroarekin hartu konpromisoari bultzada ematea, garapenerako nazioarteko kooperazioaren bidez, politiken koherentzia eta unibertsalitate eskubideetan oinarrituta. • Haur partaidetza organo egonkorra garatzea, horri esker ume eta nerabeen partaidetza demokratikoa gauzatu ahal izateko, eta haur eta gazteen elkarrean sarea sustatzeko.
<p>22.3.2 Ekinbidea Haur pobrezia-aren aurkako euskal estrategia bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Haur pobrezia-aren aurkako plan integral bat lantzea, esparru koherente horri esker, umeak baztertearen aurkako lehentasuneko ekintzak ezartzea, xede zehatzekin, kuantifikatu daitezkeenak, adierazle eta epe argiekin, eta beharrezko ekonomia eta finantza laguntzarekin. • Haurren ongizatea sustatzeko, prebentzioan oinarritutako politikak abiaraztea, pobrezia belaunaldi belaunaldi igaro ez dadin. • Adin-txikiko seme-alabak dituzten pertsonen enplegua aurkitzen laguntzea, enplegu politika aktiboen bidez eta lan bizi eta bizitza pertsonala bateragarri eginez, arreta berezia eskainiz gurasoak biak langabezia dituzten familiei. • Haurtzaroren kolektibo ahulenei zuzendutako gizarte babesa indartzea: ume etorkinak, ijitoen etniakoak, ezgai-ituak, eta errenta zein enplegu maila baxuko familia ugariak eta gurasobakarrak.
<p>22.3.3 Ekinbidea Instituzioen arteko koordinazioa sustatu, familia zein haurtzaro kontuetan etengabeko hobekuntza politika publikoen garatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen arteko koordinazio bideen sustapena. • Haurren eta familien ongizatearekin lotura duten adierazleen sistema bat mantentzea, horri esker, beharrianak antzematea, ezarritako neurrien eragina ebaluatzea eta politika publikoak ber-zuzentzea. • Familiaren Behatokiaren, eta Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Behatokiaren papera indartzea, eta gai hauen inguruko ikerketa, ebaluaketa eta eztabaida lana. • Haurtzaro eta familia kontuetan praktika egokiak identifikatzea eta hedatzea. • Familiaren gaineko atari publiko bat sortzea, erakunde ezberdinen artean garatua, familien ongizatea xede duten baliabide eta prestazio guztien berri eman dezan.



23. ADINEKOAK

ADINEKOAK

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVren aburuz, adinari egozten zaizkion estereotipoen aurkako borrokari heltzeko, edozein pertsonak merezi duen duintasun, errespetu eta berdintasun berarekin hartu behar ditugu adinekoak, eta ondorioz, herritar gisa dituzten eskubideak aintzat hartu.
- EAJ-PNVren iritzian, pertsona guztiek dute aske erabakitze eskubidea, hau da, erabaki aske eta borondatezkoak hartzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea. Halaber, eskubide hori berezkoa da, halaber, zahartze aktibo bat sustatzeko, aukeratzeko eta norberaren bizitza proiektua eraikitze gaitasunaren jabe. Gure ikuspegiak pertsonen heterogeneotasuna hartzen du aintzat, beren lehentasunak, ezinbestekoa zahartzaroari heltzeko.
- EAJ-PNVn partaidetzaren alde egiten dugu, zahartzaroaren ohiko ikusmoldean erabateko ikuspegi aldaketaren alde, orain arte pasibitatearekin eta gizarte rol jakinik gabekotzat jo izan baita zahartzaroa.
- Bizi diren gizartearen eraikuntzan herritar protagonista bezala hartzearekin eskubide konkomitantetzat jotzen dugu partaidetza. Beren ahotsa kontuan hartzea esan nahi du horrek, orobat, zahartzen ari diren pertsonak parte hartu nahi duten ekimenetan integratzeko eta gehitzeko beharra, herritarren elkartasuna eta erantzukizuna oinarritzat.
- Ko-erantzukizuna sustatzean alde gaudu, ko-erantzukizun kolektiboa eta indibiduala uztartzen ditu kontzeptu horrek, administrazio publiko guztien, gizarte ekimenaren, partaidetza komunitarioko mugimenduen eta elkarten munduaren ahaleginak batzen dituen elkartasunezko lankidetzatik abiatuta. Finean, EAJ-PNVtik adinekoen eta euskal gizar-

tearen estamentu guztien ko-erantzukizuna sustatuko dugu, bizitza aktibo eta osasungarria oinarri dituzten proiektuak eraikitze.

- 2015-2020 aldirako Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategia erreferentziazko agiritzat jotzen dugu adinekoen zuzendutako politiketan, euskal gizartearen parte aktibotzat pertsonak, beren eskubideak eta erantzukizunak ardatz dituen esparru kontzeptual eta etiko batean oinarrituta.

***EAJ-PNVn
partaidetzaren
alde egiten dugu,
zahartzaroaren
ohiko ikusmoldean
erabateko ikuspegi
aldaketaren
alde, orain arte
pasibotzat eta
gizarte rol jakinik
gabekotzat jo izan
baita zahartzaroa***

ADINEKOAK

» 23.1 KONPROMISOA

ZAHARTZE AKTIBOA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTASUNA SUSTATU

<p>23.1.1 Ekinbidea Adinekoen partaidetza aktiboa erraztu gizartean, elkartasunezko izaera sustatuz eta boluntarioria bultzatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinekoek plan urbanistikoetan parte hartu dezaten sustatzea, beren “aholkulari eta egiaztatzaile” rola eraginez, laguntasun, irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren ikuspegitik, eta “adin” ikuspegia gehituz hiri diseinuari, betiere, belaunaldien arteko eta genero ikuspegian integratuz. • Adinekoek boluntarioriaz jardutea eta boluntarioria ekimenak laguntzeari bultzada, bakarrik sentitzen diren eta laguntasuna nahi duten pertsonekin egoteko, gizarte isolamendu egoerak eta beren ondorioak ekiditeko xedez. • Herritartasun aktiboaren eta ko-erantzukizun soziala sustatzea adin guztietako pertsonen artean. • Aisialdi ekitaldietan partaidetza sustatzea, zahartze egokiaren funtsezko osagarritzat. • Komunitate edo auzo izaera duten ekimenetan adinekoen kolaborazioa eta partehartze aktiboa errazten duten ekimenen sustapena, kooperazio komunitarioaren eredu berriak barne, hala nola, crowdfunding-a (finantzaketa kolektiboa edo herrikoia) eta crowdsourcing-a (kolaborazio masiboa). • Herritar guztiei zuzendutako gizarte eta kultur guneetan adinekoek parte hartu dezatela eragitea, landa inguruneetan bereziki. • Garraio publikoaren zerbitzu eskuragai, seguru eta ekonomikorako sarbidea eskura jartzea zahartzen ari diren laguntzat, landa esparruetako toki isolatuetan bereziki. • “Establezimendu Lagunkoia” Programa orokortzea, Euskadi Lagunkoia esparruan, heziketa kanpainekin eta aholku praktikoekin enpresak adinekoetara hurbildu daitezzen.
<p>23.1.2 Ekinbidea Adinekoen artean ikasketa aktiboa bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizitzan zehar adinekoen artean ikasketa sustatzea, Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategiak ezarri gisara. • Euskadi Lagunkoia ekimenen atxiki udalerrien sarea zabaltzea, 2020ko etorkizunari begira, Euskadi Lagunkoian parte hartzen duten udalerriek euskal herritarren % 80 izan ditzatela. • Adinekoen zuzendutako gidak lantzea alderdi zehatzen gainean, hala nola, garraioa, etxebizitza, guneak, non lagunkoia izateko gakoak eskaintzen baitira. • Adinekoen teknologia etena gutxitzea, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan ikasketa sustatuz, gizarte partaidetza aukera berriak eskaintzen dituzten tresna legez, eta IKT-en erabilera egokiaren praktika onen sareak sortzea, esperientziak trukatzeko sustatuz. • Adinekoen ikasketa prozesuetan beharrezkoak diren gaitasun pertsonal, harremanezko eta didaktikoak irakasteko profesionalen formazioaren sustapena. • Adineko emakumeen diskriminazio baikorra xede duten ekimenak eragitea, zahartzaroari baikor aurre egin ahal izateko, beharrezko gaitasun eta trebezia berriak ikasteko prozesuan.

ADINEKOAK

» 23.1 KONPROMISOA

ZAHARTZE AKTIBOA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTASUNA SUSTATU

<p>23.1.3 Ekinbidea Adinekoen gaineko ikusmoldea aldatu, beren gizarte rola balioztatuz eta belaunaldien arteko topaketa faboratuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinekoen irudi erreala, Euskadiren ondare inmateriala transmititzeko duten balio sozialarekin lotuz, Euskadi Lagunkoiaren "Ondare" ekimena gisa. • Adinekoen irudi baikorra, aktiboa eta solidarioa zabaltzea foro eta ekitaldietan, halaber, zahartze aktibo eta osasungarriaren onuren berri ematea. • Adinekoen egoeraren gaineko diagnostiko bat lantzea, kolektiboaren eboluzioa ikusteko xedez, informazio baliagarria izateko adinekoek gizarteari egiten dioten ekarpenaz, Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategiaren ebaluazio eta jarraipenean zehaztuz. • Adinekoen balore eta gaitasunak, zaintzen transferentzia eta beste laguntza batzuk sustatzea, haienganako tratu desegokia sortzen dutenak ekidinez. • Adineko guztientzako beharrezko informazio argi eta eskuragarria sortzea eta eskura jartzea, haiengan eraginik duten alderdien gainean aukeratu eta erabaki ahal dezaten. • Adinekoen eskubideen defentsa, adinari lotutako edozein bazterkeriaren -uzena edo zeharkakoa- zantzurik txikiena ezabatuz. • Euskadiren Zahartze Aktiboaren Indizearen urteroko kalkulua, adinekoen erabili gabeko ahalmena neurtzeko zahartzaro aktibo eta osasungarri bat xede, kontu hauetan Euskadi eta Europar Batasunaren arteko konparaketa ezartze aldera. • Belaunaldien arteko elkartasunaren sustapena, Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategiaren, eta Familietan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Euskal Estrategiaren testuinguruan. • Belaunaldien arteko ikasketa guneak sustatzea maila guztietan, pertsonen bizitza ibilbideetan bildutako kapital soziala eta pertsonala bertan partekatu ahal izateko.
<p>23.1.4 Ekinbidea Adinekoen artean asoziazionismoa sustatu eta haien partaidetza eta gizarte ekarpena bultzatu adinekoen elkarte bidez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartzen diren pertsonen erabakiak hartzeko ereduaren gainean hausnarketa prozesu bat sustatzea, adinekoen erakundeek eta esparru gerontologikoan diharduten rola indartuz, Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategiak jasotzen duen legez. • Adinekoen erakundeek Euskadi Lagunkoia proiektuan parte hartu dezaten bultzatzea. • Adinekoen kolektiboaren ikuspegia eta beharrianak eskainiz, kontsulta organoetan parte hartzen duten adinekoen erakundeak babestea.

ADINEKOAK

» 23.2 KONPROMISOA

MENDEKO PERTSONA ADINEKOEN BEHARRIZANAK

<p>23.2.1 Ekinbidea Adinekoa laguntza sistemaren ardatzean kokatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinekoak aintzat hartu, zahartzen ari diren pertsonengan eragina duten plan, programa, zerbitzu eta araudien xedapenak diseinatzean. • Arreta pertsonalizatuan eta pertsonan zentratutako telelaguntza mailaka ezartzea, koordinazio soziosanitarioa jorratuz, eta Euskadi osora heltzeko xedez, zerbitzuaren erabiltzaileen %25 estaldura eskainiz. • Arreta sistema eta administrazio maila ezberdinen arteko koordinazioari bultzada ematea.
<p>23.2.2 Ekinbidea Sistema soziosanitarioan eraginkortasuna sustatu, 2020ko etorkizunari begira 50.000 Erabiltzaileei estaldura emateko xedez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinazio soziosanitarioa lantzen duten programa pilotuak garatzea, hitzarmen eta instituzioen arteko lankidetzak akordio bidez. • Adinekoen aurkako tratatu txarrak antzemateko profesionalen heziketa sustatzea. • Osabide adinekoen egoitzetara zabaltzea, adinekoen egoitza guztietara Osakidetzaren historia klinikoa orokortzeko xedez. • Historia Kliniko Soziosanitarioa ezartzea, InterRAI-CA proiektuaren ezarpen globaletik abiatuta. • Bizitzaren Amaieran Aholku Etikoen Gidan jasotako alderdiak ezartzea. • Zahartzen diren pertsonen eskaintako enplegua balioztatzea, jarduera eta aitzat hartze egokiak izateko gaitasunen eta trebezien lorpena sustatzea.
<p>23.2.3 Ekinbidea Mendekotasunari arreta emateko zentroen araudia gaurkotu, administrazioarekin kontzertazioa ahalbidetzeko xedez, mendekotasuna atenditzeko sistema arin eta eraginkor bat eskainiz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinekoentzako egoitzen eta ostatu zerbitzuen dekretu berriak onartzea. • Adinekoetan Babesgabeko Egoeren Balorazioaren Dekretua onartzea. • Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea onartzea eta indarrean jartzea. Bere onarpenak ezinbesteko mugarririk ezarri du lankidetzak publiko-privatuaren hobekuntzan, adinekoen ongizatean eragin gehiago lortuz. • Adinekoen zentroetako zerbitzu eta programa ezberdinen mapa bat lantzea, zabaltzeko xedez eta beren modalitate ezberdinetan zentro hauek duten eragina ebaluatzeko. • Erkidego Autonomoko adinekoentzat eskuragarri diren gizarte baliabideen gidak lantzea.

ADINEKOAK

» 23.3 KONPROMISOA

ETXEAN EGOTEA AHALBIDETU, MENDEKO ADINEKOAREN HORRELA AUKERATZEN DUENEAN

<p>23.3.1 Ekinbidea</p> <p>Udal eta Foru Aldundiekin koordinatuta, zaintzailearentzako heziketa eta atsedeen programak bultzatu, era berean adinekoak ahaldunduz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinekoen senideei laguntza, heziketa eta gaitasuna eskaintzea. • Mendeko adinekoak zaintzeko ardura duen laguna zaintzea xede duten jardunen mailakako garapena, Zaintzailea Laguntzeko Telelaguntza Plana (ZLTP) abiapuntutzat hartuta. • Herritarren sentsibilizazioa adinekoen zaintza lanetan emakume eta gizonen arteko ko-erantzukizunak duen garrantziaz. • Zaintzaren auto-gestioa sustatzea, zahartze berean erantzukizun maila handiago baten gisara ulertuta. • “Murgildutako ekonomia” deitutakoa saihesteko jarduerak garatzea, zaintza lanetarako pertsonal gaitua izateko eskakizuna sustatuz. • “Irisgarritasun”etik “erabilgarritasun”era igaro etxebizitzaren esparruan, etxebizitza bertan zahartzeko prest izateaz gain, bizi diren pertsonak kontrolatu ahal dezaten eta seguru sentitu daitezen. • Etxebizitzetan irisgarritasun hobetzen laguntzea eta oztopo arkitektonikoak murrizteko laguntzak. • Laguntza teknikoak gehitzea mailaka eta etxearen ingurunean berreskuratu daitezkeen laguntza produktuak hobetzea.
<p>23.3.2 Ekinbidea</p> <p>Administrazio eta adinekoen familiaren arteko zaintza partekatuak sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena edozein motatako eginkizunetan (etxeokak, zaintza lanak...) eta aisiaren eskubidea erabiltzean. • Mendeko egoeran edo egoera sanitario larrian dagoen senidea zaintzeko laguntzak. • Behar duten pertsonak zaintzea zaintzaileen bizitza propioa egoki garatzearekin bateragarri egingo duen sistema bat ezartzea. • Zaintzaileentzako laguntza zerbitzuen eraginkortasuna berrikustea, bere eragina hobetze aldera.
<p>23.3.3 Ekinbidea</p> <p>Adinekoei zuzendutako arreta soziosanitariorako programa bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adinaren kariaz, mendeko egoeran dauden arreta soziosanitarioa errazteko jardunak sustatzea. • Adinekoen benetako beharrazanei lotutako ibilbide indibidualizatuak diseinatzea, etxean zaintzeko eredu misto bat sustatuz edo egungo familia zainketa ordeztuko duena.

ADINEKOAK

<p>23.3.4 Ekinbidea Adinekoei arreta eskaintzeko jakintza sustatu, unibertsitate eta teknologia zentroekin lankidetzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartzearen esparruan jakintzaren kudeaketa eta ikerkuntza soziosanitarioaren kontuetan jarduera berritzaileen lehenespena. • Estimulazio kognitiboa lantzen duten programak ezartzea, osasun mental ona sustatu eta desoreka mentalak aurreikusteko xedez. • Euskadin jakintzaren sorkuntzan adinekoak barneratzearen aldeko sustapena, haien bazterketa ekidinez eta adin eta generoaren ikusmoldeak gehituz euskal I+G+b-an.
<p>23.3.5 Ekinbidea Adinekoei eskaini arretan eta zerbitzuen prestazioan gizarte berrikuntza programei bide eman</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartzeko laguntza teknologia eta produktuetan berrikuntza eta ikerketa eragitea. • Adinekoen arreta kontuetan erabili Ikerketa - Ekintza - Partaidetza (IEP) metodologian oinarritutako ekimenak bultzatzea. • Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren testuinguruan programa berritzaileen ezarpena, erorketak aurreikusteari dagozkionak esaterako, eta Tele-medikuntzaren berritzeari bultzada ematea. • Informazioa monitorizatzeko eta igortzeko ingurune telematikoen garapena, eta horri esker datu klinikoak egoki monitorizatzeaz gain, arriskuak aurreikusi ahal izatea. • Sozio-hezkuntzan parte hartzeko proposamenen garapena, adinekoen artean isolamendua eta behartutako bakardadea ekidin ahal izateko. • “Silver economy” edo “zilarrezko ekonomia” sustatzea, zahartze prozesua bizitzen ari diren pertsonekin lotutako produktuak eta zerbitzuak sortzeko berrikuntza erabiliz.



24. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPETUA: AUKERAREN LEIHOA

IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPETUA: AUKERAREN LEIHOA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVrentzat berdintasunaren printzipioak ez ditu bakarrik eskubide zibilak aintzat hartze, Euskadin bizi diren lagun guztien eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak ere barneratzen ditu, beren naziotasuna edo aniztasunaren jatorria gorabehera.
- Berdintasunaren sustapenak tratuaeren berdintasuna ondorioztatzen du, beren ezaugarri fisiko, ideia, kultura, sexu orientazio edota egoera ekonomikoaren kariatz edozein motatako bazterketa edo kanporaketa debekatzen baitu; halaber, aukera berdintasuna bermatzen du, ekitate eta guztiok gizartean aukera berberak izatea ardatz, hartara, botere publikoei agindu bat ematen zaie neurriak hartu ditzaten, sustraitutako aurreiritziak jasaten dituzten zenbait taldeen gizarte desabantaila egoera orekatzeko. EAJ-PNVtik ezinbestekotzat jotzen ditugu Euskadiren kohesio sozialerako berdintasunaren hiru alderdiak: berdintasuna eskubideak parekatzeko, berdintasuna tratuan, eta aukera berdintasuna. Horrez gain, aipatu hirurok eragile garrantzitsu bi nabarmentzen dituzte, modu osagarrian: bazterketa bikoitzak edo anitzak (emakume etorkinak, esaterako) edota egoera ez bereiztearren eman litezkeen bazterketak.
- EAJ-PNVren iritziz, immigrazioa eta aniztasuna Euskadiren etorkizunerako aukera leiho bat dira. Gizarte garatuek beren etorkizun demografikoaren gaineko hausnarketari ekin diote garaiotan-jaiotze tasaren beherakada, zahartzea eta haren ondorio ekonomiko zein sozialen gainean-zaintzaren beharrianak ugaltzea, populazio aktiboaren murrizketa. Hortaz, itxaropenez hartu behar dugu munduko beste leku batzuetatik datozen lagunak Euskadi aukeratzea bizitzeko, haien energia eta bizitasuna eskainiz eta partekatuz.

- Immigrazioak ondorio ekonomiko positiboak oso ondorioztatzen ditu gizarte jasotzaileentzat, populazio aktiboaren igoera eta emakumeen aktibitate-tasaren gehikuntza laguntzen baititu, horri esker, diru-kutxa publikoak betetzen ditu zerga zuzen eta zeharkakoei eta gizarte segurantzari egin kotizazioei esker, kontsumoaren gehikuntza bideratuz eta enpresa ekimen berriak sortuz.
- Immigrazioa ez da gertaera iragankor edo koituntural bat, errealitate estruktural bat baino. Hortaz, kontu zehatzak oinarri, integrazioaren alde egingo dugu EAJ-PNVn, eguneroko bizitzatik, gizarte honetan bizi garen norabide biko prozesu dinamikotzat hartuz.
- Immigrazio politikak bere eragin mankomunatu hartu behar du kontuan. EAJ-PNVren iritziz, ezinbestekoa da laneratzea eta hezkuntza uztartzea. Ikasle guztien integrazio eta sozializazio prozesuan, gizarte mailan aurrera egitea zein espazioak partekatzea, elkar ezagutzea eta estimuan hartzea ahalbidetuz, eta halaber, funtsezkoa izango da hizkuntzak biak ala biak ikastea, etorkinen integratzeko tresna gisa.
- Immigrazioa gertaera globala den arren, nagusiki tokiko espazioan kudeatzen eta bideratzen dira integrazioa, gizarte kohesioa eta bizikidetzak. Hartara, herritarrengandik hurbilenean diren instituzioen -udalak- eginkizuna funtsezkotzat jotzen dugu jasotze, laguntza, zerbitzuen eskaintza eta bizikidetzak inter kulturalaren esparruan.
- Era berean, gure ustez, hirugarren sektorearen rola erabat nabarmena behar du izan inter kulturalitatearen kudeaketan. Beren eskumenen esparruan, zerbitzu eta politika publikoen erantzukizuna administrazio publikoei dagokiela abiapuntutzat hartuta, EAJ-PNVren iritzian, hirugarren sektoreak, bere erakunde aniztasun eta izaera askotarikoarekin, era koordinatu, ko-laguntzaile eta osagarrian jardun behar du administrazio pu-

blikoekin, prozesu horren epe, sistema, baliabide eta programa guztietan, etorkin garapenerako lankidetzan bete-betean integratzea xede (zehazte, planifikatze, ezartze, jarraipen eta ebaluazio).

***Immigrazioaren
kontu zehatzak
oinarri,
integrazioaren
alde egingo dugu
EAJ-PNVn,
eguneroko
bizitzatik, gizarte
honetan bizi
garen norabide
biko prozesu
dinamikotzat
hartuz***

IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPETUA: AUKERAREN LEIHOA

- EAJ-PNVk aktiboki ukatzen ditu immigrazioaren gaineko diskurtso estigmatizaille guztiak. Lan horretan, funtsezkoa da lankidetzan aritzea komunikabideekin zein etorkinen aurkako topiko eta estereotipoei aurre egiten dieten sareekin, zurrumurruen aurkako sare bat eraikiz tokiko instituzio eta gizarte erakundeekin batera.
- Erabat sinetsita gaude integrazio, hiritargo eta bizikidetzaren inter kulturalaren gaineko politikak herritarrei zuzendutako politika publiko guztietan zeharkako eran gehitu behar direla. Hartara, EAJ-PNVtik lidergo partekatua alde egingo dugu, hiritargo eta immigrazioaren politiken kudeaketan parte hartzen duten administrazioen organo egonkorren bidezko koordinazio eta artikulazioan oinarrituta. Era berean, gure ustez, integrazio eta bizikidetzaren inter kulturalaren politika publikoen formulazioa, haiek gauzatzea eta diseinua gizarte zibilaren eta erakundeen partaidetza eta ko-erantzukizunarekin egin behar dira.
- Aniztasuna gure historiaren eta gure izaera kolektiboaren funtsezko parte bat da. Euskal gizartearen berezko aniztasunari gehitzeko eta konplexuago egiteko ondorioa ekarri du immigrazioak. Kultur aniztasuna, multikulturalitatea edo aniztasun identitarioa ez dira berez arazo ez idealak, ahalik eta erarik demokratikoenean kudeatu beharreko errealitateak baino.
- Era berean, sexu-orientazioa eta genero identitatea giza pertsonalitatearen ezaugarri dira eta bere identitate indibidual eta kolektiboaren jatorri. Hortaz, norberaren sexu orientazioa edo genero identitatea aske bizitzeko eskubidea eta beldurrik gabe haiek adierazteko giza eskubide dira, hitzaren zentzurik bete betean.
- Sexu orientazioa eta genero identitatea funtsezkoak dira pertsona ororen duintasun eta gizatasunerako, ezin dira inondik bazterketa edo abusurako arrazoi izan. Bortizkeria modu ezberdinak ematen dira lesbiana, bisexual eta transgenero kolektiboaren (LGTBI) aurka. Bazterketen konplexutasun eta larritasunari heltzea botere publikoek indarkeria zein bazterketari, indarkeria horren jatorri, aurre egiteko duten beharra azpimarratzea da.
- Pertsona lesbiana, gay, transexual eta bisexualek bizi duten egoeren konplexutasunak eta aniztasunak ahalik eta heldze indibidualizatuena eskatzen dute jardun publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzerako. Hortaz, EAJ-PNVtik zeharkatasuna eta partaidetza sustatuko ditugu, aniztasun sexualaren babesean beharrezko laguntzak ikusarazteko xedez beharrezko tresna eta egiturak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko.

IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPECTUA: AUKERAREN LEIHOA

» KONPROMISOA 24.1

INSTITUZIOEN ARTEAN ESTRATEGIA EGONKOR ETA HEDAPEN HANDIKO BAT HEDATU
IMMIGRAZIOAREN ALDEKO HERRIALDE GISA ADOSTU ITUN BATEN BIDEZ

<p>24.1.1 Ekinbidea Arrazakeria eta xenofobiaren aurka borrokatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio eta komunikazio politika berri bat bultzatzea, pertsona eta kultura guztiekiko errespetua sustatzeko. • Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinen artean zeharkako lankidetzak akordioak dinamizatzea, sentsibilizazio, formazio eta aniztasun eta kultur artekoari arretaren gainean Biltzen Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizkidetzaren Euskal Zerbitzutik. • Immigrazio, hiritargo eta kulturarteko bizikidetzaren zeharkako politika diseinatu, gauzatu eta ebaluatzen beharrezko tresna eta mekanismoak garatzea. • Eragile, instituzio eta talde politikoen artean beharrezko adostasunak sustatzea, Immigrazioaren eta Aniztasunaren Aldeko Ituna sozializatzen. • “Aurre-iritzi eta estereotipoetan” oinarritutako diskurtsoak borrokatzen ekimenak ZAS! (Zurumurruren aurkako Sarea) indartzea, aurre-iritzi faltsuak hedatzen dituzten zurumurruei aurre egiteko sare baten sustapenaren bidez.
<p>24.1.2 Ekinbidea Etorkinen integrazioa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinei zerbitzu publikoak berdintasunezko baldintzetan eskuragarri jartzeko neurriak bultzatzea, Administrazioarekin erlazio erraza ahalbidetuz. • Osasun eta gizarte zerbitzuak, etxebizitza, justizia eta segurtasuna normaltasunez eta berdintasunean eskuragarri izatea bermatzea. • Kulturarteko gaitasunetan eta aniztasunaren kudeaketan zerbitzu publiko ezberdinen (hezkuntza, osasungintza, enplegua, gizarte zerbitzuak, etxebizitza, justizia, segurtasuna) langileak hezteari bultzada ematea. • Euskararen ikasketa laguntzea, gizarte integrazioaren mekanismo gisa. • Aisia eta kirol esparruetan interbentzio komunitarioa sustatzea, integrazio eta elkar ezagutza bitartekari gisa. • Europako Giza eta Migrazio Krisiaren aurrean erantzuna koordinatzeko protokolo bat garatzea.
<p>24.1.3 Ekinbidea Kulturarteko bizikidetzak eta aniztasunaren kudeaketa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arrazakeria eta bazterketaren aurka diharduten Europako kulturarteko eskualde eta hirien sareetan partehartzea, praktika egokiak trukatzeko eta aniztasuna aukera gisa kudeatzeko politika publikoak hobeto diseinatzeko, berrikuntza, sorkuntza eta aurrerapen ekonomiko eta sozial gisa.
<p>24.1.4 Ekinbidea Etorkinei arreta eskaintzeko berezko politika bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen arteko etengabeko elkarriketa bat ezartzea, immigrazioarekin eta errefuxiatuei arreta eskaintzeko politika guztiak koordinatu xedez. • Euskadin bizi diren lagunei laneratzea erraztea, enplegarritasunean diren oztopoak eta mugak (legezkoak, hizkuntzakoak, heziketakakoak...) ezabatzen lagunduz. • Etorkinen eta beren seme-alaben eskola arrakastaren maila igotzeko ekimenak garatzea, eta halaber, etorkin jatorriko ikasleak derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak egitera bultzatzea. • Euskadiko herritar etorkinen integrazio eta gizarte partaidetzarako foroak sustatzea.

IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ERRESPETUA: AUKERAREN LEIHOA

» 24.2 KONPROMISOA

ANIZTASUN AFEKTIBO SEXUALAREN ERRESPETUA SUSTATU

<p>24.2.1 Ekinbidea Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboak eta erakundeak sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarte, kolektibo eta erakundeak laguntzeko subentzioen tresnen berrikusketa. • Eragile ezberdinen espezializazioaren bultzada, laguntza zerbitzuen eskaintzaren osagarritasuna sustatuz.
<p>24.2.2 Ekinbidea Era berean-tratu berdintasun eta bazterketarik ez sarearen lana diseinatu, ezarri eta ebaluatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lesbiana, gay, transexual eta bisexual, ijito edo etorkinei aholkularitza eskaintzea, gorrotozko edo bazterketa delituekin lotutako prozesuetan. • Gorrotozko edo bazterketa delituen kontuetan administrazio publikoei zeharkako moduan informatzea, hezitzea, aholkatzea eta orientatzea. • Dibulgazio materialak eta sentsibilizazio kanpainak diseinatzea.
<p>24.2.3 Ekinbidea Sexu orientazio eta genero identitate arrazoiengatik ez baztertzeko berdindu! 2016-2020 Lan plangintza diseinatu, ezarri eta ebaluatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lesbiana, gay, transexual eta bisexual, eta beren inguruneari, arreta eta aholkularitza eskaintzea, sexu edota genero orientazioarekin lotura duen edozein gaietan. • Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboarekiko berdintasun eta ez bazterketa politikak zehaztean diseinua eta aholkularitza. • Gizarte sentsibilizazio kanpainak burutzea. • Erakunde asoziatibo eta kooperazioan jarduten dutenekin koordinazioa. • Hezkuntzaren komunitateari informazioa eta arreta eskaintzea, gizarte eragile ezberdinei, komunikabideei eta gizarteari oro har, LGBTIfobia ezabatzeko xedez. • Ikastetxeetan aniztasun sexuala eta LGBTI bazterketa arazoak jorratzeko interesa agertzen duten irakasleak hezitzea eta aholkatzea, Berdindu Eskola programaren bidez.
<p>24.2.4 Ekinbidea Ikerketa eta sakontze teorikoa sustatu, genero identitatea eta dibertsitate sexuala ukatzen duten teoria eta ideologiak saihestuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Dibertsitate afektibo-sexualaren esparruan jakintzaren garapena laguntzeko ekimenak martxan jartzea. • Aniztasun afektibo sexualaren gaineko "aurre-iritzi eta estereotipo"etan oinarritutako diskurtsoak borrokatzea zuzendutako ekimenak indartzea. • Aniztasun afektibo sexualari errespetua sustatzeko politika publikoen praktika egokiak identifikatzea eta hedatzea.



25. BEHARTSUEI LAGUNTZEA

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Giza eskubideen, askatasunaren eta giza duintasunaren erabilpena herritarren gizarte eta politika bizitzaren muinean dago. Haren izaeragatik, gizaki orok mezezi du giza duintasunari zor zaion errespetua.
- EAJ-PNVren aburuz, gizarte kohesioa elkarrekin bizitzeko, baliabideak eta baloreak partekatzeko modu bat da, eta gizarte batean diren ezberdintasunak errespetatzeko eta ulertzeko. Bada, praktikan jarri ahal izateak gizarte justizia eskatzen du, eta halaber, inklusioaren eta herritarrek eskubideak eraginkor erabiltzearen aldeko politika publikoen garapena eskatzen du, gizartearen mailarik ahulenen aldeko ekimenak lagunduz.
- EAJ-PNVn Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finkatzearen alde egiten dugu, erantzukizun publikoaren sistema gisa eratua, titularitate publikoko eta pribatu kontzertatuko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatua. Ildo horretan, euskal administrazio publikoek eta Hirugarren Sektorere Sozialeko erakundeen bermatu egin beharko lukete eskuragarri edukitzea enplegua, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta osasuna, beste alderdi batzuen artean.
- Beharrezkotzat jotzen dugu Euskadiko Hirugarren Sektorere Sozialari publikoki bere iritzien berri emateko eta trukatzeko aukera eskaintzea administrazioaren ekimen esparru guztietan, elkarrizketa ireki, garden eta ohiko bat mantenduz gizarte politiken gainean, mahai-elkarrizketa zibilak abiarazteari esker, kontsulta organoetan eta xede horrekin garatzen diren prozesu espezifikoetan partehartuz.
- Orobat, izaera orokorreko politikak eta jardun ildoak sustatuko ditugu, jardun publikoko edozein alorretan, ahuldade, bazterketa, babesgabetze, ezgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden

pertsona, familia, kolektibo edo komunitateen beharrianak eta eskaerak kon-tuan izanda.

- EAJ-PNVren iritziz, herritar guztiei arreta berdina eskaintzeko modu bakarra interes pertsonalak eta alderdikoak albo batera uztea da, eta baldintza berberetan kalitateko zerbitzuak eskaintzea. Ekitatearen ikuspegitik, gizarte politikak aukera berdintasuna sustatzea dute xede. Berdintasunaren ikusmoldeetik, politika horiei esker gizarte taldeen arteko ezberdintasunak murrizten dira eta herritar guztiek izan behar dituzten gutxiengo maila batzuk eskaintzen dira. Birbanatze politiken oinarria dugu honako hau.
- Euskadin gizarte interbentzioaren esparruan herritarren gizarte partaidetza sustatzearen alde jokatu dugu. Horretan diharduten administrazio publikoek zein hirugarren sektoreko erakunde eta enpresek erabiltzaileen partaidetza zuzena sustatu beharko dute, beren antolakuntza eta zerbitzuetan partaidetza talde dinamikak bultzatuz, partaidetza indibiduala jorratzen duten sistema klasikoek gain.

***Herritar guztiei
arreta berdina
eskaintzeko modu
bakarra interes
pertsonalak eta
alderdikoak albo
batera uztea da,
eta baldintza
berberetan
kalitateko
zerbitzuak
eskaintzea***

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

» 25.1 KONPROMISOA

BEHARTSUEI GIZARTE LAGUNTZA BERMATU

<p>25.1.1 Ekinbidea Gizarte laguntzak hobetu, gizarteratzea lagunduz, marjinazioaren kronifikazioa saihestuz, diru-sarrerak bermatzeko erretaren balioztatzea indartu, gizarte kohesioaren tresna gisa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatzea. • Instituzioen arteko Batzorde Tekniko bat osatzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagozkion alderdi guztiak hobetzeko eta gizarte kohesioaren tresna gisa sendotzeko. • Lanbideren Orientazio Zerbitzuan, gizarteratze ibilbide pertsonalizatuak tinkatzea, partehartzaile bakoitzari kalitate gehiagoko jarraipen bat egiteko xedez laneratze prozesuetan. • Mailaka, gizarte izaerako klausulak gehitzea administrazio publikoaren kontratazioa arautzen duten baldintza agirietan. • Bi urteroko maitasunaz, etxebizitza egoera larrian dauden lagunen estatistika mantentzea, EAEko hiru hiriburu eta beste udalerrri batzuekin batera. • DBE jasotzen duten lagunei zuzendu heziketa programak eta lan eskaintzak sustatzea, bazkerketa egoera kronifikatu ez dadin. • Arreta berezia eskaintzea DBEren onuradun gisa hiru urte baino gehiago eman duten lagunei, lan merkatuan lehen-tasunez murgildu daitezzen.
<p>25.1.2 Ekinbidea Pertsona behartsuenei zuzendutako gizarte larrialdietarako laguntzak mantentzea bermatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarteratzerako Euskal Plan berriaren garapena, berriro orientatu eta formulatu beharrekoa, 2013an egin bezala, 2020rako Euskal Enpleguaren Estrategian egokitze aldera. • Egun erabiltzen diren banaketa irizpideak mantentzea, objektiboki egiaztatu daitezkeen prekarietate ekonomikoaren egoeran bizi diren lagunen portzentajerik handiena jasotzen baitute. • Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) aurrekontuaren dotazioa igotzea hurrengo hiru urteetan, 2017, 2018 eta 2019an hain zuzen ere, horrela bada, Eusko Jaurlaritzak, konpentsatzeko mekanismo gisa, mailaka kopuru handiagoa emango die udalei, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan, GLL-ek estaldura eskaintzen duten egoeretara zuzentzeko.
<p>25.1.3 Ekinbidea Gizarte politiken eta emandako laguntzen fiskalizazioa, iruzurraren kontrolari arreta berezia eskainiz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Tokiko erakundeekin koordinazioa bultzatzea, GLL-en kudeaketan jarraibide komunak ezartzeko. • Laguntza sozialen sistemaren eraginkortasuna aztertuko duten aldizkako ikerketak egitea, eta horrez gain, Estatuko ereduarekin eta Europakoekin alderatzeak burutzea. • Laguntzen zenbatekoen eta laguntzak jasotzeko unitateen ezaugarrien gaineko hileroko garapenaren txostena. • Lanbideren Kontrol eta Ikuskaritza Unitatea sendotzea, ikuskaritza eta kontrolerako beste unitate eta mekanismo batzuekin lankidetzan.

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

» 25.2 KONPROMISOA

KALITATEKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDEKO GIZARTE POLITIKA BERMATU

25.2.1 Ekinbidea

Lankidetzaren publiko-privatuaren eredu misto baterantz aurrera egin, araudiaren esparruaren garapena burutu eta sistemaren eraginkortasuna sendotu

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen eta Prestazioen karterari buruzko dekretuak jasotako prestazioak eta zerbitzuak arautzea.
- 2016-2019 aldirako Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoak jasotako ekimenak bultzatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eraginkortasuna sendotzea xede.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea onartzea.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Estrategia bat lantzea, sektore horretako erakundeen errolda bat sortzea Legea jasoko du.
- Gizarte diagnostikoaren tresna komunak orokorrean erabiltzea (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta Gizarte diagnosirako Tresna) eta, halaber, bazterketa baloratzeko erabili ohi dena (Gizarte Bazterketa Baloratzeko Tresna).
- Gizarte zerbitzuetan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeei egiten zaizkien aintzat hartze txostenekin eta interes sozialaren adierazpenekin jarraitzea.
- 2020 urtean amaituko den XI. Legegintzaldian zehar, ondorengo dekretuak onartzeko prozesuari bultzada:
 - Ko-ordainketaren Dekretua.
 - Kontzertazioaren Dekretua.
 - Ezgaituentzako Egoitza Zentroen Dekretua.
 - Ezgaituentzako Eguneko Zentroen eta Okupazionalen Dekretua.
 - Gizarte Zerbitzuen Informaziorako Euskal Sistemaren Dekretua.
 - Adinekoen Egoitzen eta Ostatu Zerbitzuen Dekretuak.
 - Gizarte Bazterketa Egoeran bizi diren Laguntzako Egoitzen Dekretua.
 - Nagusietan Babesik Gabeko Egoerak Baloratzeko Tresnaren Dekretua.
- Gutxiengo estaldurak arautzea eta, bere kasuan, Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako herri esparruen arabera dagokien gutxiengo intentsitate estandarrak.
- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritza planak lantzea.

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

<p>25.2.2 Ekinbidea Gizarte zerbitzuak eskaeraren arabera egokitu daitezen sustatu, eta zerbitzu soziosanitario berrien garapena bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ildo estrategiko soziosanitarioen mailakako hedapena sendotzea. • Egoitzetan Osabide orokortzea, adinekoen egoitza guztietara helarazteko Osakidetzaren historia klinikoa. • Historia Klinikoa Soziosanitarioa ezartzea, InterRAI-CA proiektuaren ezarpen globaletik abiatuta. • Arreta soziosanitariorako ekipoen eta koordinazio soziosanitarioaren protokoloen hedapena tinkatzea, pertsonen ahalduntzea, ibilbideak eskaintzea eta erabiltzailean kokatutako laguntza xede duen ikuspegi batekin. • Arreta pertsonalizatuan eta pertsona zentratutako telelaguntza mailaka ezartzea Bizitzaren Amaieran Aholku Etikoen Gidan jasotako alderdiak ezartzea. • Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren Dekretu berria onartzea, Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren apirilaren 5eko 69/2011koa ordeztuz. • Koordinazio soziosanitarioa lantzen duten programa pilotuak garatzea, hitzarmen eta instituzioen arteko lankidetzak akordio bidez. • Arreta soziosanitariorako lurraldeko koordinatzailearen figura sustatzea. • Arreta soziosanitarioaren lurraldeko kontseiluak garatzea. • Lankidetzak hitzarmenak ezartzea, osasun mentalari dagozkion arazoak dituzten babesik gabeko adin-txikikoen kolektiboari arreta eskaintzeko, eta bereziki, jarrera arazoak dituzten adin-txikikoentzat. • Informazio soziosanitarioaren gaineko sistema bat ezartzea eta webgune soziosanitarioa finkatzea. • Komunikazio plan soziosanitario bat lantzea eta zabaltzea. • Ikuspegi etiko-asistentziala garatzea esparru soziosanitarioan eta Euskadiko etika batzordeen koordinazio Batzordea finkatzea. • Hitzarmen soziosanitarioak berrikustea eta gaurkotzea, eskumenak dituzten administrazioen eskutik. • Esparru soziosanitarioan lankidetzak mekanismoak garatzea, baztertuta edo babesik gabe geratzeko arriskutan dauden lagunen jarraipena egiteko eta eurak laguntzeko.
<p>25.2.3 Ekinbidea Instituzioen koordinazioa eta lankidetzak publiko-pribatuaren arteko lankidetzak sustatu, gizarte zerbitzuen eraginkortasuna hobetze xedez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ezgaituen, gizarte bazterketaren, adinekoen, haurtzaroen eta familiaren esparruetan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak garatzea. • Pertsona teknikoak edo administratiboak kontratatuzko diru-laguntzak martxan jartzea eta gizarte partehartzearen esparruan administrazio publikoek jarduerak garatu ditzaten. • Balorazio, diagnosi eta orientazio zerbitzuetan ratioak hobetzeari bultzada ematea, arazoizko epeetan zerbitzuak eskuragarri izateko. • Prozedurak eta tramiteak sinplifikatzea, sisteman sartzeari dagozkionak bereziki. • Administrazioen artean, eta ekimen pribatuko erakundeekin, barne operabilitatea bultzatzea, kasu zehatz bat koordinatu, zerbitzuak eskaini eta sistema kudeatzeko. • Administrazio elektronikoa bultzatzea, informazioa on line trukitzea eta kolaborazioa laguntzeko (Informazio Soziosanitarioaren Euskal Sistema). • Eragileen artean lankidetzaren kultura sustatzea, eta halaber, lankidetzak eta kontrastatzeko prozedura eta tresna arinagoak garatzea. • Kostuen arrazionalizazioaren aurrera egitea, EAE osoko katalogoaren zerbitzu bakoitzari komunak diren kalitate estandarrak eta adierazleak zehaztearen bidez. • Ebaluazio eta etengabeko hobekuntza sistemak bultzatzea, kalitatea ziurtatzeko eta kalitate eta kostuen arteko erlazio egokia bermatzeko, bai jabe publikoko zerbitzuetan zein kontzertatuetan.

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

<p>25.2.4 Ekinbidea Adostasun zabaleko itun sozial bat sustatu, gizarte zerbitzuen aldeko sistemaren aurrerapena finkatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Zerbitzuen Instituzioen arteko organoa irmo laguntzea, horren bidez erabiltzen baititu Eusko Jaurlaritzak gainerako euskal instituzioekin bere koordinazio eskumenak. • Partaidetza eta aholkularitza organoak sustatzea: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eta Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sustatzea.
--	--

» 25.3 KONPROMISOA

AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATU

<p>25.3.1 Ekinbidea Autonomia maila gutxiagoko lagunen gizarteratze eta laneratze prozesuak suspertu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Langile ezgaituak enpresetan izaera finkoaz kontratatzeko laguntzak sendotzea. • Enplegu Zentro Berezieta Jarduera Profesionalerako Laguntza Unitateak osatzeko laguntzak indartzea. • Enplegu Zentro Berezieta langile ez gaituei enplegua mantentzeko laguntzak tinkatzea. • Enpresa ideia berrien sustatzaileak laguntzeko diru-laguntzak tinkatzea, ekintzailatza tokiko proiektuen esparruan. • Gizarte ekimena babestea interbentzio sozialean diharduen Hirugarren Sektorari urteroko laguntza ekonomikoan aginduaren bidez. • Autonomia maila gutxiago duten lagunentzat prebentzio eta gizarte zein laneratzean laguntzeko programak sustatzea. • Heziketa programak ezartzea, bereziki zama familiarrak dituzten emakumeei eta epe luzeko langabetuei zuzendua, ondoren lan merkatuan edota heziketakoan murgildu daitezzen.
<p>25.3.2 Ekinbidea Bizitza independentearen ereduak izan eta mendekotasun egoerei aurre hartzeko neurriak sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez egonkortuzat jotzen diren zerbitzuak sustatzea, Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusi bezala, zaintzaileei laguntza eskaintzeko eta atseden nahiko izan ahal izateko, bizitza independentea babesteko sistema bat ezarri. • Beste sistema batzuekin batera, autonomiaz gizarteratzea sustatzeko estrategien garapena eta mendekotasunari aurre egiteko eta zahartze aktiboa gozatzeko programak.
<p>25.3.3 Ekinbidea Bazterketaren espirala gelditzeko elementu nagusi gisa hezkuntza bultzatu, absentismo eta eskolatu gabeen tasa murriztu, eta aldi berean, haur hezkuntza eskuragarri jarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Saitetik gizarte-egoera ahuleko kolektiboentzako ekintza espezifikoak indartzea, ikasle guztien artean aukera berdintasuna bermatze aldera. • Hezkuntza Saitetik, laguntza eskaintzak bideratzea familiei beren seme-alabak Haur Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte bitartean) sartzen laguntzeko. • Aniztasunaren arretarekin lotutako programak garatzea (Bidelaguna eta PROA programen antzekoak) Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasteari goiz lagatzea ekiditeko xedez.
<p>25.3.4 Ekinbidea Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazioa eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbideren -Euskal Enplegu Zerbitzua- eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea. • Lanbide eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen artean finantzatutako gizarteratze eta laneratze zenbait proiektu pilotu garatzea. • Lanbiderekin kolaboratzea enplegarritasun zaila duten lagunei arreta eskaintzen dieten ekintza protokoloak lantzeko. • EAEko udalen eta Lanbideren artean koordinazio hitzarmenak indartzea. • Laneratze xedez, diru-sarrerak edota laguntzak bermatzeaz gain, gizarteratze lehentasunezko laguntzak behar dituzten lagunei arreta eskaintzen dien sistema bakoitzaren funtzioak mugatzea.

BEHARTSUEI LAGUNTZEA

» 25.4 KONPROMISOA

PERTSONA GUZTIENTZAT BIZITZA DUIN BAT SUSTATU ETA LAGUNDU

<p>25.4.1 Ekinbidea Etxebizitza, emantzipazioa, eta bizitza independentea erraztu, bizitza proiektu bat garatzea ahalbidetzen duten tresnak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaixotasun mentala, adikzioak... dituzten lagunen bizitza independentea erraztea xede duten neurriak garatzea. • Kolektibo ahulenei etxebizitzak erreserbatzea eta Hirugarren Sektoreko erakundeei etxebizitzak lagatzea, bazterketa egoeran dauden lagunak babesteko programak garatzeko xedez. • Gizarteratze eta laneratze proiektu pilotuak garatzea, heziketa laguntzaz eskainiz batera, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren artean finantzatutakoak.
<p>25.4.2 Ekinbidea Ahuldade berezia jasaten duten kolektiboei aukera berdintasuna bermatu, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lortzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016-2020rako Etxerik gabeko Lagunen Euskal Estrategiaren inplementazioa. • Etxerik gabeko lagunak zerbitzu normalizatuetan integratu daitezzen bultzatzea. • Gainerako gizartearen artean etxerik gabeko lagunen egoeraz sentsibilizazio ekintzak sustatzea. • Prostituzioan aritzen diren pertsonak gizarteratzearena aldeko sustapena, gizarte justizia eta aukera berdintasun ikuspegi batetik, haien estigmatizazioa eta bazterketa saihestuz eta arreta integral eta pertsonalizatu bat eskainiz, beren beharrezanekin bat eginez. • Zigor edota kartzela arazoak jasaten dituzten lagunen gizarteratzea eta laneratzea babestea, ikuspegi sistematiko batetik, laguntza integrala eta pertsonalizatua eskainiz.

» 25.5 KONPROMISOA

GENERO INDARKERIA EZABATU

<p>25.5.1 Ekinbidea Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta hobetu, instituzio eta sailen arteko koordinazioaren bidez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Lege bat sustatzea, haiei ordain ekonomiko eta morala eskaintzeko, gizartearen aintzat hartzeko, neurri zehatzekin. • Lanbiden arreta eredu bat ezartzea mailaka, kolektibo ahul horri eta beste batzuei, zerbitzu hobetuei eskaini ahal izateko. • Osasun zentroekin (Lehen Mailako Arreta) koordinazio protokoloak ezartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan koordinazio eta ebaluazio bide iraunkorrak eta partekatutako ekintzak uztartuz. • Emakunderekin koordinazio mekanismoak hobetzea. • Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan lanean ari diren zerbitzu eta instituzioen arteko koordinazioa hobetzeko ikerketa bat burutzea. • Genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko telefono zerbitzu bat sustatzea.
---	--



26. GARAPENERAKO LANKIDETZA

GARAPENERAKO LANKIDETZA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Martxan jarriko ditugun garapenerako lankidetzak ekimen eta prozesu guztien xedea pobrezia-aren fenomenoaren eragiten eta mantentzen duten egitura ororen eraldaketan lagungarri izatea izango da. Beste edozein motatako helburuk edo interesik ez du lekurik izango euskal kooperazioaren barnean, “finantza edo merkataritzaren aldetik onurarik, enpresa izaerako kokapenik edo proso-litismo ideologikorik ez erlijiosorik, ezta, edozein motatako bezero sareak lortze-rik espero ez duen lankidetzak konpromi-so baten gisara” ulertzen baitugu.
- EAJ-PNVren iritziz, euskal lankidetzak hegoaldeko herriek eurek ezarritako garapen prozesu propioak finkatu eta izan behar ditu oinarritzat. “Kultura, idio-sinkrasia, eta gizarte zein administrazio antolakuntza egiturei, eta baita tokiko komunitate, gutxiengo, herrien erabaki-tze prozesuei, giza eskubideen, inguru-nearen eta nazioarteko konpromisoetan hartu konpromisoen aurkakoak ez badira betiere” (1/2007 Legearen 3.2 artikulua) zor diegun errespetuan oinarritu behar da euskal lankidetzak. Orobat, “kultur, ekonomia eta ideologiaren ereduak inposatzeko inongo asmorik gabeko” (1/2007 Lege-aren 3.3 artikulua) izaera adierazten du.
- Xede dugun garapenerako lankidetzak ereduak irmo lortu nahiko du neurtutako eragin bat funtsezko aldaketak sortzeko, eta egitura zein baloreak eraldatzeko, bai hegoaldean zein iparraldeak, eta ez bakarrik beharizanek asetzeko edo hobekuntza koiunturalak lortzeko.
- EAJ-PNVren aburuz, giza garapen jasangarria Nazio Batuen Asanblada Orokor-rrak bere egindako Agenda 2030tik ondorioztatutako paradigma berri bat dugu, iparraldeak zein hegoaldeak partekatzen dugun helburua dugu, planetan bizi diren hiritargo unibertsalean oina-

rrituta. Garapena, hortaz, ez da bakarrik pobretutako herrialdeen kontu bat, bai-zik eta funtsezko gaia nazioarteko harre-manetan. Ildo horri jarraiki, lankidetzak ekimen ezberdinen xede eta ikuspegiak parte hartzen duten eragile guztiek onartu ditzatela ezartzen duen printzi-pioaren alde egingo dugu.

- Eraginaren sakontasunean, eta helburu, adierazle, eta ikerketa, identifikazio, jar-raipen eta ebaluaketa sistemei dago-kienez ondo zehaztutako estrategietan oinarritutako lankidetzak sustatuko dugu. Eraginaren kalitatea hobetze aldera, ekimen ezberdinetan parte hartzen du-ten erakunde eta instituzioen kalitatea indartzea ezinbestekoa dela uste dugu, bere iraunkortasunaren berme gisa.
- Baliabideen izaera mugatua kontuan izanda, gure ustez, garapenerako lan-kidetzaren eragileek eta tresnek xede horretarako erabilitako baliabideak era-bili eta ezartzean kudeaketa eraginkor bat bermatu behar du, gardentasunaren ikuspegitik betiere.
- EAJ-PNVn erabat sinetsita gaude, xede beraren atzetik diharduten eragile ez-berdinen arteko koordinazioak bakoit-zak bere aldetik lortu ditzakeen emai-tzak gainditzen dituela. Hortaz, siner-giak sortu behar dira, prozesu ezberdi-nak uztartu eta ahaleginak gehitu, ekint-zen eragina handitu ahal izateko. Finean, eragileen artean aliantzak eta plan koor-dinatuak sortzearen alde egingo dugu.
- Era berean, lehentasunak eta estrate-gia espezifikoak zehaztu behar ditugu, ahalmen mugatuen aurrean. Euskal ere-dua lankidetzak eredu espezifiko bat da (eraldatzailea, kalitatekoa, koordinatua eta koherentea), pobrezia estrukturala-ren kontrako borrokara zuzendua. Bere konplexutasunean eta integritatean eredu hori garatu ahal izateko, haren ezaugarri eta ikuspegi guzti guztiak ber-

matuz, aukeratu eta lehenetsi beharrean gaude, era horretan xedeak, estrategiak, tresnak batetik; eta ditugun ekonomia, giza, antolakuntza eta ahalmen tekni-koak, bestetik, egokituz.

***EAJ-PNVren
aburuz, giza
garapen
jasangarria Nazio
Batuen Asanblada
Orokorrak
bere egindako
Agenda 2030tik
ondorioztatutako
paradigma
berri bat dugu,
iparraldeak
zein hegoaldeak
partekatzen dugun
helburua dugu,
planetan bizi
diren hiritargo
unibertsalean
oinarrituta***

GARAPENERAKO LANKIDETZA

» 26.1 KONPROMISOA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EREDUA FINKATU ETA LANKIDETZAREN EUSKAL EREDUA GAURKOTU

<p>26.1.1 Ekinbidea Euskal eragile publikoen arteko elkar harremanean sakondu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Nazioarteko garapenerako lankidetzari politikei aurrekontu bat hornitzeko konpromisoa sustatzea, gainerako euskal erakunde publikoekin bat eginda eta koherente izanez. Euskal instituzio publiko ezberdinek ko-finantzaturako jarduerak eta proiektuak bultzatzea. Garapenerako lankidetzari kontuetan Batzorde ezberdinak eta Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Eudelen arteko esparru bateratuak indartzea.
<p>26.1.2 Ekinbidea Euskal lankidetzari mapan kokatu (eragileak, zeharkakoak, sektorialak, geografikoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskal elkartasun mugimenduaren gaineko (eragileak, sektoreak, geografikoa) mapa deskriptibo bat lantzea. Euskal lankidetzari publikoaren ezaugarri espezifikoak zehaztea, eragile bakoitzaren rola, jarduerak modu eta gune nabarmenenak. Zeharkakoak gehitzeari bultzada ematea. Giza Ekintza Estrategiarako ikerketa espezifiko bat garatzea. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategiarako ikerketa espezifiko bat garatzea.
<p>26.1.3 Ekinbidea Garapenerako lankidetzari jarduten duten euskal eragileen ahalmenak, trebeziak eta gaitasunak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ditugun eta gura ditugun ahalmenak, trebezia eta gaitasunak gaineko diagnostiko bat garatzea. Sendotze ekintzak bultzatzea, aurreitazko diagnostikoaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekintzen (tresnak, estrategiak...) eraginpekoak.
<p>26.1.4 Ekinbidea Garapenerako lankidetzari jarduteko berrikusitako eta berritutako tresnak eduki, eta estrategia espezifikoak ezartzea bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Egungo tresnen azterketa eta ebaluazioa. Euskal lankidetzaren berezitasunari egokitzeko multzo bat proposatzea, haren malgutasuna indartuz eta zama burokratikoak gutxituz. Giza-Ekintzaren Estrategia zehaztea eta garatzea. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia zehaztea eta garatzea.

» 26.2 KONPROMISOA

LANKIDETZAREN GAINEKO EBALUAZIOAREN KULTURA BAT SUSTATU

<p>26.2.1 Ekinbidea Ebaluazio eta etengabeko hobekuntzarako dinamika bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio Plan bat diseinatzea eta ezartzea. 2014-2017rako III. Garapenerako Lankidetzari Plan Estrategikoaren ezarpenaren eta emaitzen gaineko ebaluazioa. Aipatu ebaluazioaren ondorengo aholkuak gehitzea IV. Garapenerako Lankidetzari Plan Estrategikoari. Beste eragile batzuen ebaluazio plan/politiken azterketa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatutako edo finantzaturako ebaluazioak sistematizatzea/biltzea.
<p>26.2.2 Ekinbidea Lankidetzaren esparruan jakintzaren kudeaketan hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web atarian hedapen/ikasketa gune bat sortzea. Urteroko memoriaren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearen arteko Batzordearen eta jardunaldien bidez ebaluazioen emaitzak eta ikasketak sozializatzea.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

» 26.3 KONPROMISOA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN GAITASUNAK INDARTU, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN POLITIKA DISEINATU ETA KUDEATZEKO

<p>26.3.1 Ekinbidea</p> <p>Garapenerako lankidetzaren euskal agentziaren modernizazio administratiboa eragin, kudeaketa eraginkorrago eta efikazago bat babestuz, eta kalitateko laguntza babestutako ekimenei</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren giza baliabideen gaitasunak egokitzea eta sendotzea, hauen lan postuek eskatzen dituzten funtzio eta eginkizunen beharriaren arabera. • Kudeaketa sistemak, informazioaren sistematizazioa eta datu ustiapena hobetzea. • Jarraikotasunez eta egiaz laguntzea babestutako ekintzak (batzorde mistoak, ebaluazioetan partehartzea, jarraipen bidaia...). • Laguntzak eskatzeko sistema eta subentzioen finantza justifikazioa arintzea.
<p>26.3.2 Ekinbidea</p> <p>Planifikazio eta kontu emate prozesuak hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Komunikazio Plan bat diseinatzea eta ezartzea. • Kontrol organoen aurrean kontu emate egokien prozesuak bultzatzea: Legebiltzarra, Arartekoa, Kontuen Epaitegia... • Agentziaren web atariari bultzada ematea, informazio eta gardentasun tresna nagusi legez. • Aurrekontuaren betearazpenari jarraipena egitea eta Garapenerako Lankidetzaren Lau Urteko Plan Estrategikoen eta Urteroko Planen betearazpen eta betetzearen gainean kontuak ematea.
<p>26.3.3 Ekinbidea</p> <p>Garapenerako lankidetzaren euskal agentzian genero transbertsalizazioa gehitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketaren alderdi hori jorrazteko gune administratibo espezifikoak finkatzea. • Genero ekitatearen aldeko antolakuntza kultur alaketaren prozesua ezartzea Agentzian. • Tresnetan genero ikuspegia gehitzearen berrikusketa.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

» 26.4 KONPROMISOA

LANKIDETZA POLITIKA KOHERENTEAGO, KOORDINATUAGO ETA PARTE-HARTZAILEAGO BAT EDUKI

<p>26.4.1 Ekinbidea</p> <p>Garapenerako lankidetzaren (GL) politika publikoetan koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • GLren egungo egoeraren gaineko ikerketa eta bikaintasunerantz ibilbide-orria ezartzea. • Eusko Jaurlaritzaren baitan GLren gaineko lan esparru bat sortzea sailen artean. • Ekimenak berrikustea eta lan ildo komunak edo osagarriak zehaztea (deialdiak, ebaluazioak...). • Informazioa sistematizatze gaitasunak sortzea, datuen ustiapena errazteko. • Estrategia eta tresnen partaidetza eta sozializazioa sustatzea. • Txosten bat lantzea garapen publikorako politiken koherentzia printzipioaren betetze mailaren gainean. • Euskadirako eragileen erregistro bakarraren aukera aztertzea. • Bateratutako lanerako eta elkarrizketarako egiturak aktibatzea, horri esker Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren (GLEK) baitan partehartze egokia eta eragileen koordinazioa lortu ahal izateko.
<p>26.4.2 Ekinbidea</p> <p>Estatu, Europa eta nazioarte mailan aliantzen garapena sustatu, ekimen estrategikoak abiarazteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Foroetan eta lan esparruetan partaidetza sustatzea, lankidetzaren deszentralizatuari balio erantsia emateko. • Hitzarmenen bidez ekimen estrategikoak artikulatzea. • Finantzaketa tresna berriak erabiltzeari bultzada ematea eta babestea, Europar Batasunetik datozenak bereziki.



27. GENERO BERDINTASUNA

GENERO BERDINTASUNA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- Berdintasuna, demokratikoa deitzen den edozein gizartek errespetatu eta sustatu behar duen giza eskubidea dugu eta gizarte osoari ekartzen dio onurarik. Berdintasunari esker, bai emakumeek bai gizonek beren garaitasun guztiak garatu ditzakete, eta erabakiak hartu genero estereotipoek inposatutako mugarik gabe. Errespetu, jakintza, ongizate eta demokrazia gehiago ondorioztatzen du.
- EAJ-PNVren iritzian, berdintasunak pertsona guztien autonomiaren garapenean laguntzen du esparru pertsonalean eta sozialean; balore solidarioak eta ez jerarkiakoak indartzen ditu, lankidetzan, elkarrenganako errespetuan eta autoritate pertsonalean oinarritutako harremanak ezarriz; zaintzetan ko-erantzukizuna sustatzen du: harreman afektiboak berdinetik berdinerara eta aniztasuna errespetatuz garatu ahal izatea errazten du; eta horri guztiari esker demokrazian aurrera egiten laguntzen du, gizarte justuago, bateratuago eta garatuago bat eraikitzeko.
- Gure ahaleginek pertsona guztien artean benetako aukera berdintasuna garatzea dute jomuga. Bizikidetzatza proiektu sendo bat eraikitzeko, berdintasuna eta identitatea osagai nagusi gisa sustatzea izango da EAJ-PNVren konpromisoa. Aukera berdintasuna, emakumeen ahaldundutza eta, gizarte orekaren eta elkartasunaren eragile gisa, aniztasuna errespetatzea izango da gure apustua.
- Lotura estua dago berdintasun, bikaintasun eta berrikuntzaren artean. Jakin davigu enpresek serio jokatzan dutenean berdintasunaren alde, ez direla bakarrik justizia sozialarekin enpresa konprometitu bihurtzen, beren errendimendua, kalitatea eta berritzeko gaitasuna hobetzen duten enpresak bilakatzen baitira. Hortaz, berdintasuna apustu estrategikoa dugu.
- EAJ-PNVren ustean, Euskadiren garapena aukera berdintasunetik bakarrik eraiki daiteke, eta oso bereziki emakume eta gizonen arteko lan aukerak eta baldintzak parekatuz. Jakintzak eta talentuak ezberdintasunak nabarmentzen dituzten mundu batean, erakundeek ezin dute beren aukeren %50 alferrik galdu. Emakumeek euskal enpresa sarean, eta jakintzaren ekoizpenaren eta garapenaren esparru guztietan ere, parte hartu ahal dezaten jardungo dugu, guztion ekarpeni esker bakarrik aberastu eta hobetu baitaitezke gizarte gisa ditugu erronka eta desafiotei heltzeko gaitasunak.
- Beijingeko Biltzarretik eta Berdintasunaren Euskal Legea onartu zenetik aurrera pausu nabarmenak eman dira. Halere, aldaketok garrantzitsuak izan arren, oraindik ezin daiteke esan praktikan gizonek eta emakumeek eskubide berberak dituztenik. Bai gure herrialdean eta bai mundu osoan soldata ezberdina jasotzen dute emakumeek balio bereko lan bat egitearren, hortaz, emakume eta gizonen arteko soldaten etena irauli beharreko errealitatea da. Horretarako, ekonomia indartsuagoak eta gizarte jasangarriagoak eta generoaren ikuspegitik berdintsuagoak sortzen lagundu dezaketen politika ekonomiko eta sozialen alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Genero desberdintasuna dugu gizarte erronka nagusienetako bat, horren adierazpenik gorena eta basatiena emakumeen aurkako indarkeria da. Posible diren ahalegin guztiak jarri behar ditugu eskubideen urraketa horri amaiera emateko, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko kontzientziazio soziala indartuz, batez ere belaunaldi gazteenen artean, eta haren jatorria azpimarratuz: emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna. Lortu ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen dugu abiarazitako ekimenak sendotzea eta estrategia berriak garatzea pertsonen tresna

eta baliabideak eskaintzeko, indarkeria sexista ezagutu, antzeman eta borrokatu ahal izateko, hezkuntzaren arloa eta jarrerara sexisten prebentzioa jorratuz, era guztietako erasoen aurrean rol aktiboa jokatzera bultzatuz eta baliabide egokiak eskainiz.

- Euskadi aitzindari da berdintasun politikak garatzean, EAJ-PNVren lehendakariak buru zituzten gobernuen bultzadari esker. Ildo horri jarraiki, erdietsitako lorpenak finkatzearen, eta gure gizarte eta herrialdearen garapenerako estrategikoa den gai horretan aurrerapen berri bat eragitearen aldeko konpromisoa mantentzen dugu. Genero Berdintasunaren Adierazlean Europako bost herrialde aurreratuenen artean bere postua finkatu eta hobetuko duen Euskadi bat nahi dugu.

***Berdintasuna,
demokratikoa
deitzen den
edozein gizartek
errespetatu eta
sustatu behar
duen giza
eskubidea dugu
eta gizarte osoari
ekartzen dio
onurarik***

GENERO BERDINTASUNA

» 27.1 KONPROMISOA

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATU, GARAPEN JASANGARRIAREN FUNTSEZKO ARDATZ

<p>27.1.1 Ekinbidea Baloreen aldaketa sustatzeko estrategia bat garatu, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortu xedez</p>	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak, berdintasunaren balio sozialak eta gizarte aurreratu bat lortu aldera dituen inplikazioak barneratzeko. Komunikabideekin eta publizitate agentziekin kolaboratzea, berdintasunaren lorpenean lagundu dezaten. Herritar nagusiei zuzendutako ko-hezkuntzako materialak lantzea, haiek barneratzea eta praktikan jartzea errazteko xedez. Mugimendu eta erakunde ezberdinekin koordinatutako lana sendotzea, berdintasun kontuetan sentsibilizaziozko eginkizunekin jarraitzeko. Emakumeen eta gizonen ordezkapen orekatu bat bultzatzea sailetako eta euskal administrazio publikoen mendeko gainerako erakundeetako zuzendaritza postuetan.
<p>27.1.2 Ekinbidea Hezkuntza sistematik berdintasunaren sustapena bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeriaren gaineko ko-hezkuntza eta Prebentzio plana ezartzea ikastetxe guztietan, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak baztertzeko tresna bezala, eta halaber, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Unibertsitateetako ikasketa planetan sartzeko genero ikuspuntua, belaunaldi gazteenak heztearekin zuzenean lotutako sektore profesionalen ko-hezkuntzaren formazioan bereziki nabarmenduz. Komunikabideekin lotura duten heziketetan komunikazio eta publizitate ez sexista jorratzea, gizarte baloreak erakitzean duten eraginagatik. Esparru zientifiko-teknologikoetan emakumeak gehitu xedez, ekintza positiboan ikerketan eta sustapenean genero ikuspegia gehitzeari bultzada ematea.

» 27.2 KONPROMISOA

EMAKUMEEN LANERATZEA, ENPLEGU BALDINTZAK ETA SUSTAPEN PROFESIONALA HOBETZEA BULTZATU

<p>27.2.1 Ekinbidea Berdintasuna sustatu enpresa, erakunde eta eragile sozialetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko enpresa eta erakundeetan berdintasun planen ezarpena indartzea. Berdintasunaren aldeko enpresa publikoen sarea sendotzea, eta enpresa pribatuen artean antzeko lankidetzaren sistema bat sortzea. Neurri ekonomikoak eta sozialak bultzatzea, ordainsariaren berdintasunerantz aurrera egiteko eta soldata bazterketaren aurka borrokatzeko. Emakumeen autonomia ekonomikoa indartzen duten neurrien sustapena, beren pobrezia maila handiagoak murriztu aldera, eta umeengan duten eragina. Emakume eta gizonen partaidetza paritarioa eragitea erabakitze alorrean, bai publikoetan zein pribatuetan.
--	---

GENERO BERDINTASUNA

27.2.2 Ekinbidea

Bizitza pertsonala, familiarra eta lanaren kontziliazioa sustatu

- Enpresaren kulturaren aldaketa bultzatzea eta ordutegien malgutasuna eta arrazionalizazioa ahalbidetuko duten antolakuntza modu berriak, bizitza pertsonala, familiarra eta lanaren kontziliazioa errazago gauzatu ahal izateko, bai enpresa publikoen esparruan zein pribatuetan.
- Ko-erantzukizun publikoa eta pribatua sustatzea, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarri egin ahal izateko bide bakar gisara, eskubideak eta aukerak kaltetu gabe.
- Aitatasun eta amatasun baimenak, pertsonalak eta transferiezinak, parekatzearen aldeko sustapena.
- Emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa sustatzea, senideak eta mendeko lagunak zaintzeko baimenak erabiltzean.
- Haur eskolen sarea eta beste mendeko pertsonen laguntza eskaintzeko zerbitzuak finkatzea eta dimentsionatzea, ordutegiak eta egutegiak egokituz bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarri egiteko.
- Langile autonomoen kontziliazioaren esparruan neurri ezberdinak hartzea ahalbidetzen dieten baldintzen hobekuntza.

» 27.3 KONPROMISOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ERROTIK EZABATU, XEDE HORRETAN DIHARDUTEN GAINERAKO SAIL ETA INSTITUZIOEKIN LANKIDETZAN

27.3.1 Ekinbidea

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea xede duten ekimenen gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa indartu

- Neurri zehatzak sustatzea eta ezartzea, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeekin adostuta, beren ordain ekonomiko eta morala eskainiz eta gizartean aintzat hartuz.
- Jarrera eredu ez biolentoak sustatzea, eta sexuaren arabera pertsonak behe edo goi mailakotzat, sexu-objektu soiltzat hartuz, aurkezten dituzten irudiak edo edukiak ezabatzea, eta halaber, indarkeria justifikatu, hutsaldu edo akuilatzen dutenak, emakumeen aurkako indarkeria bereziki.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko tratamendu informazioa hobetzea, genero desberdinketa oinarritzko elementu gisa ikusi dadin eta emakumeak haren aurkako elementu gisa.
- Emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinen gaineko kontzientziazioa, desberdintasunarekin duen loturaren gainean sakonduz, herritarrei oro har zuzendutako kanpainak indartuz, gizonengan gehiago nabarmendu arren.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren eta bere adierazpen ezberdinen gaineko ezagutza sustatzea.
- Informazioa biltzeko sistema ezartzea emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, indarkeriaren biktime diren emakumeen errealitatea ezagutu eta interbentzio publikoaren kalitatea ebaluatu ahal izateko, zerbitzuak haien beharrietara egokitu xedez.
- Indarkeriaren emakume biktimeen eta bizirik atera direnen elkarrekin lana sendotzea.

27.3.2 Ekinbidea

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko kontuetan eraginkortasuna eta efikazia sustatu, erakundeen arteko koordinazioaren bidez

- Erakundeen arteko koordinazioaren tresnak (akordioak, protokoloak...) gaurkotzea, indarkeriaren biktime diren emakumei arreta hobea eskaintzeko, eta legeria aldaketei eta sortzen ari diren gizarte errealitatei egokitzeko.
- Indarkeriaren biktime emakumezkoen arreta eskaintzen dieten sistemetan lan egiten duten profesionalen heziketa sustatzea.
- Indarkeriaren biktime emakumei arreta emate dieten udal erakundeak babestea.
- Formula berritzaileak ezartzea, indarkeriaren emakumezko biktimei laguntza integrala burutzeko, egoera horretatik irteteko prozesuan.
- Erasotzailea nabarmentzea ahalbidetzen duten formula berrien bideragarritasuna ikertzea, indarkeria jasan duten emakumeak berriro biktime bihurtzea saihestuz.

GENERO BERDINTASUNA

» 27.4 KONPROMISOA

BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETZEKO TRESNAK SENDOTU

27.4.1 Ekinbidea

Genero berdinketaren politiken koordinaziorako mekanismoak indartu

- Udal, Aldundi eta Gobernuaren arteko maila anitzeko lana sustatzea, berdintasun kontuetan funtsezko gakotzat hartuta.
- Xede komunak dituzten beste nazioarteko erakunde batzuekin lankidetzat sendotzea, berdintasun politiken diseinua eta ezarpena hobetze aldera.
- Berdintasun politikak implementatzeko aurrekontua handitzea.
- Gobernuko sail guztien politiketan berdintasunaren transbertsalitatea sustatzea.
- Berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen elkarte mugimenduekin erlazionatzeko tresnak indartzea.
- Ebaluazio prozesu zorrotzak garatzea, partaidetza eta gardentasun handiagoa emanez.



28. SEGURTASUNA

SEGURTASUNA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVren ikuspuntutik, segurtasuna ikusmolde integral batetik endelegatzen dugu, non pertsona baita ardatz nagusia, edozein motatako mehatxu eta arrisku hartzen ditu bere baitan ikuskera horrek. Segurtasunaren ikusmolde integral hori, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Planak jasotakoa, oinarria dugu gizarte seguruago bat lortzeko baliabide guztiak erabili ditzagun. Horretarako, sail, eta giza zein material baliabide guztien (poliziarenak, babes zibila, sanitarioak etab...) partehartze koordinatua sustatuko dugu, bai prebentzioan zein gertakarien konponketan.
 - Poliziaren sailean, Ertzaintza aldarrikatuko dugu Euskadiko polizia integral gisa, eskusibitate izaerarekin, maila operatiboan eta inteligentzian nazioarteko lan-kidetza lan zabala eskatzen duen Europaren baitan, nazioarteko foro guztietan izan dadin lagunduz, horretarako eskubidea baitu. Ertzaintza euskal polizia integrala dugu, bai Euskadin zein Europako gunean.
 - Euskadik komunitate erresilientea behar duela izan uste dugu, bada, arriskuak aurre ikusi, kudeatu, kalteak murriztu eta ezusteko gertakarien aurrean babesa ziurtatze xedez erabili behar ditu bere baliabide guztiak. Segurtasunaren gaineko egungo ikusmoldeak ondorioztatzen duen arabera, euskal gizarte ez da bakarrik diren arrisku ezberdinei aurre egiteko gai izan behar, gertakariak aurre ikusiz eta euren aurrean jardunez, baizik eta bere garapenean hartuko diren erabaki ezberdinek mehatxatu dezaketen arriskuak gutxitzea kontuan hartu dezatela.
 - EAJ-PNVren iritzian, segurtasuna mantentzeko ekimenen xede nagusia prebentzioa da, arrisku naturalak, teknologikoak eta antropikoak, gizakiaren ekintzaren ondorengoak, hartu behar ditu beregain. Gizarte seguru bat ber-
- matzeko funtsezko ardatz gisa prebentzioa, delitugintzari zein beste mota batzuetako arriskuei dagokienez, sustatzearen alde egingo dugu. Modu horretan, delitugintzaren polizia prebentzioan egin ahaleginei esker, delituei aurrea hartuz, benetako segurtasuna bermatzeaz gain, herritarrek segurtasunaz duten pertzepzioa handiagotzen da.
 - Kontu horretan eskumenak dituzten instituzio eta alor horretan diharduten erakunde pribatuen guztien artean koordinatutako jardunaren isla behar du izan segurtasunak, herritarren partehartze ere kontuan hartuz. EAJ-PNVrentzat instituzioen arteko kolaborazioa, subsidiarotasunaren printzipio mantenduz, koordinazio eraginkor batek gidatua, izan behar da Euskal Segurtasun Sistemaren ekintza esparrua. Modu horretan, segurtasunaren zeharkakotasuna garatzen den plan ezberdinetan islatu behar da, hauek guztiak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Planaren edukien arabera.
 - Segurtasunaren ardura duten euskal instituzioen hurbiltasunak komunikazio politika egoki bat, irisgarritasun erraza eta segurtasuna bermatzen duten elementuak ikusi ahal izatea ditu oinarri. EAJ-PNVrentzat, presentzia fisikoaz gain, herritarrari informazioa eskuragarri jartzeari, behar dituen tramiteak burutu ahal izateari, eta haren zerbitzu eskaerek lortu ditzaketen erantzunak eskaintzeari esker finkatzen da hurbiltasun hori, betetzen ari den funtzioari herritarrei eman tratua egokitzea ahaztu gabe.
 - Orobat, EAJ-PNVren iritzian, ekimenean gardentasuna izateak eta kontuak emateak, antolakuntza maila guztietan, bermatu egiten dute ekimenak eta Ertzaintzak finkatu beharreko hurbiltasunaren eredua bat etorriko direla.
 - Bestalde, segurtasunaren euskal zerbitzua osatzen duten lagunek beharrezko heziketa izan behar dute, bai ikuspuntu teknikoari zein gaitasun pertsonalari dagokionez, eta zerbitzu publikora egoki zuzenduak izan behar dira. Arrisku berriak, delitu modalitate berriak eta teknologien aurrerapena izan behar dira heziketaren jomugak.
 - Era berean, arrisku eta mehatxu ezberdinei eman erantzunak azterketa zehatz baten mende izan behar du, eta ezarritako prozedurei erantzunez, etengabeko hobekuntzan oinarrituta, Hor-taz, EAJ-PNVk antolakuntzaren maila guztien partehartzea sustatzearen alde egingo dugu, baloratu ahal izateko ekimenak aztertuz gain, eta horri esker hobekuntza prozesuak gehitzea lagunduko duten neurri zuzentzaileak erantsi ahal izatea.
 - Era berean, gure ustez, berrikuntza erreferentzia iraunkorra izan behar da segurtasun zerbitzuen garapenean. Berrikuntza ondo egokitu behar da antolakuntzan eta aliantza egokiak bideratu behar dira inteligentziaren garapenak, materialak etab. lortu ahal izateko, Europako berrikuntza programetan partehartzeari uko egin gabe.

SEGURTASUNA

» 28.1 KONPROMISOA

ERTZAINZTA SUSTATU EUSKADIKO POLIZIA INTEGRAL GISA ETA NAZIOARTEKO FOROETAN HAREN PARTEHARTZEA ETA EUROPAKO POLIZIEN INFORMAZIO ETA INTELIGENTZIA ESKURAGARRI IZATEA LAGUNDU

<p>28.1.1 Ekinbidea Euskadiko poliziaren lege berri bat onartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2016ko apirilaren 26an onartutako, eta Legebiltzarrerara bidalitako, Poliziaren Legearen aldakuntzaren Lege Proiektuan oinarrituta, eta adostasun eta indarreko legeari egokitzapen printzipioei jarraiki, Euskadiko Poliziaren Lege berri bat onartzea planteatuko da, herritarren eskaerei eta euskal gizartean aurkezten diren erronkei erantzuna emateko.
<p>28.1.2 Ekinbidea Euskadiko polizia integral gisa ertzaintza aintzat hartzea eskatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadin burutzen diren jardun guztietan eskumenak errespetatzeko eskatzea Ertzaintzak ebatzi ditzan, Estatuko Segurtasun Indarren interferentziarik gabe. • Estatuko Segurtasun Indarren presentzia beren eskumeneko funtzioak (atzerritarrak, mugak, suzko armen legeria...) betetzeko bakarrik beharrezko indarrak erabiltzeko egokitzea. • Ertzaintzan sartzeko promozioen deialdietan oztupoak ezabatzea.
<p>28.1.3 Ekinbidea Nazioarteko foroetan partehartze zuzena eta europako polizien informazio eta inteligentzia eskuratzea lagundu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ertzaintzaren presentzia Euskadin eragina duten segurtasun kontuak jorratzen dituzten foroetan eta nazioarteko bilkuretan, hala nola, Europol, Europako Segurtasun Biltzarrak... • Eskubide osoko kide bezala haren presentzia sendotzea, Estatuko poliziei dagozkien eskubide eta betebeharrak berberekin, Ertzaintzaren jardunak Euskadin polizia eskumen guztiak bereganatzen baititu aipatu foroetan jorratzen diren gaiei dagokienez. • Nazioarteko datu-baseetara Ertzaintzak zuzeneko sarbidea izan dezan, bere eskumenak erabiliz, mekanismoak ezartzea. • Estatutuko Segurtasun Indarren baldintza berberetan parte hartzea CITCO-n, eta Estatuko Segurtasun Idazkaritzaren mende izan gabe.
<p>28.1.4 Ekinbidea Ertzaintzaren eginkizuna sendotu delitugintza mota berri eta delitu estrategikoen aurrean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Islamismo erradikalaren aurkako Plan Estrategikoaren ezarpenean sakontzea eta arrisku terroristen aurreko prebentzio, babes eta erantzun prozedurak garatzea. • Gizarte alarma handia sortzen duten delitugintza motak (delitu ekonomikoak, zibernetikoak, ingurumena, etab.) jorratzen dituzten lantaldeak sendotzea, fiskaltza eta epaileen arteko ekimenak koordinatuz. • Genero indarkeria delituei trataera berezia eskaintzen jarraitzea, arriskuan diren lagunen babesa nabarmenduz.

» 28.2 KONPROMISOA

ERTZAINZAREN ARRETAREN ARDATZEAN KOKATU EUSKAL GIZARTEA

<p>28.2.1 Ekinbidea Herritarrengana hurbildu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren artean konfiantzazko jarrerak sustatzea, haiengana hurbilduz, bai poliziaren instalakuntzak zabaltzeko ekimenen bidez bai hurbileko figurak balioztatzearen bidez, "hurbiltzailea" esaterako. • Ertzaintzak eskaintzen dituen sorospen zerbitzuei balioa ematea, haren jardunaren parte handi bat horretan ematen baitu. • Ertzaintzaren aldeketa, herritarrei arreta eskaintzeko gune bihurtuz, erosoak, abegikorak eta funtzionalak. • Tramiteak arintzea eta arreta pertsonalizatua sustatzea, bai aurrez aurrekoa zein telematikoa, arreta berezia eskainiz delituen eta trafiko istripuen delituei. • Herritarrekin sortu harremanetan euskaren erabilera bultzatzea, une oro hizkuntza eskubideak bermatuz.
---	---

SEGURTASUNA

<p>28.2.2 Ekinbidea Gizartea partaide bihurtu zerbitzuak diseinatzean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde publiko eta pribatuekin, eta gizarte ordezkariekin, kolaborazio hitzarmenak ezartzea, eta horri esker gizarteak eskatzen dituen zerbitzuak aztertu ahal izatea, eta halaber, eskaintzen diren zerbitzuak hobetzeko beharrezko konplizitateak lortzea. • Ertzaintxeetatik herritarrengana hurbiltzeko egiten den lana sustatzea, haien eskakizunak bideratzeko gai. • Ertzaintzaren zerbitzuen katalogoa garatzea, herritarren erreguak, beren itzaropenak eta eskakizunak kontuan hartuta.
<p>28.2.3 Ekinbidea Gardentasuna sustatu gizartearekin dituen harremanetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jardunaren eta emaitzen gaineko kontu publikoak ematea aldiro erakundearen maila guztiek parte hartuz, herritarretatik hurbilen diren Ertzaintxeetatik ekinez. • Kode deontologikoan jasotako etika printzipioak betetzea, eta pertsonak tratatzean lehenetsi egin behar dira. • Tratu eta aukera berdintasuna eta aniztasunari eta ezberdintasunari zor errespetua indartzea, gizarte aldaketak balioztatzen baitituzte eta gizakiaren eta haren eskubideen bermea.

» 28.3 KONPROMISOA

ERTZAINZA MODERNOA ETA BERRITZAILEA SUSTATU, HEZITAKO LAGUNEZ OSATUA, HERRITARREN ARAZOAK KONPONTZEA XEDE

<p>28.3.1 Ekinbidea Informazio eta telekomunikazio sistemak gaurkotu eta modernizatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio eta Komunikazio Sistemak Modernizatzeako Plan bat garatzea, egungo beharrezanekin bat datozen ereduera migratu ahal izateko, bai herritarrei arreta eskaintzean, bai eskakizun operazionalan eta iragarpen ereduaren inteligentzia beharrezanetan. • Berrikuntza euskal eragileekin batera egindako lana sustatzea, eta horri esker segurtasunaren esparruan I+G+b-ren emaitzak kapitalizatu ahal izateko. • Ertzaintzaren lan arlo bakoitzean berrikuntza talde eta inguruneak sortzea, era horretan beharrezan atzeman eta konponbideak proposatu ahal izateko.
<p>28.3.2 Ekinbidea Hobekuntza iraunkorreko eredu bat ezarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Barne auditoretzen sistema bat ezartzea etengabeko hobekuntzara zuzenduak, jarduneko sail eta antolakuntza maila guztiak barne hartuz. • Praktika egokien identifikazio eta ezarpen sistematika bat finkatzea erakundearen maila guztietan.
<p>28.3.3 Ekinbidea Ertzaintzaren heziketa tekniko gaurkotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaitasun tekniko delitugintza errealitate eta teknologia berrietara egokitzea, horrela, erronka berriei aurre egingo dien lan taldeak osatu ahal izateko, edo kanpoko lankidetzen bidez. • Erakundearen maila guztietan lidergoaren gaitasuna garatzea, maila bakoitzean arduradunei beren gaitasuna aintzat hartzea lortuz. • Hizkuntzen heziketari bultzada ematea, euskararen ezagutzari bereziki, Euskararen Erabileraren Normalizazio Planean ezarritakoaren arabera.
<p>28.3.4 Ekinbidea Ertzaintzaren egiturak eta antolakuntza modernizatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Horizontaltasuna eta antolakuntzaren malgutasuna sustatzea, erreakzio eta erantzun gaitasuna bermatu ahal izateko. • Trebezia eta gaitasun sozialak garatzea gatazken konponbidea errazteko, Ertzaintzaren izaera soziala balioztatuz. • Erakunde lagunek hobekuntza ekimenetan parte hartu dezaten sustatzea.

SEGURTASUNA

» 28.4 KONPROMISOA

EUSKAL POLIZIAREN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA TINKATU

<p>28.4.1 Ekinbidea Udal polizien eta ertzaintzaren arteko hitzarmen eta lankidetzako protokoloak lantzeko aurrera egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzako hitzarmenak, funtzio mugaketen protokoloak, eta jardun koordinatu prozedura orokorrak, eta demarkazio bakoitzari egokituak, ezartzea eta bultzatzea. • Tokiko Polizia Koordinazio Batzordeak finkatzea. • Aukeraketa-formazio, ekipamendu, prozedurak... jorrazteko lantaldeen sustapena.
<p>28.4.2 Ekinbidea Beste polizia batzuekin informazio eta datu trukatzeko sendotu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak trukatzeko eta partekatzeko sistema automatiko bat diseinatzea eta mantentzea, indarren koordinazioa hobetu xedez. • Tokiko Poliziak "Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroan" (EPDPZ) integratzea.

» 28.5 KONPROMISOA

GURE ERREPIDEETAN SEGURTASUNA ETA MUGIKORTASUNA HOBETU

<p>28.5.1 Ekinbidea 2015-2020rako bide segurtasun eta mugikortasun seguru eta jasangarriaren plan estrategikoan jasotako neurriak ezarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bide segurtasunaren aldeko kontzientziazio programak sustatzea, kolektibo ahulenak babestekoak bereziki. • Trafikoaren kudeaketa hobetzea bide nagusietan eta bigarren mailako errepideetan, haien jabe diren instituzioekin informazio eta koordinazio sistema berriak erabiliz. • Hiriguneetan mugikortasun seguru eta jasangarria sustatzea tokiko erakundeekin elkarlanean, baliabide gutxi dituzten haiek nabarmenduz.
<p>28.5.2 Ekinbidea Gure kale eta errepideetan trafiko istripuetan hildakoen kopurua murriztu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2010 urtean hildakoekin alderatuta, 2020an hildakoen kopurua %50 gutxitzeko europar konpromisoarekin bat egitea. • Teknologia berrien erabilpenean sakontzea, modu seguruan, bideen erabiltzaileen zerbitzura, bide segurtasuna eta mugikortasun jasangarria bermatzeko. • Jarrera desegokiak zuzentzea, bide heziketa, kontzientziazioa eta beharrezkoa den kasuetan hertsapenezko neurriak sustatzeko prozedurak ezarri.

SEGURTASUNA

» 28.6 KONPROMISOA

EUSKADIKO HERRITARREI AISIAREN GOZAMENA ASKATASUNEAN ETA SEGURTASUNEZ BERMATU

<p>28.6.1 Ekinbidea Jokoan eta ikuskizunen segurtasuna zaindu, haiek kontrolatuz eta kontzientziazioaren bidez</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikuskizunak eta olgetarako jarduerak ospatzen diren gune ezberdinen gaineko informazioa eta kontrola izateko koordinazioa eta elkarlana gehitzea. Ikuskizunen eta jokoaren kontuetan barne eta kanpo heziketa eta informazioa indartzea, bai kontrolaren ardura dutenentzat zein erabiltzaileentzat, ikastetxeei eskaini arretan ahalegin berezia eginez. Ikuskaritzarako ahalmenak indartzea, Joko eta Ikuskizunen Unitatearen laborategia gaurkotuz, sektorearen eboluzio teknologikoarekin bat eginez.
<p>28.6.2 Ekinbidea Jokoaren sektorearen gaineko ezagutza eta enpresa operatzaileen konpromisoa hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Jokoaren Behatokiaren sorkuntza, jokoaren egoera eta garapena zainduko duen organoa, bai administrazioei bai enpresa operatzaileei erabakiak hartzean eta etorkizuna planifikatzean laguntzeko. Gizarte Erantzukizun Korporatiboa sustatzea jokoaren sektorea osatzen duten enpresetan.

» 28.7 KONPROMISOA

AZPIEGITURA KRITIKOEN ETA FUNTSEZKO ZERBITZUEN BABESA BERMATU

<p>28.7.1 Ekinbidea Euskadirentzat funtsezko zerbitzu edo nabarmenak direnen identifikazioan aurrera egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura kritikoak eta Euskadirentzat funtsezko zerbitzu nabarmenen identifikazio eta jarraipen sistema bat ezartzea. Euskadi mailan kritikoak diren azpiegitura eta zerbitzuak zehaztea.
<p>28.7.2 Ekinbidea Azpiegitura kritikoek eta funtsezko zerbitzuen eredu propio bat ezarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> Operatzaile publikoek eta pribatuek gobernantza azpiegituren eta funtsezko zerbitzuen eredu berri bat diseinatzea, zerbitzua mantentze aldera. Azpiegitura kritikoek eta funtsezkoen babes planen lanketan eta ezarpenean kolaboratzea.

» 28.8 KONPROMISOA

ALERTA ETA HERRITARREN AUTO-BABES SISTEMA INDARTU

<p>28.8.1 Ekinbidea Herritarrei abisuak helarazteko prozedura pertsonalizatua bideratua</p>	<ul style="list-style-type: none"> Alderantziko 112-an (reverse 112) oinarritutako abisuak emateko prozedura bat abiaraztea, arrisku zehatzen batek mehatxatutako herritarrak modu zuzenean ohartarazi ahal izateko. “Kartara jarritako” sistema bat ezartzea, horri esker herritarrak zenbait arriskuen edo aukeraturako eremuen araberako abisuen prozedura batean kidegu ahal izango dira.
<p>28.8.2 Ekinbidea Herritarren auto-babesa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko herritarren auto-babesaren kultura sustatzea, arrisku natural edo teknologikoen berri emanez (abisuen edo aholkuen bidez), horri esker, arriskuon gaineko prebentziozko neurriak hartu ahal izango dira eta egoki kudeatu, kalteak gutxituz. Gertatu litezkeen arrisku egoeren gaineko informazio sistema jarraitu bat ezartzea, informazio egia, azkar eta oso baten bidez auto-babesa bermatu ahal izateko.

SEGURTASUNA

» 28.9 KONPROMISOA

EUSKADIKO LARRIALDIEN ARRETARAKO SISTEMARI EUSKAL KOSTALDEKO ITSAS-SALBAMENDUAREN ESKUMENA GEHITU

<p>28.9.1 Ekinbidea Itsas-salbamenduaren eskumena transferitzea eskatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontu honetan Gernikako Estatutua eraginkor bete dadila eskatzea, Eusko Jaurlaritza itsas-salbamendurako baliabideak erabiltzen baititu itsasoko lagunen segurtasuna bermatzeko, estatutua betetzen ez den arren eta ezta Estatuak inongo kontraprestaziorik eskaini. • Eusko Jaurlaritzak finantzatutako, edo Autonomia Erkidegoaren jabegoko bitartekariekin erabilitako, baliabideen mobilizazioaren erantzukizuna mugatzea SASEMAR-ekin.
<p>28.9.2 Ekinbidea Itsas-salbamenduaren erantzun sistema bete eta eraginkor bat diseinatu, kontu horretan nazioarteko eskakizunen arabera</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen arteko harreman eta koordinazio sistema egoki bat ezartzea, kontzertazioan oinarritua, sinerjiak sortu eta euskal instituzio guztien ahalmenak eta baliabideak gehitu ahal izateko, bai prebentzioa bai itsasoko erabiltzaileen arriskuen aurrean erantzuna hobetuz. • Itsasoan salbamendu lanetan aritzen diren lagunak gaitzea, ezagutza maila egokia bermatuz eta heziketa homogeneoa eskainiz, Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiaren bidez.

» 28.10 KONPROMISOA

GERTAKARI KONPLEXUETAN ESPEZIALIZATUTAKO INSTITUZIO EZBERDINETAKO TALDEEN EKIMEN ETA INTERBENTZIO PROZEDURAK HOMOGENEIZATU

<p>28.10.1 Ekinbidea Larrialdi eta disziplina anitzeko gertakizunetan prozedura komunak erabiltzea bermatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Disziplina anitzeko lantaldeen estandarizazioa sustatzea, kolapsoa jasandako egituretan eta antzeko ezbeharretan, nazioarte mailan USAR (Urban Search and Rescue) akronimoaz deituak, era horretako gertakarien aurrean erantzun integratu eta homogeneoa eman ahal izateko. • Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren barruan disziplina anitzeko lantaldeen estandarizazioa bultzatzea, arrisku nuklearra, erradiologikoa, biologikoa eta kimikoa duten egoeretan partehartzeko, era horretako ezbeharren aurrean erantzun integratu eta homogeneoa eman ahal izateko.
<p>28.10.2 Ekinbidea Disziplina anitzeko ekimen konplexuetan lantaldeen integrazioa gehitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lantalde espezializatu ezberdinen artean simulakro bateratuak burutzea, hondamendien aurreko jardunetan sinkronizazioa eta koordinazioa bultzatuz. • Interbentzio horietan jarduten duten lagunen gaitasuna gehitzea, ezagutza maila eta heziketa homogeneoa bermatuz.



29. JUSTIZIA ERAGINKORRA

JUSTIZIA ERAGINKORRA

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

EAJ-PNVtik justizia eskuragarri bat proposatzen dugu, pertsona eta kolektiborik ahulenak ardatz, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Eraginkortasuna, berrikuntza eta kalitatea. Justizia Administrazio irekiago baten eredu defenatzen dugu, gardena, arina eta eraginkorra, eta Euskadiko Administrazioak partaidetza nabarmena izango du. EAJ-PNVren iritziz, kontu honetan autogobernuan sakontzea, aldarrikapen politiko legitimoa izateaz gain, eraginkortasunaren premisa bat da. Egungo konplexutasun instituzionala gainditzea eta Justizia Administrazioaren antolakuntzan disfuntzioak konpontzea defenatzen dugu. Justiziaren administrazioaren giza baliabideen eta materialen kudeaketa hobetzea dugu xede, zerbitzu publiko berritzailea eta kalitatekoa lortzeko, sistema demokratiko ororen funtsezko gakoak baita.
- Justizia Administrazio propioa eta elebiduna. Estatuko Botere Judiziala izateari kalterik egin gabe, Justizia Administrazioaren kudeaketa aurreratua ezin izango da erdietsi funtzionarioen kidego propioa eta izaera bereko Justizia Administrazioaren Letraduak izan gabe. EAJ-PNVren iritziz, premisa hori funtsezkoa da bulego judiziala gobernatu ahal izateko eta kudeaketa eraginkorreko eta euskal herritarren eskubidearen bermea gauzatzeko, hau da, Justizia Administrazioarekin harremanetan hizkuntza aukeratu ahal izatea.
- Justizia tutoretza eraginkorra. Justizia Administrazioa pertsonen mailan kokatuz eraiki nahi dugu etorkizuna. Justizia tutoretza eraginkorra bermatze xedez,

herritarren eskura jartzea eta beren eskubideak erabili ahal izateko berdintasuna oztopatzen duten oztopo guztiak ezabatzeko konpromisoa hartuko dugu EAJ-PNVn. Batez ere, desabantaila gehien dituzten kolektiborik ahulenak, baliabiderik gabeko lagunak, adin-txikioak eta delituen biktimak, genero indarkeria jasan dutenak bereziki.

- Justizia konpontzailea eta berritzailea. Kontrakoaren justizia eredu gatazka juridikoen konponbiderako sistema alternatibo eta eraginkorrekin aldatu beharra dago, parteen partaidetza erraztuz, bada, gizarte bake sendoagoa eta iraunkoragoa lortu ahal izatea, horren ondorioz, zigor kontuetan justizia konpontzailearen teknikak gehiago erabiltzea ondorioztatu beharko luke, delituaren biktimen beharrezko lehentasuna emanaz.

- Justizia Administrazio digitala: Justizia txosten elektronikoa. EAJ-PNVren iritzian, gizarte aurreratu batean, Justiziaren zerbitzu publikoren funtzionamendu egokiak teknologia berrien, komunikazioen, elektronikoen, informatikoen, eta telematikoen erabilpenean etengabeko gaurkotzea eskatzen dio Justizia Administrazioari, eta halaber, profesionalekin eta herritarrekin dituen harremanetan, berme prozesalak kaltetu gabe betiere.

***EAJ-PNVtik
justizia
eskuragarri bat
proposatzen
dugu, pertsona
eta kolektiborik
ahulenak ardatz***

JUSTIZIA ERAGINKORRA

» 29.1 KONPROMISOA

GATAZKEN KONPONBIDE ALTERNATIBORAKO SISTEMEN INSTITUZIONALIZAZIOA SUSTATU

<p>29.1.1 Ekinbidea Gatazka judizialen konpontze alternatiborako protokolo berri bat abiarazi</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimaren Estatututik ondorioztatutako eskaerei egokitutako deribazio protokolo berri bat lantzea. • Protokolo hori garatzeko Araudi bat lantzea eta ezartzea.
<p>29.1.2 Ekinbidea Gatazka konpontzeko era gisa bitartekaritza sustatzea behin betiko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Auzitegi Barruko Bitartekaritza Penalaren giza baliabideak eta materialak handitzea. • Laguntzen programa bat diseinatzea, jurisdikzio zibil, merkantil, sozial, administrazioarekiko auzi esparruetan bitartekaritza sustatzeko, zerbitzuok entitate pribatuek eskaini ahal ditzaten. • Ikastaro, jardunaldi eta mintegiak eratzea profesionalentzat eta interesa agertzen duten herritarrentzat, bitartekaritza hedatzeko eta haren abantailen gaineko kontzientziazio soziala. • Bitartekaritzaren emaitzen aldizkako azterketak, beren eragin penalen eta eskaintako kalitatearen gainekoak. • Bitartekaritza praktikatu ahal izateko, lotura mekanismoak ezartzea Biktimaren Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) eta Auzitegi Barruko Bitartekaritza Sistemaren (ABBS) artean. • Arlo honetan lanean diharduten entitate pribatuekin lankidetzan aritzea, Elkarlaneko Eskubidearen erabilera hedatu, ezarri eta finkatzeko, gatazka konpontzeko eta abokatutzan profesionalki jarduteko modu berri baten gisa.

» 29.2 KONPROMISOA

BETEARAZPEN PENALAREN EUSKAL EREDU BAT BULTZATU

<p>29.2.1 Ekinbidea Presondegiatako instituzioen alorreko eskumena kudeatu, zigorren errehabilitatzeko funtzioa bermatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Presondegiatako alorrean, Gernikako Estatutuan jasotako eskumenak transferitu daitezzen exigitzea.
<p>29.2.2 Ekinbidea Betearazpen penalaren eta presondegitik irtendako lagunak gizarte eta lanean birgizarteratzeko sistema aurreratu bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zigorrek kudeatzeko Euskal Zerbitzuaren (ZKEZ) giza baliabideak eta materialak hedatzea, bete-betean eta epearen barruan bete ahal izateko presondegiaren ordezkotzat neurri guzti guztiak eta zigorraren etenaldiaren eraginkortasuna. • Bitartekaritza betearazpen penalaren faserak hedatzea eta esperientzia pilotuak burutzea konpontze justiziaren beste teknika batzuekin, esaterako, presondegitik irteten diren lagunak birgizarteratzeko laguntza zirkuluak. • Justizia terapeutikoko neurri eraginkorrak ezartzeko sistema bat sortzeko espezializatutako baliabide materialak eta pertsonalak habilitatzea. • Zigorra betetzen duten eta preso dauden lagunak benetako gizarteratzea eta laneratzea posible egiteko ezinbesteko aurrekontuen baliabideak gehitzea, xede hori lortzeko arrazoizko epealdi baten zehar haien ongizatea ahalbidetuz.

JUSTIZIA ERAGINKORRA

» 29.3 KONPROMISOA

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ETA ADINEKOEN ARRETA HOBETU

<p>29.3.1 Ekinbidea Epaitegietan genero indarkeriaren biktimek jasan bigarren mailako biktimizazioak gutxitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sorospen letratu espezializatua eta nahikoa, adierazpenetan atzerapen eta luzatzeak ekiditeko. • Arrazoizko pribatutasuna eta erosotasun nahiko eskaintzen dituzten bulegoak. • Genero indarkeriaren biktimen seme-alabentzat arreta profesionaltasunez eskaintzen duten guneak, bulego judizialean igarotzen duten epean. • Deribazio judizialaren bidez justizia deribazioarengatik Familia Elkarguneak hurbiltzea, zerbitzua sortu eta hornitu ahal izatea justifikatzen duten familiak biltzen diren tokietan.
<p>29.3.2 Ekinbidea V. Gazteriaren justizia plana garatu, adin-txikikoen arreta judiziala jasotzen du</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lege penalarekin gatazkan sartu diren adin-txikikoei ezarritako neurri judizial guztiei estandar altuekin arreta eskaintzeko nahiko plaza eskuragarri jartzea. • IV. Gazteriaren Justizia Planaren ebaluazioa eta V. Plana lantzea. • Kanpoko profesionalak aldizka ikuskatzea adin-txikiko arau-hausleen barneratze heziketa Zentroen funtzionamendu eta pertsonalaren sistemak. • Adin-txikikoetan delitugintzan atzera-egitearen gainean ikerketak egitea.

» 29.4 KONPROMISOA

EUSKAL HERRITARREI HIZKUNTZAREN AUKERA BERMATU, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANETAN

<p>29.4.1 Ekinbidea Justizia administrazioan elebitasuna garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza eskakizun zehatzak dituzten postuen nabarmentzearekin jarraitzea. • Hizkuntza gaitasunetan funtzionarioen heziketan sakontzea. • Esparru judizialean euskararen dinamizazioaren erabilera handitzea, beren funtzioak euskaraz garatzen dituzten lagunak hizkuntza erabiltzean orientatu eta laguntzen baitituzte. • Euskara erabiltzeko programak garatzea eta lantalde elebidunak sortzea.
<p>29.4.2 Ekinbidea “Auzia euskaraz” proiektua sustatu, prozesu judizialak euskaraz bakarrik bideratzeko xedez</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Iragan legegintzaldian burututako ekimenekin bat eginda, justizia euskalduntzeko “Auzia Euskaraz” programa bultzatuko da, mailaka zenbait epaiketa judizial euskaraz bakarrik garatu daitezkeen lortzeko xedez.

» 29.5 KONPROMISOA

EAEan JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN EUSKAL KUDEAKETA INTEGRALA SUSTATU

<p>29.5.1 Ekinbidea Justizia administrazioaren giza baliabideen kudeaketa propioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAEa transferitutako pertsonalaren kidego propioak sortzea eta kidetzea ahalbidetzen duten negoziazioa eta arau erreformak sustatzea. • Justiziaren Letratuen Kidegoa EAEa transferitzearen alde eragitea.
<p>29.5.2 Ekinbidea Ekipamendu eta egoitza judizialak berritu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mailaka egoitza judizialen ekipamendua berritzea. • Bergarako eta Bilboko Justizia Jauregietan interbentzio integrala burutzea. • Bizkaiko Probintzia Fiskaltzaren egoitza Henao, 9 Eraikinaren birgaitze eta handitze lanak amaitzea.
<p>29.5.3 Ekinbidea Egoitza judizialen antolakuntzaren kudeaketa hobetu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilboko Bulego Judizial Berriaren antolakuntzaren kudeaketan aldakuntza ezartzea.

JUSTIZIA ERAGINKORRA

» 29.6 KONPROMISOA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN KALITATEAREN KUDEAKETA SISTEMAN SAKONDU

<p>29.6.1 Ekinbidea Justizia administrazioan kalitateari bultzada</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitatearen Batzorde Autonomikoaren jarduna eragitea, urteroko kudeaketa plan bat ezarriz. • Euskadiko sistema judizialaren adierazleen agindu koadroa ezartzea. • Bulego judizialen kudeaketan kalitate agiriak lortzeko sustapena.
<p>29.6.2 Ekinbidea Justizia administrazioan lan baldintzen hobekuntza sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kolaboraziozko lan esparruak sortzea, "e-kolabora" proiektuaren bidez hobekuntza edo disfuntzioen eta gatazken konpontze aukerak identifikatu ahal izateko. • Lan arrisku eta arrisku psikosozialen prebentzioan koordinazio prozedurak lantzea.

» 29.7 KONPROMISOA

ESPEDIENTE JUDIZIAL ELEKTRONIKOA LORTU

<p>29.7.1 Ekinbidea Administrazioaren barruan kudeaketa elektronikoa integratu bat garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa Prozesalerako Sistemaren (Justizia Bat) berritze teknologikoa diseinatzea eta ezartzea. • Euskadiko alderdi judizial guztietako Epaiketa-aretoetan grabaketa eta bideo-konferentzia sistemaren berrikuntza teknologikoa burutzea. • Kudeaketa Prozesalerako Sistemaren osagarri izango den Agiri Kudeaketa Sistema bat ezartzea. • Operadore juridikoen eta Justizia Administrazioaren artean bete-betean ezartzea Justizia SIP Komunikazio Sistema, bai jakinarazpenetarako bai idatziak aurkezteko. • Doako eta Adin-Txikikoen Justizia moduluak ezartzea, Justizia Bat-en integratuz. • Poliziaren argiketak espediente judizialean erantsiko dituen Komunikazio Telematikokoaren Sistema ezartzea.
<p>29.7.2 Ekinbidea Beste administrazio batzuekin elkarlanean sistema informatikoak garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia Bat eta Estatuan ari diren kudeaketa prozesaleko gainerako sistemen elkar operabilitatea ezartzea.



30. BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- ETak bere amaieraren berri 2011n eman ondoren, elkarbizitzan emandako gizarte aurrerapen garrantzitsuak eta indarkeriaren amaiera ordenatuaren aurkako blokeo iraunkorrak nabarmendu dute 2012-2016 legegintzaldia. Garapen ezberdin hori krisialdi ekonomikoaren testuinguruan eman da, gizarte aldakor batean, eta munduan eraldaketa prozesu sakon eta zalantzez betetako bat gertatzen ari denean.
 - Horren ondorio gisa, bakearen aldarrikapenak, indarkeriaren amaierarekin lotua, “zahartze” azkarra jasan du euskal gizartearen. Iraganeko indarkeriaren hondarrekin lotutako antzinako agenda baten parte bilakatu da, betetzeko dituen hiru asignaturetan bereziki: ETaren arnagabetzea eta desagerpena, presondegiatiko politikaren aldaketa eta eragindako giza eskubideak urratzeagatik egin beharreko autokritika.
 - Egoera kontraesankor horretan, garrantzi handikoa izan arren gaurkotasuna galdu baitu, Oroimen Historikoaren egia aintzat hartzea bete beharra kokatu daiteke.
 - EAJ-PNVren iritzian, elkarbizitzaren agenda berri bat zabaldu da, batetik, oraindik orain ematen ari diren gure iragan hurbileko zenbait erroka integratzen ditu, ez baitute gaurkotasunik galdu, egiaren, biktimen, oroimen edo gizarteratze politikei dagokienez ikuspegi bateratzaileak eta etorkizunekoak eskatzen dituzte, eta bestetik, bizi behar dugun egungo garaian sortzen ari diren errokkak.
 - Erronka berri horiek identitate ezberdinen arteko elkarbizitzaren eztabaiden inguruan ardatzen dira, lotura zuzena dute aniztasunaren eta bizikidetzan edo hezkuntzan elkartasunaren gisako ba-
- loreen gestioarekin, eta errealitateetan gauzatzen dira, hala nola, errefuxiatuak, migrazioak, erlijioen edo kulturen pluralitatea, bazterketa edo bidegabekeria modu berriak edo nazioarteko terrorismoaren mehatxua edo gerra. Era berean, elkarbizitzarako agenda berri hori zeharkotasunez osatzen da hezkuntza eta nazioarteratze errokkekin edo kontzertazioa edo adostasunaren bilaketarekin.
- EAJ-PNVren aburuz, alor horretako ekimenaren oinarria “bakea”ren ardatzetik “elkarbizitza eta giza eskubideetara” igaro da. Indarkeriazko hamarkaden ondoren, bakea finkatu beharra genuen elkarbizitza normalizatu ahal izateko. “Elkarbizitza eta giza eskubideak” ardatzak garai berri bat adierazten du, non gizarte eta politika erroka berrien aurrean, elkarbizitza sustatzearen alde egingo baitugu, giza eskubideekin dugun konpromisoa oinarri.
 - Hurrengo legegintzaldian, EAJ-PNVk bi ibilbide orri jorratzera zuzenduko ditu bere ahaleginak. Batetik, indarkeriaren amaierarekin betetzeke geratu diren hiru asignaturak integratzen dituen, oroimen historikoaren agendarekin batera, eta, bestetik, egun sortzen ari diren elkarbizitzaren asignaturak. Biak ala biak lotzen ditu zeharkako ardatz batek eta zentzu unitate berea ematen die.
 - EAJ-PNV iritziz, 2020ko Etorkizunari begira, elkarbizitza eta giza eskubideen gaineko proiektu berri bat sustatu beharra dago, arestian aipatu betetzeke dagoen agenda zein sortzen ari den agenda kudeatu ahal izateko.
- Xede horri jarraiki, EAJ-PNVn 2020rako Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Plan berri bat bultzatuko dugu, giza duintasunaren etika izango du ardatz, absolutu etikogisara ulertua, zeinen balore demokrati-koak eta gauzatze zehatzak ekimen politikoaren erdigunean kokatzen baititu pertsona eta haren giza eskubideak.

***EAJ-PNVn
2020rako
Elkarbizitza eta
Giza Eskubideen
Plan berri bat
bultzatuko
dugu, giza
duintasunaren
etika izango du
ardatz***

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

» 30.1 KONPROMISOA

ETAREN INDARKERIAREN AMAIERA ORDENATUA SUSTATU

<p>30.1.1 Ekinbidea Etaren armagabetzea bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • ETaren armagabetze eta desagerpenerako Eusko Jaurlaritzaren proposamena indartzea eta garapena. 2014ko abenduaren 2lean Eusko Jaurlaritzak kaleratu agiria indarrean dago oraindik orain, armagabetze azkar, bideragarri eta estaldura sozial, internazional eta instituzionalaren babesa duen prozesu bat gauzatu ahal izateko.
<p>30.1.2 Ekinbidea Presondegien politika berria eragin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzen Bidean Proposamena garatzeko akordioak sustatzea. Agiri horrek 20 proposamen zehatz jasotzen ditu, ETaren amaiera ondoren, zigorrei dagokienez eta presondegiatan egoera normala bizitzeko. • Presondegien eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzeari bultzada ematea. • Presoak beren familiaren etxeetatik gertu diren kartzeletara hurbiltzea.
<p>30.1.3 Ekinbidea Iraganaren gaineko hausnarketa kritikoa sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendu Programaren garapenarekin jarraitzea. • Iraganean gertatutako giza eskubideen urraketen gaineko autokritika partekatze gozbidapena zabalik mantentzen duten ekimenen garapena.

» 30.2 KONPROMISOA

OROIMEN HISTORIKOAREN EGIAREN GAINEKO ETA BIKTIMEI KONPONKETA MORALA ESKAINTZEKO ARGITZE ETA AINTZAT HARTZE INSTITUZIONALA BURUTU

<p>30.2.1 Ekinbidea Desagertutako lagunen senideei erantzunak eskaini</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gorpuak lurretik ateratzeko eta Identifikatzeko Planaren garapenarekin jarraitzea. • Identifikazio prozesuak indartzea, ADNren banku bat sortzearen bidez, bada, lotu egingo zaizkio datu generikoen base bat eta web bilatzaile bat desagertutako lagunak bilatzeko.
<p>30.2.2 Ekinbidea Frankismoan giza eskubideen urraketen egiaren mapa burutzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1936-1978 epealdiko giza eskubideen urraketen gaineko txosten-oinarria garatzea eta burutzea, giza eskubideen urraketei dagokienez frankismoan zehar gertatutakoaren egiaren maparen gaineko hurbilketa fidela eta zorrotza emate aldera.
<p>30.2.3 Ekinbidea Biktimen eta oroimen historikoaren aintzat hartze instituzionala bultzatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimen senideei konponketa moralaren sustapena, biktimaren izenarekin aintzat hartze egiaztapen baten bidez. • Oroimen Historikoaren egiaren gaineko euskal instituzioen aintzat hartze Akordio Politiko bat sustatzea.

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

» 30.3 KONPROMISOA

ADISKIDETZEAREN LAU OINARRIAK FINKATU: ARGITASUNA, BIKTIMAK, OROIMENA ETA GIZARTERATZEA

30.3.1 Ekinbidea Iragana argitu	<ul style="list-style-type: none"> Txosten eta ikerketen programa bat zehaztea eta garatzea, 1960-2010 epealdian zehar giza eskubideen urraketen gainean jazotakoa argitzea osatzeko.
30.3.2 ekinbidea Biktimak: biktimen aintzat hartze eta ordaintze prozesuarekin jarraitu	<ul style="list-style-type: none"> Azken legegintzaldietan garatu den biktimen politika publikoak indartzea, egia, justizia eta ordaintzearen eskubi-deetan oinarrituak, eta berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioan. Batera Konpromisoaren Programa lantzea eta garatzea, ekimen biktimen eta gizaratearen arteko batasuna eragiten dituzten ildoak zehaztuz. Errepresio bidegabea jasan duten Biktimen Aintzat Hartze eta Ordaintzeko Legea bultzatzea.
30.3.3 Ekinbidea Memoria: gogora institutua garatu	<ul style="list-style-type: none"> Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuarentzat 2016-2020rako oroimenaren gaineko politika publikoaren plana diseinatzea eta onartzea.
30.3.4 Ekinbidea Gizarteratzea: presoen gizarteratze eta bir-sozializazio politika garatu	<ul style="list-style-type: none"> Hitzeman Dekretua onartzea eta garatzea, bizikidetzeta politika publikoak arautzen duen araudia, presoen gizarteratze eta bir-sozializazio kontuetan. Jomuga dituen legezko printzipioak eta konstituzionalak garatuko dituen presondegetako eta gizarteratze politika bat sustatzea izango du xede arau-proiektu horrek. Hau da, zigorraren funtzio bir-hezitzailea eta bir-gizarteratze-koa xedetzat hartuta, gizaratearen aldeko eta bizikidetzazko politikaren parte gisa. Politika hori bat dator delituaren biktimentzat justizia leheneratzaile eta konpontzailearen Europako korranteekin.

» 30.4 KONPROMISOA

ANIZTASUNAREN BALIOA SUSTATU

30.4.1 Ekinbidea Erljioen arteko elkarrizketa eta aniztasunaren kudeaketa positiboa babestu	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketarako, lankidetzarako eta erlijioen arteko lanerako oinarritzko azpiegitura garatzea. Sinesmen ezberdinen ezarpenaren gaineko mapa soziologiko bat lantzea. Erakunde erlijiosoen erregistro bat sustatzea. Aholku eta proposamenak emateko izaera izango duen erlijioen arteko kontseilu bat artikulatzea.
30.4.2 Ekinbidea Aniztasunaren gidak landu	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrri edo eskualde bakoitzeko kultur eta erlijio aniztasunaren ezagutzarako tokiko gidak lantzeko agiri eredu bat sortzea.
30.4.3 Ekinbidea Aniztasunaren aldeko gizarte partaidetza sustatu	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren eta gizarte zibilaren elkarleen partehartzeren sustapena, giza eskubideen kontuan Eusko Jaurlaritzaren subentzio programetan aniztasunaren kudeaketa positiboa, arrazakeria, xenofobia edo gorrotzko delituen prebentzioa edo indarkeria, terrorismoa edo gerraren aurkako mobilizazioaren baloreak sustatuz.

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

» 30.5 KONPROMISOA

ELKARTASUNAK AURRERA EGITEA LAGUNDU, BIDEGABEKERIA ETA BAZTERKETAREN AURKA

<p>30.5.1 Ekinbidea Ahultasun altuko egoerak atzematea sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sailen arteko alerta mekanismo bat ezartzea, ahultasun altuko egoerak atzemateko giza eskubideen kontuan, haiek ikertu eta alternatibak zein erantzunak eman ahal izateko.
<p>30.5.2 Ekinbidea Errefuxiatuak eta migratzaileak jasotzeko esparru programa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Errefuxiatu eta migratzaileak jaso eta elkartasunezko gizarte kudeaketa, politika eta instituzioen arteko esparru agiri bat idaztea. Agiri horrek ekimenerako aholkuak eta proposamenak jasoko ditu. Eusko Jaurlaritzari dagozkion haiek haren ibilbide orria osatuko dute kontu horretan.
<p>30.5.3 Ekinbidea Partehartze asoziatiboa sustatu elkartasunerako</p>	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren eta gizarte zibilaren erakundeen inplikazioa sustatzea giza eskubideen arloko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza programetan, elkartasunezko baloreak eta desberdintasun, bazterketa, bidegabekeria, eskusio edo marjinazioaren modu kritikoaren aurrean gizartearen mobilizazioa gehituz.

» 30.6 KONPROMISOA

GIZA ESKUBIDEEKIN KONPROMISOA HARTZEN DUEN GIZARTEA SUSTATU

<p>30.6.1 Ekinbidea Bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bizikidetzaren eta giza eskubideen gaineko hezkuntza indartzea, giza duintasunaren pedagogian eta Gizalegez proiektuan oinarritutako proiektu bati esker, hiru ardatz nagusiek: <ul style="list-style-type: none"> - Indarkeriarik eza eta giza eskubideak. Ardatz horren arabera, biktimen hezitzaileen Adi-adian proiektua gaurkotuko da. - Aniztasuna eta giza eskubideak. Ardatz horri jarraiki, arrazakeriaren eta edozein motatako bazterketa etiketa kolektiboa prebentzioan oinarritutako den hezkuntza proposamena artikulatuko da. - Elkartasuna eta giza eskubideak. Ardatz horrek bidegabekeria eta bazterketaren aurrean enpatia sustatuko duen hezkuntza proposamena onduztatuko da.
<p>30.6.2 Ekinbidea Giza eskubideen gizarte dibulgazio programaren garatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ekimen horrek, beste jardun batzuen artean, urteroko kanpainari emango dio jarraipena Giza Eskubideen Eguna abenduaren 10ean ospatzen baita, René Cassin Saria bizikidetzaren gailentzen agendari gehitzea, eta alor horretan hitzarmena gaurkotzea EITBrekin.
<p>30.6.3 Ekinbidea Gazteria bizikidetzaren alde agertu dadin sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritza eta Gazteriaren Kontseiluaren arteko lankidetzaren esparru espezifiko bat sortzea, bizikidetzaren erronka berriei dagokienez. Esparru horrek bi ardatz izango ditu: kontseiluaren beraren hausnarketa zehatzen ekarpena eta bizikidetzaren gailentzen ari den agendari dagozkien gaietan gazteriaren artean dibulgazio eta partaidetza estrategia baten garapena. Ekimen horren ondorioz, Gazteriaren Kontseiluarekin dagoen lankidetzaren hitzarmenari emango zaio jarraipen eta egokitu egingo da.

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

» 30.7 KONPROMISOA

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA SUSTATU

<p>30.7.1 Ekinbidea Bizikidetza eta giza eskubideen alorrean nazioarteko erakundeekin kolaboratu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Nazioarteko erakundeekin lankidetza proiektuak garatzea, hala nola, Nazio Batuak, Europako Kontseilua edo Europar Batasuna, bizikidetza eta giza eskubideen alorrean. Ekimen horrek ondorioz ekarriko du Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariarekin lankidetza memoranduma gaurkotzea, edo jarraipena ematea Peace Europako programarekin lotura duten erakundeekin garatu esperientziei.
<p>30.7.2 Ekinbidea Giza eskubideen aldeko nazioarteko programetan parte hartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Giza eskubideen, gatazken konponbidearen, biktimen eta bakearen aldeko edo bazterketa, arrazakeria, indarkeria, terrorismoa edo gerraren aurkako ekimen, kanpaina edo programetan elkarlanean parte hartzea. Ekimen horri esker, besteak beste, Giza Eskubideen Defendatzaileen Programari emango dio jarraipen.
<p>30.7.3 Ekinbidea Bakearen eraikitze prozesuetan euskal ekarpena sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeriaren amaieraren euskal prozesutik abiatuta, bake prozesu eta gatazken konponbidean kolaboratzea, indarkeria eta gatazka suntsitzaileen testuingurua jasaten duten herrialdeekin nazioarteko lankidetzari bide emateko. Ekimen horren ondorioz, beste jarduera batzuen artean, euskal kasuan oinarritutako esperientzien gaineko agiri bat landuko da, beste testuinguru batzuetan kontuan hartu ahal izateko.

» 30.8 KONPROMISOA

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO KONTZERTAZIO POLITIKO ETA INSTITUZIONALERAKO ESPARRUAK SORTU

<p>30.8.1 Ekinbidea Bizikidetzaren aldeko indar politikoen foro bat sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bizikidetza eta giza eskubideen gaineko foro bat sortzea, bizikidetzaren alorrean oinarritzko adostasunak lantzea xede duten indar politiko guztien ordezkariarekin. Foro horrek adostasuna izan beharko du jatorri, ildo horretan, ezin izango da sortu legebiltzarreko ponentzia baten testuinguruan edo bestelako esparru batean, indar politikoen adierazitako borondatearen arabera.
<p>30.8.2 Ekinbidea Instituzioen arteko lanerako mahai bat sortu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hiru Aldundiekin eta Eudelekin Lanerako Mahai bat sortzea, bizikidetza eta giza eskubideei dagokienez gailentzen ari den agendarekin lotura duten politikak partekatzeke: kontzertazioa, aniztasuna eta elkartasuna.
<p>30.8.3 Ekinbidea Giza eskubideen alorrean aholku kontseilua eragin eta egokitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko legegintzaldietako Aholku Kontseilua mantentzea eta 2016-20rako Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plan berrira egokitzea, horrela, bere baitan artikulatu ahal izango da lankidetza publiko-pribatuko esparru bat erakunde eta gizarte eragileen artean, arreta berezia eskainiz alor asoziatiboko erakundeei eta giza eskubideak jorratzen dituzten hirugarren sektorekoei.

BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

» 30.9 KONPROMISOA

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALORREAN GOBERNANTZA BERRI BAT BULTZATU

30.9.1 Ekinbidea

Bizikidetza eta giza eskubideen plan berri bat landu, 2020ko etorkizunari begira

- Plan honek ondorengo ezaugarriak izango ditu:
 - Misio bat:

Enpatia politikan eta gizartean. Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren misioa enpatizatzeke gaitasuna duen politika eta gizarte bat sustatzea eta uztartzea izango da, betetzeke diren erronkei heltzeko, indarkeriaren, desberdintasunaren eta bidegabekeriaren egungo eta gailentzen ari diren erronkei.
 - Xede bat:

Konpromisoa giza eskubideekin. Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren xede nagusia giza eskubideekin konprometitutako bizikidetza esparru bat finkatzen laguntzea da, iraganeko memoria, egungo erronka eta etorkizuneko jomugei dagokienez.
 - Bi irizpide orokor:

Bi izango dira izaera orokorreko irizpideak Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketan: adostasuna edota aurrea hartzea.

 - Adostasuna. Adostasun anitz eta zabalak bilatu eta lortzeari lehentasuna ematea, bai esparru politikoa zein instituzioen artekoan.
 - Aurrea hartzea. Bizikidetzaren erronkei erantzuteko aurrea hartzea, gizartearen gehiengoaren borondatekin eta planaren oinarri etikoekin bat eginda.
 - Hiru irizpide espezifiko:
 - Generoaren dimentsioa gehitzea Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren ekimen guztien garapenean.
 - Planarekin lotutako politika publikoetan herritarren partaidetzarako bideak kontuan hartzea, proposatzea edo babestea.
 - Gobernuaren baitan sailen arteko zeharkako lankidetzaren artikulatzea bizikidetza eta giza eskubideen kontuetan, bereziki honako arlo hauetan: Hezkuntza, Kultura, gazteria, Unibertsitateak, Gizarte Gaiak, Justizia, Segurtasuna, Osasuna, Emakunde, Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpo Ekintza.



31. LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

31.A LURRALDE ANTOLAKETA HARREMANAK DIASPORAREKIN

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

- EAJ-PNVk herritarren borondatea errespetatuz ulertzen ditu euskaldunen eta beren lurraldeen batasuna. Alderdi gisa, etorkizunean Euskal Herriaren izaera nazionala nazioartean proiektatuko duen esparru politiko komuna partekatzea dugu jomuga. Xede hori lortzeko, erritmoa eta azkartasuna herritarrek ezarri behar dute askatasunez.
- EAJ-PNVk egunero lan egiten du Euskal Komunitate guztien artean harreman naturalak estutzearen alde. Lan zintzo horren oinarrian interes komuna dago, eta bere premisen artean elementu instituzionalak eta kulturalak sarean jartzea, harreman pertsonala, enpresa eta turismo lankidetzeta eta ordena guztietako azpiegituren integrazioa; horrek guztiak zonalde sozial eta ekonomiko bateratua sortzea du xede.
- Helburu horrekin, elkarriketa berri bat eraikitzeko eta euskaldunen artean eta beren errealitate instituzional ezberdinen artean hurbilketa lortzeko oinarriak ezartzea gura du gure bideak.
- EAJ-PNVk diasporarekin harremanak estutzearen alde egiten du, Euskal Komunitate Global bat sustatzeko, ez bakarrik lotura historikoei eta kulturek elkartua, baizik eta interes ekonomikoek, sozialek eta komertzialek ere.
- Euskal Etxeen sare fisikoa finkatzea proposatzen dugu eta sare birtualak sustatzea Euskal Komunitatea kanpoan batuta mantentzeko, arrazoi ezberdinengatik Euskaditik kanpo dauden iraganeko belaunaldiak eta baita gazteen belaunaldi berriak kontuan hartuz.

***EAJ-PNVk
herritarren
borondatea
errespetatuz
ulertzen ditu
euskaldunen eta
beren lurraldeen
batasuna***

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

» 31.1 KONPROMISOA

LURRALDE ANTOLAKETAN SAKONDU ETA INDARTU

<p>31.1.1 Ekinbidea Iparralde eta Nafarroarekin harreman instituzionalak indartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Akitania-Euskadi Euro-eskualdea indartzea Lankidetzaren Protokolo Orokorren bidez eta Mugaz Haraindiko 100 Lankidetzaren Proiektu abiaraztearen esker. • Berriki eratutako Iparraldeko Komunitatearekin harreman instituzionalak ezartzea. • 2016ko apirilean formalizatutako Euskadi eta Nafarroaren arteko Lankidetzaren Protokolo Orokorra garatzea, ezarritako arlo sektorial ezberdinetan Hitzarmen espezifikoaren bidez.
<p>31.1.2 Ekinbidea Mugaz haraindiko lankidetzaren indartu, eta EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean arlo guztietan lankidetzaren proiektuak sustatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mugaz haraindiko lankidetzaren indartzea Pirinioetako Lan Komunitatearen bidez. • EAE, Iparraldeko Komunitate, eta Nafarroako Komunitatearen artean lankidetzaren Plan Estrategiko bat lantzea. • Mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko kooperazioarako, foroetan eta elkarteetan parte hartzea.

» 31.2 KONPROMISOA

EUSKAL KOMUNITATE GLOBAL BAT BULTZATU, KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEEKIN HARREMANAK AREAGOTUZ

<p>31.2.1 Ekinbidea Euskal diasporaren ekarpena euskadin sozializatu, -"diasporizatu"- haren errealitatea eta ekonomia, kultura eta euskal gizarteari egin ekarpena ezagutzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal diasporaren ahozko eta ikus-entzunezko testigantzak biltzeari eta hedatzeari lehentasuna ematea. • Euskal presentzia atzerrian jorratzen duten lan akademikoak eta ikerketakoak sustatzea eta biltzea. • Euskal diasporaren presentziaren gaineko, hezkuntza arlora lotutakoak bereziki, hedapen ekimenak sustatzea Euskadin.
<p>31.2.2. Ekinbidea "Euskal etxeak" sare fisikoa indartu eta zabaltu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiren kanpoko proiektzioaren eta beren bazkideen artean hizkuntza eta euskal kultura hedatzearen alde egiten duten Euskal Etxeen ekimenak babestea. Horretarako, Euskal Etxeek antolatu ekimenak sustatuko dira eta herrialde jomugetan Euskal Etxeen ekimenak indartzea sustatuko dira. • Euskal Etxe berrien sustatzaileei laguntza eta babesa eskaintzea. • Euskal Etxe ezberdinen arteko interakzioa laguntzea, hauen artean eta gizarte jasotzailearen artekoa, eta baita beste diaspora batzuekin ematen dena, diasporako partaide diren lagunek, gazteek bereziki, Euskadiren errealitatearen gaineko ezagutza izan dezaten sustatzea. • Euskal Etxeak informazioaren eta telekomunikazioen teknologia erabili ditzaten eragitea. • Euskal Etxeen bizitzan gazteen presentzia bultzatzea. • Atzerriko Euskal Komunitatean zailtasunak jasaten dituzten lagunei arreta eskaintzea, muturreko beharizan egoeretan dauden familia unitateei laguntzak eskaintzearen bidez. • Atzerriko Euskal Komunitatea osatzen duten euskal herritarrek aholkatzea eta laguntzea, horrela nahi dutenei Euskadira itzultzea errazteko.

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

31.2.3. Ekinbidea

Basque Global Network sare birtuala sendotu

- “Basque Global Network”-entzat kide berriak lortzea eta bere jakintza hedatzea atzerrian presentzia duten lagun eta profesionalen artean.
- Sarean parte hartzen duen komunitatearentzat eduki interesgarriak dinamizatzea eta sortzea.
- Aurrez aurreko topaketak eta jarduerak sustatzea “BGN” sareko kideen artean, harreman birtuala osatzeko.
- Basque Global Network-eko kide aktiboak eta dinamizatzaileak aintzat hartzea.

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

AUTOGOBERNUA; ESKUBIDEETAN ETA ONGIZATEAN IRABAZI

- Euzko Alderdi Jeltzalearen konpromisoa eraikitzea da. Egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea hobetzea ahalbidetzen digun proiektu batean aurrera egitea. Autogobernua, gure gaitasunak eta aukerak garatu ahal izateko bermea, da eredurik onena. Autogobernuaren esparru propio hori hobetzeko tresnak behar ditugu. Errespetatuko diren erabakiak hartu ahal izateko tresnak. Gure erantzukizunekoak izanik, ez interfe-rentziarik ez mendekotasunik jasango ez dituzten gaitasunak. Euskadi nazio gisa juridikoki eta politikoki aintza hartzea eta hemen bizi garenok aske eta demokratikoki bere etorkizuna erabakitze-ko eskubidea behar ditugu, eta horretan eman du EAJk bere konpromisoa.
- Eusko Legebiltzarraren Autogobernuaren gaineko Ponentziak lan handia garatu du iragan legegintzaldian adostasun baten bila. Legebiltzarreko Talde guztiek azaldu zituzten beren tesiak eta planteamenduak aipatu Ponentzian eta, orobat, aipatu legebiltzarreko foroaren aurrean agertu diren adituen ekarpen doktrinak egiaztatu ahal izan dira.
- Ekarpen haiek guztiak abiapuntutzat hartuta, eta Eusko Legebiltzarrean estreinakoz parte hartzen dutenek eskaini ditzaketeenak kontuan hartuz, Eusko Alderdi Jeltzalearen iritziz, datorren legegintzaldian ezarri beharko da gure autogobernuaren erreforma eta gaurkotze proiektuaren izapide, eztabaida eta onarpen prozesua. Izaera parlamentarioa izango duen oinarritzko akordio horretarako, honako oinarriak proposatzen ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak:

***Euzko Alderdi
Jeltzalearen
konpromisoa
eraikitzea da.
Egungo eta
etorkizuneko
belaunaldien
ongizatea hobetzea
ahalbidetzen digun
proiektu batean
aurrera egitea***

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

31.B AUTOGOBERNUA SAKONDU. ESTATUTU POLITIKO BERRIA

» 31.3 KONPROMISOA

EUSKAL AUTOGOBERNUA GAURKOTZEKO OINARRIAK GARATU

<p>1. Oinarria Printzipio demokratikoa eta legalitate printzipioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal autogobernuaren gaurkotze prozesua legalitate printzipioa errespetatuz garatu beharko da, hau da, legezko esparruaren barruan, konstituzionalitatearen blokean ezarritako prozeduretara egokituz. • Edonola ere, herritarren borondatearen errespetuak une oro aurkitu beharko du ezarpenerako bide bat eta araudi juridikoan egokitu beharko da. Printzipio Demokratikoari jarraiki, balio nabarmena eta lehentasunezkoa izan behar du euskal herritarren erabakiak, horren arabera, Estatuak negoziatzeko beharra egin behar du bere eta beharrezko egokitzapen konstituzionalak eta legezkoak adostu euskal herritarrek adierazitako gurariari erantzuteko, finean, unilateralitate printzipioa baztertuz. • Nabarmendu beharra dago, edonola ere, etorkizuneko gaurkotze akordio hori gauzatzeak ezinbestez eskatzen duela Estatuaren borondate politiko positiboa, izan ere, printzipio demokratikoaren arabera, Estatuak eskatutako negoziazioari ekin beharko dio eta gure komunitate politikoaren proposamenerako gaitasuna aitortu.
<p>2. Oinarria Aniztasunaren errespetua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Identitate anitzek osatzen dute euskal gizartea, elkarrekiko errespetuan oinarritua bizi behar dira eszenatoki demokratiko batean. Eszenatoki inklusibo bat, tradizio politiko demokratiko guztien baldintza berdintasuna eta legezko zein partaidetza adierazpena aintzat hartuz. • Gatazka politikoak konpontzeko metodoa elkarriketan, negoziazioan eta indar politikoaren arteko akordio zabalean, edo, horrelakorik ezean, gizartearen gehiengo jarreraren errespetuan oinarritzen dela esaten duen printzipioa partekatu behar dugu.
<p>3. Oinarria Euskal Herriaren izaera eta nazio identitatearen gainean</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herria izaera propioa duen Herria dugu Europako herri guztien artean, ondare historiko, sozial eta kultural bakar baten jabe, eta geografari dagokionez zazpi lurraldetan kokatzen da, egun bi Estatutan kokatutako hiru esparru juridiko-politiko ezberdinetan antolatua. • Gure ustez, alderdi politikoek Euskal Herriaren egungo eta etorkizuneko antolaketa gainean izan ditzaketen ezberdintasunez harago, oinarrian Euskal Herria lotura sozialez, hizkuntzakoez, ekonomikoez eta kulturez osatu kultur nazio bat dela partekatu behar dugu. • Euskal autogobernua gaurkotzearen gaineko etorkizuneko akordioak Euskal Herriaren nazio identitatea aintzat hartzea proposatzen dugu. Aipatu aintzat hartzeak, bada, euskal gizartean nagusiki partekatutako nazio baten parte izatearen sentimendua jasoko du.
<p>4. Oinarria Eskubide historikoak eta erabakitzeko eskubidea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bere etorkizunaren gainean erabakitzeko eskubidea eta gaitasuna, galdetua izatekoa eta bere borondate demokratikoa errespetatua izateko eskubidearen jabe den sujeto juridikoa eta politikoa eratzen du Euskal Herriak. • Euskal Herriaren bere etorkizun propioa erabakitzeko erabilera, egun artikulatzen den esparru juridiko-politiko ezberdinetako herritarrek beren etorkizun propioaz galdetuak izateko eskubidean gauzatzen da. Hau da, esparru juridiko-politiko bakoitzaren borondatea errespetatuz. • Gure ustez, nazio historikoengan proiektatu beharreko erabakitzeko eskubidea aitortzea erreforma konstituzional baten bidez erabaki beharko litzateke edo, bere kasuan, Euskal Herriari omenka Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren Eskubide Historikoetan sakontzea hartu daiteke abiapuntutzat, Euskal Herria osatzen duten lurraldeetako jatorrizko, berezko eta konstituzioaren aurreko errealitate juridiko-politiko argi eta garbi aintzat hartuz, haren autogobernuaren jarduna legitimatuz eta etorkizuneko erabakitzeko eskubidea mantenduz, betiere haren herritarrek adierazi borondate aske eta demokratikoarekin bat eginda.

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

» 31.3 KONPROMISOA

EUSKAL AUTOGOBERNUA GAURKOTZEKO OINARRIAK GARATU

<p>5. Oinarria Autogobernuaz. Boterearen funtsa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Horri dagokionez, gure autogobernua gaurkotzea eta sakontzea izango dugu xede. Horrela bada, gure eskumenen ondarea berritzea eskatuko du, Europako eszenatoki ekonomiko eta sozial berrietara egokitze aldera —gogoratu dezagun gure egungo Autonomia Estatutua 1979an onartu zela— eta horrez gain, gure Estatutuaren baitan Euskadiren eskumenen edukiaren gainean azken hamarkadotan Estatuak eragin dituen haustura itzelak sendatzea. • Ildo horretan, gure ustez, adostuko den Estatutuaren erreforma Proiektuak ondorengo ardatzak jaso beharko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Eskumenen banaketa aldatzea, Euskadiko Erkidegoaren aldeko eskumen eskusiboen zerrenda zabal bat aitortze aldera, autonomiaren aldeko irakurketa zehatzekin, horren arabera, gure Erkidegoak legegintza boterea erabiliko du Estatuari ez dagozkion politika publiko eta eskumenen esparruetan, Euskal Instituzioei zerbitzu publikoen gainean, bere kudeaketa eta eskaintzeko ahalmenaren eskumenen titularitate bakarria aitortuz. - Subsidiarotasun eta hurbiltasun printzipioak gehitzea eta indartzea. - Hondar-klausularen printzipioa Euskadiren alde aldatzea.
<p>6. Oinarria Estatu Espainiarrarekin harreman erregimena: bermeen sistema bilateralala</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aldi berean, Estatu Espainiarraren eta Euskadiren arteko harreman politiko-instituzionala berriro egituratzeko beharrezko aldarrikatu behar dugu. Indarrean dagoen sistemak, Kontzertu Ekonomikoaren formulaz salbu, erabateko mendekotasuna ezartzen dio Euskadiko Erkidegoari Estatuarekiko, eta honen erabakiek gure Estatutuan zehaztutako autogobernu printzipioaren galera nabarmena eragin dute. • Hartara, harreman bilateral bat eratzea planteatu beharra dago, bi aldeak sujetu politiko gisa aurrez aintzat hartuta eta dagozkien akordioak hartzeko (autogobernuaren gaurkotzearen ituna) eta haren garapenean eta ezarpenean sortu daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzeko gaitasun nahikorekin. Eskema bilateralak, bi aldeen arteko zentzuzko orekaz, bere ko-existentzia, koordinazioa eta euren arteko akordio askea ziurtatzen du, lortutako akordioen (baimen-forala) aldaketa unilateralak saihestuz. • Harreman bilateralaren sistemaren egiturak Kontzertu Ekonomikoaren sistema izan behar du inspirazio iturri, haren arauak, organoak eta funtzioak...eta ondorioz, bi aldeen arteko elkar akordioaren printzipioa zentzuz eta arrazoiz gauzatu.
<p>7. Oinarria Harremanak Nafarroako Komunitate Foralarekin eta Iparraldeko lurralde euskaldunekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal autogobernuaren gaurkotze horrek herritarren garapenerako eta gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren ongizaterako egokienak irizten diren lotura politikoak eta udal zein lurralde mailako harremanak ezartzeko eskubiak hartu behar ditu aintzat, herritarren borondatea eta hauek ordezkatzeko dituzten erabakiak muga bakartzat.
<p>8. Oinarria Harremanak Europako eta Nazioarteko esparruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal autogobernuaren gaurkotze horrek, halaber, estatutu berriaren eskumenekin bat, Euskadik nazioarteko instituzio eta erakundeetan ordezkaturata egoteko gaitasuna hartu behar du aintzat, eta baita nazioarteko proiektzioa eta beste estatu, nazio, herrialde eta eskualdeekin kanpo harremanak izateko gaitasuna.

LURRALDE ANTOLAKETA ETA AUTOGOBERNUA

» 31.3 KONPROMISOA

EUSKAL AUTOGOBERNUA GAURKOTZEKO OINARRIAK GARATU

<p>9. Oinarria Bizikidetzaren eta gizarte kohesiorako hizkuntza politika</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskara, beste hizkuntza batzuek bezala, identitate eragile eta komunikatzeko bitartekari dugu, eta funtsezko oinarria da gure gizarte bizikidetzaren eraikuntzan. Armoniazko bizikidetzaren dugu xede, non aukera berdintasuna izango baita gakoa, horri esker, herritarrek beren hizkuntza aukera erabili ahal izango dute, ahalik eta modurik errealean, eraginkorrean eta berdintsuenean. Gaur egun euskarak urrun ikusten du gaztelarekin gizarte berdintasunean bizitzeko aukera, hortaz, testuinguru horretan, hizkuntza bien artean oreka egoera batera ahalik eta gehien hurbilduko gaituen hizkuntza politika sustatuko dugu, horretarako, ezinbestekoa da euskara sustatzeko politika eraginkorra burutzea, egungo desoreka gaituzte eta gure gizarte euskara eta gaztelaren arteko berdintasuna laguntzea izango ditu xede. Euskara berpizteko ibilitako bideak argi eta garbi erakusten digu zeintzuk diren hizkuntza baten garapen positiboan eragiten duten eragileak: legezko babes egoki bat izatea, hizkuntza politika eraginkorra eta sustatu ahal izateko baliabideez hornitua, eta herritarren borondatea eta atxikimendua. Horrela bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak berretsi egingo du euskarari babes egokia eskaintzeko eta hizkuntza politika pro-aktiboa eta eraginkorra sustatzeko borondatea, euskararen erabileraren sustapeneraren aldeko adostasun politikoa eta soziala oinarritzat hartuta eta indartzuz.
<p>10. Oinarria Kontzertu Ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskal estatuaren erreformak, orobat, xede gisara, Euskadiren autogobernu ekonomikoaren egituraren aldaketa jaso beharko du, eta, ildo horretan, Kontzertu Ekonomikoaren sistemaren finantza, ekonomia eta zerga erregimena gaurkotu beharko da.
<p>11. Oinarria Proiektu politikoa: Estatutua erreformatzeko proposamena</p>	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Legebiltzarrak, Autogobernuaren gaineko lanaren ondoren, autogobernua gaurkotzeko oinarri politikoak zehaztuko ditu. Prozesu horretan, oinarrien proposamenaren eta dagokion herritarren parte hartzearen hedapena lagundu behar dela uste dugu. Adostuko diren oinarrien arabera, egungo Autonomia Estatutua aldatzeko proiektu politiko eta juridiko bat idatziko da, eta Eusko Legebiltzarrak berretsi beharko du. Onartu ondoren, egokituz jotzen dugu aipatu estatutuaren erreforma horrek, Gorte Nagusietan izapideari ekin baino lehen, euskal herritarrek parte hartuko luketen Galdeketa Gaitzaile bat igaro behar izatea.

